

JOXEMIEL BIDADOR

Klasiko bitxi, arront klasiko

(material osagarria)



ARITZ GALARRAGAREN
edizioa



Joxemiel Bidadorrek *Euskaldunon Egunkaria*-ko *Nafarkaria* gehigarrian argitaratu zituen artikuluak bildu ditugu *Klasiko bitxi, arront klasiko* liburuan. Ez guztiak, ordea. Ezin: milioi eta erdi karaktere inguruko dokumentu bat atera zitzaigun artikulu guzti-guztiak bilduta. Horrexegatik, heren bat inguru utzi genituen paperetik kanpo, euskal literaturarekin, edo zehatzago, euskarazko testuekin zerikusirik ez zuten artikuluak, edo zerikusi gutxi zutenak. Material osagarri honetan bildu ditugunak, hain zuzen. Modu horretan, gure hasierako asmoa bete dugu, hau da, «Klasiko bitxi, arront klasiko» saileko corpus osoa, artikulu guztiak irakurlearen eskura uztea.

ARITZ GALARRAGA

AURKIBIDEA

1. Tuterako bertsolari judutarra: Yehudah ha-Leví..... 9
2. Khataroen aurkako gurutzada eta euskaldunak (1244) 11

XVI. mendeko

3. Interneten harrobia: 1505.eko Gurutze Sainduaren Othoitz..... 17
4. Sineskeriazko literaturaren adibideak I (1510, 1529)..... 19
5. Juan Itziar eta Pedro Madariaga bizkai semeak (1548, 1565)..... 21
6. Calvin Clan (1558, 1568) 23
7. Andres Poza Iartzaren ekarri zaharra (1587) 25
8. Euskara eta pidgin hizkuntzak..... 27

XVII. mendeko

9. Sanferminetako lehenengo bisitarietako: Jacinto Aguilar (1628)..... 31
10. Luis Mur tuterarraren gainean (1640, 1645) 33
11. Juana Ines Asbaje (1689) 35
12. Parantzerkiaren adibide bi (1689, 1791) 38
13. Hontza galziarraren eta zozo bizkaitarraren arteko dema..... 41
14. Nafar apologesiaren zantzuak 43

XVIII. mendeko

15. XVIII. mendeko erret oroitegi zenbait (1707) 51
16. Frai Meltxor Oianguren lanak (1715) 54
17. Euskarazko gorespen olerki zaharrak III (1743)..... 56
18. Sineskeriazko literaturaren adibideak II (1745, 1786) 58
19. Frantzisko Antonio Larramendi, antzerkiaren zirikatzaile (1756) 60

20. Baretti eta Ulloa anaiak: italiar ziria euskal muinean (1761, 1835).....	62
21. Musikaz blai!: XVIII. mendeko ideiak musika inguruan (1761)	65
22. Nafarroako lehen egunkariaren egilea: Nipho (1762)	69
23. Migel Uhalde izabarra (1775)	71
24. Ihartzek egin lanaren izenburuaren itzulpen laburra (1783)	73
25. Balentin Forondaren gainean (1789-1794).....	75
26. Belatarren ekarpena II: Jean Philippe Bela (1709-1796).....	77
27. Kaperako lezioa: azken-aurreko mendartea tekla bidean.....	79

XIX. mendeko

28. Zenbait edizio faksimile berriez (1620, 1802, 1822, 1864, 1889)	85
29. Sorregietaren astearen nahas-mahasak (1804).....	88
30. Faustina eta Tomasa arabarrak (1812).....	90
31. Jovellanosen ekarria gurean (1812, 1824).....	93
32. Juan Antonio Iza-Zamakola seguidillen biltzaile eta beste (1817).....	97
33. Julian Romano, Lizarrako musikaria (1831-1899).....	101
34. Jose Joakin Perez Nekotxea: astoaren mireslea (1837).....	103
35. Euskaldunak Mériméeren eta Lotiren bihotz begietan (1840, 1896)	105
36. Iturriagaren eta Samaniegoren zinak eta minak (1842).....	108
37. Erriberako ihauteriak (1842-1989).....	110
38. Iztuetaren segizioko Azpiazutarren lanak (1848, 1858)	115
39. Rosoren balentria gogoangarria (1851).....	117
40. Florenzio Sanz Baeza eta Nafarroako estatistika (1858)	119
41. Nikasio Landa iruindarra (1859-1884).....	123
42. Sanchez Asso era Aralarko liburua (1869)	125
43. Eusebio Lopez, klasikoen argitaratzailea (1878-1895)	127
44. Manuel Urban Arnedo (1882).....	128
45. Nafarroako funanbulista biz (1882, 1943)	131

46. Korellako heterodoxoek (1884).....	133
47. Olloko eskoletan gertatua (1889)	135
48. Lacort eta XX. mende hasierako kazetaritza Iruñean (1898).....	137
49. Bustintze eta Sarasate emakume nafarren lanak (1898, 1876-1910)	139
50. Euskararen mitologia erratu batzuk (1898, 1894-1909)	142
51. Karta jokoan gaineko literatura: Larramendi, Ortiz-Zaratekoa, Andueza, Yanguas-Miranda.....	144

XX. mendeko

52. Ebangelista Iberokoa (1902, 1906).....	149
53. Juan P. Esteban Txabarria (1905)	152
54. Tiebasko kazetari ezkertiar baten inguruan (1906-1939).....	156
55. Tubalen ehizaldia Bardeetan (1908)	158
56. Navasko jazarraldiaren inguruko eztabaida (1912)	161
57. Maria Maeztu (1915)	163
58. Arakil-Hiriberriko lokia (1917-1986, 1917-1980).....	165
59. Biktoriano Juaristi gogoratzen (1920-1949)	167
60. Joxe Lekarotzen mendeurrenean (1922-1964)	169
61. Amaiurko gaztelu baltzarena Navascuesen bihotz-begietan (1923)	171
62. Euskal dantzaren egungo bi bidaialariren testigantza (1926, 1934)	173
63. Jose Maria Estefania Zabala (1932)	176
64. Tiebasen errotu olerkari baten inguruan (1940-1962).....	178
65. Nafar bibliografiaren inguruan (1947, 1963)	180
66. Jose Joakin Montoro Sagasti (1951-1955)	181
67. Iruñeko beste euskal idazle bat: Pablo Artxanko (1956-1962)	184
68. «Udaberriaren lore-yokuak» Iruñean (1969).....	186
69. Alberto Pelairea poeta eta antzerkigilea (1973).....	189
70. Riberoren azken lanaren harian (1977-1998)	191

71. Argazkilari zahar baten inguruan (1982)	193
72. XX. mendeko euskal literatura zaharberritua (1986-2000)	195
73. Erriberako bi aldizkari berrien aipamena (1989-1999)	197
74. Itsuago ausartago: putze izan eta uzterra uste (2001)	199
75. Sakan Mix	203
76. Nafarroako eguraldiaren historiarako datuak: Tutera (1643-1971).....	215
77. Itxaropenak oro errekarra joan ez zireneko.....	219
78. Olloko festetan, ezkila-jotze aztigarria dorrean	222
79. Mutxikoen eguna dela eta... (1888-1996).....	224
80. Arabako egunean.....	226
81. NUPeko liburutegiaren altxorrez.....	229
82. Zakarias Lekunberri toreatzaile bizkaitarra (1886-1960)	231
83. Ele txotxak!	233
84. Erdaraz izkiriatu zuten idazle nafar bi.....	237
85. Zezenarenak	241

1. Tuterako bertsolari judutarra: Yehudah ha-Leví

1998.12.18

Tuteran, berreskuraturiko plaza eder bati izena ematen dion arren, hormetan bertso ederrak eta guzti azulejoetan paraturik -«*Una gacela lava sus vestidos con el agua de mis lágrimas, y luego los tiende a secar al sol de su belleza; en verdad, no necesita el agua de las fuentes si dispone de mis ojos, ni los rayos del sol si cuenta con la belleza de su rostro*»-, izena baizik ez da ezaguna egiten herritarren artean, nahiz eta goren graduko organismo anpulosok gora handiko jardunaldi judutarrek urtero antolatu. Bestalde, ha-Leví ezagutu izan diren berriak ez dira behar beste, urri eta soil. Ikertzaileen artean soilik izan bazen ere, interes handiko igaro zitzaigun Yehudahz gainekorik jakin ahal izatea, nahikoa berandu arte, fidatzeko gutxi finkatu ez arren. Bada, XX. mende honen erdialdean Haym Schirmann eta Goitein ikertzaileek gai hebraikoetan espezializatua den *Tarbiz* aldizkarian haien tesiak plazaratu ez zituzteno, kontu-zahar, poesia zein alegietan oinarrituriko biografia eskasa izan baita tradizioak iraunarazi diguna.

Gaur egun ziurtasun osoz Yehudah Abu-l-Hasan ben Semu'el ha-Leví Tuteran sortu zela -eta ez Toledon luzaro uste izan den moduan-, eta ez 1075. urtea baino beranduago esan daiteke. Orduan, Erriberako hiria Ahmed al-Muqtadir izeneko Banu-Hudtarrak gobernatzen zuen. Gazterik-gazte ilki zen hegoalde-
ra buruz, eta han, judutar ilustratuen bilkuretan sarturik, bat-bateko bertsoak eta poesiak sortzeko zuen dohain aparta erakutsirik, Moseh ibn Ezra poeta ezagunak gonbidaturik Granadara iritsi zen. Almorabidek Granada 1090.ean konkistatu ostean, Lucenan izan zen ikasle bertako Yishaq Alfasi rabiren yesibah-n 1103. urte inguruan. XI. mende bukaeran kristauek Al-Andalusen oldartu erasoek judutarren aurka sortaraziko zuten giroa zela eta, Toledon geratu zen mediku, non dirutza ederra egin bide zuen. Oraino Andaluziara arraitzuli zen, Kordobara hain zuzen, baina harzara ere, penintsulako hegoaldean Gaztelako Alfontso VII.ak eta Nafarroa-Aragoiko Alfontso I. Borrokatzaileak tenkatu taigabeko enbatak zirela eta, Palestinarantz joan zen 1140. urte inguruan. Kairoa iritsi zen lehenbiziz, eta gero Alexandriara. Nahiz horretarako arrazoiak ezagunak ez diren, Yehudah luzaro izan zen Egipton, eta hantxe zendu zen 1141.ean, Palestinara iritsi zenetz ezagutzen ez dela.

Bi ziren, oro har, ha-Levík eginiko lanak. Alde batetik hebreeraz zein arabieraz izkiriaturiko olerki profanoa egin zuen -Luzattok Pragan 1840.ean agertu bere *Betulat bat Yehudah* lan klasikoaren arabera 827 poema ondu zituen gure tuterarrak-, arabiarra bai gaia eta bai poetika denez bezainbatean, alabaina,

betiere judutar tradizioaren ukitua eta Bibliari aipamen zuzena igar daitekeela. Arabieraz ere *Kuzarí* edo *Jazarren liburua* lan apologetikoa ondu zuen. Horretan, arabiarren porrota iragartzen zuen, judutarren garaipenarekin batera. Benetako izenburua zuen *Ezetzaren eta frogaren liburua*: zapuztutako erlijioaz arabieraz egin izan arren, Yehudah ibn Tibbónnek hebreerara eginiko itzulpena da bere garaian zabaldu zena, baita Europako gainerako hizkuntzetara iraultzeko erabili zena ere. Idazkian, Errusiako hegoaldean zegoen jazartarren erregeak, beronentzat zein bere herriarentzat erlijioa aukeratzeko saioaren berri eman zigun; filosofo, kristau, musulman eta judutarrari galdetu ostean, naski, judutarren erlijioa izan zen hobetsi zuena. Ha-Leví judutarra zen, alta juduzale; hebreeraren herria beste herri guztien gainetik zegoelako uste fierra zuen. Talmud ikasi eta rabi maila erdietsirik, mesiasen etorrera noiz zatekeen kalkulatzeko ahalegindu zen, baina zehaztu datetan mesias iristen ez zenez, Lur Santuetara joatea deliberatu zuen, gorago ikusi legez.

Gaztelaniaz ere ezer gutxi idatzi zuen, hain zuzen ere, ezagutzen diren bertso-lerro zaharrenetarikoak, hots, Gaztelako Alfontso VI.a erregearen medikua eta kontseilaria zen Cidello zenaren omenezko jartxa; genero hori Muccáden ben Muafa olerkari arabiarrek sortu zuen 912.ean urtean, eta moaxaja bertso-moldearentzako lelo mozarabiarrak dira zehazki.

2. Khataroen aurkako gurutzada eta euskaldunak (1244)

1996.5.3

Beharbada harridura pittin bat sor ziezaiokeen bati baino gehiagori dituela jada bi urte eskas Peter Berlingen *Die kinder des Gral* eleberri gotorraren frantses nahiz espainierazko itzulpena lehendabiziko aldiz irakurri izanak -tamalez euskaraturik ez baitago ordea-, batez ere XII. mendeko Languedocen khataro edo albiarren aurka egin gurutzadaren berri ez izanez gero. Harrigarriagoa oraindik agituko zitzaion deblauki euskaldunetz osatu mertzenario talde bat lehengo orrialdetan agertzea. Hain sinesgarri otuko ez zitzaiokeena osterata alde horren buruzagia Gorka deitzea zatekeen ia seguru. Nolanahi ere aitzakia polita zitekeen Berling alemaniarrek eskaini ziguna gure auzoko hurbila den Okzitaniako historian jazo gertaera funtsagarrienetakoa ezagutzeko. Orduko euskaldunek gertu gertutik bizi izan zuten Tolosako inguruetan sortu haize berritzailea, baita arnastu ere naski. Iruñeko apezpikutegiak bere historia osoan zehar izan duen gotzainik sendoenetarikoen artean Pedro Parisko zegokeen duda izpirik gabe. Izen hantu hura ikastokiak eman zion nonbait, bera baino zenbait urte lehentxeago kadera berean eseri Lope Artaxonako herrikidearengandik nola edo hala ezberdintzeko. Hogeita sei urteko agintaldi luzean barrena asko eta asko izan ziren egin, esan edo arazi zituenak, zernahi ere den guri gaurkoan oroz gain interesatzen zaigun bakarria 1179.eko Letrango III. kontzilioan parte-hartzea genuke, orduko agirietako Petrus Pampilonensis sinadurak salatzen diguna. Gotzain bilkura hartan onartu ziren 27 puntuen artean Languedocen gunea zuen khataroen dotrina eta eginkizunak bereziki deitoratzen zituen zegoen. Horren harian Artaxonakoak adierazi kezka gaineratu zitzaion batzartuari, añañamendietan babestoki hauta zuen hainbat eta hainbat talderi erreparatzen ziona alegia, nafar diozesiko eliza eta lekaidetxe askotan gupidagabeki sarraski nahiz arpilaketak taigabe egiten zituen khataro euskaldunetz osatu taldeak bestalde.

Halaz ere arras eskasa izanen zen Euskal Herrietan khataroek zezaketen indarra, eta are gutxiago Erroman horren bukatzeko neurriak hartu zirenetik, bada 1209.ean Inozentzio III.a aita santuak heresia horren garbitzeko gurutzada iragarri baitzuen. Eliz instituzionala puntu horretaraino altara zezakeen kristau filosofia honen ezaugarri nabarmenak Erdi Aroko beste mugimendu heretikoek zitzaketenak litezke. Khataroek jarraitu doktrinaren funts nagusia mundu honen baloreen ukapenean zetzan. Kristauak ziren naski, baina Donibaneren ituna baizik ez zuten beste testu sakraturik irakurtzen. Otoitz

bakarra Aita Gurea zuten, baita sakramentu bakarra ere, *consolamentum* zeritzana, hots, bataio izpirituala, askotan endura izeneko hil arteko barau batez hornitzen zutena. Esan bezala gauza materialak erdeinatzen zituzten, bizitza hau infernutzat jotzerakoan ez zioten inolako baliorik ematen, eta hortik azal liteke jaunartze nahiz gurutze beraren mespretxatzea. Elizaren asmo jainkotiarrei hobekien moldatu zirenak Frantziako Capetoen apeta lurkoiak izan ziren, baita zenbait gurutzatuenak ere, besteak beste eta bereziki Simon Montfortenak, oste katolikoen buruzagi ankerra. Bata bestearen ondotik, Tolosako konderri eta Béziersko bizkonterriko herriak hartu zituzten gurutzatuek: Béziers, Carcassone, Castres, Bram, Minerve, Termes, Puivert, Cabaret, Labaur, Cassés, Castelnaudary, Agennais, Comminges, eta azkenik, Tolosa. Gregorio IX.a aita santuak khataroen azkeneko litsak ebakitzeko ardura inkisizioari luzatu zionean, Montsegurko gaztelutik ateratako talde batek Guillaume Arnaud inksidorea garbitu zuen Avignonneten. Hemendik aitzina Montsegur bilakatuko zen gurutzadaren helburu nagusien. Urtebeteko setio baten ostean, eta hasieran aipatu euskaldun talde hari eskerrak, 1244.eko martxoaren 2an garaitu zuten gotorlekua, eta 200 khataro inguru bertan erre zuten.

Euskaldunek gatazkarekiko zuten zerikusia ez zen halaz ere Montsegruko setiora soilik mugatzen, alta euskaldun bat izan baitzen gurutzadaren kronikagileetakoa. Ezer gutxi da Gillermo Tuterako trobadoreari buruz egun ezagutzen duguna. Manuel Milà i Fontanals filologo katalan handia zenaren aburuz, Gaskuñan etorkia zuen eta Tuterako burgu frankoan errotua zen sendi baten altzoan sortuko zen *Gurutzada albiarraren kanta* olerkiaren egilea. Trobadore fina, Antso Azkarrak berekin eramane baitzuen Navasko borrokaldira, eta horren berri emanen zuena ontzeko asmoa argi eta garbi agertu baitzuen. Gurutzatuen alde agertu zen, oroit bedi historia garaileek egiten dutela, alabaina Simont Montfortek eginiko gehiegikeri guztiak herabeki salatu zituen. Kanta amaitu gabe laga zuen, eta gurutzadaren asmo politikoak agerian uztean, gehiago ahalegindu zen Tolosako trobadore ezezagunen batek eman zion bukaera. Olerkiaren hasmenta bertsoak honakook ditugu:

*«El nom del payre el del fill e del sant esperit
Comensa la cansós que maestre Gilhem fit
Us clerics, qui fo en Navarra, a Tudela, noirit
Pois vint a Montalb si cum l'hestoria dit
S'is estet onze ans al onz s'en issit
Por la destructió que el conog e vit*

*En la geomancia qu'el ac long temps legit
E conoc qu'el pais er ars e destruzit
Per la fola crezenza qu'av an consentit
E que li ric borzès ser an empobrezit
Caitiu en autras terras cossir se manit
Adoncs eft aquest libre e el meteish l'escrit».*

XVI. MENDEKO

3. Interneten harrobia: 1505.eko

Gurutze Sainduaren Othoitzza

1998.2.6

Zorioneko Internet hartan bidailari murgiltzen direnek aunitz gauza idoro dezaketelako ziur gaude, goxo batzuk, baliagarri beste, inozo asko, mingarri ugari. Euskara ez da libro teknologietatik, beharrik bada, eta marinel informatikoen hizkuntza nahiz mintzagai badaukagu bihurturik pantailaren bestaldean Tubalen mintzaira zaharra. Arestian, Xalbador dendaundian xinaurri diharduen Mikel Aranburuk, Dabid Maritoren Quebecois-uskaldun batek 1997. eko maiatzaren 10ean davidm@universe.com helbidetik basque-l@cunyvm.cuny.edu buzoira aireratu othoitzza helarazi zigun. Berari eskerrak eta osagarri. Berrogei lerrotako *Gurutze sainduaren othoitzza* Dabid honen aitak, Hegoaldeko etorkina ipar Quebecen eta eraikuntzan langile zegoela, Iparraldeko euskaldun batengandik jaso zuen XX. mende honen erdialdean:

«The following basque prayer was told to my father at that time by a french basque whose name Y didnt get correctly from my father but who has since returned to France and who occasionally writes for Herria according to my father».

Arras zaharra delako ustea eta transkripzio akatsak bereak bakarrik direla aitortu ostean, galdera luzatzen digu:

«Any body elee out there know its origins?».

Datazioari dagokionez bezainbatean bederen, dudarik ez dago: «Othoitz hau pausatua izana de 1505ean Jesucristoren tombaren gainean eta Aita Sainduaz igorrian Charles Emepadoreari jua senean Saint-Michel erat igorriak siron etsaisen guardia egiterat». Domaia, perfektuegia baita. Ezin uka ordea, asmatzailearen gustu ona, grazia, eta idurimen gatz piperduna ere, pasarte zoragarriak baitakarzkigu:

«Othoitz hau egun gusiez egiten duena abertitua isanen da hiru egun aitsinetik bere herioseko orenaz (...) Nork ere irakurtuko baitu edo irakurtson adituko edo bere gainean karreatuko baitu, es da suprituki hilen, ez da ithoko, ez erreko, ez poindatukok, etsaien artera ez erroriko, ez batailetan bentsutua isanean.

Nor ere othoitz hau bere gainean karreiatzen baitu beiratua izanean da erortzeko minetik. Noiz eta ere ikusiko bitu norbait gaits hortaz joa transa zozo othoitz hau eta jeikik da alegerak. Othoitz hau bertsesat egiten duean

benedikatuko dut dio Yainko jaunak eta huntaz trufatuko denak prententsia eginean du.

Othoitz hau etche batean pausatua denian bergiratua izanea da orsitik aire gaichtotik».

Edozein modutan ere, eta Interneten untziratzen ez garenok testu pollit hau irakurtzeko aukera gal ez dezagun, hona orain arte ekarri ez dugun hasierako lerroak, gutxiespenik ere merezi ez dutenak bestalde, hain dago idatzia lortua:

«Incarnasionneko gurutze Saindua Yainko gusis botheretsua gure bekatu gussiensat arbola partikularraren gainean heriotsea pairatu dusuna gure gatik, Isan Saite ni baithan.

Jesu-Cristoren gurutze saindua isan sasu pietate nitas

Jesu-cristoren gurutze sandua isan sasu pietate gutas

Jesu-cristoren gurutze saindua isan saite ene espereantza

Jesu-cristoren gurutze saindua urrun bitza nitarik orma zorrotz gusiak

Jesu-cristoren gurutze saindua iehur asu ni ganat ongia

Jesu-cristoren gurutze saindua egiauazu arriba nadien sabba mendiko portura

Jesu-cristoren gurutze saindua nitarrik heriotse kalpegusiak.

Jesu-cristoren gurutze saindua adora desagun bethi jesusen gurutze saindua

Jesu-cristoren gurutze saindua adora desagun bethi Jesusen gurutze saindua

Jesu-cristoren gurutze saindua begira nerasu gorputseko kolpe gusietarrik.

Jesus Nasaretekoa egisu ispiritu gainto esin ikuz desadonak ihes-egin desan nitarik menderen mendetan alabiz. Jesus odol presiartuaren haren incarnasio-nearen ohoretan zoinak segurutzen ahal baigitu bisetse eternalehat, Jesus-cristo Eguberri eganean sortu eta orsilare Sainduz hil isan de besan egia».

4. Sineskeriazko literaturaren adibideak I (1510, 1529)

1997.6.6

Jose Maria Iribarren Rodriguez, Molaren lagun eta baztandar erroko idazle tuterarrak sineskeriari buruzko literaturatzat jo zuen. Bejondeiola. Bi mende barru ere sineskeriazko literatura egiten ari ginela esanen dute, hortaz zalantzarik ez izan, eta 2.222. urtean -bimila urtekoaren suntsipenarena gezur borobila baita-, horrela eginen dute gutaz hista, trufa isekatzaile gordina: «inozo hutsak ziren haiek, engainatuak ziren bizi, bai xinplekeriak sinesturik!». Eta gaurkoan, ohituratzen hasteko, sineskeria landu zuten gure idazle batzuk nafarkariratu ditugu. Lehen eta behin, aipa dezagun Azkoiengo Martin Andosilla Arlaskoa eta San Juan, Aibar ibarreko arzedianoa. Agramondarra, Azkoiengo Mosen Pierresi eskerrak Iruñeko gotzaina zen Alonso Carrillok babesturik, Teologian doktoretza erdietsi zuen 1487.ean Sorbonako unibertsitatean. 1521.eko apirilaren 25ean hil zen, eta Iruñeko eliza nagusiko klaustroan lurperatu zuten. Bere hilobiko harlauza Irigoien Dutari apezpikuarena egiteko birziklatu zuten 1778.ean, eta egun, Erratzuko elizan dago ahozpe. Perez Goienak estreina-koz inprimatu zuen nafartzat aurkeztu zigun. Alabaina bere *De superstitionibus contra malefica et sortilegia quae hodie vigent in orbe terrarum* edizio ugariren pairalea izan zen: Lyonen 1510.ean, Parisen 1517.ean, Erroman 1559.ean, Frankfurten 1581.ean, Venezian 1584.ean, eta azkena, Goñiko Gaztanbideren eskutik, Iruñean 1971.ean. Herriaren gutxiz gehiengo sineskeria okerrekin aztoratu egiten zuten gure Andosilla, eta ezin zituen konprenitu jende arruntaren ustekeria ertzoak. Edozein modutan, berauk ere txerrena nonahi ikusten zuen, eta besteren artean, sorginak aipagai izan zituen:

«*Et primo de falsa opinione credentium illas maleficas et sortilegas mulierculas, que ut plurimum vigent in regione basconica ad septentrionalem partem montium Pireneorum, que vulgariter broxe nuncupantur, posse transferri de loco in locum per realem mutationem*».

Untzitin luzaro bizi izan zen, eta hortik, euskaraduna zelako ziurtasuna izan dezakegu, bere idazkian nafar hizkuntzarena arras gutxitan ekarri arren:

«*Dies traslationis beati Martini, quem vulgares dicunt esse semper periculosum, vocantes sua lingua montana vel basconica Jandone Martie erroya, quod latine intellectum idem est quod Sanctus Martinus corvus*».

Andosilla baino askozaz ere sineskeriazaleagoa Martin Kastañega frantxikotar bizkaitarra genuen. *Tratado muy sutil y bien fundado de las supersticiones y*

hechicerías y vanos conjuros y abusiones y otras cosas al caso tocantes y de la posibilidad y remedio de ellas idazki zoroa atera zuen Logroñoko Migel Egiarenean 1529. urtean. Deabrukeria kristautasunaren benetako kirbin infernutiar jaso zuen, eta sakramentuen aurrean akilimarroari laketa emateko esakramentuen deskribapena eman zigun oparo: meza beltza, banpirismoa, antropofagia... Sorginen berri ematerakoan aurreiritzi determinista plazaratu zuen:

«Si alguna persona recibiese alguna cosa de su madre o abuela sorguiña, en señal que le dexara aquella familiaridad con el demonio, aunque no lo creyese, si con aquella sospecha consistiese, parece que da licencia y autoridad al demonio para que disponga de ella».

5. Juan Itziar eta Pedro Madariaga bizkai semeak (1548, 1565)

1996.1.12

Euskaldunok kultur lanetan etxetik at abondo aritu izan garela bagenerra, ez litzateke, ez inolaz ere, zerbait berria izanen. Espainiarren ororen ezaguna da behar baino gehiagotan apika lotu gintzaizkiela eskribau eta notari lanbide ofizialei. Alabainan, ez legoke gehiegi soberan datu zehatzez horniturik horrelako baieztapen irmoak geure buruari berari oroitaraztea, bestenaz, kontuzar hutsal eta undats bilakatzeko arriskua egon daitekeelakoz, eta hori, egia berau ez ezagutzea baino txarrago dateke.

Aipatu idazlari zalu trebe horietako bat Aragoi herrian aritu Juan Itziarkoa genuke, XVI. mendeko Europan egon zatekeen kaligrafoarik hoberenetakotzat jo genezakeena, eta Durangoko Tabiran 1522. urtean sortu zena, hain zuzen ere. Gazte denboran, Italian ibili omen zen bere idaztankera trebe ailkatu aihoz. 1547.ean Zaragozan finkatu zuen bizitokia, eta bertan, beste lanen artean, irakasle gisa aritu zen halaberrez.

Bere teoriak eta jakintzak Juan Vingles izeneko maiasturu frantsesak landu udare zurezko moldeetatik ateratako idaztiaz jaso zituen: *Recopilación subtilísima intitulada othographía práctica por la cual se enseña a escribir perfectamente, así por práctica como por geometría todas las suertes de letras que más en nuestra España y fuera de ella se usan*, Zaragozan, Bartholome Najerarenean, 1548. urtean. Aragoiko erregeari eskaini liburu horrek arrakasta itzela eskuratu omen zuen, edizio ugari izan zituela, bigarrena hain zuzen ere, *Arte subtilísima por la qual se enseña a escribir perfectamente* izenburuaren azpian. Azkeneko edizioa 1973. urtean agertu zen Madrileko Hezkuntza Ministerioaren babesean, Justo García Morales irakasleak paratua. Bertan, irakurtzen irakatsi behar duen maiuari zenbait arau finkatu zion. Bestalde aholku ezin baztergarriak jaso zituen, esaterako paper ona zertan ezagutu, edota idazlumak nola aukera eta zorroztu. Idazkera latinoaz gainera, grekoa, hebraikoa eta arabiarraren berri ere eman zuen. Hain oihartzun zabalekoa izan bide zen bere lana ezen, Felipe II.a erregeak berak deituta, Karlos printzearen idazkera irakasle izendatua izan baitzen. Guztiarekin, gortean arras denbora gutxi eman zuen, izan ere, 1549. urtean bertan, Zaragozako Pedro Bernuzenean bere bigarren liburua agertu baitzuen, *Libro intitulado aritmética práctica* izenburukoa alegia. Dena den, egun zeharo ezaisa gertatzen zaigu bere erabilera, ale bakarra soilik ezaguna baita, Londreseko museoan dagoena hain zuzen ere. Hiru urte beranduxeago *Nuevo estilo*

de escribir cartas mensajeras liburua agerrarazi zuen Zaragozan halaber Agosti Millanen etxean.

Kaligrafia mailan bere ekarpenik nagusiena hizki baxtarta zeritzanaren gailentzea litzateke prozesalaren kaltez. Pedagogia aldetik berriz, maisuei luzatu zien gomendapena, haien ikasleek gaiak buruz ikasten utz ez zitzaizkien, hala nola, ikasleriarekiko amultsutasunaren beharra aldarrikatu zuen. Hau dena ikus daiteke bere *Discurso de lo que más conviene al alumno que quisiere aprovechar en el arte de escribir: compendio de ciertas reglas y avisos muy útiles para el maestro que enseña a leer, el orden que debería guardar cada uno cuando comienza el aprendizaje de la escritura*.

Itziarren ikaslerik nagusien artean Francisco Lucas, Pedro Diaz Morante, Juan Sarabia edota Pedro Madariaga zeuden. Azken hori arratiarra genuen, Dimako Oba edo Barrendi auzoko Madaria baserrikoa hain zuzen ere. 23 urte zituenerako, hau da, 1560. urterako, Genova, Milan eta Erroman egona zen. Zaragozatik pasatu ostean, Valentziarako bideari lotu zitzaion, hango unibertsitateko berak sortu ortografia kataderaren jabea izatera iritsi zela. Ospe handia atzeman zuen bere metodoari esker. Usuenean zenbait urtetan ikasten zena, berak sortu teknikari esker hilabete gutxitan ikas zitekeen, betiere bere hitzen arabera naski. Arratiarraren esanetan, hizki guziak triangelu eskaleno batek mugaturik behar ziren egon. Hori guztia, Turiako hirian 1565.ean Juan Meyen etxean argitaratu bere *Arte de escribir, ortografia de la pluma y honra de los profesores de este magisterio* liburukian agertu zuen. Lana hiru zatitan banandurik dago. Lehendabiziko bietan idaztearen beharrezkotasuna aldarrikatzen du zazpi elkarrizketetan, eta bi hilabetetan idazten ikasteko bidea azaltzen du beste bost solasaldietan. Hirugarren zatian euskarari buruzko zenbait burutapen zekartzan: «*De los inventores de las letras, y orthographia en lengua vizcaína y quan elegante y antiguo es este lenguaje*». Euskararen historiaz ziharduen apologisten ideiei jarraikiz, baina bestalde euskal ahozkaritza eta literaturari buruzko berri interesgarriak bildu zituen. Lan hau 1777.ean berrargitaratu zen Madrilén bigarren aldiz *Arte de escribir, orthographia de la pluma y honra de los profesores de este magisterio* izenburuarekin, Javier Santiago Palomaresek paraturik.

6. Calvin Clan (1558, 1568)

1996.9.6

Lankide Aurrezki Kutzak sobera aiherrak izan bide arren, Anitx Txintxon Ido-rrakoez aitzina eraman ahal izan zuten *l'm Pellot* izenburu zoroko komiki ederra, betiere *Argia* aldizkariaren lagunen eskutik, eta Asisko Urmeneta ororen buru zegoela. Jakina da goitik eratzten den ildo zuzena bere egiten ez duenak kritikarik zorrotzenak jasan behar dituela, alabaina ez nuen uste oraindik hain inkisizio makalik zegoenik, eta egungo kontrarreforma hertsiki honek, horrenbeste aurreiritzirik zuenik, baina zoletako lohiek astunegiak dirudite nonbait, lohizolak alegia, eta damutzen denaren eraso itsua arriskugarria dukegu seguruenik. Urmenetak marrazturiko bilduma akigarri hartan Calvin Clan deituriko emanaldia geneukan, Margarita zein Juana nafar erregearen ekarria oretugai, geuk ere, aipatu bederen egin nahiko genituzkeenak, agitutakoarekin antzekotasun nabariak daudela segurutzan. Norkbederak atera ditzala kontuak!

Nafar erresumaren hondar urteek bi erregina idazle izan zuten, Margarita eta Juana hain zuzen ere. Bietan ama zen Angulemako Margarita 1492.ean sortu zen Charente aldean. Frantziako Luis XII.a erregearekin ahaideturik, erretortean arnas zitekeen errenazimenduko giro nasaiaz elikatu zuen adimena. Saboiako Luisa zuen amaren gerizapean nahiz Tournongo Zuriñeren eskutik platonismo berrian trebatu zuen bere burua, eta bere anaia Frantziskok Frantziako erregetza eskuratu zuenez geroztik pentsalari eta erreformatzaile berriez osatu Meauxeko taldearen sorrera bultzatu zuen. Horretan Clément Marot, Guillaume Briçonnet Meauxeko gotzaina, Sorbonakoek deuseztaturik San Pabloren gutunen iruzkintzailea genuen Lefèvre d'Étaples, Vatable eta abar zeuden. Halako giroan bere lehendabiziko idazkia ondu zuen, 1525.ekoa zen *Dialogue en forme de vision nocturne*. Alençongo dukeak alargundu ostean, 1527.ean Labriteko Henrirekin ezkondu eta Nafarroari buruz etorri zen erregina. Bertan Sorbonakoek desegin taldea berregin zuen Nerac eta Paue inguruan, eta Calvinok bera ere ondoan eduki zuen denbora laburrez izan ere. Nafar gortea tolerantziaren mirail bihurtu zen, erreformatzaile guzienen topagune eta biltoki. Alabaina arazoak ezin alderatu, eta Sorbonako integristek, ezin asaldatuagorik, bata bestearen atzetikoen enbatak oldartu zituzten Pirinioen magaletan zegoen kabi aurrerakoari aitzi. 1531.ean Margaritak karrikaratu zuen *Miroir de l'âme pécheresse* liburu debekatuen zerrendan sartzeko ahalegindu ziren, bertan Marotek ondu Daviden laugarren salmoaren frantseseko translacione ez hagitzen ortodoxoa zegoen eta. Hori guztiak zein bizitza politikoan uztaturiko porrotek

ahiturik, arras nekatuta, Odojera joan zen, eta hantxe hil zen 1549.ean. Bizitzako azken hamarkada joriena izan zen literaturari bagoazkio. Garaiko beste idazleekin harremanak izan zituen, hala nola, 1558.eko *Nouvelles récréations et joyeux devis* idazkiaren egilea zen Bonaventure des Periers edota 1545.ean Boccacionen *Decameron* frantsesera irauli zuen Antoine le Maçonekin. Rabelaisek bere *Tiers livre* eskaini zion 1546.ean eta ber gauza egin zuen Jean Hayakoak Platonen *Oturuntza* klasikoari buruz Marsilio Ficinok izkiriatu zituen iruzkinen itzulpenarekin; esan gabe doa bi liburu horiek debekaturik zeudela. Eras-mok berak bitan gutxienez idatzi zion erreginari berarengandik zuen estimu eta miresmen handia aitortzeko. Margaritaren lanik adituena *Heptameron* dugu, lehendabiziko aldiz 1558.ean Parisen ageri zena. Dena dela, bestelako lanak ere utzi zizkigun, barbarako 1530 eta 1540 bitartean idatzi *Théâtre profane*, 1547.eko Frantzisko I.aren heriotza zela bide taxutu *La navire ou consolation du roy François Ier* eta *Comédie sur le Trépas du Roi*, edota bere olerkiak biltzen dituen *Marguerites de la Marguerite des Princesses*. Nolanahi ere, lan guzien lehendabiziko argitalpena 1852. urtera arte ez zen aterako.

Margaritaren alaba bakarra Juana dugu, gure artean arras ezagun dena Leizarragak bere *Testamentu berria* egin izana neurri handi batean zor diogulako. 1528.ean sortua, nafar errege-erreginak Felipe II.aren ezkontzen saiatu ziren, bi Nafarroen ber elkartzea gogoan, baina Frantzisko I.ak eragotzirik, Vendomeko dukearekin elkartu behar izan zuen, 1555.ean Nafarroako legeak zin egin zituela. Bere lan literario ez zen amarena bezain joria, baina onartu behar zaio haren lanen argitaratzailea izan zela. *Mémoires* izenburukoa idatzi zuen, La Rochelan ere 1563 eta 1568 bitartean ageri zena. Halaber Du Bellay jaunari eginiko lau soneto ezagutzen ditugu.

7. Andres Poza Iartzaren ekarri zaharra (1587)

1996.3.8

Andres Pozak berauk bere burua urduñartzat eman bazigun ere, Beheiti-ko Lendoñokoa zehatzago izatearren, baliteke Pozatar leinua euskal etorkikoa ez izatea. Nolanahi ere Urduñako uhartean jatorria ezartzen zuten Pozatarrek hasiera-hasieretatik Flandesen bizitokia zuen sendi aberastua agertzen bazitzai-
gun. Ezagun da Andresen aita genuen Pedro Pozak Domingo Orbea izeneko diruzain bizkaitarrari, eta inolako interesik kobratu gabe, 15 000 dukateko abantzua egin ziola, etorki judutarra klarki sala lezakeena, eta azaldu behar ez diren arrazoiengatik ezkututzen saiatuko zena. Pedro Poza Maria Iartza bizkaitarrarekin ezkondu zen, eta Andres 1537. urte inguruan sortu bide zen Anberesen. Bederatzi urtez Lovainako unibertsitatean ikasi ostean, legetako lizentziatura Salamancan eskuratu zuen. Ordurako hizkuntza aniztuna osoro genuen Poza txikia, izan ere euskaraz gainera, latina, espainiera, flandesera, frantsesa, ingelesa eta italiara arazorik gabe mardo baitzerabiltzan. Berriz ere Anberesen, erregearendako egin zuen lana, bertakoen destaina luzea berehalaxe bereganatuz, Gillermo Orangeren alde zeudenei aitzki hala nola protestanteen aurka hartu zituen neurriengatik batik bat. Atentatu bat ere jaso omen zuen, bere izaite paranoikoa amiñi bat areagotu zuena, geroztik betiere zaldun albaniarrez osoturiko bizkartzaingoak lagundurik mugitzen zela.

1580. inguruan Bilbora buruz jo zuen kosmografia eta nabigakuntza irakasle. Noiz edo noiz ere Donostiako Santa Mariaren klaustroko udal eskolan aritu zen, eta bere langintza berria nola edo hala hornitzeko *Hidrografia, sumario de la esfera, instrumentos de la navegación, marcas, latitud y longitud: la más curiosa que hasta aquí ha salido a la luz en que más de más de un derrotero general se enseñan la navegación por altura y derrota y la del este oeste con la graduación de los puertos y navegación al Catayo por cinco vías diferentes* izenburuko eskuliburua ondu zuen, Bilboko Matias Maresen moldeetatik 1585. urtean ilki zena. Lan horren aurrealdean Aiala herriko Mariakarren armaria zekarren Italiako Giambattista Antonelli orduko injineru ospetsuaren onarpenarekin batera. Bi zati ezberdinetan banaturik zegoen, lehendabizikoa nabigakuntzaren teoriarekin, eta bigarrena itsasertz, kai, marea eta abarreko jakintzei buruzkoa. Garai hartarako jasotzen zuen ekarpenik erabilgarrienetarikoa longitudearen kalkulatzeko eman zuen sistema liteke, ilargi eta zodiakoen izarren arteko tarteen bitartez.

Urte batzuk beranduxeago, eta Bilboko moldetegi berean, bere lanik eza-
gunena datekeen *De la antigua lengua, poblaciones y comarcas de las Españas en*

que de paso se tocan algunas cosas de la Cantabria argitaratu zen. 1587.eko idazki hori Diego Abendaño Ganboari eskaini zion, ganboatarren burua. Bertan Esteban Garibai Zamalloa arrasatearrak 1571.eko *Compendio historial* liburuan esandakoei jarraikiz, tesi tubalisten defendatzaile zolia agertzen zaigu, eusko-iberismo delakoaren aurreko zuzena, eta kaldeoa penintsularen lehendabiziko hizkuntzatzat jotzen zutenen aitzi. Urte haietan ere Antonia Olaeta audioarrarekin ezkondu zen.

Bizkaiko pribilegioak begietan zituztenak ere bazeuden, eta Errege Katolikoan 1491.eko maiatzaren 30eko pragmatikaren iruzkintzeko aitzakiaz, Valladolideko txanzilleriako fiskal nagusia zen Juan García Saavedrak 1588.ean bizkaitarren sortzezko noblezia ukatzen zuen *De hispanorum nobilitate exemptione sive ad pragmaticam cordubensem* agertu zuen, hidalgia frogatzeko irizpideen behin betiko hatsarrea ezar nahian. Bizkaiko Batzar Nagusiek Pozari eskatu zioten ihardesteko, eta honek *Ad pragmaticas de Toro et Tordesillas sive de nobilitate in propietate, animadversionum ad novum pragmaticae cordubensis, scholiaste pro prisca alumnae suae patriae nobilitate* izenburuko lanaz bete zuen mandatu. Bertan euskaldunen jatorrizko noblezia defendatu zuen, eta XVI. mendeko Bizkaiko liburu politikorik osotuena omen da. Idazkia Felipe II.ari igorri zitzaion honek Garcíaren liburua jasotzeko aginduko zuen probisioa atera zezala. Garcíak berak Jaurerriari barkamenak eskatu zizkion 1591.ean, Felipe II.ak bere liburuan agertzen ziren hitz iraingarriak ezabatzeko agindu eta gero.

Bizitzaren hondarreko urteak Madrilen eman zituen Pozak, Felipe II.ak berriki irekia zuen kosmografia eskolan irakasle 1595.eko urriaren 18an zendu zen arte. Hil aitzinetik oraino *Memorial que se dirigió a Felipe II pidiendo la revisión de las leyes que favorecían la construcción de naos gruesas por ser contrarias a la navegación en general* izenburuko lana izkiriatu zuen. Ez omen zitzaion behar adina pagatzen, eta anitzetan eskatu zuen Indietako postua ez zioten sekula eman. Alabaina Juan Bautista semea bai Ameriketara joan zitekeela, nahiz bestelako arrazoiengatik, izan ere Bilbon 1588.ean sortu zen josulagundiaren teologo sonatu honek, ospe handiko lanen egilea izan ostean, Madrilen 1619. ean ageri zen *Prácticas para ayudar a morir* adibide, *Elucidarium deiparea* Alcalan 1626.ean argitaratu zuen liburuan esaten zituenak zirela eta, inkisizioaren errieta gogorrek jaso behar izan zituen, lana kalitu, zuen katadera kitatu, eta Perura joanarazi ziotela, non Cuenca izeneko herrian hil zen 1659.ean.

8. Euskara eta pidgin hizkuntzak

1995.6.30

Bada gauza ororen jakina euskara uharte hizkuntza dugula. Mundu osoko bestelako hizkuntzekin parekatzeko egin saio ugari burutu izanak ez du halarik ere garrantzizko etekin nabarmenagirik oraindino erdietsi. Batek baino gehiagok noizbait aditu ote du Kaukasoko hizkuntzekiko senidetze harreman proposamen serio baino serioagoa -adibide bat aipatzearen Trombettiren 1925.eko *Le origini della lingua basca* gogora ekar liteke-, baina hori ez dugu saiakera bakarra, eta Afrika iparraldeko bereber hizkuntzekin lotura baten bat ere aritu da azalerazten -Gabelentz, Uhlenbeck edo Lafon barbarako-. Bonaparte printzeak berak ere finoise mintzairekin harremana ikertzen jardun zuen, eta adibideak aipatzen jarraiki izatekotan, munduko beste mintzaira berezi frango izanen genituzke aipagai, uraliko-altaiko taldekoak, Siberiako txuktxe, Karakorungo burutxaski, eta gaelikoa bera ere, sinismen anglikanoaren mezulari aparta baina linguista arront kaskarra zen George Henry Borrowek bere 1835.eko *The bible in Spain* liburuan azaldu zuen gisan. Modu batez ere, ezin da ahantzi tesi eusko-iberista zeritzana, apologistengandik jada jaso izan duguna, eta modu serio eta zehatz batez egungo ikerlariaren batek berekarri izan duena:

«Nunca el eúscaro separaría a los vascos de los españoles, pues es una lengua hablada en la remotísima España neolítica»,

Claudio Sánchez Albornozek dixit. Iruzkirik soberan da.

Halere, baditugu hain xedekorrek ez diren beste konparaketa batzuk, esaterako Ipar Amerikako zenbait herritako hizkuntzekin egin ikerkuntzak. Justo Garate handiak 1949. urteko *Euzko jakintza* aldizkarian irokiarren mintzairerikiko harremana aurkeztu zuen «*El euskara y las lenguas amerindias*» izeneko artikuluxka batean. Urte batzuk lehentxeago Charancey zenak Pauen 1892. ean argitara eman zuen bere *Des affinités de la langue basque avec divers idiomes des deux continents* liburuan gauza bera proposatu zuen herri algonkinoetako hizkuntzekin. Ez da harritzekoa, kontuan hartzen badugu euskaldunak lehendabiziko uneetatik Amerikako iparraldera joaten zirela bale eta bakailao bankuen atzetik, Ternua eta Labrador inguruetara. Amsterdameko Unibertsitatekoa zen Peter Bakkerren hitzetan Kanadako ekialdeko itsasertzean euskara osagai garrantzizkoa zuen pidgin motatako hizkuntza bazegoen 1560 eta 1640 urteen artean. Halere, lehen eta behin komenigarria dateke pidgin hizkuntza bat zer den azaltzea. Hizkuntza ezberdinetako zenbait pertsonen elkarrekin ulertu nahi dutenean, beren hizkerak sinplifikatzen eta errazten saiatzen aritu

behar dira, egitura sotilak eta xumeak nahiz hiztegi laburra eta zehatza erabiliz. Horrelako komunikazio murrizta izanda ere usu egiten denean, hizkuntza berri baten antzekoa sortzen da, pidgin izenekoa. Pidgin hizkuntzen artean ezaguna gertatu ote da *lingua franca* zeritzana, Mediterraneo itsasoak bustitzen dituen kostaldeetako tturko zein kristauen arteko harremanak garatzeko erabili izan zena. Egun pidgin bat dugu Papua Ginean erabiltzen den Tok-pisin baita Afrikako mendebaldeko zenbait herritan ere, Nigeria, Ghana, Kamerun, Ekuador, Ginea... Pidgin ama hizkuntza bihurtzen denean, orduan kreolera da.

Euskaldunek arruntki kurritu zuten Kanadako aipatu ingurua, bertako toponimia zaharrak aditzera ematen duen gisaz: Buruxumea, Makalloa, Buruandia, Sanlorenzoxumea, Mikeleportu, Oporportu, Portutxua, Etxaideportu, Ulizilo, Etxarriko puttobioki berria, eta abar luzexko bat. Bizkaia Berria edo New Biscay egun Labrador eta Newfounlandeko ingurua zen, eta bertan zabaltzen zen garatu merkataritza harremanetarako euskal oinarriko pidgin hura -Plasntia, Port Royal, Tadoussac, Magdalena uhartea...- euskaldunak eta zenbait herri indioen artean -algonkinoak, mikmak, malisst, abnaki, ojibwa, irokes, edo huron-. Honezkero nonbait agertua da euskaldunek bertakoei luzatu *Nola hago hi?* agurrari, poliki ihardesten ziela, *ongi, baina apezak hobeki!*.

Halere, baleak Ternuako aldean urritzen hasi zirenean, Groenlandia eta Islandiako uretara abiatu ziren euskaldunak berriro, eta bertakoekin ulertu ahal izateko beste pidgin berri bat sortu behar izan zuten. Horri buruzko informazioa poxi bat osatuagoa bada, izan ere, 1937. urtean Nicolas Gerardus Hendricus Den izeneko Leideneko irakasle batek bere latinez izkiriaturiko tesi doktora aurkeztu baitzuen izenburu honen pean, *Glossaria duo vasco-islandica*. Bertan XVII. mendeko bi euskara-islandiera hitz zerrenden berri ematen ditu, *Tertii cuiusdam quae reliqua sunt* eta *Glossarium prius vocabula gallica, et glossarium alterum vocabula biscaica alterius auctoris*. Biak Kopenhageko Armanagaeana izeneko liburutegian zeuden, baina 1986. urtetik hona Rejkjavicen dira. Bi zerrendak Vestfirdir izeneko Islandiako herrialdean ondu bide ziren, baina idazle eta idazketaren berririk ez dugu.

XVII. MENDEKO

9. Sanferminetako lehenengo bisitarietakoa: Jacinto Aguilar (1628)

1997.7.4

Granadako Jacinto Aguilar Prado Espainiako Felipe IV.aren mertzenarioa aunitz lekutan ibilia zen gerlari: Herbehereetan, Flandrian, Portugalen, Frantzia eta Brasilen. Bizitakoak oro jaso eta idazki hau ondu zuen: *Compendio histórico de diversos escritos en diferentes assumptos*. Lan gehiago ere izkiriatu zuen, esate baterako, *Triumpho del amor: poema histórico del soldado andaluz*. Alabaina Flandriara zihoala, Pasaiatik atera galera Getariako barran hondoratu zen, eta berekin zeramatzan paper guziak hondatu ziren. Salbatu zen gauza bakarra, alde zurretik Iruñean argitaratu lana izan zen, hau da, gorago ekarri *Compendio histórico*. Carlos Labaienen etxean azaldu zen 1628.ean. Inprimazio lanak luzatu zireno, Sanferminak iritsi ziren, eta horra hor gure festen lehenengoetako bisitari arrotza dugula, hamazazpigarren mendeko Hemingway granadarra. Festak aitzaki-maitzaki, bere liburuari eransteke gehigarri lakarra ondu zuen ikusitakoak kontagai: *Escrito histórico de las solemnes fiestas que la antiquísima y noble ciudad de Pamplona ha hecho en honra de San Fermín su patrón en 1628*. Horretan badira zinez bitxiak direnak, batez ere zezenketei gagozkiola. Aipagarria da zaldizkoen lana, egungo errejoneadoreen aurreko zuzenak. Aguilarek aipatuen artean ere, zakurren eta zezenaren arteko borroka edota gaurko zezensuzkoaren jatorria:

«Apenas empezó a anochecer cuando salió un toro que parecía había sido huesped de Plutón, o traía sobre sí gran parte del infierno, tanto era el ignífero aparato, tanto el norrisimo estruendo de innumerables cohetes que de sí arroxaba. Quedó tan aturdido el medio quemado animal, que disminuída gran parte de su braveza cayó al suelo: al instante llegaron los ministros mulares y subitamente lo pusieron fuera de la plaza, y dexandolo ya por muerto, se levantó con tanta furia que maltrató a alguna gente antes que lo matasen».

Horiekin batera arrakastatsuenen artean sokamuturra zegoen, 1772.ean Karlos III.ak debekatu zuen arte bederen. Alabaina urte horretako Sanferminetan bost zezen enbolatu askatu ziren nahi zuenak torea zitzan, animaliak ez zauritzeko agindupean. Zezenketa ostean sokatik helduta mataderora eraman zituzten bertan hiltzeko eta komentuen artean dohainik banatzeko. Ber urtean Gaztelu Plazan aritutako toreatzaile profesionalen artean euskaldunak nagusi ziren: Alesbesko Matias Serrano, Pedro Lakarra eta Franzisko bere semea, Manuel Urra, Matias Añezkar, Frantzisko Arribillaga eta Frantzisko Ibargoi-

tia giputzak, Tomas Onsalo bergararra, Labastidako Antonio Txabarri, Biana-ko Gregorio San Millan, Alfaroko Frantzisko Burube edota Kalagorri aldeko Apiñaniztarrak. Periko Alejandriaren garaian, 1843.etik ireki plaza zaharrear, hagitx ezaguna zuten Atanasia Marko Berrikoetxea emazteki gasteiztarra.

10. Luis Mur tuterarraren gainean (1640, 1645)

1999.11.26

Pasa den ostiralean, hilak 19, Merindad de Tudela Ikasketa Zentroaren al-dizkariaren azken zenbakia aurkeztu zen Tuterako Castel-Ruiz kultura-etxean; bederatzigarren zenbaki honek dakarzkigun sei artikuluetatik, Luis Mur XVII. mendeko politikari eta idazle tuterarrari buruz Esteban Orta historialariak eginikoa nabarmendu nahi dugu. Kexu agertzen zitzaizkigun bai Luis Campoy Tuterako alkatea bai Esteban Orta Murtxanteko historialaria lehengo astean eginiko *Merindad de Tudela* zenbaki berriaren aurkezpenean, norkbederak bere arloan, eta biek arrazoia bazuten ere, arras iritzi interesatu eta subjektibo ditut, neure begikoz. Campoyk Nafarroako eta are Erriberako kultur eskasia egunkari batean berriki salatzen zuen gutuna ezeztatzen ahalegindu bazen ere, ezin du ukatu ere egin, diakronikoki bederen, historia osoko unerik lardasgarri-netarikoa pairatzen ari dela Ebroko Nafarroa baita honetako hiri buruzagia, urrutiegi baita oraino Erdi Aro arabiarretik, errenazimendu judutarretik, zein argien ilustratuengandik. Bestalde, apalki baina nahikoa asalaturik, Luis Murrri buruzko sarrerarik *GEN*-n ez izatea Ortak salatzen zuenean, ez bide zituen euskal egileak nafartzat, horien gaineko sarrera eza nabarmena hagitiz salagarri ere otu bide ez baitzitzaion. Nolanahi ere den, eta euskal kulturari buruzko hutsune interesatua gora-behera, arrazoia bazuen Murtxantekoak, eta mereziko luke jada zaharkiturik geratu den *GEN*-ren balizko edizio berri batean Murren gaineko sarrerarik egitea.

Luis Mur eta Navarro Tuteran jaio zen 1598ko abenduaren 6an. Nahiz Murtarren etorki noblea erakusteko agiririk baden -Castro Alavak XVI. mendeko idazki bat aipatu zigun non Murren etorkia XI. mendean Zerdainiako kondea zen Gilen Ramonengan zegoen-, aski nabaria dateke aita zein amaren aldetiko bi sendien etorki judutarra. Ireki berria zen Tuterako josulagundiaren ikastegian ikasi ondoren, Luis Murrek kanonak eta legeak Huescan ikasi zituen, 1620.erako Tuterako Eliza Nagusiko Kabildoaren zein Udalaren abokatua zela. Hiru urte beranduago Isidora Larrea Loiola gipuzkoarrarekin ezkondu zen. Politikari aparta, 1637.eko Nafarroako Gortetan izan zen Tuteraren izenean; heldu zen urtean, berriz, Madrileria igorri zuen Nafarroako errege-ordeak Olivares konde-dukearen eta Fiteroko abadearen artean sorturiko aharra baretzeko mandatuarekin; 1638.ean Hondarribiko setio famatuan dugu gurlari; 1642.az geroz Nafarroako sindiko izan zen Felipe IV.aren gortean -ezagun denez, Felipe IV.a 1646.ean iritsi zen Nafarroara-. Luis Mur 1650.eko azaro-abenduan hil

zen Iruñean, erret-kontseilukoa eta Erresumako Gorte Nagusiaren lehendakaria zela.

Bizitza politikoaz gainera, Luis Mur idazlea ere bazen izan. Bi dira egunotara iritsi zaizkigun Murren lanak. 1641.ean Tuterako hiriko udalak hiriko historia-ri eta pribilegioei buruz Murrek egina zuen liburu baten inprimatzeko akordioa hartu zuen; alabaina, lan horren arrastorik ez da egun, eta honenbestez, galduztzat edota ez argitaratutzat eman beharko dugu, areago, Conchillos garaikideak bere *Propugnaculo*-n aipatu ez zuelako. Edozein modutan ere, iritsi zaizkigun bi lanak nahikoa interesgarriak badira Murren balio literarioa gailentzeko.

Bidetako lehenengoa 1640.ean ageri zen Zaragozako Diego Dormer baitan, Iusepe Ginebart liburu martxantak ordaindurik, eta San Lukarreko konde-dukeari eskainia: *Triunfos de la esclavitud, virtudes de Moysen y dureza de Faraón*. 120 orrialdetik gorako liburu hau saio politikoa dugu, eta Moisesen bizitzaren pasarteak iruzkinduz, printzeak behar duen zuhurtziaz zein printzeari zor zaion obedientziaz iharduki zuen Murrek, Makiaveloren teoria politikoaren ispilu. Bigarren lana, aldiz, 1645.ekoa da: *Tiberio ilustrado con morales y políticos discursos*, berriro ere Zaragozako Diego Dormeren etxean, baina Pedro eta Tomas Alfay anaiek ordainduta. Duarte Fernando Alvarez de Toledo Nafarroako errege-ordea eta Nafarroako zein Gipuzkoako kapitain nagusia zenari eskaini lan hau lehenengoa baino nabarmengarriagoa dugu, nahiz estrukturalki, ideologikoki zein poetikoki arras desberdintasun gutxi aurkezten duen: kapitulutan banaturik, bakoitzaren hasiera Tiberioren bizitzaren pasarteak aukeratzen ditu iruzkintzeko; Tazitoren zein Makiaveloren pentsamenduan oinarrituagatik ere, nahikoa pertsonala agertzen da askotan; eta estiloari bagagozkio, barrokismoaren ezaugarriak aisa atzeman daitezke, esaterako, paralelismoak, kiasmoa eta hizkera esakunetsua. Hitzaurrean zioskunez:

«En este epítome, sino de la historia de la vida de Tiberio, he pretendido descifrar lo que rescató su astucia. Mucho será entender muerto al que vivo pareció inapeable, pero si de las acciones de los príncipes se discurre mejor a vista del tumulto que del trono, mejor se leerán las verdades entre las cenizas que entre la purpura. Sea el comento de su vida, y la contracifra de sus engaños, el saber que siempre quiso lo que disimuló, y disimuló lo que quiso».

11. Juana Ines Asbaje (1689)

1996.8.30

Mexikoko *Novedades* egunerokoak, Sor Juana Ines Gurutzekoaren hirugarren mendeurrena ospatzeko aitzakian, emakume handi horri buruzko lehiaketa artistikoa antolatu zuen 1951.ean. Lau izan ziren saritu sormen lanak, hala nola, Alberto Salcedak Sor Juanaren amorioez taxuturiko idazkia, Cecilia Gilarteren Sor Juanaren bizitza eta lanei buruzko saiakera, eta Reveles nahiz Ezkerren margolanak. *Novedades* egunkariak bere iganderoko gehigarriren batean, Gilarterena izan ezik, beste hiruen berri zehatz eta mehatz bazuen eman, izan ere orduko mexikar bati baino gehiagori ez bide zitzaiolako batere atsegingarri agitzen Asbajekoaren euskal etorkia, Gilartek berak bere saioan behin eta berriz oroitarazten zion moduan. Zernahi ere, handik zazpi urtetara egunkari interesatu horrek eragindako nahasturia konpontzeko bidea ezarri zen, Buenos Airesko Ekin argitaletxe ezagunaren eskutik Gilarteren *Sor Juana Ines de la Cruz: claro en la selva* izenburuko liburua argira ilki zenean. Naski horixe ez zela izan Asbaje andrea gaitzat izan duen lehendabiziko izkribua, ez eta gutxiagorik eman ere, baina onartu behar zaio euskal etorkiaren zioa sakonki landu duen lehen ikerketa saioa izan dela.

Begararrak zituen aitaren aldetiko sustraiak. Pedro Manuel Asbajek Deba ibarretik Mexiko aldera jo izan zuenean, Isabel Ramírez-Santillana deituriko andrearekin ibili zen harremanetan, eta ezkondu ez ziren arren, bi alaba eta semea izan zuten. Ahizpa txikerra dugu Sor Juana Ines, Nepanthlako San Migelen 1651.eko azaroaren 12an sortu zitzaiguna. Gilarteri jarraikiz, astronomia, botanika, kosmografia, literatura edota arkeologian aditua zen Jose Antonio Alzate izan zuen askazi, Ixtazihualt zein Xotxikalkoko mehatzeak ikertu zituen berbera, eta harengandik akaso ikasteari hartuko ote zion laketa. Hiru urte besterik ez zituenean, irakurtzen ikasteari ekin zion gogotik, eta zazpi urteetarako, temati erregutzen zion amari unibertsitatera joaten utz ziezaiola, gizonen jantziarik behar izan ere. Bederatzi urterekin aitonaren etxera joan zen Mexikora, eta bertan, latina eta filosofian trebatu zen Pedro Jose Olivas osaba zuzendari. Gortean sarturik, Mexikoko erreginordea zegoen Macerako markesaren oho-rezko dama izan genuen. Horren jauretxean erregeordeak berak aitzineraturik eta orduko berrogei jakintsuk epaiturik, azterketa publikoa egin behar izan zuen hamazazpi urtetan, jakintza arlo oro hizgai zuela. Esan beharrik ez dago garaile atera zela froga astun eta mikatz horretatik.

Edertasun handiko emakumea, galaien faltan ez zen egon, haatik bakarra zuen erraiak zimikatzen zizkiona, eta zoritxarra gorpuztu zenean bere maitalea herioak eraman zezala utzirik, eztei atarian alargungai geratu zen gizagaixoa. Gertaera hark ernegaturik mendeari destaina zion aihertsu, eta komentuan sartzeko erabaki sendo eta aldaezina etsi-etsian hartu zuen. Hiru hilabetez soilik iraun zuen San Joseko karmeldar oinutsekin, nondik eri jalgi baitzen; alabainan, bere asmoetan irmo, bigarreanean zatekeen aldia, eta 1669.eko otsailaren 23a izan genuen San Jeronimoko lekaidetxean betiko sartzeko aukeratu zuen eguna. Mexikoko moxategian nahikoa asti zukeen gogoan zituenak izkiriatzen segitzeko, eta ez zen batere makala izan paperean utzi ziguna. XVII. mendeko Hego Amerikako olerkaririk bikainena genuen, Mexikoko Hamargarren Musa deitu zutela garaikideek. Antzerti lan zenbait ere atondu zuen, hala nola, lau auto sakramental -*Divino narciso*, *San Hermenegildo*, *El mártir del sacramento*, eta *El cetro de José*-, nahiz bi komedia -*Los empeños de una casa*, eta *Amor es más laberinto*-, non Calderónen eragina aisa nabari atzeman daitekeen. Hitz lauz ere saiogilerik jori eta naroenen neurrian ibiltzen jakin izan zuen, baita polemikaren harian ere. 1650.eko aste santuan, Antonio Vieyra Portugalgo josulagun ospetsuak Lisboan ogutziriko prediku bati buruzko iruzkinak diren *Carta Athenagórica o crisis sobre un sermón* argira atera zuenean, Juana Inesen aitorea zen Núñez Mirandak lagundiaren aitziko erasotzat harturik, saminki deuseztatu zuen. Pueblako gotzaina zen Manuel Fernández-Santacruzék, Sor Filotea de la Cruz ezizenaren azpian, Asbajekoari zuzenduriko eskutitz ireki bat karrikaratu zuen bake bila, eta mojak halaber, *Respuesta a Sor Filotea* izenburukoaz ihardetsi zion amultsu baina zorrotz. Bere lanen lehendabiziko bilduma Madrilen ageri zen 1689.ean *Inundación castálida de la única poetisa, musa décima Sor Juana Inés de la Cruz* izenburu azpian, eta harrez geroztik aunitz izan dira eginiko edizioak.

Euskaraz ez zuen ezertxo ere funtsez idatzi, baina ezaguna dateke ondu zuen honako bilantziko hau:

*«Pues que todos han cantado
Yo de campaña me cierro
Que es decir que de Vizcaya
Me revisto dicho y hecho
Nadie al vascuence murmure
Que juras a Dios eterno
Que aquesta es la misma lengua
Cortada de mis abuelos.*

*Señora Andre Maria
Por qué a los cielos te vas?
Y en tu casa Arançazu
No quieres estar?*

*Ay que se va. Galdu naiz
Nere vici gucico galdu naiz*

*Juras a Dios virgen pura
De aquí no te has de apartar
Que convenga no convenga
Has de quedar.*

*Aquí en Vizcaya te quedas
No te vas, nere vioza
Y si te vas vamos todos, vagoas.*

*Guasen galanta contigo
Guasen nere lastana
Que al cielo toda Vizcaya
Has de entrar».*

12. Parantzerkiaren adibide bi (1689, 1791)

1997.3.21

Geure marrazkilari xaloek, eta espantu handiz, telebistari dioten higuin gordina azalerazten dutenean, eta ezinago penaturik, euskaraz taxaturiko argitalpen satiriko sendo baten beharra aldarrikatzen dutenean, aharra hutsal batean murgildurik doazkigulako segurantza osoan bagaude, ez ordea haiekin bat ez gatozelako, telebistek honezkero borroka garaitu dietelako baizik, eta, seguruenik ere, ez euskararen mesederako beti. Eta hori diogunean, Nafarroan indarberriturik agertu zaigun telebista genuke adibiderik garbientakoa: ertzo bezain aspergarri, errepikatzaile bezain flako, lekeda bezain arin... Azken buruan, arazoa ez geneukake telebistan propio, ikusentzulegoan baizik: to bazka, irents ezak kaskamuinek kek egin arte zart! Eta oraingoan horren ezinbesteko eskaintzen diguten telebistaren betebeharra, behiala eta luzaragoz, antzerkiak egin zuen, txukunago eta sakon baina. Bestalde, lanen begiztatzeko gutizia bizi-bizia bide zitzaigun, asetzeko zeuden aukerak baino ozenago beti, eta zailtasun horiek jendearen jukutria zorrozten lagundu zuten bereziki. 1689.eko Tuteran, eta urtarrilaren zazpian iragarrita zegoen komediarako, Vizcaino abizeneko 16 urteko mutiko koxkorrak emaztekien gela bateko sarrerak erdietsi zituen nonbait. Jakina denez, ez genuen juan-abastu goianditua tuterar gaztea, eta dohainik eskuratu bi sarrerek ematen zioten aukera burutik aldendu ezinik, hiriko bi apezek galdatu zien, aferaren aitzinarazteko. Esteban Santafe eta Domingo Luna apezek erabaki zutena aisa egitekoa zen, emakumez jantzirik, eta ordaindu gabe, zorioneko sarrera haien ustiatze isilpekoa. Alabaina, sargietan aiduru zeuden igureiek, iruzurraren usaile apartek, begiak eduki zituzten amarrua atzemateko, eta hartaz interesatuei ohartaraziz, zaluren zalu alde eginarazi zieten porruak jorratzera. Txangoa hutsaren aparrean geratu zen, bide batez katu gutiziosoari muturra erre omen zaiolako. Ez zen hartan geratu baina, eta halako hoben sonatua zigortzeko, Esteban Santafe hura giltzaperatu zuten. Epaia, samurregia ez zen izan, eta espetxetik aterata, bi hilabetez goizean ala arratsaldez ospitalera joan beharra izan zuen landerrei jatera emateko.

Hegoaldekoan gizonek emaztearena eginahaletan, Iparraldeko honetan ordea, ohizko moldeak hautsiz, andrazkoa gizonezkoek beregain hartu ohi duten artaren arduradun eta jagole ausarta dugu. Bejondeiola. Marguerite Brunet 1730.eko abenduaren 18an sortu zen Baionan. Bordeleko ursulindarretan ikasi ostean Parisa joan zen amaren aldetiko izeba batengana, arropa denda baten jabea zen Montansierreko andrearengana alegia. Berarengandik geroantzean

berauk ere erabiliko zuen izena jaso zuen ilobak. Parisen hamar urte zeramatza-nean Honoré Bourdon Neuville aktorearekin maitemindu zen, eta horren ka-riaz antzerkiaren munduan sartuko zen betiko. Aktoresa izan zen, ikuskizunen zuzendaria eta galaia, baina berehalaxe utzi zuen dena espekulazioan murgil-tzeko. Zenbait lagun bereziei eskerrak Rouengo antzokia ustiatzeko eskubi-dea bereganatu zuen, eta hainbat konpainia ezberdinen zuzendari lanak egin zituen. Havreko antzokia eraikiarazi zuen, Nanteskoaren eskubideak 1765.ean lortu, eta azkenekoz Nantesen ezagutu zuen M. de Saint-Contyri esker Versai-lleskoarena ere erdietsi. Versaillesen eginiko emanaldi batean Brunetek Maria Antonieta erregina ezagutu zuen, eta handik gutxira Gortearen ikuskizun, dan-tzaldi, festa eta abar guzien eskubidea bereganatu zuen. Orduan handitu zuen Théâtre du Palais Royal antzokia, 1777.ean inauguratu zena. Antzoki horretan bere dohain dramatikoak garatu zituen batez ere, eta izen handiko aktoreak hazi zituen, besteak beste, Amiel, Dugazon, Fleury, Granger, Madame Saint-Aubin edota Tiercelin. Maria Antonietak gainontzeko erret antzokien zuzentzeko es-kubidea ere eman zion: St.Cloud, Marly, Fontaineblau, Compiégne, eta hur-bil izan zen gorteko deklamazio irakasle izendatetik, bere azentuarengatik ez balitz izan, Durasko dukearen begiko onartezina zena.

1789.eko iraultza piztu zenean, Frantzia osoko antzoki guztien kudeaketa eskuratzeko ahaleginetan zebilen. Iraultzaileei susmagarri oso gertatzen zitzaien Brunet anderea aurretik nobleekin eduki harreman naroak zirela eta. Hori guz-tiarengatik estrategia aldatu behar izan zuen, eta Parisko erret antzokitik hur-bil zegoen marioneten antzokitzar bat erosi zuen, baita bertan bere konpainia ezarri ere. Esan gabe doa iraultzarekin aurretiko eskubide guztiak, antzerkiari zegozkionean bederen, bertan behera geratu zirela. Antzoki berria 1791.eko urtarrilean zabaldu zuen eta bere izena paratu zion, Théâtre de Montansier hots. Bere konpainian famazko aktore ugari izan ziren eta iraultzaileen sumin-durak ez erakartzeko, hainbat eta hainbat lan aberkoi taularatu zuen, besteen artean, Lavalléeren *Le départ des volontaires villegeois*, Orvignyren *Le carmagnole à Chambery*, edota Valmonten *Le compagnard révolutionnaire*. Horiez gainera izen ozenagoko lanen estreinakoa eskaini zuen, barbarako Dubuisson eta Sto-raceren *Les époux mécontents* edota Desforgesen *Lesourd ou l'auberge pleine*. Urte nahasi haietan ezinezkoa zen ildo bat atxikitzea, eta konbentzio gerrateek antzerkigintza erabat eten zutenean, Belgikarako bidean ezarri zuen bere an-tzeztaldea, Bruselan sartu ziren gudarosteekin batera. Alabaina, bertan ez zuen arrakasta handirik lortuko, eta berriz ere Parisa abiaturik, errepublikaren an-tzoki nazionala, hau da, Théâtre de la République et des Arts ireki zuen 1793.eko abuztuaren 15ean. Dena dela, orain arteko egin jokaldi guziek ezin zuten

espetxetik libratu, eta thermidorren bederatzira arte iraun zuen preso hamar hilabetez, bere antzoki ondoan zegoen liburutegi nazionala erretzeko asmoz zebilelako salaketapean. 1795.ean arrabataiatu zuen bere antzokia, eta orduz geroztik Berdintasuna antzokia izanen zen. Halarik ere, 1798.ean eta bere egoera ekonomikoaren kariaz, bost bazkideko elkargo bati saldu zion, jatorrizko Variétés Montansier izena manteni zioten arren. Horretan arrakasta itzelak lortu ziren, 1807.ean itxi zuten arte. Geroantzean beste antzoki bat zabalduko zuen Montmartre karrikan, baina indarrak ahultzen zitzaizkiola apurka, lehenagoko oihartzunik ez zuen jada erdietsiko. Marguerite Brunet *La Montansier* bai onar ospetsua zahar itzali zitzaigun, 1820.eko uztailearen 13an, XVIII. mendeko frantziar antzerkigintzako zutaberik irmoenetakoa izan ostean.

13. Hontza galziarraren eta zozo bizkaitarraren arteko dema

1999.4.30

Pedro Fernández de Castro Andrade y Portugal zuen pontekoa Lemosko konteak, eta Madrilen jaio eta hil bazen ere (1576-1622), galziarrak zituen erroak eta galziartzat ematen zuen bere burua. Felipe IV.aren gortean gora egin zuen luzaro, eta Indietako Kontseiluaren lehendakaria izatera erraz iritsi zen, baina jauregiko jukutriek eta goragura zuten beste aitonen semeen azpijokoek sorterrira igorri zuten 1618.ean, minduta eta eskergabeki. Hantxe izkiriatu zuen Lemosko kondeak *Historia del Buho gallego con las demás aves de España* bederatzi orriko kaier laburra bezain eztena. Literatura, bada, ez zitzaion guztiz arrotz kondeari, eta Madrilen zegoela, Lope de Vega edota Cervantes idazle handien mezenas arizan zen -gure Baltasar Etxabek berak Mexikon 1607.ean atera zuen bere *Discursos de la antigüedad de la lengua cántabra-bascongada* liburua eskaini zion-.

Egile-izenik, lekurik eta datarik gabe inprimatu egin bazen ere, Lemoskoaren idazki laburra eskuizkribu gisaz kurriarazi zen gutxiz gehien. Gortean izaniko esperientzia pertsonalak, gorteetaniko eserlekua Galziak XIV-XV. mendeetan galdu izanak eta ordura arte berreskuratzeko eginiko saio guztiak antzuak izateak, eta Galiziari, oro har, espainiar literaturan ematen zitzaion mesprezuzko tratamenduak eroan zuten kondea kaier hura idaztera. Argumentua hagitz xumea zaigu, *locus amoenus* idurikatzen duen txipu hostotsu baten gerizpean Espainiako txorien ordezkariak biltzen dira gorteetan: zozo bizkaitarra, belatz gorri nafarra, kuku aragoiarra, miru kataluniarra, ur-zozo valentziarra, enara murtziarra, pauma andaluziarra eta karnaba portugaldarra, eta horiekin batera, batzarneuntza hartako jabeak diren Gaztelako antzara eta Manchako basoiloa. Afera zera zaie, erabaki behar dute, hontz galziarrak dituen merituak eta dohai-nak kontutan harturik, eia gauza den biltzar hartan sartzeko ala ez. Gaiaren korapilatsuak aharra sortarazi zuen, eta arranoa beste hegazti guztien gainean epaile ezarriz, zozo bizkaitarrak fiskalaren ardura bere gain hartu zuen hontzaren nahiak gordinki zapuzteko; Juantxo Garibai deituriko zozo bizkaitarrak, beraz, biltzarretan parte hartzeko eskubidea ukatu zion hontzari galziarren espainiartasuna ukatuz. Azken horrek, berriz, bere buruaz egiten duen defentsa, funtsik gabeko bezain trebe dena, zozoari erasoan datza: *vizcaino* hitzaren etimologia maltzurra eginez, hau da, bi aldiz Kain, zera zioen, bizkaitarrak direla Titok garaituriko judutarren ondorengoak, geroago Palestinatik aterata Bizkaiko mendietan, beste inon onartuak ez zirelako, ezkutatu ziren berbe-

rak. Epaiaketaren bigarren egunerako zozo bizkaitarrak ez du aurpegia ematen, ahalketurik nonbait, eta hortaz, arranoak hontzari ematen dio arrazoia berauk esandakoetan eta biltzarrean kide sartzeko dituen eskubideak onartuz. Ez zen txori-kaka Lemosko kondeak bizkaitarrak oldartzeko erabili zuen argumentua; alde batetik ideologia tubalisten kirbin makala oroitarazten zuen, hau da, Tubalen etorrera onartzeak inplizituki dakarren Tubalen ondorengoen judutartasuna, nahiz Euskal Herria populatu zuten judutar horiek eta horien segida Jesukristo hil zutenekin zer ikusirik ez duten; eta beste aldetik, Errege Katolikoek penintsulako judutarrak kanporatu eta gero, euskaldunen eskutan geratu ziren komunzki judutar ber haiek betetzen zituzten administrazio zereginak, Quevedek deitu «*cántabros tinteros*» horien aurka gorroto berriak erakarri zituen espainiarrengandik, izan ere, lanpostu haietan sartzeko odol garbitasuna eta kapare izatea eskatzen bazen ere, inor gutxiri ez zitzaion atzentzen euskaldunak, finean, judutarren toki berean zeudela.

Lemoskoak ondu zuen lan tikiari Bizkaitik ateratako erantzuna iritsi zitzaion, *El tordo vizcaino* izenburupean, XVII. mendean isilpeko hiru edizio-tan kaleratu zena –hirugarrena 1682.ekoa izanki-, honakoak ere, egile izenik, tokirik eta datarik gabe. Galziarraren lanean dohain literarioak nabarmenak diren bitartean –satira, ironia, irakurketa arina eta dibertigarria-, bizkaitarraren ihardespena, aldiz, guztiz astuna agitzen da, korapilatsua, jasekoa, serioa eta, oroz gain, luzea, 90 orrialde baititu. Lemosko kondeak zozoari ezarri zion izena dela eta, askok uste izan dute erantzuna Garibairena zela, baina testuaren 88. orrialdean 1638.eko Hondarribiko setioa aipagai izan zuen egileak, eta ezagun denez, ordurako hilik zegoen arrasatearra. Testu hori berrargitaratu zen XVIII. mendean, Antonio Valladaresen *Semanario erudito* astekarian hain zuzen ere –Madrilen, 1789.ean-, alabaina hutsez josirik eta maltzurkeria handiz aldaturiko testuekin agertu zen; XIX. mendean Bilboko *Euscalduna* egunkari euskaltzalean atera zen –1868.az geroz *Jaungoicoa eta foruac* deituko zen hartan berean-; XX. mende honetan, oster, Andres Mañarikuaren edizioa dugu eskuragai, *Polémica sobre Vizcaya en el siglo XVII*, Bilboko La Gran Enciclopedia Vascaok 1976.ean karrikaratu zutena.

14. Nafar apologesiaren zantzuak

1997.6.13, 1997.6.20

Erriberan euskararen galera aspaldiko kontua dateke, baina gure lehendabiziko historiagileen lanetan euskara bertakoa ere bazela argi zuten gauza da, eta atorran ezin zuten kabitu horrelakorik baieztatzerakoan. Erraz deusezta daitezkeen lanak direla esan liezadake norbaitek, baina dagokien garaian ulertu beharreko idazkiak ditugu, eta edonon ere egiten zirenen antzekoak badira, eta gurea ez den adibide bat ematearren, hor ditugu lekuko XVII. mendean González Correasek, Gregorio López Maderak edota Rodríguez Patónek ziotena, hau da, latina zuzen zuzenean gaztelaniatik zetorrela, eta gaztelania Babelgo dorretik Tubalek ekarritakoa zela, penintsulako gainontzeko beste hizkuntza guztiak handik etortzen ez ziren bezala. Lan apologetikoetatik atera dezakegun juzgua arras historikoa ez bada ere, isurtzen duten herriarekiko maitasuna zein tokian tokiko ezaugarri nazionaleri atxikimendua nahikoa adierazgarria da.

Tubalen kontua aipatu zuten idazle nafarrak aunitz izan ziren. Baionako apezpikua eta Nafarroako Karlos II.a eta Karlos III.a erregeen aitorea genuen Eugiko Garziak bere 1389.eko *Crónica general de España* liburuan ohiko usteari atxiki zion: Tubal, Noeren biloba eta Jafeten semea Penintsulara etorri zen Babelgoa gertatu ostean euskara berekin ekarri zuela, halaber zenbait hiri fundatu zituen, haien artean Tuterakoa. Iruñeko Garzia Lopez-Orreagak ber gauza jaso zuen bere *Crónicas de los reyes de Navarra* Evreuxen aldeko idazkian. Diego Ramirez-Arellano Avalos-Piscina lizentziatuak XVI. mendean latinez eta erromantzez ondu nafar eta kantabriar historietan Tudela Tubalek fundatu zuela bazioen jagoitik, eta gisa berean egin zuen Juan Aguilonen bere 1562.eko idazkian.

XVII. gizaldian Tuterakoa zen Pedro Agramont Zaldibar notari euskaldunak izkiriatu Nafarroako historian, doian Mintzoa argitaletxeak karrikaratu duenean berean, berdin zioen Tuteraz, eta euskararen bitartez hainbat hitzen etimologiak eman zituen bere teoriak frogagarri. Agramonten garaikide eta herrikidea zen Pedro Diego Castillo Artiga, San Bernardoren ordenakidea, Tuterako eliza nagusiaren kanonigoa, Malagako elizaren kolegiata, Avilako kanonigo magistrala, Trujilloko gotzaina, Santa Feko artzapezpikua, eta, azkenik, Badajozeko apezpikua, Alcalako unibertsitatean doktore titulua 1626.ean eskuratu zuenean, Tubalen berri eman zuen bere hitzaldian, eta Tuterak Tubalek sortu zuela esateaz gainera, Penintsulako lehenbiziko hiria zela ere zioen argi

eta garbi. Bestalde, argitaratu zituen gainontzeko lanetan, honela aurkezten zigun bere burua:

«D.D. Didaci del Castillo et Artiga, ex nobilissima primaque Tubalis cononia, vulgo Tudela Navarrae»,

esaterako, *Alphabetum marianum* izenburukoan -hil osteko lana, Lugduni, Laurentii Anisson, 1669-, edota *De ornatu et vestibus Aaronis sive comentarii litterales et morales in caput XXVIII* idazkian -ber tokian eta Artzeko Diegori eginiko eskaintza batekin-.

Baxenafarrek Nafarroa Garaian zituzten eskubideen alde agertu zen Juan Sada Amezketa iruindarrak *Historia apologética y descripción del reyno de Navarra y de su mucha antigüedad, nobleza y calidades, y reyes que dieron principio a su real casa, y procuraron sus acrecentamientos y de la duración della, y sucessos, y hechos heroycos y famosos de sus naturales en armas y conquistas* izenburuko lana argitarara eman zuen Karlos Labaienen etxean 1628.ean. Salamancan eta Erroman ikasi ostean, soldadu jardun zuen, Iruñean bertan irakasle bukatu zuela. Lanaren hirugarren zatia Aragoiko Aldundiari ez zitzaion sobera laket, eta liburua galarazteko erret-agindua lortu zuen, «*por confuso, indocto, temerario, fabuloso y perjudicial*». Halaz guztiz, aragoitarrek ukatu ez zutena Iruñekoak euskarari buruz ekarritakoa izan zen, hain zen begi-bistakoa:

«*Los hábitos que usan son tantos que se tiene por cierto no se hallará en la Europa, ni en ninguna otra parte de las que se tiene noticia, donde haya tanta diferencia en un mismo reyno, y algunos tan peregrinos que denotan bien su grande antigüedad y vejez, y ser como dice el maestro Florian de Ocampo, el que sus primeros progenitores, los Tubalos les introduxeron, en que se han conservado siempre, hablándose en el dos lenguas, que son bascuence y romance, pero más propiamente la cántabra vascongada que es la matriz y primitiva que el patriarca Tubal su fundador trajo, la cual se habla en la mayor parte de este reino, sin mezcla de otra ninguna, donde se ha conservado siempre*».

Jose Kontxillos-Markina Ruiz-Laiar tuterar zintzoak bere hiriri buruz egin izan den lehendabiziko historia ondu zuen, hau da, *Propugnáculo histórico y jurídico, muro literario y tutelar, Tudela ilustrada y defendida*, Zaragozako Juan Ibar baitan, 1666. urtean karrikaturik. Lanaren nondik norakoa Jose Moreti ihardestea zetzan, iruindarraren lan ospetsuan Tuteran Muskariarekin berdintzen zuelako, eta gainera, Tubalen historia sinesten bazuen ere, ez zuen inondik inora onartu ere egiten hark Tuteran sortu zuenik, eta Tudela izenean, besterik gabe, Tutela ikusten zuen, Tubalari lekiokkeen Tubela beharrean. Kontxillosek liburu osoa hori deuseztatzeko taxutu zuen. Ostean, Moretek erantzuna argita-

ra eman zuen, *El bodoque contra el propugnáculo histórico y jurídico del licenciado Cunchillos*. Izenik gabe agertu zuen, testuan agertzen diren hiru pertsonaien izenean ez bada, Favio, Silvio eta Marcelo alegia. Lana beharreko baimenik gabe agertu zen, eta hemen inprimatua bazen ere, Colonia Agripinako Severino Clariyrenean egina izan balitz bezala agertu zen 1667.ean. Ber urtean Kontxillosen erantzuna argitaratu zen, baita ezizen eta inprimatoki faltsuen pean ere: Jorge Alceo de Torres, Tuterako semea, *Desagravios del propugnáculo de Tudela contra el trifuace Cerbero, autor del Bodoque*, Amberesko hirian. Moreten erantzuna ez zen gehiago luzatuko, eta erret-agindua lortu zuen Kontxillosen bigarren liburua galarazteko. Jaso ale guztiak erre ziren, eta egun zaila da eskuratzen. Alabaina, bien arteko aharra ez zen berria, eta elkar ezagutzen zuten Moretek bidali zion anonimo bati esker, *Propugnaculo*-aren 137. orrialdean agertzen denez:

«Estando imprimiéndose este tratado, llegó a mis manos un papel sin firma, en que por parte del autor de las investigaciones antiguas de el reyno de Navarra, procura dar satisfacción de lo que escribió en su libro contra la ciudad de Tudela, y persuadir no se saque a la luz el defensorio de la dicha ciudad».

Kontxillosek Tuterako zioarekin egin zuen ber moduan, Arbizuko jauregidun aikoaren Frantzisko Eraso izan genuen Tafallako defendatzaile, izan ere, Kordobako apezpikutegekiko bisitatzaila eta hango eliza nagusiko kanonigoa izan zen huraxek Tafallako fundazioa, Tubala, Tubal mitikoari egotzi zion bere *Discursos históricos sobre la población de España* liburuan XVII. mende bukaeran.

XVIII. mendean egile ezaguna daukagu gure zerrendaren osagarri. Aunitzetan mintzo da Juan Perotxegiz, eta guztietan, zinez, urri. Arestian *Euskaldunon Egunkaria*-rekin argitara atera euskarazko entziklopedian nafar sendiko soldadu lapurtar aurkezten zaigu, Ainhoakoa hain zuzen ere, ez dakigu ordea informazioa nondik hartua den. Beste nonbaiten berriz garestarra dakarkigute. Berauk «*theniente provincial de artillería y comandante del reino de Navarra*» besterik gabe aurkezten digu bere burua. Edozein modutan ere arras ezaguna eta zabaldua izan da bere lana, Bartzelonan 1731.ean estreinakoz agertu zena: *Origen de la nación bascongada y de su lengua de que han dimanado las monarquías española y francesa y la república de Venecia que existen en el presente*. Bigarren edizioa Iruñean ageri zen, Martinezen etxean 1760.ean, Azantzako Migel Bonifazioa anaiak xedatu onarpenarekin. Eman zizkigun etimologiak asaldagarriak dituzkegu oso:

«Escuara *viene de* asco gara, bayascogara»,

eta ahalegindu zen Europako hamaika toponimo euskararen bitartez azal-tzen, berak bisitatu lekuenak bederen: Espainia, Frantzia, Italia, Grezia, Asiako Hiberia, Germania, Noruega eta Ipar Amerika. Tesi tubalista gogotik defendatzen zuen eta ezpal bereko gainontzeko testuetan kausitu ezin daitekeena ager-tu zuen, hau da, euskaraz eginiko testurik, nahiz arras llaburrak diren. Hona hemen adibide bi, bata hilarri baten epitafioa:

«Aife dago emen datzana
Nor bere echean den bezala
Aifeago Ceruan dagoena
Baliz bezala Jefufen Itzala»,

eta bestalde noblezia zer den zehazteko defnizioa:

«Ohore handia da Equizaqui
Aita honetarik etortzea
baiñan Urrunzen dira feguqui
diotenec hau dela afco izaitea
Nior es da Ceruan Sartucó
es ohore onerat helduco
norc here bere aldetic
ez badu arcen preftutafuna
eta hidalguiaren adertafuna
Jesus Eftiaren amoriotic».

Ez dugu gehiegi luzatu nahi, eta ahitzeko XIX. mendeko historialari baka-rra ekarriko dugu. Jose Nadal Gurreak *Glorias navarras: historia compendiosa del origen del antiguo reino de Navarra* idazkia Iruñeko Sixto Diaz Espadaren etxean inprimarazi zuen 1866.ean. Horrek jada Tuterako sorrerarenaz zioenak egiantzik doi bat nabarmenagoa zeukakeen:

«*A pesar de todo lo que se ha escrito sobre la fundación de esta ciudad, nos inclinamos a creer que su origen es romano por su nombre Tutela. En la lengua de los árabes fue Tothila, Todela y Tudela.*».

Ondoan, Nafarroa hitzaren etorki arrotza proposatzen zuen:

«*En los tiempos más antiguos se conoció Navarra con el nombre de Vasconia. El pueblo que hacia la mitad del siglo VIII se conocía en Vasconia como navarro era originario de los godos, que en tiempo de Suintila y Wamba se establecieron en el país. Esta colonia a la entrada de los árabes era poderosa. Poco a poco fue oscureciendo el*

antiguo nombre de la tierra, y aunque por bastantes siglos duró esa rivalidad al cabo vinieron a mezclarse y confundirse en una sola nación de un mismo nombre».

Horixe izan zen, bestalde, Iruñearen etimologian hiru gauza on ikusten zituen, Erdi Aroan Karlos III.ak batu hiru burguak hain zuzen, eta luzaro onartua izan zena.

Gorago esan bezala, argi dago historialari nafar hauen guztien egiazkotasuna edota zientifikotasuna kolokan jartzekoa dela. Ez zuten, beste batzuk duten bezala, euskal unibertsitate moderno eta serio baten abaroan lan egiterik. Baina nafarrak zirenez bezainbatean, nafar hizkuntzari zioten maitasunean askozaz ere aurreratuagoak zeuden egungo katedradun batzuk baino, eta bistan denez, irakasle jaun hantu erretxin hauek asko ikas dezakete oraino klasiko zahar zoro amultsu haiengandik. Ahal badute behinik behin.

XVIII. MENDEKO

15. XVIII. mendeko erret oroitegi zenbait (1707)

1998.1.16

Gutxiri atzendu izan zaio nafar agintariak ospakizun ekitaldi ofizialetan erabili ohi izan duten hantukeria hutsala, oraindik orain erakutsitakoa, eta damuz, geroantzean ere jasanaraziko digutena. Halaxe izan zen XVIII. mendean ere bai, eta orain bezala, gehiegikeria ertzoa zeritzonik ere bazegoen egon. Ezagun da Isla josulagun irribarretsu eta euskaltzaleak Fernando VI.aren koroatzea zela eta enkarguz taxutu *Día grande de Navarra* 1746.eko idazki satirikoa, bai eta haren ondotik ateratako ihardespren zakar eta minberatuak, esate baterako, Valentzian karrikaratu *Colirio para los cortos de vista*, eta abar. Alabaina, Isla aitaren ikuspegi kritikoa ez zegokeen guztien eskura, eta hagitzek arruntagoak izan ziren adiurre korapilatsutan kiribilkaturiko lan handinahiak. Bihoaz hemen baten batzuk.

Felipe V.aren premua jaio zenean Tuteran izan ziren festen deskribapen zehatza Agustin Itsaso Ximenezek ekarri zigun, *Diario de las grandes fiestas con que la muy antigua, M.N. y M.L. ciudad de Tudela ha celebrado el feliz nacimiento del serenísimo Príncipe de las Asturias*, Logroñon, Diego Revillarenean, 1707. ean agertu zena. Ez ziokeen on gehiegirik ekarriko Luis gizagaixoari, erregetza laburraren laburra joan baitzitzaion.

Urte batzuk beranduxeago, Martin Salgado agustindarrak izenburu maltzurra daraman honakoa atera zuen: *Congratulación festiva y expresión amante con que hizo visible el alma el noble fiel político cuerpo de la grande augusta ciudad de Tudela en la alta casualidad de ilustrar su suelo la perla de Alemania que con el engaste español brillo en la mano del gran monarca Carlos II a quien el polvo le sea leve: la gran reina nuestra señora dña. María Ana de Neoburg, primera viuda de España que consagra dicha ciudad a los reales pies de su majestad por mano del Ex. Sr. Marques de Santa Cruz*, Logroñon ere, Mathias San Martin baitan, 1739. urtean. Idazkiak Karlos II.aren alargun Neoburgoko Maria Anak Frantziatik bere erbestetik bueltan Madrilerara zihoala eta Euskal Herritik igarotzerakoan -Baiona, Donibane-Garazi, Iruñea, eta Tuteran- Tuteran eginiko pausaldiaren berri emateko oroitegia dugu. Erregina ohia 1738.eko apirilaren 27an iritsi zen Tuterara, eta bi egun beranduxeago joaten zen Zentronikorantz, Guadalajarako bidetik. Eginiko ospakizunen artean, suak, dantzak eta zezenketak izan ziren. Santa Anako kaperan *Te Deum* bat kantatu zen. Salgadorean idazki arraroaren bitxirik nabarmenetakoa hizkuntza ezberdinez osaturiko hamarrekoa dugu, euskara tartean naski:

«at. *Quorsum tendis sine me*
 basc. *Andrèa nere vizia?*
 ytal. *Ha! Chi è questo, dove và?*
 españ. *Lo que mi alegría fue*
 francés. *Voyant cela, sont fache,*
 arabig. *Amará arrajeliá*
 gallego. *En chorar à xentedá*
 portugues. *Naon à vendo no seu pazo*
 griego. *Hé basilisa (stonaxo)*
 xerga. *Los chisos no endirga ya*»

Tuteratik atera gabe, eta Fernando VI.aren koroatzea zela eta, Mazedako kondesari eskainitako honakoa argitara eman zen egile izenik gabe: *Demonstración de la lealtad de la fidelissima ciudad de Tudela a la proclamación y levantamiento de pendones por la majestad de el rey NS Fernando II de Navarra y VI de Castilla y descripción de los regocijos públicos con que se celebró este acto el 29 y 30 de noviembre y el 1 y 2 de diciembre de 1746*, Zaragozako Joseph Forten etxean, 1747.ean.

Ez dakigu sendi erroak Zangotzan zitzakeenez, mende hartan Burgosko artzapezpikua izandako José Xavier Rodríguez-Arellanok aditzera eman liezagukeenez, halaz guztiz, Bizente Rodriguez-Arellano del Arco Cadreitakoa bide genuen. Aita, berriz, Bizente Rodriguez-Arellano de los Rios abokatua, Uxuekoa zen, garai hartan oraino herri euskalduna zena. Aita izenkideak Gaztelako erret kontseiluetako abokatu ziharduen, 1769.ean Nafarroako Aldundiaren sindiko izendatu zuten arte bederen. Orduan, nafar agintariak berek erregeari eskatu zioten bete gabe zirauten erresumaren gorteko legegizon karguetakoren bat berari emateko, aisa erdietsi zuena, eta orduz geroz Iruñean izan zuen bere bulegoa. Horregatik agian, Bizente semeak nafar hiriburuko josulagundiaren ikastetxean ikasi zuen. Latina zein giza ikasketak bukatu ostean, Oskako uni-bertsitatera joan zen zuzenbide titulua atzematera, eta aitaren bulegoan hiru urte eman ostean, 1782.ean Madrileran abiatu zen, behingoz eta betikoz, antzerkigile eta arte ederren munduan murgiltzera, bere laketgarrirako seguru, aitarenako ez horrenbeste. Madrilen, asko izan ziren izkiriatu zituen lanak, 60tik gora antzertilan ehundu zituen esaterako, baita eleberri, olerki-lan, itzulpen eta frantsesetiko egokitzapen ugari ere. Gaztelan zegoela, ez zuen Nafarroarekin zezakeen harremana erabat eten, eta Karlos IV.a errege egin zutenean, *Navarra festiva en la aclamación de su católico monarca el señor Carlos IV* izenburukoa argitara eman zuen Iruñean, Gaztelu plazako Benito Cosculluela baitan, 1789.

urtean. Horixe silba egiturazko olerki luzea dugu, 31 orrialdetan, Gaztelako Karlos IV.a eta Nafarroako VII.a errege berriaren koroatzea zela-eta Iruñean egin ziren festen harian. Ez da deskribapen zehatz-mehatza, eta tankera nahikoa kulteranista dugu, nahiz Arellanok taxutu bestelako lanetan ilustrazioaren hatza nabarmena izan. Ziurrenik ere, estiloarena gaiak berak markatuko lioke, eta bilbe horretako lanetan usatua zenera lerratuko zen besterik gabe.

16. Frai Meltxor Oiangurenen lanak (1715)

1995.6.23

Euskaldunok, Filipinak uharteetako biztanleei, okupatzaileak jazotzeaz gainera -oroit bedi bestenaz Urdaneta ordiziar konkistatzailea eta Legazpi Zumarragako nabigatzailea-, hizkuntzalaritza kontuetan garrantzi nagusiagokoak gerta gakizkieke, Bare itsas zabaleko irlen izen beretik hasita, izan ere aipatu Legazpi gobernadoreak Espainiako Felipe II.aren omenez bataiatu baitzituen. Halere, bada interes handiagoa sortaraz dakigukeenik, politika kontuak alde batera utzirik, eta hizkuntzalaritzaren mundu labainkorrean barrena abiatuta, Larramendi beraren aurreko erraldoi bat aipatuz, frai Meltxor Santa Inesena frantxikotarra hain zuzen ere. Pedro Eugenio Oianguren Azkarraga 1688. urteko azaroaren 18an sortu zen Gipuzkoako Leintz-Gatzaga bizkai herrian. 1705. urtean Valladolideko San Diegoko komentuan Asiskoren abitua jantzi zuen lehendabiziko aldiz, eta handik bost urtetara, Filipinetara joatekoa zen misiolari talde batean sartu zen, Mexiko eta Manilarako bi urteko bidaia Acapulco-ko itsasontzian eginez. Kotxintxinara joatea egokitu zitzaion eta hara ailegatu zenean bertako jentilek giltzaperatuz harrera ezin hobea egin zioten, handik gutxira Manilara harzara igortzeko. Manilako nagusiak aski kaxkar ikusi bide zuelako edo, 1721.ean Mexikora bidali zuen, gure Meltxor handik Kantabriako probintziara itzul zedin asmoz, baina uste aitzinetik sendatu omen zen eta, Mexikoko Cuevasko komentutik berriro abiatu zen Filipinetara 1724. urtean. Lehendabizi Doktrinero izeneko herriko Aguas Santasko lekaidetxean egon zen, geroago Sariaia herrian erretore gisa jarduteko. Orduan hango harrizko eliza eraikitzeari ekin zion, eta igeltsu eta karez begiak itsututa Mexikora abiatu behar izan zuen berriro 1736. urtean. Bizkitartean, bere asmoa amets, behin betikoz Japonera joatekoarena, bertan behera utzi zuen. Hortxe erdizka sendatu zen eta bere idazkiei eskaini zien orduan zuen denbora guzia. Azkenekoz, 1747. urteko martxoan hil zen San Agustin de las Cuevasko haur babes-etxean, 1737. urtetik bertako arduraduna zela.

Zekizkien hizkuntzak ugari eta ezohikoak ziren, hebreera, greziera, latina, txinera, tagaloa, japoniera, aramita eta malaiera. Horrelako hizkuntza ondare itzelarekin meritu ikaragarritzko lanak ondu zituen. Egun, bi besterik ez dira geratzen, eta halere benetan arraroak dira kausitzeko. Hauexek ditugu: lehendabizi 200 orrialdetik gorakoa den *Arte de la lengua japona, dividido en quatro libros según el arte de Nebrixa, con algunas voces propias de la escritura, y otras de los lenguajes de Ximo, y del Cami, y con algunas perifrases y figuras*, Mexikon

agertu zena, Joseph Bernardo Hogalen etxean 1738. urteko San Jose egunean bertan. Bertan japoniera ikasteko metodoa azaltzen zuen, aditz taula osatu batekin eta espainiera-japonierazko hiztegi labur batez hornitua. Marcellino Civezza bibliografia konposatzaile italiarrak bere 1879.eko *Saggio di bibliografia geografica storica etnografica sanfrancescana* saiakera mardulean honela zioskun Oiangurenen liburuaz:

«Libro rarissimo de importantissimo per gli studi della lingua giapponese venduto ultimamente en Parigi 250 franchi [1874. urtean hain zuzen ere]. Un esemplare manoscritto di quest'opera era posseduto dal Klaproth peri cum tutti gli altri nel incendio della ricchissima biblioteca di questo insigne orientalista».

Heinrich Julius Klaproth (Berlin, 1783-Parise, 1835) San Petersburgoko akademiaren txinera irakaslea genuen 1804. urtetik aitzina, eta Kaukasoko hizkuntzen ikertzailea -*Reise in den asiatische literatur*, San Petersburgo, 1810; *Asia poliglota*, Parise, 1823; *Tableau historique, géographique, ethnographique et politique du Caucase*, Parise, 1827-. Bere bigarren lan argitaratua *Tagalismo elucidado y alusión que tiene con las lenguas china, hebrea, y griega* dugu, Mexikon ere agertua, Frantzisko Xabier Santxoren moldiztegian, 1742. urtean, 240 orrialdeko lan burutsua izan zela.

Baina euskaldunei gehien interesatzen zaizkigun bere hiru lanak egun galduta dauzkagu tamalez. *Diccionario trilingüe tagalo-castellano-cántabro*, *Cantabrisimo elucidado* eta *Arte de la lengua vascongada*. Azken bi horien erreferentziak ezagunak diren aipatu bi liburutan bazekartzan:

«Otras raíces son indiferentes para uno y otro sexo, y ésto sucede también en la lengua hebrea, como lo tenemos probado en el Arte cantábrico que se escribió en el año 1715 y en el Cantabrisimo elucidado», eta *«La lengua japona en la mayor parte es subjuntiva, como lo es nuestra lengua vascongada de que egimus in sua arte».*

17. Euskarazko gorespen olerki zaharrak III (1743)

1999.6.11

Valladolid aldeko Alaejoskoa zen Bernardo Recio josulaguna Oñatira irakasle iritsi zenetik euskara ikasteari ekin zion Larramendiren gramatikak lagundurik, eta gauza izan bide zen bere predikuak zein herririk herri egiten zituen misionestetan artzain lanak euskaraz borobiltzeko. Espainiako Felipe V.a 1743. ean hil zelarik, Salamancako ikastetxean lagundikoek berebiziko festa ospatu zuten, aitzakia hoberik nekez ez ohi baitzen elestarien hitz jario erreztatuak agerian uzteko. Aitzakia bera profitatuz, ikasitako euskara erakutsi zigun Recioi okasiorako hileta bertsoak atonduz:

«Il ote da?
Il ote da Felipe?
Baietz esaten da
Bai bada erregueac ere
Biurtu bear dute berriro lurrera
Aurten il da diote
Gure erregue ona
Esan bear da alere
Bera il cela ez aurten, baice ainchina
Erreguen iltzea cer
Da? Coroia utzitzea
Ta cenbat urte da ce
Utzi zuen gure Felipec coroia?
Ez negar orregatic
Españarrac ez negar
Baldin ain ainchinatic
Badator gure erreguearen eriotza
Ordu batean diotenez
Eroan cion eriotzac
Baña berac urte asco
Pocic eguin cituan eriotz otoitzean
Odolca su sartu
Zan Felipe Españara
Bere eriotzac orregatic
Quentzen eztigu daucagun baquea

Ain ondo biciric
Ez bildur bere arimaz
Baice ichain dizaquegu
Sartuco dala baquean cerura
Igo dedin lurretic
Ganbara urdin artara
Beti zañean da egongo
Jaungoico danezan betico eureñuan
Iru seme erreguequin
Bera erregue birritan
Icentatzen da oegatic
Felipe au bi bider bostgarrena
Bici dedilla Fernando
Carlos bici dedilla
Bada Luis ainchina dago
Ainguerua leguez aingueruen artean».

18. Sineskeriazko literaturaren adibideak II (1745, 1786)

1997.6.6

Raimundo Amunarriz Labrit Erriberriko semea eta zisterreko anaia legoa zenak gertu-gertutik jarraiki zion aurrekoari. Musikari ona, organo-jole nahiz organogile aparta omen zen, Iruñeko eliza nagusiko organoari buruzko 1744. eko iritziak horren bermagarri ditugula. Felipe V.ak Martzillako komentuko abade izendaturik, bertan hil zen 1753.ean. Ale asko zituzkeen bildumaren hasmentakoa baizik ez zuen karrikaratu, hau da, *Tablas systemáticas de la creación del mundo, de su orden y sus estados, explicadas y moralizadas*, Iruñeko Martinezen etxean 1745.ean. *De la creación del mundo en común y de la naturaleza angélica en particular* honek oretu gaiak hauexek ditugu: jainkoa nor den, honek mundua nola sortu zuen, munduko estatuen historia laburra, zein gauzak diren ezerezetik sortuak izan direnak, aingeruak nola sortu ziren eta aingeru txarrak zergatik matxinatu ziren, eta azkenik, aingeru guztiak, onak zein gaiztoak, nola gobernatzen diren. Deabruaren alde diren aingeruez idatzirikoak goxoenak dira:

«Lucifer y sus malos angeles se gobiernan en el reino del infierno por 9 órdenes, al modo de los batallones, y los oficios en los que se emplean los demonios son: pseudotheos, mendaces, vasos de iniquidad, furias infernales, diablos exterminadores, aéreas potestades, prestigiadores, criminatrices, tentadores».

Aéreas deitu zituenen zeregina honakoxea dugu:

«Su oficio es alterar los elementos y fulminar tempestades. Son los que mezclándose con las nubes, corrompen el aire y hacen a los truenos más terribles»,

eta horrekin batera Nafarroako apez ehiztari baten ipuin pollit bat ekarri zuen adibide.

«Habiendo salido cierto sacerdote de Navarra, después de la hora meridiana a cazar, notó que repentinamente se formó una nube, la que le pareció ser tempestuosa y de mala calidad, por lo que determinó dejar la casa. Mas sin darle lugar para la vuelta, se enderezó hacia el lugar en el que él estaba con precipitada marcha despidiendo fuego y piedra. Pero habiendo advertido que delante de aquella tempestuosa nube, venían como guiándole unos cuervos, y que su vuelo, aunque rápido, era poco remontado, disparó a uno de ellos su escopeta, al cual le hizo dar ciertas vueltas en el aire a modo de remolino, en lo que conoció le había herido. Habiendo notado que al tiempo de las arremolinadas vueltas del cuervo cayó al suelo cierta cosa por el aire, se detuvo en registrar que cosa era, y halló ser la puerta de su casa. Admirado por ello partió apresurado y encontró a su madre en cama, muy mal herida del tiro».

Azken boladan modan jarri diguten Uxueko izenaz ere berea eman zuen:

«*Llámase este pueblo Ussua en la lengua vascónica, que es lo mismo que paloma en el castellano idioma*».

Urantziako Frantzisko kaputxinotarrak (1745-1812), 1760.ean Zentronikoko komentuan profesioa egin zuenetik, pisuzko karguak izan zituen, besteak beste, Iruñeko komentuko zaintzailea, ordenako definidorea edota probintziala, eta lan ugarien egilea izan zen: *Análisis de los tres concilios apostólicos y 20 concilios generales*, Madrilen, 1782.ean; *Noticia de cuando se inventaron las artes*, Iruñean, 1784.ean; *Análisis de las sagradas escrituras*, Madrilen, 1787.ean; eta batik bat, guri interesatzen zaigun *Conversaciones instructivas entre el padre Frai Bertoldo y D. Terencio*, Iruñean 1786. urtean argira ilki zena. Juan Bautista Jordan, Iñigo Claro eta Jose Etxeberria zentsoreez osatu hirukoteak baimena eman bazion ere, bertan esanikoek idazle ilustratuen kritika latz eta deuseztatzaileak eragin zituzten, eta, hondarrean, inkisizioak debekatu zuen 1789.eko maiatzaren 24an, irakurlea erlijioaz trufatzera eramaten zuelako uste nabarmenean.

19. Frantzisko Antonio Larramendi, antzerkiaren zirikatzaile (1756)

1996.8.23

Anitz-anitzak ditugu historia osoan barrena antzerkia bere-berean eta erroetatik deuseztatzeko eginiko saio antzu elkorrak, eta horien artean, garrantzitsuenetakoren bat, Gaspar Díaz lagundikoak ondu zuena. XVII. mende hondarretan Kordoba hirian sortutako josulagun huraxe zama handiko gizona omen genuen, eta beste askoren artean, Baeza, Kordoba, Sevilla edota Cadizko ikastetxeen zuzentzeko arta egokitu zioten garaiko ordena buruek. Ez zuen antzerkiarena mintzagai bakarria izan gura, eta zortziko neurri erosoan eritasun larriak sendatzeko eskuliburu baliagarri eta egun hagitx ezezagun agi litekeena inprimarazi zuen 1756.ean, aurrealdean honako izenburu hau harro zeramana, hots, *Método utilísimo que debe observarse en la curación de enfermedades graves*. Nolanahi ere, guri zuzenean dagokigun izkribua Cadizko erret moldetegietaik ilkiaraziriko *Consula theológica acerca de lo ilícito de representar y ver representar comedias* delako ia 200 orrialdeko liburuki mardula dugu, batereko duda-muda izpirik gabe. Argitara eman aurretik, eta liburuarentzako berme egoki baten kausitzeko asmoz, hirian zeuden elizgizon goren ia guztien aitapontetasuna atzematen ahalegindu zen sutsuaren sutsu, begi onez eginiko hamar zentsura eta iruzkinez, ez gutxiago ez gehiagorekin, ehundutako labela hain zuzen ere, testu osoari hasmenta ematen zion estrena izanik. Halaz eta guziz ere garai hartan guztietan garrantzirik astuneneko oniritzia zatekeen Gaztelako Kontseiluaren baimena eskuratzen aherentzi omen zitzaion Díaz jaunari, eta Kontseilukoek, halako ahazte nabariak aztoratu eta zukuruzturik nonbait, inprimatu aleki oro jasotzeko agindua luzatu zuten Kordobako apez hertsia egin lan alfer osoa saritu nahian doike, inprimatzaileari mila dukateko isun larria ezarriz zedarritu erabakia doi bat ere borobiltzeko. Harrez geroztik arras idazki bitxi jazo da, nahikoa zail eskuetara helarazteko bederen. Alabainan bigarrenez 1815. ean karrikaratu zuten Kordoban, aldatuxea izan ere. Guztiarekin lehendabiziko edizioaren oihartzuna uste baino ozenagoa gertatu zen, eta orduko aktore zein komiko guztien batzak Kontseiluaren ministroa zen Baltasar Henao zenari liburua debekatzeko eskaria egin zion, baita lortu ere, esana geratu den legez. Iskanbila dena den ez zen hartan geratu, eta aldeko nahiz kontrako hamaika hitz eta pitz ogutzi eta izkiriatu zuen elestari hantu berritsu batek baino gehiagok. Jakina idia ez da bakarrik uztartzen.

Gaspar Díaz lagunkide andaluziarraren idazki kalapitatsuaz begiak bete zituzten epaile zuzen eta bihozbera hamar haietako bat gurean kasik batere aditua ez den Manuel Larramendiren lehengusua bera genuen. Ezagun da hiztegi hirukoitzaren egile maratzak amaren aldetiko abizena aukeratu zuela izen publikotzat, bada lehendabiziko deitura Garagorri baitzuen, Andoaingo sortetxearen berbera alegia. Larramendi izenak ostera Hernanin zuen jaioterria, eta hernaniarrak ziren naski gure Garagorri ezkutatuaren askaziak. Gure Frantzisko Antonio Larramendi Hernanin sortu zen, esan bezala, baina lasterreanean alde egin zuen Espainia aldera, euskaldun hainbatek egin antzera, beti ere gizarte mailan porturik goitienaren xerka, eta horrela, Salamancako San Bartolome ikastetxean aritu ostean, Cadizko magistrala eta bertako kapilau nagusia izatera heldu zen. Alta bere apez karreran erdietsiriko garaiak ez zuen guztiz asetu, eta zeraman bizitza marketsak ezina zuen goibelgarria zen herrimina ezabatzen. Frantzisko Antoniok landu zituen harremanen artean, Isla aita idazle ospetsuarena zegoen, eta gutunen batean, Leongo josulagun euskaltzalea honela mintzo zitzaion amultsuki, ahal oro euskararen miresle:

«Euskararekin hain maitemindurik nago, ezen gehiegikeri eta lausengurik gabe esan ohi dudala ene eri txipia emanen nukeela nahikoa balitz hizkuntza goxo hori osoz ikasteko. Lortuko banu, ez ezazu zalantzan jarri, ez nukeela aldatuko Cadizeko konfesionarioa erregearen berarenaren truke».

Gaurko ildo nagusira itzuliz, eta Díazen liburuari buruz, Hernanikoak eman zituen aburuez, esan behar dugu aitzakia hobea izan zuela antzerkiaren aurka ongi egituratuta zegoen eraso argi eta garbi bat taxutu ahal izateko. Erabili zituen arrazoi frankoen artean zera zioen, josulagunez gainera baita domingotarrak ere bere egin zutela antzerkiari aitziko borroka, «*la tema de los jesuitas contra las comedias*» alegia. Ez dakigu ordea hegoaldeko urrutiko lurralde haietan tema hitzarekin Larramendi txikiak esan nahi zuena bertakoek ezagutuko zutenetz.

20. Baretti eta Ulloa anaiak: italiar ziria euskal muinean (1761, 1835)

1997.4.25

Ez bide zen zotzetan ziria sartzen aritzen zen horietakoa, horixe ezetz, Baretti signorea. Hala beharko bestalde, bideak luze korritu baitzituen Piemontekoak, luzez eta gelditzeke. Giuseppe Marcantonio Baretti Torinon jaio zen direla 278 urte, 1719.ean hots, gaur bezalako apirilaren 25 batean, bejondeiola beraz. Aita arkitektoa zuen, eta gure Giuseppe halakoetan jardunen zukeen hain ikuste laburrekoa izan ez balitz. Alabaina aita zekenak aisa bilatu zion konponbidea semeari: apez sartu eta akabo buruhaustek! Halaz guztiz Baretti txipia ez zegoen horrelakorik onartzeko prest, eta begi txatxekoa bazen ere, ergela ez genuen, eta etxeko babes interesatua utzirik, Guastallan zuen osabarengana ihes egin zion aitari. Guastallan bulta llaburra eman zuen eta maite zuen jardunari lotu zitzaion ikasle: bidaiatzeari alegia. Ez zegokeen oker bada, eta argien mendeko ilustrazioak bultzatuari muzin ez egin nahirik, bidaiaria hartu zuen jakintza-iturburu.

Hasiera batean Italiako iparraldetik barrena ibili zen, baina harat-honat hauen guztien hondarreko helmuga Londres izan zuen 1751.ean. Bertan ez zen geldirik geratuko, eta laster batean Italiar Antzokiaren zuzendaritza eskuratu zuen, baita Pinturaren Akademiaren idazkaritza ere. Zaluren zalu bere burua ezagutaraztera eman zuen, ongi baino hobeto gainera. Samuel Johnsonen taldekoa, frantziar entziklopedistei aitziko iritziak jaulki zituen gogorki, eta Rousseauri eta Voltaireri oldartu zitzaien gupidagabeki. Italiarra sorlekura itzuli zen, halaz guztiz, baina ez zuzen-zuzenean, eta hegoaldeko Europa ezagutzeko zituen grinak betetzearren, Frantzia, Espainia, eta Portugal bisitatu zituen Italiaratu baino lehen. Veneziara arribaturik, *Frusta letteraria* izenburuko aldizkari literarioa sortu zuen Aristarco Scannabue ezizenaren azpian. Alabaina, orrialdeotan agertzen zituen kritika lakarren kariaz, zenbaki bakan batzuk baizik ezin izan zituen argitaratu, 1765.ean debekatu baitzioten. Afera horrek bereziki etsi zuen gure gizona, eta Londresera bueltatu zen behin betikoz. Londresen harreara hobexegoa izateak ez zuen esan nahi areriorik ez edukitzea, eta larritasun esturen batean baino gehiagotan dantzatzea egokitu zitzaion, hala nola, bere izterbegi literario bat hil zuenean bezala, nahiz fitean fite epaileak aske utzi, bere buruaren defentsan egin omen zuelako. Giuseppe Baretti ingeleserrian zendu zen 1789.eko maiatzaren 5ean.

Hamaika lanen egilea, zorionez bere idazki guztien bilduma aspaldidanik argitaraturik dago, zoritxarrez ordea gurean ez da azaldu oraino. Edozein modutan ere, gure interesekoak baditu izkiriaturikoen artean, batik bat aipatu Europariko bidaiari buruz onduak direnak. Horiexek, Milanen 1761.ean lehenbizi eta ostean Londresen 1768-69.ean ageri ziren: *A journey from London to Genoa through England, Portugal, Spain and France*. Euskal Herritik ibili zela esateko arrazoi beste ez dugu, baina euskaldunei buruzkoak jaso zituen, bereziki Aragoi zeharkatzen ari zela bidaiada zuen Sigüenzako kanonigo batek esanak. Lehen eta behin Penintsulako hizkuntza ezberdinen berri eman zuen, zertan ziren eta nondik zetozkeen. Euskara, penintsulari zegokionean, Irunen, Tafallan eta Santanderren erpinak lituzkeen hirukian mintzo zen eta Europako gainontzeko hizkuntzekin erkatuz gero zer ikusirik ez lukeen hizkuntza bezala definitu zuen. Sigüenzako apezaren hitzak ez ziren bero-beroan eginikoak, zorroztasun hotzean baizik, eta maitasun apologetikorik nehondik ere atzematen ez den arren, espainiar egileek hain usu zerabilten euskararekiko aiherra ere ez. Kanpotarra izateko jantzi samar agertzen zaigu italiarra, geure orduko plaza gizonen ezagutzaila, eta Larramendiren gramatika zein hiztegia papereratu ostean, euskal literaturaren hainbat ukitu tipil marraztu zigun. Bitxia ere gerta dakiguke Sigüenzakoak eman zion euskalkien berria, hala nola, hizkuntza iturrama zen Bizkaikoa, Nafarroakoa eta «baskoa», hau da, Iparraldean eginen zen hura. Guztiarekin Baretti hizkuntzalaritza kontuetan ez zen batereko inozoa, hainbat hiztegiaren egilea baikenuen, baita gramatika egilea ere: *Introduction to the most useful languages: english, french, italian and spanish*. Alabaina euskararen balizko ahaidegotasunak bilatzerakoan alde zurretik jada jorrraturiko bide antzu bate-tik abiatu zen, egun, arras bitxia eta barregarria agitzen zaigukeena. Eireko John Farrelen aholkularitzarekin, gaelikoaren ahaidetzearen aldekoa azaldu zen, eta horren frogatzeko, latinez, euskaraz eta Eireko gaelikoaz ondu hiru aitagure eskaini zituen bere bidaiari liburuan, bere teoriaren frogagarri eta sustagarri. Ostean euskara-ingelesa hiztegi laburra ekarri zigun. Ez zen erabat gauza berria, eta 1738.ean, Frantzisko Gaintzak, Iruñeko Kuria karrikan zegoen Picarten etxean argitara emaniko *Historia de la Universidad de Irun-Uranzu* liburuan Irlandako biztanleen euskal etorkia frogatzeko ahaleginetan aritu zen. Eta ezer frogatzeko baliagarria baldin bazuen, hori, Irlandako izen bera genuke, hiri-landa batetik eratorriko litekeena.

Antonio eta Pietro C. Ulloa anaiek ere, hainbat urte beranduago, Euskal Herriari buruzko aipamenak utzi zizkiguten gurean egin zuten bidaiari baten hariaraz, *Della Biscaglia e della Navarra: breve descrizione fisico-statica de alcune*

considerazioni storiche all'vopo di far meglio conoscere y fatti della presente guerra,
Napoliko Rusconi anaien moldiztegian, 1835.ean. Gerratea naski lehendabi-
ziko karlistaldia genuen, eta tamaina urriko honetan isuritako hamaika topiko
zaharren artean, bihoa Euskarari buruz ekarri zutena:

*«Le Biscaglie han l'antico loro linguaggio, e non somiglia in nulla alla lingua
spanuola. Essa si e conservata senza alterazione e senza corruzione, segnestamente
frá monti. Dura e selvaggia all'udito di chi l'ignora, dolce de espresiva per que'che
l'hanno in pratica. Le parole conservan tuttora le significazioni primitive. Essa è,
se star si vuole alle prove addotte del Garat, como l'antica Cantabra, assai armo-
niossa».*

21. Musikaz blai!: XVIII. mendeko ideiak musika inguruan (1761)

1996.9.27, 1996.10.4

Badugu XVIII. mendea tirabira zein eztabaida ugariren garaia, gibeletik zetorren tradizio zaharra eta aitzina begira sortzen ari zen pentsamendu berriak elkarrekin topatzeko tenore liskartsua hots. Musika arloan, besteetan agitu bezainbatean, errienta luze eta franko garatu ziren ildo zaharretatik heldu eta berriei atxikitzen zitzaien artean. Nolanahi ere, arrakasta osoa erdietsi zuten berrikuntzez gainera, egun hagitz ganoragabeak iduritzen zaizkigun hainbat saio ere jazo ziren, honezkero erabat atzenduak daudenak, baina bere momentuan hainbat ezbai eta erantzun sorrarazi zituztenak. Saio horietakoa litzateke erroturik zegoen eta dagoen notazio musikala aldatzeko egile ezezagun batek proposatutako erabide berria, zenbakietan oinarria zuena, eta honako izenburu hau daraman liburuan aditzera eman ziguna: *Memorial sacro político y legal al Rey N.S. en el cual con la mayor brevedad se recuerda cuan necesaria sea la música para lograr los dos fines político y divino, probando primeramente ser más conforme que otra alguna a esta facultad la nueva invención y figuración que en casa del suplicante se enseña y practica* -Madril, 1709-.

Gares ondoan dagoen Artazukoa bide zen Jaime Bordazar Valentzian ezarri zen inprimatzaile 1684.etik. Hagitz ona omen, guziarekin bere semea Antonio Bordazar Gilabertek gainditu zuen erabat. Turiako hirian 1671.eko azaroaren 9an sortua, orduko pentsalari valentziarrekin hartu-eman estua izan zuen, berbarako, eta besteen artean, Gregorio Mayans i Siscar ezagunarekin. Kultura handiko gizona, latina, frantsesa nahiz italiara ongixko menperatzen zituen, baita filosofia eta matematika ere. Azken jakintza horretan bereziki gailendu zen, eta horren froga zera da, mapak egiteko neurriak hartzen hil zela Cartuxa de Val de Crist izeneko herrixkan 1744.eko azaroaren 2an. Bi zereginak bateraturik, inprimatzaile eta idazlearena alegia, hamaika liburu karrikaratu zituen hamaika gai aztergai. Arras juzgu ona izan zuen 1728.eko *Ortografía española fijamente ajustada a la naturaleza invariable de las letras* lanak, baina hasiera batean ezbai mikatz samina sortu zen Bordazarren egiletasunaren inguruan, Feijoo, Mayans eta Mañer pentsalariak erdian zeudela. 1730.ean latinaren beste ortografia bat ondu zuen. Historiagile bezala ere aunitz idazki plazaratu zituen, besteak beste, 1704.eko *Descendencia real chronológica y genealógica desde la conquista de Valencia*, edo 1731.eko *Relación de la venida del Turia*. Nolanahi ere bere lanik garrantzitsuenak matematika arloan egin zituen: *Proporción de*

monedas, pesas y medidas con principios de aritmética y geometría para su uso, 1736.ean; *Tabla para saber todos los días del año a que hora y minuto sale el sol y se pone en Valencia*, 1731.ean; eta matematikak jorratuko zituen akademia baten sortzeko ondu oroitegiak: *Academia mathematica que se propone a los aficionados a influencia del egregio Felipe Lino Castelví*, 1738.ekoa, eta *Idea de una academia matemática*, 1740.ekoa. Gaurko gaiari dagokionean Bordazarrek matematikaz zuen ideian musika ere sartzen zen, eta Erdi Aroan indarrean zegoen araudira bueltatu nahi zuen. Musika bi zatitan banatzen zuen, hau da, espekulatiboa eta praktikoa, eta halaber, bi horiek ortologiak, glotologiak, armoniak nahiz fonokantikak, eta ahozkoak nahiz instrumentalak osatzen zituzten hurrenez hurren.

Musikaren gai bera beste idazle nafar batek ere ukitu zuen zenbait urte beranduxeago, Juan Frantzisko Saias iruinsemeak alegia. Horrek *Música canónica, motética y sagrada* izenburua duen aleki mardula ondu zuen, Iruñeko Martin Joseph Radaren moldiztegitik 1761.ean ilki zena. Idazlea Tarazonako eliza nagusiak zuen prebendadu eta organo-jolea genuen, eta gaiaz zertxobait bazekien, nahiz garaiko bibliografia funtsik gabekoan gehien batez oinarriturik egon. Liburua eraso bortitz samarra da eliz musikan sartzen ari zen estilo dramatikoaren aurka. Lehendabiziko zatian musikaren historia mitikoa egiten saiatu zen batik bat: «*De la música en común: origen y desarrollo desde Adán*»; bigarrena zuzen zuzenean ezagutzen zuen lana azaltzekoa dugu: «*De la música mensural o canto de órgano*»; eta azkenekoan kezkatzen zuen gaiaz mintzo zen kartsuki:

«*Lllaman pues a la música de estos tiempos música de la moda italiana, y del estilo moderno, con cuyos renombres quiere acreditarla sus primeros, ayudando a ésto los músicos, cantores e instrumentistas, con gestos, arqueos de cejas, figuras del cuerpo, arrugas en la frente, y risadas descompuestas*».

Liburuaren zentsuratzaileak Miranda Argaiz gotzainaren bikarioa zen Manuel de la Canal, Iruñeko eliza nagusiko kapela maisua zen Andres Eskaregi, eta Zangotzako Ramon anaia izan ziren. Azken horrek honela zioen:

«*Quéjase el autor de los muchos abusos que se han introducido en el canto, y de la poca veneración y respeto, que por esta razón se manifiesta en los templos. Es la moda un estilo introducido sin duda del que introduce todo lo peor, que es el diablo, porque tiene mucho de vanidad y nada de virtud y perfección. Es un modo imperfecto que ha degenerado en femenino*».

Josulagundiaren kanporaketan erbestaturik gertatu zen kidegai gazte bat Esteban Arteaga genuen. Horren kasua nahikoa bitxia da, eta nahiz oso bizitza kanonikoa ez eraman, Menéndez Pelayok berauk eredugarritzat hartzen du

eta Espainiako erregearen lurralde guztietatik alde eginaraziko josulagunekin ororekin maila berean ezartzen du. Nolanahi ere, eta Marcelinok esanak esan, onartu behar da josulagunditik zeharo aparte ibili zela Arteaga Italiara iritsi zenetik. Euskal etorkia zuen Esteban Arteaga Segovia aldeko Cocako Moralejan sortu bide zen 1747. urteko abenduaren 26an. 1763. urtean Manchaco josulagun barrutian sartu zen lagunkide. Kanporaketa gauzatu zenean, esan bezala, Italiara abiatu zen Kardaberaz, Mendiburu eta beste euskaldun askorekin, alabaina hantxe lagundia uzteko erabaki sendoa hartu zuen, beti ere abate tituluari muzin egin gabe, lehendabiziko tontsurak ekar ziezazkiokeen ongizate guztiak bereganatu ahal izateko. Azken hori biziki arrunta dugu XVIII. mendera arte, eklesiastiko eta sekularren arteko muga guziz malgua eta ez gardena zela, hainbat pertsona mugamarraren gain-gainean zegoen, eta aunitzak ziren lehendabiziko tontsura jasotzen zutenak, geroxeago bizitza laiko bat eramateko, egoera horrek berebiziko onaurkiak nahiz exentzio guztiak salbuetsi gabe. Bilatu eta nahi izaten zen gauza genuen, apeza izateko inolako asmorik ez izan ere, abondo abantaila ziurtaturik geratzen zirelako, eta hagitz gutxi baitzen horretan sartzeko eskatzen zena, latinezko ezagupen apurrak eta kristau dotrinaren oinarrikoak. Bolonia hirian jarraiki zituen ikasketak eta ber hiri-ko Albergatti-Capacelli markis kardinal antzerkigilearen babesu erdietsi zuen, baita Martini aita ospetsuaren interesik gabeko eskaintza ere bere liburutegia erabil zezan. Mezenasekin izandako gorabehera latzak zirela eta, Erromara aldatu zuen bizitokia, Azararengana. Nibbianoko markisa zen José Nicolás Azara Espainiako enbaxadorea Vatikanon izan zen, artista askoren mezenas, besteak beste Anton Raphael Mengs margolari neoklasiko txekiarra, Gaztelako Karlos III.a erregearen erretratzailea. Diplomatiakoak Parisera egin behar zuen bidaia batean aurretik joana zen Arteaga, eta Senako hiriko karraketan izandako istripu larri baten eraginez hil zen 1779. urtean. Italian bere sorterrian baino askoz ezagunagoa agitu den Arteagak bi lan bereziki izkiriatu zituen, *Le rivoluzioni del teatro musicale italiano dalla sua origine fino al presente*, bi liburukitan, Boloniako Carlo Trentirenean, 1783-1788 urte bitartean, eta *Investigaciones filosóficas sobre la belleza ideal considerada como objeto de todas las artes de imitación*, Madrilen, 1789.ean. Bigarren horretan ikuspuntu erabat aristoteliko batetik abiatzen da, imitazioarena alegia, bigarren neoplatoniko batekin erkatzen dena, hots, edertasun ideala. Bien arteko neurritzko nahasketak bere garaietarako aurrerakoiak izan zitezkeen teoriak erditzen zituen, esate baterako, itsusia arteen objektu bezala, arte idealista eta naturalistaren arteko ezberdintasunaren ahultzea, eta sentimenduen garrantzia, bere neoklasizismoa erromantizismoaren aurreko bihurtzen zuten gauzak. *Rivoluzioni* idazkia opera

italiarraren historia bat dugu, Italiako antzerki musikalaren historia filosofikoa egiteko saioa, gustu onaren abiapuntu neoklasikotik proposatutako saiakera bat beti ere barrokoaren aurkako erantzun gisa. Drama musikalaren analisi zehatz eta mehatza egiten ahalegindu zen, eta Wagnerren idealari aurrea harturik, arte guzien bilduma harmonikotzat hartu zuen opera, bertan literatura, musika, eraikuntza, pintura, mimoa eta dantza elkartzen baitira, gaur egungo zinemak egiten duen antzera generrake. Edertasun idealari buruzko bigarren idazlanean ezohikoak zirenak ziotsan Arteagak:

«Behe dantzaren ideala, gelako dantza dei dezakeguna, gizakien gorputzak egin ditzakeen higidurarik lirainenez osatu kontzeptu bat dugu, begien aitzinean mugimendurik proportzional eta atseginenak aurkeztea da, dantzariaren oinek zoluko olen gainean adieraz ditzaketen edertasunaren erizpideak, eta azkenik, profil eta idurien atontzea osotasun simetrikoa sortzeko eta ordena, zatien erlazio eta banakoarekin loturik doan aniztasunaren eredia eskeintzeko».

Bi lan horiez gainera, beste eskuizkribu batzuk utzi zituen argitaratu gabe, berbarako, *Del ritmo sonoro e del ritmo muto nella musica degli antichi*, Madrilko artxibo historikoan dagoena. Bestalde asmoak azaldu zituen *Memorie per servire alla storia della musica spagnuola, ovvero sia saggio sull'influenza degli spagnuoli sulla musica italiana del secolo 16^o* izenburuko lana egiteko, heriotzarekin hatsi zena.

Domingo Agirrerena delako akats filosofiko baten argitzeko saioa izan genuen. Ezer gutxi da egileaz dakiguna. Militarra, ingeniarien brigadako jenerala, teklazko soinutresnekin zerikusirik zuen notazio musikal berria proposatu zuen Madrilen 1799.ean agerrarazi bere *Descubrimiento de un error filosófico* izkribuan. Ez dugu oso liburuki eskuragarria, ez eta ezaguna ere, baina funts gutxikoa izanda, musika idazteko ezer baliagarririk galdu denik ez dugu uste.

22. Nafarroako lehen egunkariaren egilea: Nipho (1762)

1999.4.16

Pontekoa luzanga zuen Francisco Sebastián Manuel Mariano 1719.eko ekainaren 10ean sortu zen Teruel aldeko Alcañizen; aita Napoliko Sebastián Nipho zuen, goren graduazioko militarra, eta ama berriz, Iruñeko Brigida Cagigal. Nahiz aragoiarra izan, Madril aldetik bizi izan zen gutxiz gehieneko denbora, eta hantxe zendu zitzaigun 1803.eko urtarrilaren 10ean. Amaren sorterrria zelako edo, Niphok Iruñea aukeratu zuen arrakasta itzela erakarri zion bere lan baten berriz inprimatzeko, orobat, Nafarroan argitara emaniko lehenbiziko aldizkaria izan zena.

Idazle profesionala izan zen Nipho, ez idatzitakoaren kalitateaz bezainbatean, izkiriartzen zuenaz bizi izan baitzen baizik, XVIII. mende hartan nahikoa zaila agitzen omen zena. Sosa gehien eman ziona itzultzea izan zen: besteak beste, Caraccioloko markisaren lan guztiak espainieratu zituen, baita frai Jacinto Montargonon *Diccionario apostólico*, bestelako lan erlijiosoak, edota Florianen lan guztiak ere.

Ilustrazioaren garaiko egile ia guztiak bezala, antzerkiak kezkatzen zuen, eta egilea ez ezik, antzerkiaren gaineko teoriagilea ere izan genuen. Oixtian eman izan da argitara antzerkirako berauk formulatu erreforma, *Idea política y cristiana para reformar el actual teatro de España y conducirlo en pocos años al estado de perfección que desea el magistrado y pueda constituirse por modelo de todos los de Europa*. Halaz guztiz, eskuizkribu hori topatu aurretik bagenuen bere ideien berri, bereziki *Diario extranjero* egunkariaren orrialdeetan agertu *Poética dramática* testuari esker. Madrileko Gurutzearen antzokian Niphoren *Dios protege la inocencia y Elvira Reina de Navarra* izenburuko antzezlanak jokatu zen estreina-koz 1788.eko maiatzaren 10etik 15era bitartean. Nafarroako historian oinarrituriko argumentua Juan Marianaren historian topatu zuen Niphok (VIII. liburukia; XIII. kapitulua). Triguerosek lan horren gainean egin zuen kritikak eztabaida guritsua sortarazi zuen, eta Escenófilo Ortomeno ezizenez Niphok berak erantzun zion, *Carta acerca del drama nuevo intitulado...* idazkian bere tesiak argikiro azaldu zituela. Erdibidean kokatzen zen Nipho, eta bere 1764.eko *La nación española defendida de los insultos de El Pensador y sus secuaces* Clavijo Fajardoren kontrako idazkian Calderónen zein XVII. mendeko antzerki barrokoa goraiatu bazuen ere, haren desagertzea ere eskatu egin zuen usuenetan erakusten zituen gehiegikeriak zirela eta. Horregatik ausaz, Menéndez Pelayok ideologia garbiaren eza leporatu zion, eta horren harian, anti-entziklopedis-

ta eta tradizionalistatzat jo zuen, betiere Santanderrekoaren interesen arabera naski. Alabaina, Samaniego, Iriarte edo Moratin zaharrarengandik hurbilagoan zegokeen Ramón de la Cruzengandik baino. Horren frogagarri, Rousseuren *Pygmalion* melologoaren itzulpena -Durán, González del Castillo, Suárez eta Rojo idazleek eginikoen ostean penintsulan agertu bosgarren aldaera-, edota Metastasio beraren lanen itzulpenak.

Alabaina, kazetari izan genuen Nipho bereziki, aldikako hamaika argitalpen karrikaratu zuela, tartean, Manuel Ruiz de Uribe ezizenez Espainian argitarara eman zen lehenbiziko egunkaria aipa dezakegula, hau da, Madrilen 1758. ean atera *Diario noticioso erudito y comercial, público y económico* -Niphok utzi ondorean, Lozano eta Thévinen eskuetan izan zen, *Diario de Madrid* bezala eta 1918.era arte-. Atera zuen bigarrena 1759.eko *La Estafeta de Londres* izan zen, gutunetan emanda, eta 1779.ean eta 1786.ean berriz editaturik. Antzeko gaiak jorrazteko 1761.eko *El murmurador imparcial* eta 1763.eko *Correo general histórico, literario y económico de la Europa* izan ziren. Azken urte horretan ere *Diario extranjero: noticias importantes y gustosas para los verdaderos apasionados de artes y ciencias* agerrarazi zuen Madrilen, Espainiaz kanpoko argitalpenen berri ematekoa, *Journal des Savants* eta *Annales Typographiques* argitalpen frantsesetik zuzenean itzulitako testuen bitartez. Marmontelen eleberri moralen itzulpenak *El novelero de los estrados y tertulias y diario universal de las bagatelas* 1764.ean ateratakoan eman zituen. Eite didaktikokoa halaber *El bufón de la corte* 1767.eko aldizkaria izan zen. *El correo general de España* merkataritza erret ganbarak babestuta atera zen 1770.ean. Beste argitalpen batzuk: *El pensador cristiano* edota *El erudito investigador*.

Guztiarekin, gure interesekoa 1760.ean estrainekoz atera *Cajón de Sastre literato o percha de maulero erudito, con muchos retales buenos, mejores y medianos, útiles, graciosos y honestos, para evitar las funestas consecuencias del ocio* izenburuko argitalpen didaktikoa dugu, bi urtetan atera zen astekaria alegia. Horren berrargitarapena, zertxobait aldatuxea, Nafarroan ateratako lehenbiziko aldizkaria izan zen: *El duende especulativo sobre la vida civil*, Iruñean Martinez baitan 1762.eko urtarrilaren 1az geroz. Lan horren ateratzeko, Niphok Juan Antonio Mercadal ezizena aukeratu zuen. Bigarren zenbakirako, ordea, jatorrizko izenburua berreskuratu zuen harzara. Astekari hau, hirugarrenez ere, 1781.ean atera zuen Madrilen, hain zen ozena uztatu arrakasta.

23. Migel Uhalde izabarra (1775)

1996.8.2

Ezer guti da Migel Uhalde karmeldarraz iritsi zaiguna, berauk laga zizkigun lan idatziak ez badira. Guztiarekin, bera eta bere liburuak gaitzat harturik Eduardo Urrutiak ondu bi saio llabur baditugu, 1916. eta 1917. urteetako *Euskalerraren Alde* eta *Boletín de la Comisión de Monumentos de Navarra* hurrenez hurreneko aldizkarietan ageri zirenak. Bestaldetik ere izabarraren bestelako profil aski argigarria bazigun eskaini Perez Goienak nafar bibliografiaren laugarren alekian. Erronkari ibaxako sendi txiroan sorturik, guraso laborariek zinak eta minak pairatuko zituzten seme argiak ikas zezan, alabaina mendeak unaturik nonbait, karmeldarren legeetara bildu zen uhaldearren premua, eta apetz karrerari zaputz eginik, anaia soil bidali zuten Sevilla aldera, non 1780. ean zendu baitzen. Matematikazale amorratua, kontatzaile lego edo *el contador lego* bezala ezaguna egin zen *Notas al destierro merecido de opiniones equivocadas* izenburukoa argitara eman zuenean. Egutegi juliarrek bide dituen akats larriak hizpide zituen, eta horren ordez izarren higiduretan oinarriturik berak asmatutako egutegi berria proposatzen zuen:

«Por haberse establecido el cómputo juliano para la intercalación de bisiestos sin atención a la progresiva enlazada cuenta con que caminan los luminares del cielo efectuando el armonioso concierto del verdadero año luni-solar, se ha seguido notable confusión en la universal república literaria, porque siendo dicho cómputo cuenta injustificada en su fundamental raíz, por consiguiente lo son las demás ramas que le coadyudan, el aureo número, el cielo solar de 28 años, etc...».

Berariazko aldakuntza gauza zedin liburuarekin batera oroitegi mamitsu eta sakon bat helarazi zion erregeari, hark bere meneko lurretan orotan zabal eta berma zezan. Halarik ere, Uhaldek aldarrikatu aldakuntzak bertan behera geratu behar izan zuen, Kontseiluak 1765.eko abenduaren 27an aditzera eman zuen Erret Aginduaren ostean. Horixe gainera ez zen Izabako karmeldarrak idoro oztopo bakarra, eta Sevillako Unibertsitatean astronomiazko kataderadun zegoen frai Pedro San Martin Uribe trinitarioaren oldar isekatzaile eta Salamancako Unibertsitatearen irakasleak ziren Diego Torres eta Isidoro Ortiz bikoteak eginiko eraso deuseztagarriekin lehiazkeko beharra izan zuen. Nolanahi ere defendatzen zuen teoria bere arrazoi guztiekin, izenburu luzea daraman honetan finkatu zuen: *Asunto serio, grave, e importante que se propone a resulta de lo que se ha trabajado hasta ahora sobre la más justa computación del tiempo y asunto que implora la protección de los príncipes soberanos por ser de tan glorio-*

sa naturaleza sin oponerse a sus intereses temporales, Iruñean, Joseph Longasek Zugarrondo aldeko Karmen karrikan zuen moldetegian, 1775. urtean. Beste bietan gutxienez eman zuen argitara idazki hau, bata segituan ikusiko dugun 1776.eko *Arithmetica demonstrada* liburuaren bukaeran, eta beste behin 1778. ean ohiko etxean:

«*Cítense los defectos que se han dejado ver y experimentar en el compendio de los 1778 años de la presente era cristiana, y se cree el autor que la cuenta del verdadero año luni-solar se puede deducir de los mismos computos que expresa la sagrada escritura establecido por base fundamental la décima cuarta luna en la que salió de Egipto el pueblo hebreo*».

Dagoeneko aipatu aritmetika liburuaz aritzeko unea heldu da. Bere garairako behar-beharrezkoa suertatzen zen idazkia dugu, bada eskoletan irakasten ziren matematikak jasotzen zituen lehendabizikoetako esku liburua baitzen. Bertan eragiketa matematikorik arruntenek isla dute, baita herri ezberdinetan usean ziren pisu eta neurrietako taula konparatiboez ere, merkataritzan zihardutenendako tresna ezin erabilgarriagoa agitzen zela. Erronkariko ibaxari eskaini eta *Arithmetica demonstrada con diversas prácticas cuentas de las cuatro reglas para que la juventud pueda instruirse con brevedad y recordar los demás inteligentes las especies olvidadas de las que aprendieron antes* izenburu zabarra ipini zion, aurrekoetan bezala Longasen etxean inprimaraziz 1776.ean.

Historiagile bezala ere zer edo zer ondu zuen, hala nola, *Apología reformada del Padre Moret vindicándole de la impugnación de algunos historiadores y de las del Padre Risco* edota *Compendio apologético de la historia de Navarra*. Bi horiez gain Nafarroako lehendabiziko erregeei buruzko bilduma baten taxutzeko diru laguntza eskatu zion Nafarroako Aldundiari, baina tamalez zizeiluetakoek ez zuten egokiegia eta eskaturikoa ukatu bazuten ere, karmeldarrak erakutsi zituen asmo onak saritu nahian ontzako urrea eman zioten, edota betiko isilarazteko.

24. Ihartzek egin lanaren izenburuaren itzulpen laburra (1783)

1995.2.24

Medikuntza herrikoia gaitzat hartu izan duen idazkigintza ezin da ulertu halako giro berezi baten barruan kokatu gabe, eta garaiko moda zehatz bategi irekiriko ildoari jarraiki behar zaio. Jada Guy Chauliac izeneko sendagile frantziarrak *La grande chirurgie de M. Guy de Chauliac, medecin tres fameux de l'université de Montpellier* izenburuko liburua argitaratu zuen 1363. urtean. Denborak joan denborak etorri, medikuntza herrikoia garatzen duten aunitzez lan gehiago sortu ziren, esaterako, *Le régime desanté* izenburupean agerikoak, eta bidebatez, Salernoko eskolaren erabidean oinarria zuena, XVI. mendeko Frantzia berean ere, argitalpen gehien izan zituen osasun *collectaneum* lana. Gehixeago ere baziren Europako moldiztegietatik ilkiriko lanak. Ospe handienekoan artean, Arnau Vilanova Valentziako medikuak ondu *Regimen sanitatis* eta *Medicationis parabolae* idazkiak ditugu. Are ezagunagoak jazo ziren Alberto Handiaren *De secretis mulierum libellis*, Lyonen agerikoa 1557. urtean, edo Alexis Piamontekoaren sekretuak, Italian 1555. urtean estreinakoz ageria. Fama handiak ere 1532. urtean André Fournierrek idatzi *La decoration d'humaine nature et aornement des dames* edota Jean Liébaulten *Thrésor des remedes secretes pour les maladies des femmes* Parisen 1587. ean agertua.

Halarik eta guztiarekin ere, lanik aipatu nola inportanteena Laurent Joubertena dugu dudaz izpirik gabe. Bere *Erreurs populaires au fait de la médecine et régime de la santé*, Bordelen argira jalgia zen 1578. urtean. Jouberten asmoak aisa ulertzekoak ditugu: medikuntza herrikoian hain arruntak gertatu hamaika sendabideri buruz argi apur bat ematea, eta aitzinetik ere, lan ugari luzatu sinismen huts frango garbitzea, ahal zen neurrian bederen. Liburuak pentsalarien artean batik bat lortu zuen arrakasta, herri xume xehean oihartzun eskas xamarra soilik lortu zueno. Bestaldetik, sexuaz oparo eta zehazkiegi luze arduratzea ere leporatu zioten garaiko gainontzeko mediku hertsiek, moralarentzat ekar zitzakeen ondorio txar guztiak zirela eta.

XVIII. mende bukaeraldean, 1776-1777 urteetan hain zuzen, medikuntzaren erret elkarte, Société Royale de Médecine alegia, sortu zen Frantzia. Elkargo horren gerizapean zenbait egilek bere idazkiak plazaratu zituen. Besteren artean, etorkin eskoziarreko Primerose jaunak 1639. urtean Amsterdam ageriarazi zuen *De vulgus erroribus in medicina* liburuaren itzulpena Rostagnyren eskutik edo Anthelme Richerandek eginiko 1810. urteko *Des erreurs populaires relatives à la médecine*.

Dena den, bada guri arras interesgarri, ia seguru, suerta dakigukeen beste lantxoren bat euskaldun batek egin eta Parisen 1783. urtean agertu zena, hau da, Jean Luc Ihartzeren *Erreurs populaires sur le médecine*. Ihartze honek bere liburua frantses ederrean moldatu zuen, baina apika, bere euskalduntasuna age-rian uztekoz edo, liburuaren aurrealdean berean eta frantsesezko izenburuaren jarraian euskarazko honako translatione hau paratu zuen lasai asko: «*Je done ici le titre de mon livre en basque, écrit come on doit le prononcer, les curieux le liront s'ils veulent*. Miricountzaren gaineco popoulouiaren faltac, libourou, oficio hartaco eçtirenen arguitzeco, miricountzaco thermino bada eta eçbada cerbitzatou behar içan direnen esplicacioniarekin. De Ihartze, escoutari, miricou, eta erregueren miricou icendatouiãc éguina». Hor akitzen da Ihartzek egindako itzulpen laburra. Benetan mingarria, izan ere, Europan izkiriatu hainbeste liburuk hornituriko moda batean euskarazko testu bat egotea guziz desiragarria eta atsegina litzatekeelako.

25. Balentin Forondaren gainean (1789-1794)

1996.3.1

Gutxi dirateke egun ezagunak diren argien mendean zebilzkigun aurre-
ratzaile euskaldunak, are gutxiago arabarrak zitezkeenak, alabaina egon ba-
zeuden, eta horren froga saihets orotik heldurik ere baba-zorro patata-ereile
atzeman dezakegun Balentin Tadeo Foronda Gonzalez-Etxabarriko Gonzalez
-Lupidanako Argandoña genuke, Gasteizen bertan 1751.eko otsailaren 14an
sortu zena, nahiz forondarren leinua Astegietakoa zen. Frantzia aldean ikasle
jardun zuen ziurtatzeko arrazoi adina ez dagoen arren, hala pentsa liteke hango
mintzairaren zerion jarioak salatu gisa, frantses ilustratuek izkiriatu lanen itzul-
penak argitaratzeko tresna ezin baliagarriagoa zeukana. Bere txit ongi hornitu
jabego arabarrari beste horrenbestekoa erants ziezaiokeen ezkonsari 1769.ean
Iruñeko San Nikolas eliz-parrokian Fermina Bidarte Soltxagarekin ezkondu
zenean. 1777.ean Gasteizen dugu hiriko udalbatzaren zinegotzi. Bere asmo
berritzaile ilustratuei zaputz egin barik, eta hiriko iduria hobetu nahian, zenbait
neurri eta lege onarrarazi zituen, hala nola atari guztien aurrealdeak isastu eta
obretan zeuden eraikuntzen argitzeari zegokienez, hiritarren gustukoak gehiegi
bide ez zirenak bestalde, ostalaritzan jarduera zutenena bereziki. Forondak ate-
ratak araudi berria begiratzan ez zutenak kartzelaratu zituen, eta hori zela eta
egundokoak izan zituen Atanasio Jose Lorea auzapezarekin, zeinak, espetxeratu
ostean, afera Valladolideko txanzilleriara eraman zuen huraxek epai zezala, eta
Forondak 50 dukateko zigorra pagatu behar izan zion alkateari.

Azpeitiko zalduntxoan taldean ere sartu zen 1776.ean, baina elkarteak ta-
malez egun galdurik dagoen *Compendio histórico cronológico de la historia mo-
derna* izenburuko lana argitaratzeko eskaini ez zion laguntza eta erakutsi zuen
interes eza aitzakia, hiru urte beranduxeago laga zuen lagundia. Forondaren
diru iturriak bere aitak utzi zizkion Caracasko Konpainiaren parte-hartzeaz gai-
nera, berak bultzatu Ekialdeko Indietako edo Filipinetako Konpainian zituen
interesetatik ilkitzen ziren, hala nola San Carlos Banketxean zituen akzioetatik.
Halarik ere, berak uste zuenaren aurka, interesak urritzen hasi ziren eta sosak
erdiesteko benetako arazoak pairatu zituen. 1782.ean Bergaran dugu bizilagun.
Une horietan Españako Karlos IV.aren etorrerak eta Frantziako iraultzak ber-
tan izan zuen oihartzunak beldurra sarrarazi zion Floridablanca ministroari eta
askatasun politikoa hertsu zen amiñi bat, nahikoa izan zena Forondak inkisi-
zioarekin arazoak izateko, debekatuak zeuden liburuak itzuli izana eta Frantzia-
ko politikaren mireslea izatearen salaketapean. Zertxobait pobreturik nonbait,

funtzionario postu baten eskuratzeko saio tematiak egin zituen, eta 1801.eko San Migel egunean Estatu Batuetako enbaxadore izendatu zuten. Garai horretan Espainia eta Estatu Batuen arteko harremanak benetan kaskarrak ziren. Estatu Batuen nahi zabaltzaileak zirela eta, Madrilén beldurrez zeuden Florida eta Louisiana mantentzearekiko, eta Espainiak ameristarren bultzada Apalatxe mendietan gelditu nahi izan zuen, erdietsi ez zuen gauza, eta hortik bertako tribuekin liskarra areagotzeko saio zitala egin zuen. *Divide et vinces*. Nolanahi ere den Espainia ahulegi bide zegoen Estatuarekin borroka irekian sartu ahal izateko, eta Louisiana Napoleoni eskaini zion ameristarren asmoak ekiditeko, baina azken horrek berriz, Europako aferek presionaturik, ameristarrei saldu zien 60 miloi liberatan, eta horren ostean, Estatu Batuek Florida eskatu zuten deblauki. Orduko kontsula, Iruxoeko markisa hain zuzen, ameristarrekin zituen harremanak erdipurdikoa oso bazirenez, Italiara igorri zuten eta Foronda bere ordeztz abiarazi. Han egin zuen lana ontzat har daiteke, arazoak arazo, eta harreman onak mantendu zituen bertakoekin, American Philosophical Society delakoaren partaide izan zela. 1809.ean Onis ailegatu zenean, Foronda Cadiza abiatu zen. Frantsesen alde egotearen salaketaren beldur, bere burua erbesteratu zuen Lisboara urtebetez, eta handik Galizara joan zen bizitzera, A Coruña hain zuzen ere. Bertan lan itzela egin zuen, bertako apaizgoarekin zenbait arazo erakarri zizkiona. 1814.ean Madrila egin bidaia batean atxilotua izan zen Fernando VII.aren aginduz, eta urtebetez espetxeraturik egon ostean, 1815.eko ekainean hamar urtez Iruñean konfinaturik egotera kondenatu zuten. 1820. era arte ez zen barkatua izanen, eta urte horretan hirurteko liberalarekin bere izena zuritzeko aukera izan zuenean jada ez zuen denborarik hortaz olgatzeko, 1821.eko abenduaren 23an Iruñean zendu baitzen.

Lan idatzi ikaragarri itzela utzi zuen, gehiena gutun bidez emanda, bere *Cartas sobre los asuntos más exquisitos de la economía política y sobre las leyes criminales* lanik garrantzitsuentzat har daitekeela. Horixe Madrilén agertu zen 1789 eta 1794. urteetan bi liburukitan. Aipagarria datekeen beste lan bat Cervantesen gaztelania bortizki epaitzeko ondu zuen *Observaciones sobre algunos puntos de la obra de Don Quijote* dugu, Londresen 1807.ean ageri zena.

26. Belatarren ekarpena II: Jean Philippe Bela (1709-1796)

1995.12.15, 1995.12.22

«Zura berago, harra barnago».

Belatarren artean ospetsuena Jean Philippe ote dugu, Jakesen birbiloba zena hain zuzen. Maulen sortua 1709. urtean. Gazte gaztetatik Frantziako gudarostean sartu zen Grenoblen, eta kadetea zela, espetxeratua izan zen bere kapitaina zena dueluan hiltzeagatik. Kartzelatik ihes egin ostean, fraide sartu zen, baina komentuko bizitzak abondo ez aseturik, Sajoniako Augusto III.aren armadan eman zuen izena. Dragoien ostean Poloniako burujabetasunaren alde borroka egin zuen Dantzing aldean. Artzainez mozorroturik Poloniako Estanislao erregea salbatzea erdietsi zuen nonbait, eta hark esker onez, Metz hiriko dragoien teniente koronela izendatu zuen saritzat. 1745.ean Frantziako Luis XV.ak euskaldunez osaturiko batailoia sortzeko eskaera luzatu zion, eta horrela Cantabres Volontaires izeneko talde armatua sortu zuen 1046 gizonekin, mendi gatazketarako batik bat berezia zena. Talde horren bandera urdina zen, San Andresen zilarrezko gurutzarekin eta Nafarroako erresumaren armarria erdi-erdian zuela. Boluntarioen koronela izan ostean 1749.ean utzi egin zuen, bizitakoak oinarri *Exercices et évolutions à l'usage du régiment Royal Cantabres* izeneko lana lehendabizi utziz. Urte horretatik aitzina, idazteari lotuko zitzaion bereziki.

Bere lan gehienak argitaratu gabe geratu ziren, esaterako *Mémoire aux états sur les services rendus au pays de Soule par le maison de Bela* edo *Mémoires militaires du chevalier de Bela*. Oroitzapen horietako zenbait gauza Agosti Xahok agertu zuen bere *L'Ariel* aldizkarian 1846.ean, bai eta Ducéréren eskutik ere 1896.ean. Ondu idazkirik ospetsuena Parisko Bibliothèque Nationalean N.A.F. 22.06 signaturaz gordetzen den *Histoire des basques depuis leurs origines jusqu'à 1748* izenburuko eskuizkribua dugu. Euskal Herri guzietako historia hau euskalki ezberdinetako hiztegi batek ahitzen du, greziera, latina, hebreera, gaelikoa, bretoiera, arabiera, gotikoa, alemana, espainiera eta italierazko ordainekin. Txomin Peillenen aburuz Jean Philippe Jakesek utzi zituen idazkiez baliatu zen bereak osatzeko. Horretaz artikulu bat agertu zuen 1983.ean *Fontes Linguae Vasconum* nafar gobernuaren aldizkarian. Horrelako lan erraldoiak hamaika zailtasun ediren zituen argitaratua izateko, eta Oloroeko Barthelemy Jean Baptista apezpikua izanen zen Dom Sanadon beneditarrari eman zion aterabide bila. Horrek Belaren idazkia inausi zuen eta *Essai sur le noblesse des basques pour servir d'introduction à l'histoire générale de les peuples, rédigé sur les mémoires d'un militaire basque par un ami de la nation* izenburuko 254 orrialdeko liburua

agerrarazi zuen Pauen J.P. Vignancourrean 1785. urtean. Clément-Simonek ere eskuizkribuaren zatitxo bat agertu zuen bere *La société bearnaise au XVIII siècle* liburuan. Sanadonen aldaera espainolez eginiko bi itzulpenen iturria gertatuko zen, bata hurrengo urtean berean, Diego Lazkano apez gipuzkoarrak paratu *Ensayo sobre la nobleza de los bascongados para que sirva de introducción a la historia general de aquellos pueblos compuesto en francés de las memorias de un militar bascongado por un amigo de esta nación*, Tolosan, Frantzisko Lamakoaren, 1786.ean, eta heldu zen mendean Jose Girondarena, Donostiako Pio Zuazuaren moldiztegiaren 1858. urtean argitaratu zeharkako itzulpena.

Nekazaritza nahiz ekonomiaz ziharduten beste zenbait lan ondu omen zituen, argitaratu ez zirenak, eta tamalez egun ezagunak ez direnak. Ekonomia mailan bederen, ezagun da oihalgintzan aritu zela, oihal lantegi bat sortu baitzuen. Beste maila batean, medikuntza herrikoi eta sendabelarrei buruzko lan zabala ondu zuen, *Receptes et secrets divers de la nature recueillis en faveur des pauvres, par les soins de Mr le Chr de Bela brigadier des armées du roy*. Eskuizkribu horrek 1776. urteko data erakusten du, folio neurriko bost liburuki dira, osotara 547 orrialde. Bertan gaitzak eta eritasunak osatzeko erabideak eskaintzen dira. Egun, lan horren kopia bat Gasteizko Sancho el Sabio liburutegian da.

Bere bizitzaren azken urteetan, Zuberoko noblezian sartzea lortu zuen Iuriko kondea lagun. Ohore horren jasaile izateak bere curriculum ilundu zuen nonbait, izan ere, 1770.ean hirugarren estatuaren kanporaketa erdietsi zuen konplotaren barruan baitzegoen. Lau urte beranduxeago, Zuberoko zenbait lurren erret eskubideak erosi zituen, Larrañe, Urdaize edota Ospitalepiakoak besteak beste, eta handikeria petralez harrotu zen edozein jauntxo hantustetsuk bezala jokatu. Halarik ere, 1789. urteko iraultzak ez zuen behar baino gehiago aztoratu, eta ondasunen erdiak bakarrik galduz, Zuberoan lasai geratzeko aukera ez zuen galdu. Azkenean, 1796.ean hil zen Pauen. Jean Jaurgain zenak «*Notice sur le chevalier de Bela*» izenburuko artikulua utzi zigun berri iturri.

27. Kaperako lezioa: azken-aurreko mendartearen tekla bidean

1998.8.21, 1998.8.28

Atxagaren Groenlandiako lezioa irakurri berri eta, azpimarragarri beharreko guztiak beste baterako utzirik eta Asteasukoak eskaintzen digun euskarri literarioaren praktikoari muzin egin barik, XVIII. eta XIX. mendeen arteko bulta musikalean barrena bidazti alfabetikoa proposatzen da.

Pedro Albéniz eta Basanta 1795.eko apirilaren 14an sortua zen Logroñon, alabaina, haur-haurra zela Donostiara joanik, jaiotzez ez bada bai egotezko gipuzkoartasuna ziurtaturik zeukan, baita edoskiz ere, ama tolosarra baitzen. Gazte-gaztetatik musikari zion trebezia nabarmen zitzaion: hamar urterekin San Bizenteko parrokia donostiarrean organo-jolea genuen, eta 13 urterekin Bilboko Santiago basilikako organo-jole izateko azterketan bigarrena geratu zen. Musika ikasketak sakontzera Parisa abiatu, hantxe Henri Herz eta Kalkbrenner piano-jole famatuak izan zituen irakasle, eta Rossinik berak ikasle hautenen artean izan zuen. 1828.ean, Donostiaraturik, aitak Santa Mariako parrokian betetzen zuen lana egokitu zioten, ordurako, Hernaniko organo-jolea zen Manuel Larrartek lagunduta, Iztuetaren musika bilduma, Latiero danbolin-jole donostiarrengandik jasorik, transkribaturik zeukala. 1830.ean Madril aldera jo zuen zenbait kontzertu ematera Pedro Escudero biolin-jolearekin batera. Ez zen txikia uztatu zuen arrakasta, eta Aranjuezen erret sendiarentzat jo ostean, ber urteko uztailaren 17an Madrilgo Musika Eskolako piano irakasle izendatu zuten erret aginduaren bitartez. Lau urte beranduago, urriaren 27an, erret kaperaren lehenengo organo-jole egin zuten. 1841.eko apirilaren 5ean Isabel II.a erreginaren piano irakasle izendatua izan zen, bi urte beranduago Isabel Katolikoaren nahiz Karlos III.aren ordenetako dominak eman zizkiotela. 1855.eko apirilaren 12an hil zen Madril. Albénizen berri eskaintzen lehenengoa Burlatako Hilarion Eslaba izan zen, berek zuzendu *Gaceta musical de Madrid* aldizkarian, 1855.ean ageri zen «*Biografía de don Pedro Albéniz*» artikuluxkarrekin. Albénizen pianoa ikasteko metodoak Espainiako piano ikasketa modernoei hasiera eman zien, eta Madrilgo musika eskolan klaseko testu liburutzat hartu izan zen. Utzi zizkigun musika lanak oso ugariak dira, baina Rafael Mitjanaren ustez ez dira interes handikoak, Thalberg nahiz Kalkbrennerren eraginarekin sortuak baitira; Albénizek ekoiztu operako gaien gainean eginiko aldaera, fantasia eta rondoak, nahiz piano bakarrerako, lau eskuko pianorako edo biolak, biolinak eta biolontxelok lagundutako pianorako doinuen artean,

Mitjanak pianorako estudioen bi serie bakarrik, 56 eta 60. lanak, azpimarratu zituen.

Manuel Gamarra Likona (1723-1791) musikari arabarra Bilbo eta Gasteizko katedraletako eta Herriaren Lagunen Elkarteko kapera maisua izan zen, hortaz, Bergarako ikastetxean zeuden zalduntxoek teklatuan hatzak pasearazi zituzten hogeita lau doinu konposatu zituen. Aipagarri ere bere *El médico avariante* edo *Verso de 5º tono*.

Griselen 1791.ean jaio Nikolas Ledesmak Zaragozan ikasi zuen organoan Ramón Ferreñac birtuosoarekin. Borjan eta Tafallan jardun ostean, Bilboko Santiagoko basilikan sartu zen organo-jole eta kapera-maisu berri Pedro Estorkirenean, eta hantxe iraun zuen 1854.ean Guridiren aitona zen Luis Bidaola segurarrak kapera-maisutzan eta 1863.ean Jose Antonio Santestebanek *-Aires populares bascongados* ezagunaren egileak organoan ordezkatu zuten artean. Haatik, donostiarrak laburraren labur iraun zuen Bilbokora eserita, bada, organo zaharkituaren berriztatzeko egin erreguari ez baitzioten berebiziko erantzunik eman, eta hortaz, Ledesmak, organoa bezain matxuraturik, betiko langintzari arralotu behar izan zitzaion 1883.ean hantxe zendu arte.

«H» letra isilez 1775.ean Ziraukiko organo-jolea zen Hugarte dugu, eta «i» irrintzikariaz, berriz, 1761.ean Erronkarikoa zen Iribarren. Jose Maria Iztueta Etxeberria, *Txuriaren* anaia nagusia zen, premua hortaz, Zaldibiako Kapagin-degi hartu zuena; 1802.eko San Fermin egun berean sorterriko organo-jole aukeratu zuten, horrekin batera lehenbiziko letretako irakaslearen ardura zegoela; esan gabe doa jesuitetan ikasitakoa zela. 1805.eko martxoaren 2an zendu zen.

Manuel Jagarte heldubako ametsa izan zen, kazkabarrak erauzi itxura oneko fruitu umelgabea. Donostian 1796.ean sortu, eta Donostian 1819.ean hilik, Bordelen ikasi zuen biolin-jole aparta genuen, bere lan nagusia Donostian 1813.eko abuztuaren 13an estreina izan zuen Requiem meza izan zela -berarena ote?-.

Lekeitioko organo-jolea 1775.ean Kamara musikaria izan zen. Jose Inazio Larramendi arrasatearra, ordea, Arantzazuko frantxikotarren komentuan organo-jole zegoen. Honek *Método nuevo para aprender con facilidad el canto llano y la salmodia* izenburuko lan teorikoa 1828.ean eta Madrilen argitara eman bazuen ere, guk orok kantari darabilgun *Donostiako Iru damatxo* kantaren balizko egilea izategatik ezagunagoa dateke, Blas de Laserna korellarrak *La Vizcaína* tonadillan erabili zuen doinua ere bestalde. «L» hizkia zaigu oroz gain emankor, eta Juan Andres Lonbide Mezkoa hainbatetan agertu zaigun Santiagoko basilika bilbotarrean organo-jolea dakarkigu mamitsu. Gure Lonbide aita, Elgetan sortu zen 1745.ean -Larramendi handiak hiztegi hirukoitza agerrarazi zuen ber ur-

tean-, alabaina bizkaitar zitzaion izaite eta gogo; 1772.ean Herriaren Lagunen Elkartekoei klabe eta biolineko sei sonata eskaini zizkien, eta 1775.ean *Arte del organista* izenburuko lan teorikoa ere; haatik, labor joan zitzaizkien elkarkideei Lonbidek eskainiko zizkienak, bada, 1778.ean Oviedoko eliza nagusiko organo-jole izateko oposaketan gailendu baitzen, eta 1786.ean, berriz, Madrilgo Enkarnazio komentuko erret kaperaoan, non 1811.ean joan zitzaigun.

Irunen jaio zen 1758.ean Jose Joakin Tadeo Murgia, 1789.eko maiatzaren 14an Malagako eliza nagusiko organo-jolea izateko azterketan nagusitu, bertan ezarri, eta bertan 1836.eko abuztuaren 10ean hil zen ber. Hagitz trebea organoan -Haydn eta Mozarten berebiziko jarrailea-, arras inprobisatzaile ona ere izan omen zen -Andaluziako musika herrikoiak zeharo eraginda-. Bere lanik gehienak argitara gabe darraite, Malagako eliza nagusiko artxibategian, eta nabarmengarriak diren pianoforterako sonatez gainera, ondu zituen flamenko, tirana, bolero eta poloak aipagarriak dituzkegu. Domingo Maria izeneko anaia Oiartzun eta Tolosan izan zen organo-jole, eta honen seme batek, osabaren izen zein Malagako lan-postu berberak hartu zituen.

Bidankozeko organo-jolea 1785.ean Nikolau jauna genuen; urte bertsuetan, berriz, Donostiako kapera-maisua Migel Oruña, eta Tafallako organo-jolea Manuel Oses.

Honezkero ezagun dugun Albénizen aita, Mateo Antonio Pérez de Albéniz genuen -ez dakigu, ordea, zer dela eta galdu zuen abizen erdia gure Pedro Albénizek-. Esan bezala, Logroñotik Donostiara aldatu zen, hango Santa Mariako organo-jole. Horrez gainera ere, lan teoriko baten egilea bazen izan: *Instrucción metódica, especulativa, y práctica para enseñar a cantar y tañer la música moderna y antigua*, Donostian 1808.ean agertua. Teorikoekin jarraituz, Iruñeko eliza nagusiko salmista zen Fermin Ruiz de Galarretak *Nuevo método completo teórico práctico de canto llano y figurado* izenburukoa atera zuen 1848.ean, eta Salvador Maria Rementeria muxikarrak -fraide jeronimoen abitua esekitakoa zenak- *Cantus planus universalis* 1835.ean, nahiz *Nuevo método de canto llano reformado* 1859.ean karrikaratu zituen.

Jose Sobejano Aiala iruindarra, Mina gerrillariaren agindupean borrokatu ondoren Iruñeko, Bilboko eta Leongo kapera maisu zein organo-jole izan zen. 1827.ean Madrilén ezarri zen nobleen seminarioaren irakasle eta San Isidroko ikastetxean organo-jole. *Escuela de solfeo según el estilo moderno* -Madril, 1835- edota *El Adam español, lecciones metodico-progresivas de forte piano* -Madril, 1826, Louis Adamek Parisen 1802.ean erabilitakoei jarraikiz- ikasliburuez gain, musika erlijiosoak, *La huérfana del Rosellón* lan dramatikoarentzako obertura, dantzak, martxa militarrek, eta abar luzea konposatu zuen.

«T» letran gaudela, aipa dezagun Pedro Aranaz eta Vides, Tuteran 1740.ean jaio zelako. Cuencako kapera-maisu eta organo-jolea zela 1820.ean hil zen. Bere ekoizpen musikala lan errazek osatzen dute, zailtasun gabekoez, horri esker ikaragarri ezagutu zirenak, esaterako *El remedo de los toros* edo *La maja limonera* tonadillak. Idazki teoriko bat ere ondu zigun, *Tratado de contrapunto y composición* izenburuduna.

Ibilbide alfabetikoari, hortaz, amaiera emateko, ekar ditzagun bada Manuel Uribe Iruñeko organo-jolea 1767.ean, eta Santiago Zamakola Bilboko organo-jolea 1768.ean -azken hori Juan Antonio Zamakolaren anaia apeza ote zen? Baietz uste dugu-.

XIX. MENDEKO

28. Zenbait edizio faksimile berriez

(1620, 1802, 1822, 1864, 1889)

2000.7.21, 2000.7.28

1. Euskal testu zaharrak laket ditugunok pozez hartu dugu oixtian karrikara zenbait faksimileren ateraraztea, tartean orain arte guztiz kausigaitzak direnak ere bai.

Voltaire

NUPeke liburutegian gordetzen diren liburu baliosen artean Xuriorena eta Voltoirerena azpimarratu genituen, eta Voltoireren *Tresora*-ren berri ematera-koan akats larria labaindu zitzaigun, izan ere, berriki agertu den liburuaren azken faksimilea ez baitu Xarritonek atondu Xarles Bidegainenk baizik. Bihoa ezereen aitzinetik geure barkamen eskea huts galant horregatik, izan ere entzuzenez aritu baikinenez edizio berriaz, anartean eskuragabe genuela. Azkenik, noiz edo noiz iritsi da Iruñeko liburu-dendetara, ale bakan batzuk baizik ez badira ere.

Bidegainenk prestatuturiko edizioa, bestalde, *princeps*-a dugu, 1620koa hain zuzen ere, eta horrek ere berebiziko balioa gehitzen dio fotokopiari. Voltoireren *L'interprète ou traduction du François, espagnol et basque* lehenbiziko edizioaren liburu-ki bakarra geratzen zaigu, jada Vinsonek argitu zigun gisara, Bordeleko liburutegian gordetzen dena. Arras zehatza zen Vinson jaunak, bestalde, ez zigun edizio horren argitaratze urtea eman, XVII. mendekoa zela baizik ez. Bidegainenk esker, ordea, orain badakigu Voltoireren liburu oso lan goiztiarra izan zela, 1620koa hain zuzen, eta liburu zaharrenekin agitu antzera, Euskal Herriatik kanpo Lyongo A. Rovyer erregearen inprimatzaile baitan agertu zen, ondoren atera edizioekin gertatu zenaren kontrara.

Escualdun cocinera

Voltoirerena ez da Manucius deitu editoreek atera faksimile bakarra. Iruñeko liburu-dendetara 1864ko *Escualdun cocinera* famatua ere iritsi zaigu. Horren faksimilea zerbait zaharxeago da, 1999ko abenduan agertu baitzen. *Escualdun cocinera, ceinarekin nornahic cocina ona errechki eguin baiteçaque* Baionako Zilhargin karrikako 12. zenbakian zegoen Cluzeau liburu eta paper martxantaren baitan izan zen inprimaturik idazle-izenik gabe, alabaina ia gauza segurra da egilea sukaldariago zela euskal idazlea baino, hasierako oharrak salatu bezala:

«Liburu huntan hanitz gauça frantxes guisa izendatuac içanen dire ezdazkiulacotz escuaraz icenac». Hirurogei orrialdetan barrena 150 errezetatik gora eskaintzen dizkigu egile-sukaldari ezezagunak, bat bedera goxoago.

Alabaina, santujaleetan horren oparoa den geure literatura urrian hori ez da argitara emaniko sukaldaritzan lan bakarra. Tolosako Eusebio Lopezen moldiztegi ezagunean *Cocinan icasteco liburua chit bearra famili gucietan lendabicioa eusqueras* izenburuko liburua atera zen 1889an, 58 orrialdeko liburuttoa 67 errezetekin hain zuzen. Horretan ere ez da egile izenik agertzen, eta inolako sarrerarik gabe zein inondik inorako kokagarririk aurkezteke, «Gaztelako eltze modua» izeneko errezetarekin hasten zaigu testua. Izenburuak argikiro salatzen digunez, egile ezezagunak ez zuen ezagutzen oraingoan Manuciusekoek ateratako faksimilearen jatorrizkoa, eta hortaz «lendabizikoa euskeraz» ezarri zion. Oraingoan aukera polita daukagu Iparraldeko errezeta bilduma ezagutzeko, alabaina, eskertzekoa zatekeen testu zaharrarekin sarreraren bat sartu izan balitz errezeten kokagarri.

2. Iruñeko liburu-dendetara iritsitakoen artean Leopoldo Zugazaren zainzapekoan inprimaturiko hiru liburu daude, Mogel eta Zamakola bizkaitarren bana, eta Euskaltzaleak elkartearen asmoak jasotzen dituen hirugarren bat. Leopoldo Zugaza euskaltzale ezaguna liburuaren munduarekin hertsiki lotuta dagoen pertsona da. Durangoko liburu azokaren sortzaile eta bultzatzaileetakoa, editorea dugu, baita *Gaiak* aldizkariaren sortzailea 1976az gerostik. Oraingo honetan, Zarauzko Oleriti Etxea izeneko argitaletxeak ahalbideturik, «Gizonak&Lanak» bibliofiliako lanen bilduma kudeatzen digu Zugazak, eta hortxe kokatu behar ditugu aipatu lanok. *Euskaltzaleak zertarako? Acción Popular Vasca: su finalidad, su organización, su programa* izenburu argigarriko lana da Zugazaren beraren sarrera eroaten duen hiruetako bakarra, sobera harritzekoa ere ez dena, izan ere, Zugaza elkarte kidea baita. Liburuxka polita, koloreetan eta irudiekin, 300 ale zenbakiduneko jaulkipen hau liburuzaleendako harribitxia dugu duarik gabe.

Mogel

Juan Antonio Mogel bizkaieraren idazle klasikoaren lan batekin ematen zaio hasmenta bildumari, aldiz. *Versiones Bascongadas de varias arengas y oraciones selectas de los mejores autores latinos o demostración práctica de la pureza, fecundidad y eloquencias del idioma Bascuence contra las preocupaciones de varios escritores extraños y contra algunos bascongados que sólo tienen una noticia super-*

ficial del idioma patrio izenburu arnasestugarriko itzulpen bidezko lan apologetikoa dugu, Tolosako Francisco de la Lamaren etxean 1802an inprimatu zena. Faksimilearekin batera Adolfo Arejitaren sarrera datorkigu, Mogelen bizitza eta lanez gain *Versiones Bascongadas* honen kokatzeko saiotxoarekin. Mogelek eginiko itzulpen hauek argitaratu ahal izana nabarmentzen digu Arejitak gutxiz gehien, alabaina ezin da ahaztu Mogelek beste lan apologetiko batzuk ere argitara eman zituela arazo handirik gabe. Horien artean Historiaren Akademiak argitara ematen zuen *Memorial histórico español, colección de documentos, opúsculos y antigüedades* izaera entziklopedikoko bildumaren barruan eta bere 1854ko zazpigarren liburukian agertu zen *Cartas y disertaciones de don Juan Antonio Mogel sobre la lengua vascongada: disertación histórico-geográfica sobre los iberos y sicanos que entraron en Italia, en el Lacio y territorio de Roma introduciendo el idioma vascuence* aipatu beharra dago. Mogelen lan hori Garibairen oroitzapenak eta erranairuak jasotzen zituen liburutzarraren epilogo moduan atera zen, baina baita aparteko liburuxka gisa ere, eta separata huraxe da hain zuzen ere orain dela bost urte Valentziako París argitaletxeak faksimilean atera zuena.

Zamakola

«Gizonak&Lanak» bildumaren bigarren zenbakia, azkenez, Juan Antonio Iza Zamakola *Don Preciso* zenaren *Perfecciones analíticas de la lengua bascongada* dugu, Bilboko Miserikordia etxean Felipe Moralesek inprimaturik 1822an karrikaratu zen lana zehazki. Hamalau orrialdeko lan faksimilearen aurretik Xabier Kaltzakortak ondu sarrera luzeagoa dugu, 30 orrialdekoa, ez ordea, geure uste apalean, Zamakola bezalako idazle interesgarriak beharko lukeen bezainbestekoa. Esate batera, eta adibide soil gisa, interesatuta daudenendako bibliografia ematen hasiz gero, ezin utzizkoak diren lanak ez ematea huts nabarmena litzateke, eta horra hor, besteak beste, Kaltzakortaren sarreran falta diren Basurtoren «*Elementos neoclásicos...*» RIEV-eko artikulua, Herguetaren *Don Preciso* liburua, edota Nietoren *La obra de Juan Antonio Iza Zamakola* foiletoa. Bestalde, eta Zamakolaren faksimileak lortu gogo luketenek jakin behar dute gorago aipatu Valentziako París argitaletxeak aspaldidanik dituela Don Precisoren lan folklorikoak salgai, baita Madrilgo lagunena ere, *Crotalogía* eta beste. Valentzia urruti bada ere, París liburu-dendaren katalogoak errazki atxiki daitezke Interneten bitartez, beraz, klikatu eta josta!

29. Sorregietaren astearen nahas-mahasak (1804)

1999.6.4

Astarloaren gerizpean itzalitako apologista genuen Tomas Sorregieta Arribillaga tolosarra; zein urtetan jaio zen ez dakigun arren, ezkongabeko gura-soengandik sorturiko semea zelako testigantza iritsi zaigu: «*hijo natural de Pedro Miguel y María Ana de Arribillaga, solteros, naturales de Tolosa*». 1781. ean apezturik, Asteasu, Albistur eta Azedoko kapilaua izan zen, Tolosan bizi zela. Gurean ezagun gerta badaiteke, 1804.ean Iruñeko Longas etxean argitaratu eman zuen liburu bikoitz batengatik da, hau da, *Semana hispano bascongada, la única de la Europa y la más antigua del orbe con dos suplementos de otros ciclos y etimologías bascongadas*, eta horren bigarren zatia den *Monumentos del bascuence o prosecución de los precedentes del astea, eguna, illá, urteá y demás*, Gipuzkoako Probintziari eskaini zizkionak. Lanaren argitaratzeko baimena 1802.eko azaroaren 15ean sinatu zuen Nafarroako probisoreak, Jose Maria Larunbe karmeldarrak eginiko onarpena ikuskatu ostean, alabaina, Gipuzkoako agintariek Astarloa bera izendatu zuten Sorregietaren libururako aztertzaile; hortaz, tolosarrak durangarrari 1802.eko maiatzaren 10ean Madrilerá igorri gutunean ospe handiko euskalariaren onespena galdetzen zuen, alta, erdietsi ez zuen gauza, bada, Sorregietaren izkribua behin irakurriz gero, Astarloak, zeharo holakaturik, ukatu zion oniritzia. Areago, Sorregietaren lana karrikaratu bezain fite, Astarloak erantzun zion Sorregietari 1804.eko martxoaren 12ko *El Diario de Madrid* egunkaritik, El Español ezizenaren azpian agerturiko artikulu baten bitartez; nonbait, huraxe gutxi bailitzan, oraino 46 orrialdeko beste idazki bat atera zuen Madrilen, ber urtean eta egile izenik gabekoa, *Carta de un bascongado al señor d. Tomás de Sorreguieta advirtiéndole de varias equivocaciones que ha padecido en su obra*. Sorregietak, arras sumindurik, Astarloari erantzuna agerrarazi zuen hurrengo urtean, *Triunfo de la semana hispano-bascongada y del bascuence contra varios censores enmascarados, en tres cartas dirigidas a los literatos españoles*, Madrilgo Ibarrenean; honakoa Tolosan 1805.eko maiatzaren 6an, ekainaren 2an eta abuztuaren 24an sinaturiko hiru eskutitz dira, non Astarloa «*peor y más encarnizado censor*» deitu zuen.

Sorregietaren lana euskal astearen perfekzioa eta 4 000 urteko antzinatea frogatzeko saio undats bezain nahasgarria dugu: hebrearren zein egipziarren asteekiko euskal asteak duen antzekotasuna azpimarratuz, aste astronomikoarekin duen baterakidetasuna eta euskaldunen asteak duen proportzio kuaternarioko funts musikala goratu zuen, euskal asteak etorki jainkotiarra duelako

segurtamena ziurtatu zigula, bada, euskaldunoi, erlijio naturalarekin batera, benetako jainkoak ezagutarazirikotzat baitzuen.

Interesekoa zaiguke 50 orrialdetik aurrera garatzen den VIII. kapitulua, hots, «*Del fundamento y sistema músico que se halla en la proporción cuaternaria*» izenburuaren azpian dagoena, egileak zioskunaren bitxiarengatik. Sorregietaren aburuz, euskal astean aisa aztaka daitezke Dion Casio historialari erromatarraren irakaspen zaharrak:

«Del mismo modo que Saturno, que era el primer planeta, se tomaba en esta de Dion Casio por principio de las cuartas músicas, así también en aquella bascongada se tomaba el primer espacio semanario o día que era astelena por principio de las siete cuartas músicas, de donde se derivan los siete tonos diatónicos o escala diatónica. Ahora pues, si se hace principio en astelena que equivale al Si, voz música de los modernos, y se toman de cuatro en cuatro los espacios semanales de la primitiva semana según lo dicho de esta manera: astelena, asteartea, asteazquena, osteguna, ostirala, larunbata e igandea; o las cuartas, Si, Mi, La, Re, Sol, Ut, Fa por ellas representadas, acercándolas por medio de octavas, se tendrán los siete tonos del sistema diatónico, Si, Ut, Re, Mi, Fa, Sol, La (...) En consecuencia, ¿que aprecio no merece tan estimable monumento patrio bascongado, y que veneración y grata memoria no se debe a los antiguos bascongados autores de él por tan lacónica, docta, y significativa instrucción que en él nos dejaron».

Sorregietak, azken finean, antzinakoarekin lotura egin gura zuen, hau da, aztura eta ideia berrien kontra joaz, antzinatearen kulturarekin bat egitea; bere euskal astearen apologian, beraz, eta ohi denez, betiko moldeen aldeko apologia zegien tolosarrak, tradizionalismo eta erregimen zaharreko politikaren aldeko saioa. Musikaren arloan, kontrapuntuaren aurkari tematia eta antzinate klasiakoaren musikaren aldeko sutsua agertzen zitzaigun:

«La música de hoy por más pianos, órganos a la moda, e instrumentos de hábil manufactura que cada día se inventen, y por más que la voz humana se esfuerce en concordarse unisonamente o en contrapunto con ellas, siempre será bárbara, desnaturalizada y desconcertada por defectuosos principios y cimientos».

30. Faustina eta Tomasa arabarrak (1812)

1997.3.7

Gaurkoan ez dugu Maurizio Ravel Uhartez zenaz mintzatzeko asmorik, dururikan egon garen arren, izan ere, gaur betetzen baitira 122 urte Ziburun sortu zenetik. Ordea, eta berebiziko efemerideak aitzakia hartuta hasiz gero, biharko partez bihoa emakumearen omenezko honakoa, Gasteizen arizan ziren Arabako bi pailardez nola halaber pairatu zutenaz jarduteko gutiz gehien ondua dena, Ravel baino ospe apalekoagoak izanik ere, irakurlearen arreta bereganatzerainokoak bederen gai direlako segurantza ia osoan.

Esan ohi da XVIII. mendea argien gizaldia dela, ilustratuen garaia, eta Euskal Herrian adibide ezin argigarriagoa dugu horren erakusgarri 1764.ean sortu RSBAP. Baina horrekin batera, egungo txiroak abantzu erraz ahaztorratzen du orduko pobreak ez zuela argiztatzeko aukera gehiegirik, eta, tamalez, aisago tinketz ahazten du emakumezkoak guztiz at geratu zirela ildo berritzaileetatik, are negargarriagoa dena. Egia da aitzineko mendeetatik emakumearen begirunea aldarrikatu duela baten batek, inor gutxik zehazteko, baina andreen hezkuntza eskatu duen orok emazte zein ama eredugarria izan du helburu, ez besterik, eta beraz, aldarrikapen gezurtia bezain mingarria bada dudarik gabe. Eta horretan zenbakiak ezin objektiboagoak dituzkegu. Mende hartan Espainiako %15 eta Frantziako %35 baizik ez zen alfabetaturik. Arranguratzekoa. Beraz, emakumea erabat lekoraturik geratu zen ekimen ilustratzaile guzietatik. Salbuespen eskas eta urrien artean Josefa Amar Borbón aragoitarra dukegu, zeinak bere *Discurso sobre la educación física y moral de las mujeres* 1790.eko liburuan askori lakot ez zitzaizkionak baitzekartzan:

«Los hombres buscan la aprobación de las mujeres, les rinden unos obsequios que nunca se hacen entre sí, no les permiten el mando en público y se lo conceden absoluto en secreto, les niegan la instrucción y luego se quejan de que no la tienen (...) Los hombres instruídos y civiles no se atreven a oprimir tan a las claras a la otra mitad del género humano, por que no hallan insinuada semejante esclavitud en las leyes de la creación. Pero como el mandar es gustoso, han sabido arrogarse cierta superioridad de talento, y yo diría que de ilustración, que por faltarles a estas, parecen estas sus inferiores. Saben ellas que no pueden aspirar a ningún empleo ni recompensa pública, que sus ideas no tienen más extensión que las paredes de una casa o de un convento. Si esto no bastase para sofocar el mayor talento del mundo, no sé que otras trabas pueden buscarse».

Aurrekoa abiapuntutzat harturik, ez beza inork ere pentsa isekatzaille gisara gatzela. Historia izan den bezala kontatzeak ez dakar gutxiatea, are gutxia-go inguru-minguruak oro mahai gainean ezartzen badira. Argi dago jendaki bakoitza inguratzen duenak baldintzaturik bizi dela, eta norbederaren balioa jasotzen dituen kartak nola jokatzear datza. Errioxa arabarraren aldeko Navaridasen 1790.ean sortu zen Faustina Billaberde arras ezaguna zuen batek baino askoz gehiagok Gasteizen XIX. mende hasmentan, Askartzako emagaldua bezala are ezagunagoa apika. Egun bere langintzari buruz iritsi zaigun berri bakarra 1812.eko agiri bat dugu. Horretan alargun gazte dagerkigu. Napoleonen gudari frantximantak zituen bezero nagusi eta Prado izeneko toki jostaleku hauta. Bide denez eritasun baten baino gehiagoren iturramatzat jo zuten orduko agintariak, eta epailearen aurrean eraman ere egin zuten. Esan gabe doa gartzeleratua izan zela, denbora laburrez baina, geroxeago ere osasun etxean izan baitzen. Handik bere sorterrira itzularazi zuten, bere gurasoengana, baina beharrak eraginik edo, Biasterira abiatu zen ohizkoetara. Hartan Felix Ruiz Gamizkoaren osasun etxean egon zen, eta orduko auzapeza zen Fermin Barrucok zioenez, 20 ogerleko zorra zion aipatu medikuari. Bertakoek ordea, herrian halakorik egoteak zinez altaraturik, demokratikoki jipoitu zuten, eta Burgos aldera abiarazi ihes lasterrean. Alabaina, Gaztelatik ere bidali zuten, eta Gasteiza bueltatu zen halabeharrez. Santa Clara barrideko etxe batean bizi izan zen orduan, eta Kale Berriko taberna batean mantenua erdietsi herrikidea zuen beste neska batekin. Alabaina astiro joan gabe berriz ere atxilotu zuten, eta lazki epaitu ostean, bi urteko zigorra bete behar izan zuen Donostian.

Gasteizen bertan 1795.ean sortu Tomasa Lauzurika Sagasta zena ere Faustinarekin egon zen Donostiakoan. 1812. urteko urrian epailearen aurrean salaketa ezarri zuen Zakarias Jose Garridok, Araba eta Trebiñuko polizia burua zenak, izan ere, Plaza Barriko 18. zenbakian bizi zen François Belloc izeneko kapela egile bati urrezko hainbat edergailu eta sosa lapurtu baitzion neskame zihardueno. Tomasak bere burua garbitzeko erabili zuen aitzakiak aski ulergarria zirudien, bada garbiketa lanetan ari zela, aipatu bitxiak kausitu zituen, eta nagusiak jatera ematen zion urriaz oroitzuz, ezin izan zuen ukitu gabe utzi. Epaiketa luzatu zitzaion zenbait hilabetetan eta bien bitartean beste lekuko adierazpenek bordiontzat hartzeko balio izan zuten, bere ahizpa batekin egiten zuen lana bestalde, Quintin de las Casas udal kontseilu buruarena esaterako. Ez dakigu ordea goi mailako lekuko horri nondik heltzen zitzaion jakinaren gainean egoteko arrazoia, nahiz arras ongi suposatzen dugun. Epaia ez zen samurra izan, eta azaroaren 24an hiriko plazan agerrarazi zuten, taula gainean,

eskuetatik estekaturik eta lepotik kateaturik, soinetik izkribu ozen bezain zikina dilindan esekita: «*Por ladrona, doméstica y prostituta*». Horrela iraun zuen markizaturik eguerdiko hamabietatik arratsaldeko hiruak bitartean, eta egun berean Donostiako espetxera abiarazi zuten sei urtez.

31. Jovellanosen ekarria gurean (1812, 1824)

1998.11.6, 1998.11.13

Jostaketa publikoen oroitegiak

Ez da harritzekoa izan zituen eraginaren artean Jovellanosen ekarpena onartu izana Iztuetak, izan ere, eta zalantzarik gabe, Espainiako ilustrazioaren eredu eta pertsonaia nagusienetakoa baikenuen.

1786.eko ekainaren 1ean, Gaztelako Kontseiluak Espainian aitzinean erabiliko joko, espektakulu eta jostaketa publikoen gaineko txosten bat eskatu zion Historiaren Akademiari indarrean zegoen legediaren balizko erreforma baten aurrera eraman ahal izateko, eta bigarren horrek, Jovellanosi luzatu zion mandata. Astirik gabe, denbora pasatzen utzi zuen, harik eta Kontseiluak 1790.eko urrian eskatutakoa eskuratu nahi izan zuen arte. Jovellanosek, orduan Gijonen zegoela, ddi-dda egin zuen, eta abenduaren 29rako igorri zuen Madrilerara. Berau ere ez zen pozikegi geratu: zalu egindako lana zen, bere apunte gehienak Madrilen zituen, eta bigarren idazketa ondu zuen 1796.ean, Akademiak uztaillean egin batzarraldietan irakurria. Arrakasta handia izan zuen, baina aurreko urtean nekazaritza araudiaren gaineko liburuak inkisizioarekin ekarri zizkion arazoak zirela eta, ez zen argitaratzera ausartu, eta argira atera gabe geratu zen 1812.ean *Memoria para el arreglo de la policia de los espectáculos y diversiones públicas y sobre su origen en España* izenburukoa Madrilgo Sancharenean azaldu zen arte, hil ostean beraz.

Irakurleari oharra eta egilearen sarrera baten ostean, lanaren lehenbiziko zatia garatu zuen, hau da, erromatarren garaitik hasita herri jostaketa eta espektakuluen historia azaltzekoa; ez zuen Jovellanosek erromatarrena baino aurretiagoko garaietako daturik eskaini nahi, zientifikotasunez egin nahi zuenez, eta orduko datu urriek ez zeritzen fidagarri asturiarrak. Onartu zituen erromatarren entretenigarri berak espainiarrentzat, eta zerrenda eskainita, hau da, ehiza, erromeriak, joko eszenikoak eta joko pribatuak, berauen historia partikularra eman zuen.

Oroitegiaren bigarren zatia, jostaketek pertsonengan zezaketen eragina eta helburu hori lortzeko erabil zitezkeen bideen azterketa dugu, beraz, orduan usean ziren modua zuzentzeko proposamenak, behar zenean bederen. Harritzekoa da Jovellanosek sintesirako zuen ahalmena. Bitan banatu zuen herria: lan egiten zuena eta errenten bizkar bizi zena. Berez, espektakuluak ez zegozkien lan egiten zutenei, nahiz aisialdia beharrezkoa zitzaizela onartzen zuen. Jovellanosek ongi pasatzeko askatasuna aldarrikatzen zuen, eta festa egunetan

lan egiten zuen herria entretenituko zuen jostaketan eza salatu zuen tapakirik gabe. Horrenbestez, Jovellanosek legeen aldaketa zuzena eskatzen zuen. Oroitegiaren bigarren zatiaren sarrera osoa Iztuetak ekarri zuen 1824.eko dantza liburuan, erdaraz eta euskaraz. Dantza liburuaren testuan, aurretikago aipatua zuen jada Jovellanosen ekarria, baita bigarren zatiaren sarreran agerturiko ohar labur batekin ere. Jovellanosek oroitegiaren lehenbiziko orraztaldia ondu zuzenean, Euskal Herria ez zuen zuzen-zuzenean ezagutzen, edo bederik ere, oraino ez zen honaino etorri, eta horregatik ere, gureari zegokion aipamenik ez dago horretan. Alabaina, bi idazketen artean iragan zuen bulta laburreko tartean, Jovellanosek bidaztia egin zuen gureraz:

«Cuando escribimos esta Memoria, no conocíamos el país bascongado, ni sus bailes dominicales, pero un viaje hecho por él en 1791, y repetido en 1797 nos proporcionó el gusto de observarlos y nos confirmó más y más en lo que habíamos escrito acerca de las diversiones populares. Es ciertamente de admirar cuan bien se concilian en estos sencillos pasatiempos el orden y la decencia con la libertad, el contento, la alegría y la gresca que los anima. Allí es de ver un pueblo entero sin distinción de sexos ni edades, correr y saltar alegremente abandonados al esparcimiento y al placer, que fuera muy insensible quien los observase sin participar de su inocente alegría. Tanto basta para recomendar estas fiestas públicas a los ojos de todo hombre sensible, pero el filósofo verá además en ellas el origen de aquel candor, franqueza y genial alegría, que caracteriza al pueblo que los disfruta, y aun también de la unión, de la fraternidad y del ardiente patriotismo que reina entre sus individuos. ¡Cuán fácil no fuera, con sólo estender tan sencillas instituciones, lograr los mismos inestimables bienes en otras provincias!».

Iztuetari berebiziko laketa eman zion Jovellanosek eginiko aipamenak. Alde batetik, kanpotarra izateak berekin zekarren inpartzialtasunez eman zuelako Gipuzkoako dantzei buruzko epai ona Espainiako beste dantza guztien gainetik ezarri, eta bestaldetik ere, Gipuzkoatik kanpo zabaldu zuelako bere epaia, Gipuzkoako izen ona leku guztietan jakinaraziko zuela. Pena bakarra geratu zitzaion Iztuetari, Jovellanosek ez zuela aprobetxatu Gipuzkoako dantza guztien berri jasotzeko:

«Nere pozkidarrik aundiarena litzake bada, Jovellanos bezelako gizon zentzutsu eta ekai onakiko batek, Gipuzkoako dantza mota guztiak zein bere soñu zarragoangarri, itz neurtu egoki, eta senaera miraritsuakin bear bezala ezagutzea, mundu osoari argitaratzeko, zenbaterañoa dan beran aunditasuna».

Lehenengo zatian bezala, bigarrenean ere Jovellanosek hainbat elementuko zerrenda erreparatzeari ekin zion: jostaketa hiritarrak, maestrantzak, akademia dramatikoak, saraok, maskarak, pilota jokoak, hizketaldietarako etxeak eta

antzerkiak. Pilota jokoei buruz mintzatzerakoan, aurretik dantzarekin gertatutakoa errepikatzen da. Oroitegiaren lehenbiziko idazketan ez zuen Euskal Herria ezagutzen, orain berriz bai, eta:

«También en esto se distingue el país bascongado. No hay pueblo considerable en el que no tenga su juego de pelota, grande, cómodo, gratuito y bien establecido y frecuentado, y así como juzgamos que los bailes públicos influyen en el carácter moral, hallamos también en ellos y en estos juegos la razón de la robustez, fuerza y agilidad de que están dotados aquellos naturales».

Euskal Herrira eginiko bidaia

Jovellanosek eginiko bidaia guztien kontraera berauk taxutu egunerokoetan dugu irakurgai. Hamalau dira, zehazki, 1790.eko abuztuaren 20an hasiera eta 1810.eko martxoaren seian bukaera duten Jovellanosen egunkariak. Gijongoak bere seigarren bidaztian zapaldu zuen Euskal Herria estreinakoz, berauk deitu *bidaia handian* hain zuzen ere. Euskal Herrira eginiko bidazti horren gainekoak bigarren egunerokoan jaso zituen.

1791.eko abuztuaren 6an atera zen Gijondik Avilako prebendadua zen Felipe Posada, Eugenio Acebedo eta Pachín Peón bidaideen laguntzarekin. Bidaia egiteko izan zituen arrazoiak ugariak izan ziren. Alde batetik, arrazoi ofiziala zegoen, hau da, Asturiasko ikatzaren kontsumoetarako zeudekeen itxaropenen ikerketa. Godoyek gortetik aldendu nahian, meategiaren egoeraren berri jasotzera bidaldu zuen Jovellanos. Bidenabar, Asturias eta probintzia salbuetsien arteko aldea maila ekonomikoari zegokionean ikertu behar zuen.

Euskal Herrira abuztuaren 16an iritsi zen, Kantauriko itsasertzetik, eta Somorrostro, Portugalete, Sestao eta Barakaldo gibelean utzirik, Bilbon eman zuen lehenbiziko gaua. Zalu zihokion Jovellanosi euskal itzulia, eta hilabete erdia baizik ez zuen eman hiru probintzietako herri askotatik pasatzeko. Bilbon hiru egun oso eman zituen, Portugalete ere ezagutzeko profitatu zituenak, eta hilaren 20an bizkai hiritik atera zen Durangori buruz, bidean, Zornotza aldeko Ibarra, Bierna eta Arandiako olategiak bisitatu zituela. Abuztuaren 21ean Durangotik atera zen Ermua, Eibar, Elgoibar eta Azkoitirantz, eta hantxe gaua emanda, 22an Loiola, Azpeitia, Urrestilla, Bidania, Albistur, Tolosa, Billabona eta Hernani izan zituen helmuga. 23an Hernanin izan zen, eta ilunabarrean Donostiara iritsirik, hantxe ere eman zituen bi egun oso, Pasaia, Lezo eta Errenteria begiztatzeko aprobetxatu zituenak. 26an Tolosara abiatu zen, eta 27an Alegia, Legorreta, Itsasondo, Ordizia, Beasain, Ormaiztegi, Zumarraga eta Antzuolatik pasa ondorean, Bergaran izan zuen pausalekua. 28an Bergaran izan zen egun osoan, harik eta 29an Gasteizko bidean abian ezarri zen arte, Arrasa-

te, Leintz-Gatzaga, Ulibarri-Ganboa eta Mendibildik igaroaz. Hilaren 30ean Gasteizen izan zen, eta abuztuaren hondar egunean Burgosi belanda, Ariñez eta Argantzun izan ziren Jovellanosek bisitatu azken herri euskaldunak.

Euskal Herritiko itzuli hori deskribatu zuenean, iruzkin politikorik ia ez dago, arras zuhurra agertu zitzaigun horretan, eta egin zituen aipamenak oro, lehen irakurketan hutsalegi iduri lekizkioke baten bati. Lehen eta behin bidea eta bidea egiteko moduak izan zituen mintzagai: bideen egoera, gurdiak, ostatuak, janaria...; ohar ugari nekazaritzari buruzkoak, pentsatzekoa denez, nekazaritza erreformarako entsegura igaro zirenak; finean, jendearen berri ere eskaini zigun, gipuzkoar eta arabarren gainetik emakume bizkaitarren garbitasuna zein duintasuna nabarmendu zuela. Zenbaitetan iduri lezake Jovellanosen hitz-lau honetan geroagoko subjektibismo erromantikoaren zantzua dagoela, baina beti ere, XVIII. mendeko Jovellanos neoklasikoa da testuan gailentzen dena, objektiboa, diziplinatua, ordenatua, bertutetsua eta betiere arrazoiaren menpe.

Nabarmenezkoa da Jovellanosek gauza guztiekiko erakusten zuen jakin-mina, halakoa edo bestelakoa izan ere gaia edo iker atala. Bestalde, benetan miresgarria da Jovellanosek errealitateaz ohartzeko zuen ahalmena eta zorrotasuna, behatze gaitasuna. Aipatzekoa ere zeukan zentzu kritikoa eta edozein gauzari buruz juzgua emateko zuen gaitasuna. Azkenez, bere praktikotasuna eta gauza guztien erabilgarritasuna neurtzeko kezka ekar dezakegu azpimarragarri.

Pentsa daitekeenez, Bergaran ez zuen egun oso bat eman artajorran, hara bere-bererik joan baitzen Herriaren Lagunen elkarteko kideekin topo egitearren. Espainiako lehenbiziko elkartetzat miresten zuen Deba bailaran eratutakoa, eta kideek ere beren aldetik, Jovellanosi zioten begirunea ez zuten ezkututzen. Bergaran Elkartearen Ikastegia ikuskatu zuen, eta bertan zeuden 120 pertsonen errolda jasotzeaz ez eze, ikastegiaren ikasketa plan osoaren iruzkina ere egin zuen, egunkarietan gehigarritzat argitaratu zuena. Ikastegian aprobetxatu zuen ikasle zein irakasleekin mintzatzeko. Elkartekideen lanak ere eskaini zizkieten Bergaran, esaterako, Ignazio Luis Agirreren *Los derechos de un padre* antzezlanak; alabaina, egun hartan Landazuri historiagilea ezagutu ez izana penatu zitzaion bereziki. Ezagutu zituenen artean, ordea, Gasteizen eta Tolosan ezagutu Lorenzo Prestamero eta Samaniego bera aipa litezke. Jurramendiko jauretxean gau osoa eman zuen Samaniegoren lagunartean, eta egindako tertulia goxoan, arabarrak Bilboko desertuaren gaineko bertsoren batzuk irakurri zizkion, beste lanen artean. Segurua da Jovellanos ezin gusturago zegokeela elkartekideen artean. Gazteagoa zela, Sevillan Olabidek antolatzen zuen tertulian parte hartutakoa baitzen.

32. Juan Antonio Iza-Zamakola seguidillen biltzaile eta beste (1817)

1996.3.15, 1996.3.22

Don Preciso se murió y a nadie le hace falta aunitz leku eskasetan berriki arte esan den atsoitz horrek izena eman zion oraingo lagunari, Juan Antonio Iza-Zamakola Ozerin Goxenola Beingoetxea -deituren lau geruzetako estratigrafia xumea egitearren- jaunari alegia, Arratia aldeko Dima elizateko Indusi auzoko Zamakola etxean 1758.eko urtarrilaren 25ean sortu zitzaiguna. Beste hiru anaia gutxienez izan bazituen: Frantzisko Antonio, Maria Diaz-Basurtorekin ezkonduarik etxean geratu zena, beraz zilegi bekigu premua zela ustea, Dimako abade geratu on Santiago, eta Simon Bernardo, urte berean jaio omen zena, ez dakigu ordea bikia, abendu aldean sortu, edo berri erratua denetz. Azken hori famatuko zen naski XIX. mende hasierako matxinadari bere izena eman zionean: zamakolada, hots. Hitz guttitan esanda ere afera horren iturrama zein bilakaera honako hauxe izan genituen: 1792.eko uztailaren 16an Bizkaiko Jaurerriko Batzar Nagusiek egin bileran Aldama prokuratzaileak Mundakako barran moila berri baten eraikitzeko proposamena luzatu zuen, azken batean Bilbo hiriak Bizkaiko gainontzeko herriekiko zituen eskubideak zirela eta mendez-mende zetorren isileko aharra salatzen zuena. Bi urte beranduxeago konbentzioko gerrateak asmo horiek guztiak bertan behera deuseztatu zituen, handiki bilbotarrak bereziki poztuz. Bestalde gatazkan xahutu sosak berreskuratzeko nahian 1796.ean ezarri arbitrioen banaketetan Bilboko kontsulatua nabari ongiturik agertu zen, beste prokuratzaileen haserrea eraginez, eta letozkeen arazo gaitzagoak aldez edo moldez saihesteko, Bilboko merkatarien bizkarrean geratu zen erregeari ordain beharreko saria. Zernahi ere zen gatazka ez zen alderatu eta 1801.eko maiatzaren 18an aldiroko uholde zorionekoak jazo zirenean, horrelakoetan ohiturari eutsiz Begoñako Andredenaren iduria hirira behetiratzea liskarra eratzikitzekeo pindarra agituko zen, izan ere begoñarrek egin zuten higuinari bide emanek bilbotarrekin mokoka hasi ziren. Urte bereko uztailaren hasieran Batzar Nagusien ohiko bilkuran erregeari pagatu beharreko diruaren zenbatekoa nola banatu eztabaidatu bitartean, Bilboko handikiek Dimako prokuratzaileari leporatu zioten bere herriak zituen eskubideak. Prokuratzaile hark, Zamakolak naski, bere burua zuritzeko asmoz jauntxo bilbotarrak oldartu zituen, eta hain usu gertatu ohi ziren uholdeak gogoan harturik eta betiere sortzen zituzten galerak ekiditeko aitzakiaz, Olabeagako ibaizabalean kai berri bat eraikitzekeo proposamena ozenki haizatu zuen, Bilkurak arras egoki zeritzana, betarik galdu gabe Godoyekin harremanetan jarriz eta 1803.erako onarturik geratu

zen Abandoko Bakearen portuaren proiektua. 1804.ean bildu Batzar Nagusiek Zamakola goratu zuten erdietsi arrakastarengatik eta honek, lausenguak hanturik, aukera erabili nahi izan zuen buruan zebilkion bestelako asmo bati ekiteko, hau da, derrigorrezko soldaduskaren ezarpena Bizkaian. Ekimen horrek berariazko emaitza izan zuen, eta abuztuaren 16rako begoñar odolberoak matxinatuak ziren, handik Abando, Deustu, Barakaldo, Sestao, Portugalete, Dima, Otxandio, Iurre eta Arteagako elizateetara zabaldu zirela. Azkenerako Jaurerriko Batzarrek berriz ere bildurik hartutako akordioa edeki zuten horren ordez erregeari milioi bat erreal pagatzeko erabakia hartuz.

Gure Juan Antoniorengana itzuliz jakin badakigu Zigoitiko Muruan egin zituela bere lehendabiziko ikasketak, 1775.ean Madrilera joan aitzinetik, izan ere urte horretan Gaztelako hiriburura joan baitzen balizko eskribau lanaren betetzera, 1783. urtera arte lortuko ez zuena. Zazpi urteren buruan ordea Diman dugu harzara auzokide zeukan Arg aiz anderearekin ezkondu rik eta konbentzioko gerratean hiriko gudarosteen kapitain. Bien bitartean bere lehendabiziko ekoizpen literarioa moldatuko zuen giroa berotzen hasi zen Madrilen Juan Fernández Rojas apezak, Francisco Agustín Florencio izengoitiaz, atzerritik zetozkion aztura berri, irakur bedi ilustratu, guzien aurkako saioa 1792.ean agerrarazi zuenean izenburu bitxi honen azpian: *Crotalogía o ciencia de las castañuelas: instrucción científica del modo de tocar las castañuelas para bailar el bolero y poder fácilmente y sin necesidad de maestro acompañarse de todas las mudanzas de que está adornado este gracioso baile*. Eite eta bilbe satirikoa aisa soma dakiok e izkiriatuari. Urte berean, eta Juanito López Polinaro ezizenarekin, *Impugnación literaria a la crotalogía erudita o ciencia de las castañuelas para bailar el bolero* segizioko lana agertu zuen, eta denboran oraino gehiegi hastandu barik ere hirugarren hau, *El triunfo de las castañuelas o mi viaje a crotalópolis*, Alejandro Moyaren izenean. Azken horren egiletasuna zalantzazkoa zatekeen Pedro Centenok ondua zitekeelakoz, alabaina hirulan ganorabako horren ostean aldeko eta aitziko parte-hartzeak ikaragarri ugaritu ziren. Iza-Zamakola 1795. urtera arte ez zen berriz ere Madrileratu, baina hartara iritsi bezain fite, eta maiatzaren 14 eta 15eko Madrilgo egunkarian, ildo horretatik zihoan gutuna karrikaratu zioten, handik aitzina gehien erabiliko zuen gaitzizenaren azpian, hau da, D. Preciso, bada, aunitz izan baitziren bere nortasuna ezkutatzeko erabili zituen aldaerak: Bachiller Zocomala, El bascongado, Don Extravagantísimo edo Simón de Errotacoehecojuanaren semearena.

Juan Fernández Rojasek argitaratuak zituen lanen ereduari jarraikiz, *Libro de moda en la feria o ensayo de la historia de los currutacos, pirracas y madamitas del nuevo cuño y los elementos o primeras nociones de la ciencia currutaca* izenburukoa 1795.ean agertu zuen Madrilen Lisenoren ezizenez. Agidanean irakurlegoa ezin

ase gera izanik, gutxira bigarren edizioa kaleratu zen hiri bereko Blas Romanen moldiztegitik hagitx ezberdina ez zen izenburu berri honekin: *Libro de moda o ensayo de la historia de los currutacos, pirracas y madamitas del nuevo cuño adicionado nuevamente con una explicación del origen de esta obra, las graciosas cartas de D. Preciso, respuesta del Currutaco, las ordenanzas currutacas sobre las contradanzas escritas por el abate Muchitango y una famosa lámina que figura la máquina calzatoria*. Tituluaren luzeak balio du. Horietan ilustratuen aztura berriei muzin egin barik modernotasuna tole zerienei aitziko saiakera garatu zuen agustindarrak, bigarren ediziotik aurrerantzean D. Precisoren laguntzaz. Lagunkidetzaz apal horien ostean gurutzada tradizionalista horretan bere oldez jarduteko gauza zelako ustean dimar erretxinak idazki xeble bat atondu zuen Madrilén zetorren urtean atera zena, *Elementos de la ciencia contradanzaria para que los currutacos, pirracas y madamitas del nuevo cuño puedan aprender por principios a bailar la contradanza por sí solos o con las sillas de su casa*. Ukan zuen arrakastaren lekuko arras tenore laburrean saldu ziren 3 000 ale genituzke. Liburuaren funts sakona agerian utzi nahian, hona hemen adibide asaldagarri bat:

«Siendo tan común y aun casi indispensable en nuestras madamitas contradanzantes del nuevo cuño el tener las piernas gordas, torcidas o zambas y el pie chato, calloso y disforme, ha sido necesario señalarlas el uso del guardapiés con cola para que tape todos los defectos bajos, como que fue traje inventado con este solo objeto, encargándolas que al empezar el baile se cojan atrás un par de plieges con un lazo de cinta de color de acelga cocida para que no se pisen las colas unas a otras».

Nolanahi ere eta gibekeko lan horien eite satirikoa albo batera utzirik, Iza-Zamakolaren lanik garrantzitsuena oraintxe darabilgun jakintza arloari zegokionez bederen apailatu zuen herri musika eta dantzen bilduma genuke inolako duda-mudarik gabe, hau da, *Colección de las mejores coplas de seguidillas, tiranas y polos que se han compuesto para cantar a la guitarra con un discurso sobre la belleza y gracia del baile de las seguidillas* betiereko D. Precisoren izenean. Lan horretan esan dantzen bilketa egiteaz gainera egoera musikari buruz egiten zuen ebazpena emateari ez zion ukatu nahi izan, eta garaiko konposagileek zegiten lana deitoratu ostean Italiako operaren ezaugarriak biziki haserreturik erdeinatu zituen:

«El fétido repertorio de los aires italianos con los que hacen durante horas trinos o gorgoritos capaces de provocar nauseas al más robusto de los estomagos».

Iza-Zamakolak kultura herrikoiarekin hartua zuen konpromisoa ez zen orain arte ekarri lanekin ahitu, eta 1804.eko otsailaren 29an *Centinela de las costumbres* deituko zen egunkariaren argitaratzeko baimena eskatu zuen, naski eman ez ziotena.

Edozein modutan ere bizkaitar honek izkiriatu oro ez zen horien barruan koka beharrekoa edota gaitzizen desitxuroso horrekin bakarrik sinatzen, bestelako lanak benetako izenarekin agertu baitzituen, barbarako 1806.ean bere lanbide-rekin loturik zegoen *Práctica de los juzgados del reino y resumen de las obligaciones de todos los jueces y subalternos, para instrucción de los jóvenes que se dediquen al estudio de las leyes, y enseñanza de los litigantes, escribanos, procuradores, agentes y demás oficios y clases de estado* Madrileko Joaquín Ibarrenean karrikaratu zuena, kazetetan iragarriarik agertu zen bost liburukitako bildumaren lehendabiziko alekia hain zuzen ere.

José Bonaparte errege berriarekin Jose Antoniok funtzionario jarraiki zuen, lehendabizi gorteko epaitegi zibileko grefier nagusi, geroago tinbrearen idazkari nagusi, eta azkenik Madrilgo poliziaren komisario. Gerra amaitu zenean frantsesen alde lan egin izanaren salaketapean erbesteratu zen eta Biarnoko lurretan barrena ibili ostean Gers aldeko Auchen kokatu zuen bizitokia 1817. urterako gutxienez. Bertako Duprat irarkolan lan famatu hau eman zuen moldeetara: *Historia de las naciones vascas de una y otra parte del pirineo septentrional y costas del mar cantábricon desde sus primeros pobladores hasta nuestros días, con la descripción, carácter, fueros, usos, costumbres y leyes de cada uno de los estados vascos que hoy existen*, euskaraz agertu nahi zuena, baina sosarik ezean edo, beharreko lankideei pagatu ezinik, erdaraz agertu zuen edizio horrekin konformatu behar. Halarik ere, frantsesera iraultzeko asmoa ba omen zuen, haren hitzetan, baxenafarrek irakur zezaten. Alabainan urte berean zendu zitzaigun gure dimar jakituna, bere asmo guztiak bertan behera geratuz. Azkeneko idazkia, hil ondoko lana naski, 1822. ean bere seme batek agertu zuen Bilbon, *Reflexiones analíticas de la lengua bascongada* izenburupean, laguna izan zuen Pedro Pablo Astarloak erakutsi ildotik abiatua zena.

33. Julian Romano, Lizarrako musikaria (1831-1899)

2000.1.14

Berriki ahitu da Romano hil zeneko mendeurrena ospatzeko ekitaldi andana. liburuak, artikuluak, CDak, kontzertuak, dantzaldiak, hitzaldiak, erakusketak... denetariko ekintzak izan dira baliagarriak Lizarrako musikari handi honen izena gogora ekartzeko. Romano deiturak Tuteran ditu erroak, nondik XVIII. mendean Zarrakastelu eta Alesbesera eta XIX. mendean Zirauki eta Lizarrara heldu zen. Julian Maria Romano Ugarte 1831.eko uztailaren 18an jaio zen Lizarran. Aita Ziraukiko artile moztaila zen, Juliani berebiziko lanbidea eman ziona, eta ama, berriz, Arakilgo Hiriberriko alaba zen, Ugarte Garaikoe-txea, eta hortaz, euskalduna, nahiz Julianen mintzoen artean euskara zegoen esateko pisuzko arrazoirik ez dugun. Etxeko egoera ekonomiko kaskarra zertxobait arintzearen, Julian soldaduskara igorri zuen aitak 200 errealengatik. Etxera itzulitakoan, auzokidea zuen Mikaela Dorotea Bidaurre Okaritzekin ezkondu zen. Ordukoa dugu Romano gaita-jole aurkezten digun lehenbiziko artxiboko agiria, bada, lanbidez espartingilea zen Ziriako Ziaurritzekin gaita jotzen agertu baitzitzaigun 1856.era. Egako hiriko karriketaren barrera. Urte batera, Romanoren goratze musikala hasi zen, aitaginarreba hil zelako eta emaztearen anai-arreba txiker guztiak etxean aterpetu behar izan zituen berean, Udalak gaitari aritzeko kontratatu baitzuen, hiriko lau erraldoiekin estreinakoz atera zirenekoan alegia.

Alargundu ostean, halaber alarguna zen Rosa Elizaga Senosiain oñatiarra-rekin ezkondu zen 1870.ean. Urte hartan berean, ordura arte musika lankidea zuen Ziaurritzekin utzi zuen, eta osperik gehien uztatu zuen taldea osatu zuen bere lehenbiziko ikasleak izan ziren Nemesio Bidaurre koinata eta Demetrio semearekin. Romanoren ospea gorantza zihoan neurrian, Lizarratik kanpo hasi zen jotzen, bigarren karlistadaren ostean bereziki. Aipagarria dugu 1878.eko Sanferminetan izan zela, orduko 250 pezetako katxet puztua kobratuz. Ber urtean Madrilen izan zen, Alfontso XIII.a eta Maria de las Mercedesen arteko ezkontza ospakizunetan. Ekitaldi hartan parte hartu izana garrantzi handikoa izan zen Romanoren bizitzan, eta harrez geroztik, artile moztaila lana bazter batera utzirik, musikari moduan bizitza aurrera eramateko bezainbeste ateratzen hasi zen, bai gaita jotzen, bai musika eskolak ematen; ezagun da biolin, akordeoi, bandurria eta gitarra metodoak izkiriatu zituela, eta piano jole ona bazen, 1893.ean udal musika bandaren zuzendari izendatu zutela. Gora egite musikalaren tontorrean zegoela zendu zen Julian Romano, mende berrira iritsi gabe, 1899.eko abenduaren 8an hain zuzen.

Romanoren ondotik aipatu Nemesio Bidaurre eta Demetrio aritu ziren bikote. Lehenbizikoa Julian baino lehenago zendu zen, 1892.ean, Santiago Plazako bere etxean, txirotasun gorriean, ahantzirik. Demetrio berriz, aitaren urratsak jarraitu zituen. Zenbait urte lehentxeago, 1882.ean hain zuzen, Rosa Elizagaren iloba zen Anselmo Gregorio Elizaga Ibañez umezurtza Etxanditik hartu zuten Romanoren etxean, eta huraxe izan zen Demetrioren laguna gaita joaldietan harik eta bien arteko erabateko haserrealdia jazo zen arte 1899.ean. Ez da dudarik hori gaita munduan ohikoa den gauza dugula, lagun mina izatetik etsai sendo izatera aiseki igarotzen ohi baitira gaitariak, agidanean.

Lizarrako ahozko tradizioa izan da gaur egunera arte Romanoren oroitzapena bizirik mantendu izan duena. Arrazoi desberdinengatik, Romanoren ondoko gaitariak ez zuten lortu gaitaren zabalkuntza, eta Lakuntza anaiek 1967.ean atera zuten gaita ikasbidea agertu arte gainbehera ez zen gelditu. Hori nabarmena izan da Julian Romanoren lanen iraupenean eta transmisioan ere. Bizi zela ez zuen deus argitaratu, eta hil ostean, berak sortu eta moldatu partitura ugariak bere ondorengoek zuhurtasun handiegiz gorde izan zituzten, sekretu bat bezala, erreperitorio hura gordetzearekin etekin komertzial handiagoo ateraiko bailuten. Hori dela eta, egun ia ez dago Julianek berak idatzitako partiturarik, bai ordea Demetrio semeak eta Anselmo Elizagak kopiatu hainbat orri eta koaderno, nahikoak direnak, ordea, Julian Romano zein tamainako musikaria izan zen jakin ahal izateko.

Romano bere garaian bizi zen musikaria baguenen, hau da, ez zen lehenaldian geratu eta tradiziotik haratago bere garaian modan zeuden musikak konposatu, moldatu eta interpretatu zituen. Bere erreperitorio zabalari erreparatzen badiogu, aisa ikusiko dugu esan duguna, bada, huraxe osatzen duten musika gehienak Europa osoan arrakasta handiz entzuten eta dantzatzen zirenak baitira: rigodonak, baltseak, polkak, mazurkak, txotisak eta habanerak, tradiziotik heldutako jotak, zortzikoak, arin-arinak, txuloak, zezenarenak edota dianak gutxienekoak izanik. Bestalde, Romano kalitate handiko musikaria izan zen, eta titulu akademikorik ez bazuen ere, kontserbatoriotik pasatzen ziren musikarien parekoa zen, eta askotan hobea, eta horretan Verdi bezala gertatu zitzaion. Hori guztiagatik, bada, Rosa Villafrancaren liburua bukatzen duen ikerketa musikologikoan Jaume Ayats doktoreak ez du enbarazu handirik izan gure Romano Johann Straussen beraren mailan ezartzeko.

34. Jose Joakin Perez Nekotxea: astoaren mireslea (1837)

1996.8.9

Jose Joakin Perez Nekotxea Uztrotzen sortu zen 1772. urteko urtarrilaren 9an. Apez karrera egin ostean, bi zuzenbideak egin zituen Zaragozan, eta kanonetan atzeman zion doktoretzari. Aragoiko Erret Entzutegian abokatu, Jaka eta San Ildenfonsoako Kolegiatan kanonigo doktoral, aztertzaile nagusi eta gudarosteen bikario nagusiarena, besteak beste, izan ziren bereganatu zituen artak. Frantsestealdian José Bonaparteren alde azaldu ez zelako, hainbat oldar eta eraso jasan behar izan zuen, espetxeratua ere izan zela. Horren guztiaren ondorioz, Fernando VII.ak, erregetza berreskuraturik, Karlos III.aren ordena eskaini zion. 1823.ean eta hirurteko konstituzionalaren barne, berriz ere kartzelaratu zuten erregezalea zelako susmopean, Kanarietako apezpikutegitzarako aurkeztu zuen proposamena bertan behera geratu behar izan zela. Geroxeago Arabako artzedianoa izan zen Kalagorriko gotzaindegian 1830.ean, 1834.ean berriz moldetegi nahiz liburu-denden zentsore nagusia izan genuen, eta azkenik gobernuko buruek Vich eta Oviedoko apezpikutegitzetarako aurkeztu zuten ibaxako gure gizona 1836.ean. Oviedoko kabildoak, ordea, bere aukeraketa egina zeukan nonbait, eta ez zuen Nekotxearena onartu, beraz sekulako istilu latzak eta gorriak sortu ziren aukeraketaren inguruan bakoitzak bereari tira eta temati eutsiz. Gobernamentuak afera bere onera ekartzeko asmoz Sigüenzako kadera eskaini zion Uztrotzekoari baina honek ezetz -komunikazio-, inkomunikazio-, Oviedokoa zegokiola, eta harik gabe jai zutela. Horren inguruan bi liburu ondu zituen bere eskubideak aldarrikatzeko asmoz, hauek dira: Madrilen 1840.ean argitaratu *La causa eclesiástica de Oviedo: sobre desprecio y violación de censura impuesta a varios canónigos y capellanes de la santa iglesia catedral por rebeldes*, eta Oviedon bertan ber urtean inprimatu zen *Relación histórica documentada de los sucesos ocurridos en la diócesis de Oviedo sobre el nuevo nombramiento de gobernador eclesiástico en el señor obispo electo doctor D. José Joaquín Perez Necochea, y de otros acontecimientos íntimamente conexiónados con dicho nombramiento, compuesta y dada a la luz por un prebendado, dignidad de esta santa iglesia*. Hori guztia jazo bitartean, 1837. urtean Nafarroako senatari kargua eskuratu ahal izan zuen, eta hartan ere jarraitu egin zuen -1843.ean esate baterako, ganberaren adineko lehendakaria izan zen-.

Nolanahi ere, honako honetara ekarria izateko ohorea baldin badu, ez da naski orai arte esandako zio guztiengatik, bere jakinduria zabal osoaren bilduma den liburu hau largatzeagatik baizik: *El asno ilustrado o sea apología del asno*

con notas y el elogio del rebuzno por apéndice por un asnólogo aprendiz de poeta. Madrilgo moldetegi nazionaletik 1837.ean ilki zen lan hau giza jakintza guztien erakusgarria dugu, historia, filologia, geografia, teologia, filosofia, fisika, politika, morala edota dena delakoen biltzailea. Ez zuen benetako izena erabili lana sinatzeko, eta abizena erdaratuz, J.J. Zeper Demicasa itzulpenaz baliatu zen, euskara ama hizkuntza zuela erakutsiz, nahiz funsgabekeria horretarako besterik ez izan. Lan horretan Manuel Lozano Pérez Ramajo zenaren astoaren omenezko olerkia jaso zuen, eta haren gainean idazki osoaren iruzkinak eta ekarpen jakintsuak eratu zituen. Urte batzuk lehentxeago ere, Juan Pablo Forner idazle espainiarrak *El asno erudito* izenburuko idazkia atera zuen Madrilen 1782.ean, Nektokxearen aurreko litekeena, izenburuari zegokionean bederen.

Esan egin da lotsagabekeriak beteriko lana dela, baina iduri barregarri xamar baten azpian jakintza handiko gizona ezkutatzen da, gai guzietan iaioa dena. Ironia lipar guzietatik isurtzen da, eta sinadura berean astotegiaren mandazain bezala agertzen zaigu, *borriquero del asnólogo* delakoa alegia. Sorterria gogoan zuela behin baino gehiagotan agertu zuen, eta horrela hiru behien tributua bazekarren, baita emazteki erronkariarren orrazketak, Abderramanen istorioa, Gardeko Pedro Bereterra kondearena, edota Uztrotzeko hainbat kontu txiki ere, esate baterako San Nikolas egunean ateratzen ziren apezpiku txikiena:

«Yo ahora para demostrar que tal usanza ha bogado no menos en España, alego el registro de alhajas de la iglesia de mi pueblo, donde se dice: una mitra de seda bordada para el obispo de los niños, un pectoral para el obispo de los niños, una muceta de seda carmesí para el obispo de los niños. No me chanco porque así es puntualmente, y yo mismo he llevado estas vestiduras y ejercido estas funciones, echando bendiciones al pueblo, bien distante mi inocencia de oír su origen, ni que hubiese habido iglesias de categoría, ni que existiesen libros que hubieran llamado mi episcopado de los locos».

35. Euskaldunak Mériméeren eta Lotiren bihotz begietan (1840, 1896)

1997.4.18

Euskaldun orok ezagun dezake erromantizismoak askozaz ere begirune xamurragoa izan zuela gure herriarekiko, aitzineko urteetan ilustrazioak izan zuena baino. Ez dakit ordea ongizate nabarmenagoa ekarri zigunetz, eta, paradigmatico askoa izanik ere, Lotik berak ezbaian ezartzen zuen turismoaren ankerkeriarekin erkatzekoa jazo dakiguke zuzenki, horren exotiko eta horren ekialde urruneko egin baikintuen behin baino gehiagotan XIX. mendeko literatur korronte hits bezain oparoak. Beharrik, euskaldunon nortasuna doi bat bederik ere nabarmentzeko, baliagarria izan zela Europako bidaiari ezberdinen langintza ugaria, eta horrela, besteak beste, joan den XIX. mendean beren lanen gaitzat behin baino gehiagotan izan gintuzten bi idazle handi Mérimée eta Loti frantximantak genituen.

Prosper Mérimée Moreau 1803.eko irailaren 28an Parisen sortua zen, eta ia 67 urte beranduxeago, irailaren 23an hain zuzen, ber hiriburuan zendu zen. Aunitzak ziren izan Penintsulara egin bidaztiak, eta haien kariaz, Euskal Herrietatik eginiko paseak, batik bat, 1834.ean aberriko monumentu historikoen behagile izendatu zutenetik. Mériméek izkiriatu ezagunenetarikoa ospe zabaleko *Karmen* eleberria dugu. Paristarra euskaldunen miresle eta ezagutzaile fin zagerkigula ez da gauza berria, horretaz luze mintzo eta idatzi baita. Aspaldian Jose Maria Iribarren Rodrigex tuterarrak «*Carmen la gitana que sabía vascuence*» largatu zigun horren erakusgarri -*Historias y Costumbres*, Iruñea, 1949-, baita Argetas aldeko Elizalde Armendariz josulagundiaren filologoak ere, erriberarren eskutik datozkiguke beraz. Mériméek ez zekien euskaraz, baten batek tai gabe baieztatu duen gisaz, euskaltzalea ageri bazen arren, eta exotismoaren zantzu ote zuen gure hizkuntza. Halaz guztiz, hainbat hitz jakin bazekizkien, baita erabili ere, Montijoko kondesari igorri mezuetan aitortu bezala:

«Burgosen, 1840.eko urriaren 16an: Bart Gasteiztik jinikoekin afaldu nuen. Dilijentzian hainbat neska menditar nahiz bizkaitar bazetozen, zein baino zein politagoa. Arrakasta handia izan nuen haiekin euskaraz esan nizkienei eskerak».

«Baionan, 1840.eko urriaren 21an: Gasteizko neskekin asko ikasi dut euskaraz. Neska haietan ederrena zenari Irungo ostatuetako apaingarririk politena zela esan nion, tamalez ezer onik lortu gaberik: *Nai desu nerequi etorri Franciera?* Eta berak ihardetsi zidan: *Esgarric asco*».

1845.ean argitara agerikoa arras aldaturik azaldu zen Georges Bizeten opera ezagunean, nahiz 30 urte eskas besterik ez bete bi aldaien artean. Bizetek konposatu musika Henry Meilhac eta Ludovic Halévy bikoteak ondu paperari egokitu behar izan zitzaion, eta Parisen 1875.ean estreinakoz taularatu zen. Alabaina, bi horien arteko tartean, guretako interesekoak litezkeenak badira. Mérimée-k asmatu zituen bi pertsonaiarik nagusienak nafarrak genituen, Joxe Lizarrabengoa Elizondokoa, eta Karmen ijitoa, Etxalarkoa. Ikertzaileek diotenez, Joxerenak garaiko Tempranillo izengoitiko bidelapur errondarra zezakeen iturburu, hark ere, Granadan apezgai ziharduela, emakume baten atzetik ihes egin baitzuen, geroantzean Gibraltarretik Espainiarako kontrabandoan aritzeko. Karmeni buruz berri handirik ez da. Jakin badakigu Mérimée-ri ijitoak izugarri interesatzen zitzaizkiola, eta Borrowen lanak ondo baino hobeto ezagutzen zituela. Iribarreni jarraikiz, 1907.ean Parisko *Le matin* egunerokoak Karmenen birbiloba zatekeenari eginiko elkarrizketa argitaratu zuen. Ber testua Buenos Airesko *La prensa* izparringian ere berragertu zen 1907.eko irailaren 18an. Horren arabera Karmen egiazkoa zen, benetako izena Ar Mintz zen, hau da, menderakaitza, eta abizena Naduzhka zuen. Joxe ere, ez genuen asmatuzkoa, nafarra zen, eta ijitoek Issar Abgoa deitu ohi zuten, itzal txarreko kanpotarra alegia. Hil aurretik Karmenek alaba erditu zuen, Djarko izeneko abeslariarekin ezkondu zena, eta Thiecla izeneko alaba izan zuen, Gibraltarreko Harry Gresham soldaduaarekin ezkondu zena. Azken bi horien alaba litzateke elkarrizketatua. Edozein modutan ere, Iribarrenek gezur huts zuen kontu zahar hura guztia, eta gu bide beretik gindoazke.

XX. mende hasmentako erromantizista Mérimée, eta mende hondarrekoa Loti, bere neurrian gutxienez doike. Louis Julien Viaud Viaud Rochefort-sur-Mer herrian 1850.ean sortu zen, aitzineko sendi hugonot batean. Gazte zela, misiolari egitekotan arizan zen, baina koskortzerakoan, marinela izatea xedatu zuen. Laster batean, idazle bezala egin lanak marinela gaingitu zuen, Loti ezizenak Viaud estali zuen moduan, eta 1891.ean Frantziako akademian onartu zuten, Zola erretxin baten desioei aitziz, eta Loti beraren drestintasun lotsaga-bearekin. 1892.ean Bidasoako ibaizabalean pausalekua zuen Javelot izeneko itsasontzi txikerraren komandante izendatu zuten, eta horren kariaz Hendaian ezarri zuen bere bizitokia, Bakar-etxea zeritzanean. Harrez geroztik, Euskal Herriak berebiziko arreta bereganatu zuen Lotiren idazkigintzan, eta *Pays-Basque: recueil d'impressions sur l'Euskal Herria* artikulua sorta utzi bazigun ere, euskal senategiaren mirail erabatekoa bere *Ramuntcho* izanzen genuen, Parisko Calmenn-Levyrenetik 1896.ean atera zena. Karmenekin agitu antzera, honakoa

ere Gabriel Piernéren musikaren laguntzaz taularatu zen, papera Lotik berak ondu bazuen ere. Idazki horren jatorria Lotik berak ezagutuetan kokatu beharra dago: Ramuntxo Azkaineko Otharre izeneko pilotari-kontrabandista bat genuen, Loti bera pilotaren munduan sarrarazi eta hezi zuena.

36. Iturriagaren eta Samaniegoren zinak eta minak (1842)

1997.11.28

Ez dira ezagunak Agustin Ignazio Maria apez alegiagileak bere lehenbiziko abizena erdeinatzeko izan zitzakeen arrazoiak. Seguru gaude, alta, Yon Juaristi Linacerok -berak proposatu ortografia berriari jarraikiz- malenkonia ugari ikus lezakeela Autoletik etorria bide zen Pascual deituraren ezabapenean. Aitak ja-raunspen utzitako lehenbiziko deiturari erakutsi aiherra leuntzekotan edo, haren bigarrenari eutsi zion, eta amaren Ugalde-Amitezarobe bikotearen gainetik Iturriaga hobetsi zuen bere buruaren ezagutarazle hauta betiko. Sobera entzuna dateke Iturriagak irakaskuntzan egin zuen lana, Hernanin, Kaietano anaiarekin eta Manuel Larrarte organo-jolearekin ireki zuen eskolan egindakoa alegia. Argien garaiko pedagogia zein gaitegi berritzaileei berauk ondu idazkiak gehitu behar, eta horien guztien artean, Donostiako Barojarenean 1842.ean ateratako *Fábulas y otras composiciones en verso bascongado* dugu gure interesekoa. Horretan, besteak beste, Samaniegoren 55 alegiaren itzulpena eskaini zigun. Ez zuen, naski, bulta luzea igaro behar bekaizti erretxinen salaketa iristeko:

«En una palabra, y sin pasión, éste ha hechado a perder a todos con su viciada filosofía, por cuanto su maestro seductor los tiene imbuídos en la falsa y perniciosa doctrina del infame Voltaire y de los protestantes».

1823.erako jada eskola itxi zioten, eta lehenbiziko karlistadaren ostean, ihes eginda genuen Iturriaga, Hondarribian, Zestoan eta Milafrangako Larralde gazteluan, Arkangoitzeko markisaren babespean. 1841.ean sorterrira itzuli zenean, sobera asaldatu ziren herrikideak, eta Iruñeko apezpikuari lar izioturik idatzi zioten:

«Se ha presentado aquí ese hereje consumado con el descaro que acostumbran los herejes y según parece con todas las licencias de su ilma. para predicar y confesar».

Samaniego arabarrak ere, giputzak egin antzera, aitak utzi lehenbiziko abizena baztertu egin zuen, huraxe, sendiaren ohiko aztura zela onartu behar den arren. Hezkuntza arloan, arras lotuta zetxekion Bergaran Peñafloredakoak-eta ireki ikastetxeari, eta 1782.etik, eskolaren bigarren zuzendaria izan zen hain zuzen ere. Edozein modutan, 1793.eko frantsestealdia bukatuta, eta elkartearen langintzak arrapiztu nahi izan zirenean, elkartekide gehienek ustearen kontra, Samaniegok Bergarako ikastetxea ez zabaltzea eta herri gehienetan dohaineko eskolak ezartzeari hobekiro zeritzon. Aitzitik, ez zen horrela gertatu. Bestalde, konbentzioarena eta gero, ilunbe aro bat hasi zen Espainian iraultzaren bel-

durrez, inkisizioari, garaietan zuen indar itzelaren eta beldurgarriaren puska ederra berreskuratzeko baliagarri izan zitzaiona. Samaniego ere horren ehizakia izan zen. Erakunde sailduak Bilboko Jose Antonio Epaltza merkataria hartu zuenean, debekaturik zeuden liburuak bazekartzan Iparraldetik. Berarentzat propio zeramanarekin batera beste hiru ale ere bazituen, Bergarako ikastetxerako, Fernando Landetxo batentzat eta gure biasteriarrarentzat. Liburuak Cordoceten *Espainiarren aholkua* zen, eta igorlea Donibane Lohitzuneko Ducos izeneko medikua omen. Orduko hartan, elizaren gestapoa liburuak jasotzearekin konformatu zen. Alabaina, 1793.eko martxoaren 11n, Bilboko Jose Maria Murga Barreda handikiak salatu zuen debekatutako liburuak edukitzeagatik, eta horrekin, bueltaka hasiko zen pilota geldiezin agitu zen, geroago eta salaketa undatsago, geroago eta kakaztenago. Egoera zinez larria izatera iritsi zenean, Madrilera joanik, Eugenio Llaguno Amirola justizia ministro berriarekin hitz egin zuen, bestalde, laguna eta arabarra zena, eta handik gutxira, inkisidore nagusia zen Manuel Abad Sierrak Samaniegorena artxibatzea agindu zuen. Nonbait, baten batzuk, jinkoarengandik gertuago bizi dira beste batzuk baino.

37. Erriberako ihauteriak (1842-1989)

1998.2.20

Dagoeneko joanak ditugu Nafarroako hainbat tokitako ihauteri egunak, baina, hausterre eguna hurbiltzen zaigun ahala, oraindik ere zer eta non jostatu geratzen zaigu. Erriberako hiru hiritan gaur hasten dira aurtengo ihauterietako ospakizunak, berezko izaera duten hiru pertsonaia ezberdinen eskutik.

Baldin eta Euskal Herriko hainbat eta hainbat ihautetako pertsonaiak arras ezagunak gertatzen direla esan badezakegu, ezin da ber gauza esan Nafarroako Erriberako ihautetean ateratzen diren pertsonaiei buruz. Jakina, hegoaldeko lautada honetan, gutxi dira orain arte mantendu diren eite zaharreko pertsonaiak, eta txikia dateke, ardi-larruz, adarrez eta odolez, zintzar hotsetan murgildurik dagoenari Ebroren ibai-bazterreko pertsonaia xume hauek sortaraz diezaioketen erakarpena. Halaz guztiz, beren xalotasunean halako xarma berezi bat dute.

Herri batzuetan aipamenak baizik ez dira geratzen behialako ihauteriak zitezkeenei buruz. Pedro Arellanok 1927.eko *Revista Internacional de Estudios Vascos* aldizkarian, Ablitasko esteradunen berri eman zuen. Aurreko mende bukaeran oraindik ateratzen bide ziren pertsonaia horiek; estera edo zerria piltzarrez zein zaku zaharrez mozorroturiko pertsonaiak genituen: aurpegia beltzaturik eta erratza eskutan heldurik, edozeini totoak eskaintzen zizkieten, eta zenbaitetan, goxokiak eskatzera ausartzen zitzaizkienei, musuarekin igurtziz, zikintzen zituzten, Goizuetako ikazkin zaragidunak egun dagien antzera. Ablitaskoa ere pliegoaren dantza famatua dugu, arestian bertako dantza taldeak berreskuratu zuena, eta Claude Gaignebet ihauterien ikerlariak bere 1974.eko tesian *-Le carnaval: essais de mythologie populaire-* argi zioen bezala, kandelaria-ko ihaute eginkizunekin lotu behar duguna. Luis Gil Gomez tuterarrak aspaldian Korellako ihauterien berri eman zigun. Hemen ere, goxokiak banatzen zituzten maskak ateratzen ziren, alabaina, goxokiez gain bestelako gauza batzuk banatzen zituenik bazegoen, esaterako, Katoles osaba deiturikoa, zeinak goxokiak banatzeko aitzakiaz, kutxa batean goxokien azpian zeraman gorotza eta simaurra erruz botatzen zuen. Alabaina, ezaguna da agintariak historian zehar ihauteriei izan dieten destaina, baita beldurra ere, eta urteetan errepikatu egin diren debekuak eta arau hertsiek galarazi digute Erriberako ihauterien ezau-garriak ezagutzea. Ruiz Cabal gotzainak 1892.ean ateratako artzain gutunean esandakoaren arabera,

«Ihauteria grinarik nazkagarrienak eta likitsenak iratxekitzen dituen labea da»,

eta horregatik debekatu zituzten. Aitzitik, herriak ez zituen murriztapenok gogo onez onartu, eta horretara dator Monteagudon kantatu izan den jota hau:

*«Aunque no quiera el párroco
hemos de hacer la piñata
aunque luego nos denuncien
y nos den buena tocata»,*

edota Tuteran kantatu izan den beste hau:

*«El alcalde de Tudela
nos prohíbe el carnaval
no nos ofrece jornales
ni reparte el comunal».*

Ez zuten, ordea, nahikoa indar jota horiek, eta gaur egun, Erriberako herria guztietan ihauteriak ospatzen badira ere, gutxi dira mantendu zaizkigun ohitura zaharrak. Batzuetan berreskuratu behar izan da galdutakoa, eta besteetan, berriz, zertan zitekeen asma ezinik, hutsetik sortzea izan da aukeratu bidea.

Zentronikoko zarramuskerok: heldu dena

Euskal Herriko ihauterietan ugari azaltzen zaizkigun pertsonaien bildumari erantsi beharreko beste bat Zentronikoko zarramuskeroa dugu. Ohi bezala etorki ilunekoa, herri jakinduriak Erronkari aldetik etorritako artzainengan kokatzen du zarramuskeroen sorrera. Bardeetara etortzen ziren Pirinioetako artzainak hemengo herrietara sartzen zirenean, hain zeuden zikin eta zatar, hain zen sarkorra garbitu gabe irautearen kariaz zekarten usain nazkagarria, ezen erriberarrek, anil-hautsa botaz jakinarazten zietela zuten ikuzi beharra. Urteetan bizirik iraun zuen festak 36ko gerrarekin amaiera doilorra izan zuen, eta 1984.era arte, Peña Cirbonerak berriz ere berreskuratu zuen arte bederen, erdi galdurik egon da, izan ere, tarteka atera izan baitira, agintarien aginduari muzin eginez. Halaz guztiz, azkeneko urte hauetan, huts egin gabe, ihauterietako larunbat eta igandean atera dira kalera, seietatik zazpiak bitartean. Eliz kanpaiak abisaturik, ordu horretan hamaika zarramuskerok ateratzen dira, zarpil zaharrez goitik behera mozorroturik, eta beti ere, aurpegia oihal zulatu batez estalirik. Ordu horretan kalean mozorrotu gabe ikusten duten edonor anil-hautsez, alabastro-hautsez, gorotzez, edota dena delakoez zikintzeko eskubidea dute. Az-

ken bolada honetan, ordea, badirudi zarramuskeroen gaiztakerien gradua doi batez laxatu dela, bada, beste urteetakoak berriz ere errepikatu ez baitira. Esaterako, 1984.ean, hots, berreskuratu ziren urte berean, Argako autobusa gelditu zuten, eta barrura sartuz, sulfatagailu batekin txerri-mindaz zikindu zituzten bidaiariak oro. Egun hartan berean, TER izeneko trena gelditu eta bidaiariak zikindu zituzten. Beste urte batean, berriz, *Diario Vasco* egunkariaren bi kazetari bertara joan zirenean, zuhur jokatu, kazetari-kredentzialak eskatu zituzten udalean, bai lortu ere, haatik zarramuskeroen maltzurkeria ez zuten ongixko neurtu, eta haiengana lasai asko hurbildu zirenean, zarramuskerok beste inor baino gusturago zikindu zituzten. Zentronikoko udalean entzun ziren irrien oihartzunak oraino ozen darrai.

Tuterako zipoteroak: berreskurapena

Gaurkoan, gaueko bederatziak aldera, hitzordua finkatua dute Tuterako zipoteroek aurtengo ihauterietan lehenbiziko irteera egiteko. Beste behin ere *Zipotero malandrako que no vales pa moñako* esan ahalko dute Tuterako haurrek. Erriberako hiriburuan ateratzen den pertsonaiarik berezkoena den hau 1989.ean berreskuratu zuten, alabaina, badira aipamen zaharrak pertsonaia horren izaerari buruz. Aurreko mendean Mesonero Romanos idazle espainiarrak Madrilen sortu zuen *Semanario Pintoresco Español* izeneko aldizkarian, ospe itzeleko Jose Yanguas Miranda historiagile tuterarrak bazuen bere sorterriko ihauterien berri naroa eman, baita zipoteroen inguruan ere. 1842.ean agertu zuen artikuluan honela zioen:

«Hiri honetan, zipoteroen ohitura zaharrak bizirik dirau oraino. Hauek, ihautetako hiru arratsaldeetan hiriko karrika nagusietara ateratzen diren maskak edo mozoak dira. Marinel nahiz erronkariar jantzia, baserritarrarena nahiz balentziarrarena, edota gerriko gorriarekin praka txuri baten gainetik ongi loturiko kolorezko atorra dira, eskuarki, jendeak erabiltzen dituen mozoak. Eskuineko sorbaldatik dilindan eta ezkerreko galtzarbean, bi ertzak soka batez lotuta dituen buruko-zorroa daramate, eta eskuan, bost arrako makilari heltzen diote mehatxari. Makil honi, soka luze batez, ilezko maskuri handi bat lotu diote, airez puzturik, zipoteroak derrigorrez eraman beharreko babes iskilua. Dotoreenak, hau da, buruko-zorroa goxokiz betetzera gozotegian gehienetan sartzen direnak, zalu arintzen dute orduantxe harturiko zama bere senitartekoan balkoietara huraxe botatuz. Zipotero hauek, goxokiak balkoietara helarazten saiatzen diren bitartean, beste batzuk, balkoietara iritsi ez diren goxokiak lurretik hartzen diharduten haurrak, emaztekiak eta baserritarrak bortizki jipoitzen dituzte maskuriekin. Jipoituek, berriz, gustora hartzen dituzte zigorrak, bizkar

gainean pilotek bezala punpe egiten dutenak. 1833. urtetik, bai ondoko herrietatik etorritako senitarteko ugariengatik, bai aurreko hamar urteetan festa hau ospatu ezinean ibiltzeagatik, ezin arrakastatsuagoak izan dira ihauteriak, betiere oso jendetsuak izan direla onartuagatik ere. Harritzekoa da tuterarrek festa honi dioten zaletasuna, eta erresumaren kontseiluak emaniko agindu zorrotzen gaintik, hiriko alkateak laxoak badira, hiritarrek osoki ospatzen dute. Gutxi dira hiru arratsaldeetan ateratzen direnak, batzuk gehiago bietan, baina gehienek zipoteroarena azken egunean egiten dute, bestalde, egunik politena dena. Egia esan, oso ekonomikoa ez den iharduera ezeze, nahikoa nekagarria da errepikatzeko, ibilbide osoan zehar makilkadak emateaz besoak eta gorputza larregi unatzen baita, eta indarrak gorde behar dira ilunabarretik hasita bilkura bilkura aritzeko, hamaiketan antzokian hasten den dantzaldira joan arte, non jendea geratzen baita errauts eguna argitu arte, aurreko gauetan egin den moduan bestalde».

Honaino Yanguas Miranda jauna.

Esan bezala, 1989.eko otsailaren bostean eta zortzian, larunbata eta asteartea, atera ziren estreinako berreskurapena egin zenetik. Yanguasen testuan oinarriturik, egungo zipoteroen jantziera, nahiz erabat zehazturik ez egon, honakoxea dugu oro har: praka zuriak, atorra urdina, gerriko gorria, espartin zuriak edo abarkak, eta lastozko txanoak, txapelak edo lau korapilotako zapiak buruetan. Horiekin batera, eta egun osagairik garrantzitsuena dena, eskuz egindako maska dago, hau da, ez errosia, gehienetan ere igeltsuz egindako kareta zuria. Makila ere eramaten da, nahiz maskuri gutxi ikusten diren, eta gehienetan floka berde, gorri eta zuriez eta kaskabilo txikiez apainduta dago. Goxokiak, behialakoan bezala, buruko-zorroan sarturik daramatzate, baina ez balkoietan daudenei bakarrik banatzeko: edozeini, ordea. Egungoan ere, zehaztua dago ibilbidea: San Salvador plazatik Magdalenako elizara, eta hantxe, Erdi Aroko eliza erromaniko ederraren parean, txistorrada handia egiten da, mozorrotuentzat nahiz mozorro gabetuentzat.

Ibilbide osoan zehar, Gasteizko Kilkir txarangak zipoteroen kalejira jotzen du tai gabe, Tuterako gaiteroek konposaturiko soinu sarkorra. Guztien aurretik, pertsonaia berria dugu, kapirotea. Zipotero guzien buru zatekeen hau Otsagiko bobo denaren antzera sartu zen berreskurapenarekin batera. Zintzarriz eta koloreetako flokez hornitu haga luzanga batekin zipoteroen dantza anarkikoa zuzentzen du, aurrera eta atzera, baita ibilbidean dauden taberna urrietan geldiuneak egitea agintzen ere. Beharrik, ordea, urtero aukeratzen den kapirotea mingaina idor, gehienetan egarriak egoten den horietakoa dela, bestela...

Kaskanteko zarrapoteak: sorkuntza lana

Tuterako zipoteroena berreskuratutako ihauteria bada, eta Zentronikoko zarramuskeroen denboran zehar gehien batez aldatu gabe iraun duen ihauteria bada, Kaskantekoa berriz goitik behera asmatu berria dugun horietakoa dugu, geure Euskal Herriko geografian zehar pentsa ditzakegunak baino askozaz ugariagoak diren horiek bezalakoa alegia. Hasiara batean horrelako festa berri bat sortzeak ekar ditzakeen mesfidantza zein oztopo guztiak gainditurik, eta Erriberako hiri horretako kultur eragile guztien eta bertako udalaren arteko elkarlanari esker, betiko ihauteri zaharretan oinarria duen beste ihauteri berri bat dagoela esan dezakegu lasai aski, izan ere, gaurtik aurrera ihauteko ostira-lean Kaskanten ikusi ahal izanen denak betiko ohituretatik edoski baitu, eta ia segurua da, urte gutxi barru, Kaskanteko ihauterietako pertsonaien jatorria azaltzerakoan, antzinako garaietatik heldu dela esanen dela, oroimen txarra hemerroteketan sartu ezean behinik behin.

Ikuskizun berria jada zenbait urtetan ateratzen aritu diren zarrapotero izeneko pertsonaiengandik abiatu da. Horiek itsuski jantzitako pertsonaiak dira, gaiztoak ez diren arren, eta duten betebeharririk funtsezkoena urtean barrena hirian gertaturiko aiherkunde, gorroto, gaitz, nahiz zurikeriak oro jaso eta miserien kutxan sartzea dugu. Gaurkoan, zarrapoteroak laguntzeko, zarrapote izeneko pertsonaiak ere aterako dira, zuriz jantzita eta sorbaldetatik zein ka-peletatik dilindan itsasturik daramatzaten hamaika xingola eta oihal-zerrenda aidean. Gaiteroek zarrapoteroen kalejira jotzen duten bitartean, zarrapoteroak zein zarrapoteak miserien kutxan sartu beharreko guztiak sartzen ahaleginduko dira, jarraian Foruen enparantzara eramanez dutena, eta bertan, pregoia irakurri ostean, jasotako miseria guztiei amaiera suak emanen die, garrek zipildurik eta kiskaldurik. Segituan, plazan bildutako zarrapotero eta zarrapote guztiek Kaskanteko karrika-dantza eginen dute, betiere, gaiteroen musikak lagundurik.

38. Iztuetaren segizioko Azpiazutarren lanak (1848, 1858)

1995.11.3

Donostiako Koldo Mitxelena kulturguneak duen liburutegian Gipuzkoako dantzak kontagai dituen liburu bitxi samar bat dago, gaurkoan hona ekartzeari egoki deritzoguna. Hiri bereko Pio Zuazuaren irarkola tipografiko-litografikoan inprimatu zen J.J.A. hasmenta hizki erdeinagarriz sinaturik ageri 16 orrialdeko 1858. urteko idazki llaburrari erreparatuko diogu, *Descripción de las diversiones públicas de Guipúzcoa y en particular de sus bailes* izenburuaren azpian agertu zen lanttoari alegia. Gordetzen den aleki beraren atzealdean, eskuz izkiriatu txartel zaharkitu bat itsatsita badager, honako ele hauek dakartzana:

«*Bonaparte poseía el ejemplar, lo veo en Victor Collins-Attempt at a catalogue of the library of the late. Prince Louis-Lucien Bonaparte by Victor Collins, 1894. No está en las bibliografías y catálogos de obras vasco navarros por Nicolas de Soraluze y Zubizarreta, Vitoria, 1871. Allende Salazar no. Sorarrain lo registra, nº 754, pero sin descubrir el autor y tomándolo como indicación del príncipe Bonaparte.*»

Honaino aipa txartelaren testua.

Lanttoak Gipuzterria du belanda, hara dago aiduru. Ikuspegi xume deslaia, soraioki egina, apologesia sobera, nardatzeko gisan. Liburuxkak Gipuzkoako deskribapen apologetikoa du hasikaldi, eta hasian hasi pilota jokoaren berri ere eskaintzen du, berehala, eta gehiegi hastandu gabe, dantza giputzen berebiziko deskribapena luzatzeko laugarren orrialdetik aitzina. Iztuetaren kondaira ez dakar inondik, ez eta aipatu ere, benetan susmagarri agitzen dena, alta Zaldi-biakoak haizatuak baitakartza, esaterako eztabaida moralaren inguruko zioa, Aierbe izeneko apezaren berri emanaz. Halarik ere, frai Bartolomeren lanaz ez du txintik ere esaten.

Jon Bilbaoren bibliografian badira jasoak honako bi lan hauek, alde batetik aurrealdea baino ezagutzen ez den *Descripción de algunos bailes históricos peculiares de Guipúzcoa con reglas instructivas para ejecutarlos debidamente* izenburuko idazkia, Jose Antonio Azpiazuk egina, Burgosen, 1848.ean, eta bestaldetik autu honetarako hautatua duguna. Herriaren Lagunen aldizkarian urte gutxi batzuk lehentxeago, Joakin Irizar zenak Bilbaok zekarren aurrealde horren berri ere eman zuen, izan ere bere liburutegian zituen paper abondo guztien artean horixe gordeta baitzuen. Atsekabetzen da aita Donostiak ezagutu ez izana.

Azpiazuz ezer gutti dakigu. Alde batetik jakina da Iztueta beraren alaba zen Maria Ignaziarekin ezkondu zela Donostian 1828.ean. Aita Zumarragakoa zuen Joxe Antonio Azpiazu Barandiaran Segurako semea genuen, ezkongabea

zela Ataunen biziz. Iztuetaren testamentuan berriro agertzen zaigu 1845.ean Burgosko biztanle bezala. Guztiarekin ere, Maria Ignazia Iztuetaren 1859. eko heriotza agiriak dioenez Juan Bautista Etxabe izeneko bat izan zen alargun geratu zena, beraz, Azpiazu bere emaztea baino lehen hil zela aztiatzea herketz legoke.

Bestaldetik, Joxe Antonio Azpiazu bat dugu Bonaparteren kolaboratzaile, Uriarte aitak gipuzkerara itzuli zuen Bibliaren zuzentzailea -oroit bedi bestenez Uriarte bizkaitarra zela-. Alabaina, ezoso laga zuen lana. Horretaz gainera, Bizkaiko Aldundiaren Liburutegian badira oraino J.A. Azpiazuk Bonaparte printzeari igorri gutun saio bat galegoari buruzkoak.

Badirudi, Iztuetaren suhiak, Zuriak ondu 1824. urteko *Gipuzkoako dantzen kondairaren* aldaira antzeko zerbait egin zuela. Hori nolabait ere Azpiazuren Burgosko egonaldiak frogatuko luke. Gainera Uriarteri eginiko zuzenketak 1859.ean eten ziren, Itun Zaharreko lehenbiziko hiru aleak argira ilki ziren urte berean. Villasanteren aburuz, lan horretaz gogait egina zegoen, baina zuzenena ordurako hilda zegoela pentsatzea dateke.

Koldo Mitxelena kulturagunean dagoen lanttoari dagokionez, berresan J.J.A. direla haskaldi hizkiak, eta ez J.A.A., Bilbaok zioen moduan. Geure uste apalez, Hondarribian zegoen Joxe Antonioren seme bat zitekeen J.J. hori, izkribuaren datan aditzera ematen den bezala. Bestalde, lanttoan azaltzen diren lau soinu zahar, *Ondarribia aundia*, *Ondarribia txikia*, *Galantak* eta *San Sebastian*, hitzez hitz eta hurrenez hurren, Iztuetak bere 1826. urteko *Euskaldun antzina antzinako ta are lehendabiziko etorkien dantza on iritzi pozkarri gaitzik gabekoen soñu gogoangarriak beren hitz neurtu edo bertsoakin* musika liburuan zekartzan 2, 3, 14 eta 15. kantak ditugu.

39. Rosoren balentria gogoangarria (1851)

1998.6.19

Ez dakit itsu-erromantze hau Julio Caro Barojak ezaguna zukeen, baina ezetzean nago, bestenez, ezin zitzaiokeen atzendu agun-literaturaren gainean maisuki ondu zigun saiakeran sarbiderik ematea, hain da eder eta ezohikoa dakarkigun pasadizoa. Guztiarekin, ez zen oharkabean igaro zitzaion bakarra, bada, *colportage* eta *cordel* literaturen artean kokaturik dugun, geografikoki bederen, gure bertso-paperen tradizioa zeharka ere ia ez baitzuen ekarri. Afera, antza, ez zegokigun euskaldunoi, eta betiko leloa beste behin biziareziz, euskaldunok ezetz, ez dugula izan bizitza literariorik, ahozkoztatunean landugabeki nahiago izan dugun herria izan garela, ahozkaritzan garatu izan den hau bezalako generotik lekot ere uztea nahiago izan dute, eskuarki. Azken buruan, Beran bizitokia zuen Caro Barojak espainieraz idatzi zuen espainiarrentzat, eta mamutzarrak uxatzen ahalegindu zen ber, agian nahi gabe ere, iraunarazten zituen gupidagabeki. Eta horretan gaude.

Gaurkoan ekartzen duguna espainieraz eginiko itsu-orri bat dugu, *La hazaña del Roso*, Logroñon 1851.ean moldatua, eta ber urteko ekainaren 23an Tuteran bertan agitutakoaz mintzo dena. Ezin uka literatura txikia atsegingarri ez zaionak istorio txiki ere duen aldetik juzgu ona atera dezakeela, gertakizuna bera denetik ezpada, bai beronetatik ondoriozta daitezkeenetatik gutxienez. Plegura itzuliz, arras zaila dateke inon begiztatzeko, alabaina behiala bazuen jaso Castro Alavak bere tuterar bibliografia erraldoian, osorik, baita artxibategietan jazoeraz zegokeenaren aipua. Beharrik ere.

Esan datan, bada, goizeko ordu bietan, argi-urratzetan eta ilunxko, San Salbadorreko larrainetan, otso amorratua azaldu zen. Hantxe zeuden hiru artzainak otsoak jauki lehenbiziko pertsonak izan ziren, eta bik ihes egitea erdietsi bazuten ere, hirugarrena, Pedro Argos zeritzana, bertan behera garbitu zuen basapiztiak. Hirirako sarkura garbirik, Ebro gaineko zubitik abiatu zen, non Agustin Montori agurearekin topo egin zuen, eta esfortzu handiegirik saiatzeke, hantxe ere ehotu zuen gizagaixoa. Zubian oraino, hirugarren biktima largatu zuen otso itsuak, Gabriel Lopez bidezaina alegia, larriki zauritu zuena. Zubia gurutzaturik, hiriko sarkian, Mateo Santos artzaina bere astoan igota ikusi zuen otsoak, eta bi koitaduen gainean jauzirik, hil-hurren sakitu zuen gizona, astoaren odola ezpore saminegia bide zuen eta haren gusturako. Ordurako Pedro Resa, *Roso* ezizenez ezagunagoa zen igureia, lanera baino lehenagoko pattarra galdatzen ari zen Santa Maria plazako eguneroko tabernan,

otso amorratua azaldu zitzaionean odoltzale. Ez zen Roso bipila luzamendutan ibili, eta piztiarengana zuzenduz, barailetatik heltzea lortu zuen, haatik, jarrera deseroso hartan zotukatu ezinik, otsoa akabatzen lagunduko zuenaren zain geratu behar izan zuen. Borrokatik atera azantzak, ordea, Bernardo Casamayor gauzaina etorrarazi zuen, eta eskopetarekin ahal ongien destatuz, gauza erraza ez zena, hain ziren bortitzak eta ustekabekoak Roso otsoarekin dantzatzen zituena higidurak, noiz edo noiz ere, gauzain izukaitzak ituan bete-betean jo zuen, eta hantxe geratu zen otso ankerra zurbilik, Tuterako bidean bi hildako utzi ostean. Pedro Resa, ordea, arras trenputxarturik geratu zen, eta berrogei egunen buruan lurrera eman behar izan zuten, erakutsitako ausardiaren bidegabeko ordea zirudiena. Esan gabe doa, tuterar guztiak arras urrikaldurik, osasuna enkomendatzekoak bihotzez eman zietela Rosoren senitartekoei, baina huraxe gutxiegi iritzirik, agintariei sari oparago baten emateko eskatu zieten sutsu. Ez zuten bihotz-gogor erantzun agintariek, bai errukiturik zeudelako, bai popularen beldurrez, eta esker onez, Nafarroa osoko buruek nahiz Tuterako udalak Rosoren amaren zein alargunaren aldeko erabakiak hartu zituzten. Nafarroako Aldundiak, abuztuaren 6an onartutako agirian, bi mila erreal-kwarto emateko erabakia xedatu zuen, eta bere aldetik, Tuterako udalak bikote nahigabetuari bitza osorako mantenua eskaini zion eskuzabal.

40. Florenzio Sanz Baeza eta Nafarroako estatistika (1858)

1999.2.5

Florenzio Sanz Baezaz ezer gutxi da Perez Goienak behiala ekarri zigunari gerok gehi diezaiokeguna. Iruñean 1801.ean sorturik, Nafarroako Aldundiko idazkaritzaren 3. ofiziala zen 1820.erako, 13 urtetan gairi, erregeordearen idazkaritzaren lehenengo ofiziala izatera iritsi zela, nahiz Aldundiari temati eskatu frantses itzultzaile plaza bereganatu ezinik ibili. Administrazioan gorago egin zuen oraino, eta Erregearen idazkari agertu zigun bere burua argitara eman zituen liburuetan guztietan. Iruñean 1888.eko otsailaren 5ean zango-zaluko Heriok berekin eraman zuen.

Ez ziren gutxi, bestalde, moldeetatik ilkiarazi zituen lanak. Ondu zituen idazki ugari sistema metriko hamartarraren ezartzeak sortarazi zituen arazo guzietan aurre egiteko asmoarekin atera zituen: *Instrucciones para la práctica en Navarra del sistema métrico de pesas y medidas*, *Sistema métrico decimal puesto en preguntas y respuestas para uso de las escuelas de instrucción primaria* eta *Reducciones de las antiguas medidas, pesas y monedas a las del sistema métrico*, hirurak Iruñeko Frantzisko Erasun Radarenean, 1852.ean. Bestalde, beste hainbat larratu zizkigun gai juridikoez: *Memoria sobre el territorio que la España ha perdido en los Pirineos por la parte de Navarra y demostración de los derechos españoles a los terrenos que usurpan los franceses* -Madril, 1850-; Migel Antonio Ulibarrik jasotako oroitegiaren edizioa den *Historia de la fábrica de Eugi y de la Legua Acotada* -Madril, 1858-, Eugi, Iragi, Erro eta Zilbeti herriek Monterrealeko markisaren kontra ezarri pleituaren inguruan; edota *Opúsculo sobre la desamortización de los terrenos comunales en Navarra* -Madril, 1861-.

Arras bitxia ere Saletako Ama Birjinaren inguruan 1863.az geroz argitara eman zituen paper guztiak. Esan urte hartan Madrilen agerrarazi zituen *Aparición, revelaciones y milagros de la Virgen Santísima en un monte de los Alpes llamado La Saleta el día 19 de septiembre de 1846* eta *Novena a Nuestra Señora de La Saleta y misa expiatoria de las blasfemias, profanaciones del día festivo y violación del ayuno en día de vigilia*. Liburu bi horiek Madrilen inprimatzeko Sanzek erabili zituen arrazoiak Iruñeko gotzainarekin eta apezpikute giko idazkariarekin izaniko ika-miketetan zeutzan. Xeha dezagun mataza. Aipatu bi liburuon gaiaren ildotik, Saletako iturri miragarriaren urez beteriko botilatxoak, baita Saletako Andredenaren liburuak, dominak zein iduriak ere zituen Sanzek salgai bere etxean, orobat, 1864.ean karrikaratu *Instrucción para las personas que deseen obtener efectos relativos a la devoción de La Saleta* katalogo publizitarioko

guztiak. Sanzen asmoa Saletako Ama Birjinaren kultua Iruñean sendotzea zen, halaber, poltsikoak berotzea saldutakoen mozkinaz, eta horretarako, Iruñeko karriketan barrena neskatok osaturiko prozesioa zein bederatziruena egitea, hala nola Saletakoarentzat aparteko aldea eliza nagusian eraikitzea eskatu zien diozesiaren aginteei. Esan gabe doa, orduko gotzaina zen Uriz Labairuk nahiz apezpikutegiko idazkaria zen Mercaderrek suminduraz beteriko ezezko biribilarekin ihardetsi ziotela.

Edozein modutan ere, Sanz Baeza ezaguna gertatu bazen, ez zen izan Itxaro Bordari *Basilika* liburuaren argumentua asmatzeko balioko ziokeelako, ezpada 1858.ean Iruñeko Frantzisko Erasunen etxetik atera zuen liburuarengatik, hau da, *Estadística de Navarra*. Bertan, Nafarroako estatistika egitearen beharra aldarrikatzen zuen, baita egin ere: topografia, biztanleria, ibaiak, mendiak, bideak, ehiza, arrantza, meatzaritza, industria, banaketa administratiboa, laborantza, basoak eta abar izkiriagai izan zituen. Liburuaren bukaeran auzo-bideak arautzeko proposamena ezarri zuen eranskin gisa, aurretik ere, 1851.eko epailaren 10ean, Aldundiari aurkeztu ziona, erantzunik jaso gabe. Zinez ezkor agertzen zen puntu honetan:

«Parece increíble que una provincia tan recomendable como se presenta la de Navarra por el celo que ha desplegado en el ramo de carreteras, venga ahora a desmerecer por el abandono en que se hallan los caminos vecinales, o más bien por no haber casi ninguno, pues nunca los ha habido».

Hitz horiekin, Nafarroako agintariei aurkezturiko txostenaren beharraz konturaztea helburu zukeenetz ez da gauza ziurra; alabaina, argi utzi zigun bero-bero eginda azkon zorrotzak jaurtikitzen zituela, eta arrazoi ezezagun bategatik bere haserrean itu bilakatuak ziren Iruñerriko biztanleak izan ziren liburu horretan gezirik mindarietak pairatu zituztenak:

«Los aldeanos, cuya indicación dejo hecha para excepcionar los de los restantes navarros de ambas regiones, son los habitantes de un espacio que se conoce con el nombre de Cuenca de Pamplona, y que desde la capital se extiende en todas direcciones como dos leguas, por término medio. En estos hombres no se encuentra ninguno de aquellos sentimientos nobles que resaltan en las demás provincias. Son generalmente hablando egoístas y envidiosos hasta del bien estar de sus parientes. Desconocen lo que es caridad y buena fe, jamás dicen la verdad cuando conocen que el decirla les ha de causar la pérdida de medio real o frustrarles la ocasión de recibirlo, trabajan pero de mala gana, enemistados casi siempre entre sí los de cada población, se unen todos cuando se trata del interés de algún forastero, apenas hay personas, que tratándolos de cerca o que tenga asuntos con ellos que no les mire con

desconfianza o antipatía. Su conducta, sus sentimientos, sus inclinaciones, les han creado en la provincia una reputación nada favorable, y apodos y comparaciones muy propias de su comportamiento».

Liburu horrek sortarazi zuen erantzuna hirukoitza izan zen, edo bederen, hiru izan ziren Sanzi neurritzko ihardespina eman nahi izan zioten idazleak. Frantzisko Matias Lakabe Mezkiritzek *Defensa de los aldeanos de la Cuenca de Pamplona: contestación a un párrafo de la obra de Florencio Sanz Baeza* ondu zuen, Jose Maria Iribarrenek bere *Batiburillo-n librejo farragoso e indigesto* definitu zuena. Lakabe Urrotzen sortu zen 1815.ean, beraz Iruñeritik hurbilean, eta nahiz Zangotzako mediku luzaroan jardun -hantxe zendu zen 1891.ean-, aurretik ere Iruñerri erdi-erdian dagoen Zizurko zendea arizan zen.

Erantzun sendoago eta tematiago, luzerari erreparatzen badiogu behinik behin, Tuterako semea zen Luis Maya Lizaso idazle eta kazetariak eman zuena. *Ojeada al folleto que con el título de Estadística de Navarra ha publicado F. Sanz Baeza*, Iruñeko Bermeo etxean. Luis Mayak, Luis Lizaso frantses-irakaslearekin batera, *El Ebro* egunkaria agertu zuen Tuteran 1853.ean, eta *El Eco de Navarra* egunkari liberalaren idazlaria izan zen. Aldudeko trenbidearen proiektua Madrileko *El Estado* egunkariaren orrietatik defendatu zuena ere izan zen Maya. Sanz Baezak ukitu beste gai batzuez ere zenbait liburu argitara eman zituen, esaterako, *Navarra y la ley de desamortización* -Madril, 1859- edota Nafarroako Gobernuak eskoletarako onartu *Elementos de aritmética y del sistema métrico decimal* -Iruñea, 1852-. Beraz, etsaiak betiere zelatan daude, eta estatistikazko liburua agertu orduko hortxe izan zen Maya tuterarra. Lakabek bezala, Iruñerriko biztanleak defenditu zituen, ausaz, zehatzago eta destaina hobeki eginez, haatik, zail samar gertatzen zaigu Mayari erdialdeko herritar basalo haietaz kezkatu egotea. Eta horren pentsatzera eroaten gaituen gauza zera da, Lakaberi ez bezala, Mayari bai erantzun ziola Sanz Baezak, lasterraren laster gainera, betiko tokitik urriaren 18an ilki *A los señores lectores de la estadística de Navarra y a los de la Ojeada* paperaren bitartez hain zuzen. Estilo baldarreko hitz purrustada dugu, baldarra eta gora handiko tonuan egina. Mayak, naski, ezin gauzak zeudenean utzi, eta ika-mika elikatu zuen *Pasovolante agri-dulce final* laburrarekin, Bermeorenean ere urriaren 23an atera zena. Azken hitza, edozein modutan ere, Sanzena behar, eta *A los señores lectores de la estadística de Navarra* plazaratu zuen hilaren 30ean.

Sanzen lanari eragozpenak ezarri zizkion hirugarrena, nongotarra eta tuterarra ere baguenen, Jose Yanguas Miranda historialari xaloa hots. Horrek *Breves observaciones a la obra publicada por el señor D. Florencio Sanz Baeza con el ti-*

tulo de estadística de Navarra ondu zuen, Erasunenean ber urtean agerturikoa. Historialaria samurragoa izan bazen ere, Sanzek ez zuen honetan ere kritikarik onartu, eta *Adición a la estadística de Navarra, o sea, respuesta a las observaciones de Jose Yanguas Miranda* atera zuen azaroaren 30ean. Yanguasek, ordea, ez zuen berriz ere erantzuteko ardurarik hartu, jakin baitzekien inora eramaten ez zuen eztabaida antzua zela Sanzek nahi zuena, iruindarraren protagonismoaren mesedetarako betiere.

41. Nikasio Landa iruindarra (1859-1884)

2000.8.25

Nikasio Landa iruindarra itzal handiko mediku militarra izan zen, medikuntzaren inguruko lan ugariren egilea eta Gurutze Gorriaren lehenengoetako bultzatzailea, baina baita Euskara Elkargoaren kide eta lan historikoen egilea ere

Nikasio Landa Alvarez-Carballo 1831ko urriaren 11n jaio zen Iruñean. Aita Rufino Landa Arbizu zuen (1801-1862), Iruñean ere jaio eta jardun zuen mediku fina. Iruñean bertan batxilergoa ahituta, Madrilera egin zuen medikuntza ikastera, doktoretza 1855erako erdietsi zuela. Bere lehenbiziko lana Iruñean zegoen Extremadura Erregimentuaren Lehenengo Batailoiarentzat egokitu zitzaion, eta bizitza militarrekin gustatuta edo, armadan mediku moduan sartzea erabaki zuen, oposizio bitartez lortu zuena. Aldi berean, eta interino moduan, Iruñeko Institutuaren Historia Naturaleko katedra kudeatu zuen denbora labur batez. Armadak deituta, Zaragozako erregimentuarekin joan zen Madrilera 1858an, handik Afrikako gerratera abiatzeko 1860ra arte. Hiru urte geroago, berriz, Tenerifera bidali zuten sukar horiko izurritea zela-eta eriak laguntzeko aginduarekin. Oraino ere azken karlistadan egokitu zitzaion soldadu kolpatuendako lan egitea (1872-1876). Azkenik, eta jada Iruñean ongi finakaturik, Nafarroako Osasungintza Militarreko Aztertzaile-orde ibili zitzaigun jubilatuta arte. Erretiroa hartzeko unean koronel mailakoa genuen Landa medikua. Nikasio Landa 1891ko apirilaren 11n zendu zen Iruñeko bere etxean.

Medikuntzaren inguruan lan ugariren egilea izan zen Nikasio Landa kontsultatik kanpo. Esan daiteke berak eginiko ahaleginei esker sartu zela Gurutze Gorria penintsulan. Alde batetik, Gurutze Gorria sortzea erabaki zuen Genevako Munduartekeo Batzarrean izan zen Landa 1863an. Horren ostean Vienako Munduartekeo Batzarrean egon zen 1874an, Parisko Munduartekeo Batzar Mediku Militarrean 1878an eta baita Londreskoan ere 1881ean.

Osasuna izkiriagai duen hainbat libururen egilea ere bagenuen Landa iruindarra. Bere doktorego tesiak gai filosofikokoa zirudien medikuntzakoa izateko: *Averiguar la influencia favorable o perniciosa que la civilización haya ejercido sobre la salud pública*. Bizitakoen gainean, aldiz, lan interesgarriak bezain zehatzak ondu zituen: *Memoria sobre la alimentación del soldado* (Madril, 1859), *La campaña de Marruecos* (Madril, 1860), *Memoria sobre las aguas y baños minero-medicinales sulfurosos de Betelu* (Madril, 1861), *Un viaje a Canarias* (Iruñea, 1863), *Mandil de socorro* (Iruñea, 1865), *Transporte de heridos y enfermos por*

las vías ferreas y navegables (Madril, 1866), *El derecho de la guerra conforme a la moral* (Iruñea, 1867), *La caridad en la guerra* (Madril, 1868), *El médico militar alemán* (Iruñea, 1872), *La cura pronta y la cartería de socorro* (Madril, 1874), *Estudios sobre táctica de sanidad militar* (Madril, 1880 eta 1887), edota *Disertación sobre los peligros físicos de la embriaguez* (Iruñea, 1884). Osasungintzan eginiko lan erraldoiarengatik Medikuntzaren Errege Akademiaren kide egin zuten 1863an

Bestelako gaien inguruko bibliografia ere badu gure medikuak. Historiaren Errege Akademiaren kide egin zuten 1867an, eta hortik zuzenean Nafarroako Monumentu Historiko eta Artistikoen Batzordera pasatu zen orduko intelligentzia nafarrarekin batera. Euskara Elkargoan ere gogorki lan egin zuen eta *Euskara* aldizkariaren lehenbiziko zuzendaria izan zen. Horretan historia eta etnografia gai zuten artikulua izkiriatu zituen, besteak beste, «*Crania euskara*», «*Una visión en la niebla: los guerreros euskaldunas*», edota «*Datos sobre el arte cristiano en Navarra*». Ez gaitu harritu behar, hortaz, Frantziako Girondako Elkarte Etnografikoaren ohorezko lehendakaria izendatu izana 1875ean.

Lan literarioak ere idatzi zizkigun Landa medikuak, ez aurreko lanen kalitatearekin ordea. Probintziako moldiztegi inprimaturik *Los primeros cristianos de Pompeiópolis* izenburuko eleberria karrikatu zuen Landak 1882an. Iñaki Iriarte ikerlariak Landaren liburu horrezaz zertxobait esan digu bere *Tramas de identidad* ikerlan ezinutzizkoan. Lan horretan Zernin doneak Iruñean egin zuen lehenbiziko predikazioaren gorabeherak jaso zituen Landak. Arkeologiak eginiko azken aurkikuntzetan oinarriturik, Landa lehenbiziko mendeko Iruñea ahalegindu zen deskribatzen; halaz guztiz ez zuen eragozpen handirik izan orduko iruindarrak frontoian pilotan aritzen irudikatzeko.

42. Sanchez Asso era Aralarko liburua (1869)

2001.4.20

Frantzisko Sanchez Asso legegizon eta politikari tuterarra Aralarko Partzuergoari buruzko lan klasiko baten egilea genuen.

Frantzisko Sanchez Asso Alderdi Integristaren kidea izan zen. Alderdia sortu ondoren 1893an nozitu zen lehenbiziko banaketaren ostean Necedalen aldeko adar ofizialistan geratu zen Sanchez Asso, eta Juan Jose Juanmartiñena buru zuen Nafarroako Batzarrean ordezkari jardun zuen. Sanchez Asso ez zen joan, zer gerta ere, *El Tradicionalista* egunkariaren zuzendaria zen Jose Maria de las Rivasekin, ez eta Madrilgo Gortetan Alderdi Integristaren izenean diputatu zebilen Campioneekin ere. Izan ere, urte bertsuetan Sanchez Asso Tuterako alkate baikenuen, eta izen handiko disidente gutxi batzuk baino alderdi sendo bat beharrago bide zuen bere bizkarrak guardatzeko. Edozein modutan, Sanchez Assoren aukeraketa politikoa bai bitxia zela Tuterako alkatezari eutsi nahi bazion behinik behin, hain baitzen eskasa Alderdi Integristak Erribera osoan erdietsirik zuen arrakasta. Halaz guztiz, Sanchez Assok bitan jardun zuen auzapez bere sorterrian, 1891-1892 eta 1899-1901 bitartekoetan.

Jose Sanchez Marco bere semea ausaz ezagunagoa izan zen politika arloan beti ere, Madrilgo Gortetan 1907-1916 urte bitartean Iruñeko distrituak aukeratuta diputatu jardun zuena Vázquez de Mella eta Vadilloko markisarekin batera. Madrilen ogutzi zituen hitzaldi ugarien artean -egunean ordezkari nafarren baten isiltasunarekin hagitx bat ez letorkeena- Nafarroako mugean gainean 1910eko abenduaren 21ean esan zuena edota Baztango uholdeetan kaltetuen alde 1913ko ekainaren 9an esanikoa aipa litezke. Sanchez Marco Alderdi Integristaren kidea ere bazen, XX. mendeko bigarren hamarkadan, eta Juanmartiñena larraundarrarekin batera, alderdiak Nafarroan zuen gizonik garrantzitsuenetarikoa.

Alabaina, politikan egin zuen lanarengatik baino, Sanchez Asso legegizon tuterarra are ezagunagoa izan zen Aralarri buruz taxutu zuen lanarengatik. Zeukan abokatu ospeak ahalbideturik edo, Aralarko partzuergokideek deituta, hau da, Aralarko Partzuergoa osatzen duten 19 herriek deituta -Etxarri-Aranatz, Ergoiena, Arbizu, Lakuntza, Arruazu, Irañeta, Ihabar, Iriberrri, Errazkin, Betelu eta Araiz-, Sanchez Assok *Comunidad de Aralar: memoria histórico-legal de la unión de su monte* izenburuko lana 1869an karrikaratu zuen Tuterako Lizaso eta Maiaren moldiztegian, aurreko 1867ko ekainaren 15erako sinaturik bazeukan ere -urte berean, eta Lehenbiziko Errepublika aldarrikatu zela bide, Tuter-

ko Alderdi Monarkiko-Katolikoari orria idatzi eta inprimarazi ere egin zuen. Aralarri buruzko lana tratatu historiko-juridikoa dugu, bi zatitan banaturik. Lehenbizikoan historiari buruzko zenbait eskaini zigun, Tubalen etorreraren garaietatik hasita eta erromatarren zein godoen etorrerekin jarraiturik, Sakana aldeko herrien sorrera arte; bigarreanean, berriz, Aralar inguruko herrien eskubideak, ordenantza ezberdinak zein eztabaiden gaineko epai judizialak jaso zizkigun Tuterakoak.

Erribera aldean jaio eta Sakanarekin harreman estua izan zuen beste pertsona bat Benedikto Barandalla izan zen. Tafallan 1900ean jaioa, gurasoak tokiz toki zebiltzan saltzaileak zituen, geroantzean ere berauk eginen zukeen bezala. Etxarriko auzokide batekin izaniko borrokarengatik, Benediktoren aita giltzaperatu zuten, Duesoko kartzelan hil zitzaiola; orduz geroz eta gazteegia izan arren ikazkin aritu zen 1921ean soldaduskara joan arte bederen. Ordurako karlista amorratua genuen, eta urte bat lehentxeago Alderdi Karlistak Zaragozan eginiko bilkura batean zertxobait famatu zen bildutako beste guztien aitzinean euskaraz hitz eginez. Soldaduska Afrikako gerratean egin zuen, ez sobera lasai, eta 1925era arte ez zen etxera itzuli. Etxarrin saltzaile ibiltari jardun zuen, 1933an zinegotzi egin zuten, eta 1934an kendu berria zen Ortze alkatearen postua bere egin zuen. Gerratea hasi zelarik, erreketete talde sendoa osatu zuen, nahikoa bere kasa Aralarko mendietan ibili zena goiko agintariek desegin arte. Halaz guztiz, hori beste istorio bat dukegu.

43. Eusebio Lopez, klasikoen argitaratzailea (1878-1895)

1999.4.9

Eusebio Lopez Lodosan jaio zen 1846.ean eta Tolosan hil zen 1929.ean; Ixaka Lopez Mendizabalen aita, euskal liburuen argitaragintzari sekulako bul-tzada eman zion. Zegamako Frantzisko de la Lama inprimatzailea 1828.ean hil ostean, bere alaba Goiazko Juan Ignazio Mendizabalekin ezkondu zen, Tolosa-ko moldetegiaren izena aldatuz; Mendizabal 1839.ean zendu zen, eta historia errepikatuz, bere alaba karlistadak Tolosara eraman zuen Eusebio Lopezekin ezkondu zen, berriz ere, inprimatzaile izena aldatuz.

Eusebio Lopezi esker argitara ateratako lanen zerrenda ez zen makala izan, bai estreinakoz ateratako lanak bai lan zaharren edizio berriak zirela. Zerrenda laburra ematearren, bihoaz honakoak: Aranaren *Jesusen biotz sagra-duko bilera santa* 1878.ean, edota *Loiolako oroitza txiki bat Jesusen lagunarteko lanaren 2 edizioa* 1883.ean; Arrueren *San Inazioren bizitza* 1881.ean, *Sarritaco comunioaren gañean* 1883.ean eta *Brabanteko Genobebaren bizitza* 1885.ean; Juan Kruz Etxeberriaren *Jesusen imitazioa*-ren bigarren edizioa 1881.ean; Kardabe-razen *Ama beneragarri Josefa* 1882.ean, *Esku liburua*-ren edizio laburtua 1883.ean, baita *Senar emazte santuak* ezagunaren 2. edizioa ere 1885.ean; Antiaren *Karmeltar debotaren ikasbidea* 1883.ean; Mogelen *Konfesio ta Komunioko sa-kramentuen gañean* lanaren 2. edizioa 1885.ean, edota *Mayatza illerako berba aldiak* 1885.ean; Madozko erretorea zen Juan Migel Gurutzeagaren *Kalbario santuak* 1886.ean; Lardizabalen *Testamentu zarreko eta berriko kondaira*, bigarrenez, 1887.ean.

Lan horiek guztiak eliz lanak baziren ere, eliz lanak ez zirenak ere inprimatu zituen Lopezek. Esaterako Astigarragaren *Diccionario manual bascongado castellano y elementos de gramática para el uso de la juventud de Guipúzcoa* idazkiaren 10. edizioa 1883.ean, baita bizkaierara eginiko lehenbiziko aldaera ere 1884.ean; Iturriagaren ipuinen bigarren edizioa 1884.ean; Campionen gramatika ezaguna 1884.ean; Aizkibelen hiztegia 1885.ean; Goitiaren *Euskerazko agrikultura nekazari euskaldunentzat* 1886.ean; Soroaren *Urrutiko intxaurrak* antzezlan 1887.ean; Novia de Salcedoren hiztegia 1887.ean; *Kozinan ikasteko liburua txit bearra famili guzietan lendabizicoa euskaraz* sukalde-liburu ezezagun bezain interesgarria 1889.ean; edota Iztuetaren dantza liburuaren bigarren edizioa 1895.ean.

44. Manuel Urban Arnedo (1882)

1997.11. 21

Gibeleko XIX. mende erdialdean sortu zen tuterar xalo hau, Manuel Urban Arnedo alegia, 1893.eko azken egunean zendu zitzaigun, bizitza osoa, llaburra baina betea, elearekin uztarturik eraman ostean. Luis Gil Gomez herrikideak, Tuterako festa programarako urtero ontzen ohi zuen «Tuterar ahantziak» izeneko sailean, orrialdea eskaini zion 1954.ean. Harrez geroztik, ahantzuran dirauke poeta arinak, Muga taldekoek gamazadaren mendeurrenerako ondu herri antzerkiaren ekarpenarengatik ez bada bederik ere.

Urban bertso egilea izan zen debozioz, eta kazetaria beharrak bultzaturik -beharrari gure eskerrak, bertsogintzan sobera aparta ez zen eta-. Tuterako liburutegi barrokoan -eta aforoarena alde batera utzirik, estetika denez bezanbanean, Iruñekoaren aski gainetik dagoena- Manuel Urbanek amaren aldetiko Alejandra Lopez-Goikoetxea Gaston zuen amonari eskaini 1880.eko otsailaren 26ko bertsotegia dago irakurgai. Eskuizkribu hirukoitzak zortzi orrialdeko kopuru asimetrikoa zipriztintzen du: «*Invocación*», «*Cantar*» eta «*Así sea*» olerki erromantikoak balizko maitale ezinezkoari zuzenduak. Handik hiru urtetara, bere lehenbiziko bertso bilduma eman zuen argitara, Zaragozako Comas baitan. Aitari eskaini *Ecos del alma* hartan ageri olerkiak 1877.etik ordura artekoak ditugu, Tuterako argitalpen ezberdinetan zegoeneko agertuak zirenak. Eite erromantikoa duten hauek, ordea, nekez garai dezakete 1891.ean jaioterrian argira ilkiarazi *Rinconete y Cortadillo* istorio satirikoa. Ruperto Bosque Rosak «*Diálogo cogido al vuelo en el Cofrete*» solasaz egin sarreraren ondoan, Manuelek borobiltzen digu lanaren nondik norakoa:

«Historia en forma de cuento que parece sainete en diferentes pebres, que darán algo que reir o llorar, publicados en el diario de avisos de Tudela:

*La historia de Rinconete
y Cortadillo es lo diario
lo que se ve en todas partes
lo que todos comentamos
y ninguno corregimos
a pesar de odiarlo tanto».*

Esan gabe doa, Erriberako hiriaren egoera politikoa salatzea ezkutuko helburu ageria du lan honek:

*«Hace falta gran sentido
práctico. Los concejales
que han de pasar como tales
suelen vivir disfrazados
hasta después de votados.*

*La plebe que siempre juzga
bien o mal, por la apariencia,
y la apariencia de entonces
era la de hoy, esa eterna
lucha entre los propietarios
y comerciantes; la téa
que no apagarán los años».*

Antzerkigintzan ere arrakasta sonatuak uztatu zituen: *La hija del Moncayo* hiru ekitaldidun drama, *Sancho Rota* bi ekitaldiko alegia, *A la cárcel, el ladrón* trajeria, *La bajada del ángel* ohitura herrikoietan girotu sainete lirikoa, *Uno de tantos* komedia eta galdu diren beste asko lekuko.

Halaz guziz, goazen Urbanen lanik sendoena begiztatzera, kazetariarena hots. Sortarazi zituen aldikako argitalpenetan 1868-1870 biurtekoan irau zuen *El preguntón* astekari liberal-satirikoa izan zen lehenengoa. Geroantzean honakoak ilkiarazi zituen: *Como vaya yo* 1879.eko astekari satirikoa; Jorge Burgaletaren *La Revista de Navarra* astekari liberalaren bigarren aroa 1880.ean gauzatu zuen; 1880.etik ere eta 1881.eko martxoaren bira arte *Diario de la Ribera* egunkari independentea; 1888.etik 1890.era *El coplero del pueblo* astekari satirikoa. Alabaina sortu zuen argitalpenik garrantzitsuen *Diario de avisos* egunkaria izan zen, hamaika urtetan zuzendu zuena, 1882.etik 1893.erako bitartean hain zuzen. Bere egunkarian orduan arras ezagunak ziren «*Pebres*», «*¡Como vaya yo!*» edota «*El gallo Morón*» izeneko sailak idazten zituen Claro Barquero ezizenpean. Orri haietan Pedro Oñorbek, Jose Serranok, Eugenio Fraukak, Ruperto Bosque eta abarrek idatzi zuten. Urbanen papera liberala zen osoro, alabaina, Gamazadarenean arras foruzalea agertu zen, eta horren harian, Gregorio Iribas legegizon tuterarrak «*Los derechos de Navarra*» izenburuko artikulu saila idatzi zuen 1894.eko otsailean. Laketu ziren nafar agintariak idazki horiekin, eta liburu soila argitaratzea erabaki zuten ber urtean. Urban hil ostean, Santiago Grassak hartu zuen egunkariaren ardura, baina Julio Subiranen *El anunciador*

ibérico egunkarikoekin zituen aharrak zirela eta, 1895.eko martxoaren 2an Urbanen egunkariarekin amaitzea eta berri batekin hastea erabaki zuen, eskuineko *El navarro* egunerokoarekin alegia, 1895.etik 1897.era iraun zuena. Aipatu *El anunciador ibérico* hura guztiz foruzalea zen, eta berau izan zen, Gamazadaren aitzakiaz, Nafarroako herri guztietan, plaza edo kale nagusiari foruen izena jartzeko proposamena luzatu zuena. Proposamen horrekin batera, Gamazoren eskela famatua argitara eman zuen:

«Don German Gamazo, ministro que ha sido de hacienda, ha fallecido -politicamente hablando-, seale la tierra pesada».

45. Nafarroako funanbulista biz (1882, 1943)

1996.2.23

Berez literatura denetik apur bat hastanduz eta literaturgaia gehiago denean herabeki sartuz, hona hemen hagitz ohizkoa ez den ogibide baten zertzelada ments gabeko baina polit batzuk euskal elertiaren gaitegi berri baten osogarri eta osagarri. Remigia Etxarren Aranguren ospe itzaliko iruindar funanbulista 1853. urteko apirilaren 11n sortu zen. Mademoiselle Agostini izengoitiaren azpian 1882. urteko Sanferminetan egin zuen estreinako agerraldia zezen-plazan bertan eta handik aitzina festa horiek berebiziko agertokia hautatu bide zituen soka gainean aritzeko. Hurrengo urtean bereziki oihartzunik sonatuena eragin zuen Argako Erreginaren titulua eskuratu zuenean. Uztailaren bederatzigarren egunean eta arratsaldeko zazpiak jotzeko laurden eskas bat falta zenean, floka eta xingolaz ederki hornitu orga batean, eta Miserikordiaren etxeko musika bandaren babes harmonikoaren laguntzapean, gure Agostini anderea agertu zen Kaparrosoko eiheran zegoen Pinakiko lantegi parean, Gaiarre erronkariarrak hain ongi ezagutu zuen burdinola haren parean. Ordurako ibai bazterrak eta Belosoko aldatz luzea jendez gainezka zeuden. Geure Remigia bipilak ez zion muzin egin bildutakoari orori, eta hiru minutu behar izan zuen lurretik hamar metrotara zegoen zaldain estu horretatik hiriburuko uraundia gurutatu ahal izateko. Horixe gutxi izan balitz, otarre bana oinetan paratuz, oski gisa, egindako bidea lau minututan desegin zuen. Segituan zailago oraino egi bihurtu nahian, berriz ere abiatu zen bere espartozko estrata partikularretik, baina begiak estalki batez itsuturik zituela eta gerritik goiti zaku zahar batez jantzita. Saioa bukatzeko, laugarren aldiz egin zuen bere bidaia, gaineratutako zailtasun materialez arindua baina ariketa arriskutsuak eginez behean zeuden iruindar adrenalinazale guztiei berebiziko laketa emanaz. Ekitaldi hori dohainik izan zen, musu-truk, baina udalak erdietsi arrakasta saritu nahian 500 pezetako diru-laguntza eman zion eskergarri. Oraindik ere festetan hirugarren aldia ikusteko aukera izan zen, bada 1884. urteko uztailaren 12an Gaztelu plaza zeharkatu zuen lau aldiz begiak estalirik eta ariketa zailak eginez. Handik gutxira bere ospea zela eta, Euskal Elkarte Akrobatikoan sartzeko parada izan zuen, Carralek zuzentzen zuenean, eta egin zituen artean Pisuerga eta Bilbo-ko ibaizabalak pasatzea izan zen. Alabaina bere zorte ona 1892. urtean ahitu zen nonbait, Ondarroan zegoela, zolutik hamabost metrotara soka gainean zegoen kadera batetik erori zenean. Istripu horrek eragindakoak ahantzirik edo, 1904. urtean oraino Iruñean berriz ere saioa eskaini zuen, baina garai batean egindakoa errepikatzeke ez bide zen gauzarik izan, eta arestian lortutakoa ez

zuen harzara eskuratuko. Bestalde Ziordia izeneko auzokidearekin ezkondu zenetik, irabazitako sosa apur guztiak galdu zituen galbidetan kaliturik. Ziordia hau apezgai izandako xixkalari amorratua, behin baino gehiagotan espetxetik atera behar izan zuen Remigia dohakabeak apezzez jantzita bere ziriak sartzeko zuen ohiturarengatik batik bat. Halako batean Andaluzian zeudela apezpikuz jantzita kolekta bat egiten harrapatu zuten, eta beste behin berriz ere Miarritzeko eliza batean meza ematen eta konfesonarioan. Beraz, eta azken urte zail horiei ezin aurre eginik, gure Agostini andrea pobreziarik gordinenean eta miseriarik gorrienean 1921. urteko urtarrilaren bederatzian zendu zitzaigun loteria saltzaile aritu ostean.

Estanislao Juanmartiñena Zuastiar bitxiak ere zituen zaletasun ugarien artean soka gaintetik ibiltzearena bereziki laketgarria zuen. 1907.eko urtarril hotz eta elurte batean jaioa, ikasle ezin kaxkarragoa zen, eta Tuterako nahiz Logroñoeko jesuitetan ibili zen arren, ezin da esan berea bide distiratsuegia izan zenik. Tuteran ia ikastetxetik bota zuten irakasle baten txanoaren barruan txolarre bat sarrarazteagatik. Hegazkinen pilotu eta mugazain izateko ikasketak laga ostean, 36ko gerratean izan zen erreketean gudarosteetan, baina, berak aitortu legez, ez zuen tiro bat ere bota, eta zortzi pertsona hiltzetik salbatu zituen. Estanis futbolari ezin hobea omen genuen eta bere garaiko zenbait taldek berekiko interesa erakutsi zuten fitxatzeko, besteak beste, Madril, Sevilla, edota Osasuna berak. Pilotari bezala ere ez zen batere makala, baina bere bikotea zen Sebe Goiburu profesionaltasunera pasatu zeno, berak ez zuen lokarrik nahi, eta amateur bezala segitzea nahiago izan zuen, eskuratutako sari guztiak, eta asko ziren, misioetara bidali zituela kaliza erabil zitezten. Manoli Arraizarekin ezkondu zenean, 10 000 kilometroko eztei bidaia egin zuen, motoz baina. Funanbulista bezala erdietsi zuena ez zen gutxi izan, barbarako Donostiako kaian egin zuen erakustaldia, eta agintari zibilengandik ez balitz askozaz gehiago zatekeen. Nolanahi ere zen, osperik handiena erakarri ziona 1943. urteko Sanferminetan jende aitzinean estreinako aldiz paratu zuen heriotzaren kablea zeritzan tramankulua genuen. Horixe Zuastin erabili zuen lehendabizi, haritz bat eta sasi batzuk lotzen zituen soka batetik jaitsiz txirrika baten bidez. Halere, probatu zutenen ezjakintasunarengatik edo, zauritu dezente egon ziren, batzuk kaskezurraren matxuratze osoarekin eta guzti, eta baten batek, sirगतिक txirrikarik gabe jaitsiaren ondorioz eskuak erreta geratuz, goi tentsioaren erabiltzea salatu zuen, jostailu arriskutsu hori kenarazi ziotela. Hil aurretik oraino, eta 70 urte zituela, bere oreka neurtzen jarraiki zuen Iruñeko eliza nagusiaren ondoan zuen bere etxean, Nabarrerria karrikan, bertan zeuden bi ezkien artean jarrita zeukan soka baten gainean.

46. Korellako heterodoxoek (1884)

1998.7.17

Menéndez Pelayoren oihartzuna ekar diezaioke bati baino gehiagori goiburu honek; aldiz, geure asmoetatik urrutiago dagokeen beste ezer ez da. Ziur aski, bestalde, Korellako historiografoa izan den Jose Luis Arresek ez luke artikulua hau gustu handiz irakurriko, alabaina, ez dut uste hala gertatuko denik, eta beraz, hutsune honek nola edo hala baimendurik, bihoaz ele hauek irakurlea zaren horren gozamenerako, hala desiratzen dugu bederen.

Hortaz, aipa dezagun lehenbizi Frantzisko Peralta mainguaeren lekukotasun bitxia. Peralta Jimenez aitaren aldetiko herrian, Korellan, 1845.eko urriaren 10ean sortu zen; Aliaga Latorre amaren aldetiko askaziak, berriz, Fiteron zituen. Eliz ikasketei, ez dakigu zein mailan baina, herrian zegoen apezen batekin ekin zien, berehala largatuko zituenak, Buenos Airesera joateko. Argentina aldean fedegabetuko zen, lehentxeagoko kontua ez bazen behinik behin. Hantxe *El Pueblo* egunkariaren zuzendari lanetan jardun zuen, eta ideia liberalak zein antiklerikalak jorratzen zituen olerki liburua eman zuen argitara zilar-hirian berean, *Rasgos, versos originales* izenburupean. 1881.eko apirilaren 30ean Violeta Josefa Esteve Márquezekin ezkondu ostean, gurera itzuli zen, non Julia Sara alabatxoa 1882.eko martxoaren 27an sortu baitzen. Emaztea Korellan bertan zendu zitzaion 1896.eko ekainaren 10ean. Bien bitartean, olerki liburua bigarren edizioa egin zuen Iruñeko Sisto Diaz-Espadaren etxean 1884. ean. Bigarren horrek lehenbizikoa aisa gairiditu zuen, tamainaz eta edukiz. 362 orrialdeko lan gotorra ez zuen egokiegia Perez Goienak, josulaguna zen kantutik, oso harritzekoa agitzen ez dena, bestalde: «*Si su criterio es malo, los versos no son mejores: pobres, pedestres, rastreros, sin vestigio de inspiración. Fragmentos de un libro indecentísimo con poesías, plagios arreglados de otros autores y propios de su indecente pluma*».

Ezin izan dugu lan hori begiztatu. Tuteran bederen ez dago, ez eta Iruñeko liburutegi nagusian, behar lukeen bezala. Ezezaguna ere bazaigu Korellan bertan 1891.eko apirilean estreinatu zuen Fray Cupido akto bakarreko bertsozko zarzuela, Luis Serranoren musikarekin egin zena. Edozein modutan ere, eskue-tan bai ibili ahal izan dugula Peraltak sorturiko paper undatsa, *Corella de gala* izenburukoa, hots, estreinakoz 1903.ean ageri zena, San Migelgo festetarako hain zuzen ere. Nahiz hiru zenbaki besterik ez ziren atera, lehenbizikoa agertu zelarik, *El Eco de Navarra* egunkarian Peraltak uztatu arrakastaren berri jaso zen irailaren 27an. Halaz guztiz, Peraltak hor jaulki zituenak ez ziren erantzunik

gabe geratu, eta 1905.eko festetarako behar zen hirugarren zenbakia agertu baino askozaz lehenago, Bernardo Catalanek aurea hartu zion berariaz sortu zuen *El Fuerista de Corella* paperarekin, apirilaren batetik hasita, zortzi zenbaki edo izan zituena. Peraltaren orriak zuen izenburu osoa honakoa genuen: *Corella de gala, periódico anual joco-serio dedicado a las fiestas de...* -dagokion urtea naski, 1903, 1904 edo 1905-, eta Iruñeko A. Aztarainen etxean inprimatu zen. Horretan, festei buruzko kontuez gainera, propaganda ugari nahiz Korellako historiaren hainbat kontu eta pasadizo ekartzen zituen. 1904.eko zenbakian, Agreda Luna moja karmeldarrarekin XVIII. mendean agitutakoaren berri ekarri zuen, ez naski mojarren dohainak nabariarazteko, baizik eta heresia molinostarraren berri emateko. Ezin da ukatu Peraltaren asmo interesatua, baina askozaz interesatuagoa otu zaigu Arresek-eta emanikoa, funtsean eta teorikoki, azken horiek zientifikagoak diren neurrian, baita horrela agerrarazi nahi izan digutelako ere.

Biziki ekarria eta eramana izan den zio horren gainean ezer gutxi da guketz gehi dezakeguna, ezpada gai horrezaz euskaraz ihardukitzeko hasikina den bezanbatean, bestela ere, batere erakargarria gertatzen ez zaigun kontua, ertzo samarra bai baina. Azkenez honako afera izkiriagai izan dutenen artean, eta aspalditxo da, Juan Mari Odriozola artzain protestantea izan zen, tamalez berriki zendu zaiguna, euskaldunak eta itsasoa uztartuko zituen bere azken lana argira ezarriarik ikusi gabe. 1992.ean, bada, eta diogunarekin jarraituz, *El protestantismo en el País Vasco* Pamielak karrikaratu liburu dotore bezain interesgarrian heldu zion Korellako herejeen istorioari, maltzurkeria handiegirik gabe agian, baina zinez izpiritu kritiko eta ezinteresatu batez, betiere, eta usuegi ez den aldetik, eskertzekoa dena.

47. Olloko eskoletan gertatua (1889)

1999.8.20

Ahitzera doan XX. mende honen hasmenta urteetan, Ollarango hiriburu pertxentan, eta inork espero ez zuenean, beste edonon ere zoritxarrekoztat eduki dezaketen gertaera bat jazo zen, hau da, herriko eskola kiskaldu zen esku ezezagun batek eratzikirik. Ez zen huraxe ustekabeko sua, igandez igande hurrantzen ari zena baizik, eta inor gutxi harritu zen Olloko eliz ezkilek goraki suaren berri eman zutenean, izan ere, ez baitzen eskolaren kontrako erasorik espero ez zuenik, geroago, kea zerioten auri erraustuen aurrean ollarigo guztiak damuz eta isilik egonagatik ere. Bestalde, ikastetxea berreraikitzea garesti atera zitzaion herriari, eta 1923.ean 209 haritz enkantean jarri eta saldu egin ziren gastuei aurre egiteko. Handik denbora batera, lantokirik gabe geratutako eskola maisua Abadetxe eta Otxotorena etxetzarren arteko inda estuan egokitzen zen Juan Felix Uharte artzainaren etxetxoan zendu zen amorruak atsekabaturik 1926.eko maiatzaren 30ean.

Maisu hark Pedro Matias Mariñelarena zeukan grazia, eta Izurdiagan jaioa zen, nahiz bere gurasoak Arakil ibarrekoak ez ziren, bada, aita, Martin Mariñelarena Gulina aldeko Ziakoa baitzen, eta ama, berriz, Itzako Zendea dagoen Larunbe herrixkako alaba. Mariñelarena 70.eko hamarkada inguruan arribatu zen Ollora, maisu tituludun, alabaina, bertako eta Senosiango haurrei irakasleak ez zion behar beste ematen, eta lanpostuarekin batera, ohi bezala, bazen beste zereginik, seguruenik ere ez sobera atsegin, baina betiere, diru sarreraren emendagarri; horiek ziren bi herrietarako sakristau, idazkari eta aguazil lanpostuak. Eginbehar horiek guztiak zintzo betetzeagatik, 1878.ean, maisuak 121 erregru gari jasotzen zuen urtean. Soldata urria bazen ere, Mariñelarena ez zen ezkongabe geratu, eta bera baino dezente gazteagoa zen Katalina Irurtia Zenoz Ekai herrixkako alabarekin ezkondu zen.

Olloko eskolari buruz ez zaigu gauza handirik iritsi, 1940.eko maiatzaren 20an bertako Hezkuntza Batzarra sortzen den arte bederen; edozein modutan ere, aisa asma dezakegu nolakoa zatekeen urte hori baino aurreragoko eskola. Hasiera batean, elizan biltzen ziren bi herrietako neska-mutikoak, kalostraparen parean zegoen mendebaldeko gela txikian; huraxe urri geratu zenean, plaza ondoko eraikinean ezarri zen berebiziko ikastetxea. Mariñelarenak bietan jardun zuen irakasle, eta bere ardurei esker, esate baterako, eskola zaharrean komuna ezartzea onartu zuen Olloko kontseiluak 1911.eko abuztuaren 28an, erretorearen baimen mesfidatiarekin izanik ere.

Mariñelarena maisuarekin ezain jokatu zuen apez etoi hura, bestalde, ausaz Olloko abadetxetik pasatu izan den pertsonalitate sendoenetako apeza izan da, errainu luzeenetakoa, Santos Ziaz ari gara, naski. Saratsan 1845.eko azaroaren 2an jaio, 1872.ean Iruñean apeztu, eta 1874.ean Olloko parrokiara iritsi zen Arteta eta Itzako Erizetik pasea izan ostean. Olloko honetan, 1911.ean hil zen arte iraun zuen bertatik ilki gabe. Apez lanez gain, izen ez hain apaleko publizista eta orduko hainbat kazetetan kolaboratzaile finkoa zen; Santos Ziak idatziaz dira, esate baterako, 1889.eko San Migelgo erromeria erraldoiaren berri ematekoak ziren hainbat artikulu.

Ez da iritsi Santos Zia eta Matias Mariñelarenaren artean zegoen herra makkurraren berri zehatzik, eta hainbat agirietan bi izenak, bata bestearen elkarren ondoan irakur daitezke, maisuak sakristau moduan bete behar zuen lana zela bide, prefosta; horren adibidea 1891.eko maiatzaren 27an Olloko elizan agitu zen lapurreta jasotzen duen agiria izan daiteke. Alabaina, gauza ezaguna da biek elkarri zioten mespretxua, eta froga ezin esanguratsuagoa dugu eskolarekin gertatutakoa. Erretorearen ideologia elizkoiarentzat, Matiasen pentsamendu liberala orban ikuzgaitza zen Ollo bezalako herri aratzean; baina liberalismoarena gutxi bailitzan, Matiasen bigarren hobena euskarari zion maitasuna zen, eta bigarren hori, naski, Ollo bezalako herri oraino euskaldun batean, gehiegi hauspotu gabe aisa piztu eta zabal zitekeen garra zitzaion Saratsakoari.

Herri bakoitzeko haurrek beren hizkuntzan hazi eta hezi behar dutela arras sinetsirik, eta oro har euskara pairatzen ari zen egoera tamalgarriaz oharturik, Matiasek gerroz eta tarte luzeagoa eskaintzen zion euskarari bere eskoletan, eta tarte horietan erabiltzeko asmoz, jada hasia zen entziklopedia moduko bat bertako euskararen taxutzen, ikastetxea erre ziotenerako ia bukatuta zeukana. Damuz, Mariñelarenaren eskuizkribu guztiak suak eraman zituen, eta ez da, Etxebertzekin gertatu zen antzera, garretatik erauzi zuenik.

48. Lacort eta XX. mende hasierako kazetaritza Iruñean (1898)

1996.5.17

Basilio Antonio 1851.eko ekainaren 14an sortu zen Beran. Aita José Lacort Fontillaina zuen, Oskako Biergetik Bortzirietara buruz abiatu jostuna, eta bertako Martina Larralde Pikabearekin ezkondu zena. Militar sarturik, Baztan ballean ibilia zen III. karlistadan, handik ere Kuba aldera joan zela. Badajozen zegoela errepublikaren aldeko 1883.eko abuztuan jazo matxinadan parte-hartzea zela bide Portugalera ihes egin behar izan zuen. Nafarroara itzuli aurretik Ruiz Zorrillak sortu *El País* eguneroko errepublikazalean idazteari ekin zion Madrilen, horrezkero lagako ez zuen jarduera, bada, Iruñeko San Anton karrrikako 72. zenbakian ezarri baitzituen bizitoki nahiz bere argitalpenen mol-detegia. 1898.eko maiatzean *El porvenir Navarro* izeneko astekaria agertu zen lehen aldiz bere zuzendaritzaren gerizapean. Bertan botatakoek nonbait ez zuten gehiegi atsegin Iruñeko apezpikutegiko burua zen Antonio Ruiz-Cabal Rodríguez, eta ber urteko azaroan gotzainak kazetaren irakurtzea debekatu zuen suminaren saminez, heretikoa, sorginkeriatik hurbil-hurbileko gauza, eskandalagarria, erorbidea eta zeinek daki zenbat gaitzen iturria zelako. Arrazoiak arrazoi, esandako guztien azpian Eskolapioetan agituriko hainbat haragikeria lizun salatzea bide zegoen. Lacorten jarrera guziz zorrotza izan zen beti, eta dotrina kontuetan ez sartu arren, apezgo nafarraren zurikeria petrala agerian uzten ahalegindu zen ahal orotan. Erlijio gizon eta emakumeen moral zikoitzak bortizki asaldatzen zuen Berakoa, batik bat joko berotik ateratako dirua aiseki onartzen zutelako. Kritikak aurtikitzerakoan ez zituen lazkatuaren izenak berekiko gordetzen, eta askotan frai Arkangel Lizarrakoa minorita edo frai Giberto Blanco agustindarra ikusmiran izan zituen esate baterako, hurrengo apezpikua- ren gogaitasuna areago handi zezakeena, José López Mendoza-García gotzaina agustindarra ere bazelako. Azken horrek aurrekoak xedatua orobat berrestez gainera Lacort *nominatim* eskomikatu zuen, baita astekaria sustatzen zuen oro ere, berdin kazetari, harpidedun, inprimatzaile, saltzaile, erosle, edota irakurlea zen. Bestaldetik Jenaro Perez Moso gobernadore zibilak bere egin zuen elizaren epaia, eta galarazi zuen astekaria. Esan ere egin behar da aitzinetik Lacortek berak gobernadore ustelak Tafallan zuen isilpeko joko-etxearena agerian utzi zuela. Iruñeko agintariak, zibilek nahiz erlijiosoek, Lacorten paperak zukuruz- turik, manifestaldi erraldoia antolatu zuten abenduaren 9rako, liberalismoaren aitziko ekintza garbia gertatu zena. Halaz guziz Madrileko biltzarretan, Senatu nahiz Gorteetan, *El porvenir navarro* astekariaren debekaldiak sortu iskanbila

lakarrak Nafarroako gobernadore zibilarengandik Lacortek beste argitalpen bat kaleratzeko baimena lor zezala erraztu zuen, *La nueva navarra* deituko zena hots. Horretan ere apezpikuaren altaramenduak idoztatu zuen argitalpena, eta 1901.eko otsailaren 25eko dekretuaren bitartez eskomikua atezatu zuen, bigarren astekari horren irakurtzea heriozko bekatu zela ezin argiago utzirik, erresuma zaharreko eliza guztietan irakurtzeko zein atetan jartzeko agindu zuela. Orduko gainontzeko aldizkako argitalpenen jarrera ofizialarekin zihoan, nolana ere zen, *La nueva Navarra* zuzen eta artez erasotzeko arta berezko eginkizuntzat hartu zuena Benito Valencia zuzendu *La vieja Navarra* astekaria izan zen. Euskara Nafarroako eskoletan lekuz kanpoko gauza zelako zeharo debekatu zuen gobernadore zibila izaniko hau -Ramon Lapesquerak bere *Navarra insólita* idazlanean jaso legez- Lacorten aurkako erasoak 1900.eko abenduaren 23an agertzen hasi ziren astekari atzerakoiean:

«Soy católico, apostólico, romano y no puedo en conciencia aceptar un duelo que me prohíben las leyes divinas y humanas, que si no iría con mucho gusto al campo y no me contentaría con menos que con sacarle el corazón y comérmelo, para tener el gusto de vomitarlo o lanzarlo por salva. Nada más, y más vale a usted callarse y meterse la lengua donde le quepa, testafarro encanallado de la infame e infernal masonería».

Lacorten lagunak zirenen zerrendak ere agertzen zituen beldurgarri: Iruñeko Apestegia eta Rubio izeneko tabako saltzailea, Tafallako Erasotarrak, Faustino Garaioa eta beste, Korteko Jose Castillo, Urdiaingo idazkaria zen Andres Agirre, Luzaideko Grazian Intxauspe, eta abar luzexka bat. Dena den beratarren ingurukoek hirugarren argitalpen bat prestatu zuten aurreko bien ildo beretik zihoana, *El azote* izeneko alegia. Tamalez orduko ongileen tolerantziak hiru aldizkarietako aleki bat ere ez gureganatzea aisatu zuen, eta egun Lacorten burutapenak ezagutu ahal izateko sarritan bere idazkiak igortzen zituen Zaragozako *El clamor* argitalpena jotzera beharturik gaude. Gure Lacort behin baino gehiagotan kongresurako hautagaia izan zen, baina sekularenean ez zuen lortu diputatutza. Errepublikaren aldeko atxikimendu guztien bultzatzaile izan zen mende hasierako Iruñean, eta hauta talde baten burua izan zen, Iruñeko udalean zinegotziren bat eskuratu zuena. Bihotzekoak jota 1908.eko uztailaren 5ean zendu zen, Iruñeko hilerri zibilean lurperatu zutela. Errepublika garaian, udalbatzak kale bati bere izena ematea erabaki zuen, 1931.eko irailaren 16an preseski, egungo San Fermin karrika, baina 1936.eko gerratearekin hartu ezabatzeko erabakia ez ezik bere hilobia laidozka eta hondatu ere egin zuten, 1982.era arte alde edo moldez berriz konpondu ez zena.

49. Bustintze eta Sarasate emakume nafarren lanak (1898, 1876-1910)

1997.4.11

Erriberriko eremu emankorretan logale pausatzen den Olitetik ez hagitz urrutian, Txutxoaren gerizpeko herrian hain zuzen, sortu zitzaigun Kapitolina Bustintze Larrondo 1865.eko urriaren 27an. Uxuetar horri buruz ezer gutxi da iritsi zaiguna, edozein modutan ere ez zaigu atzentzen lehen goi hezkuntzako irakasle zegoela 1897. urterako. Historiako liburu bat utzi zigun, *Compendio histórico del antiguo Reino de Navarra para uso de los niños de ambos sexos* izenburukoa, Iruñeko Ezkerrorean 1898. urtean inprimatu zena. Horretan, Oloriz zenaren lana egokitu zuen, haur nafarrek erresuma zaharreko gorabeherak ahalik eta zuzenen ikas zitzaizuten. 30 ikasgaietan barrena itaun-ihardespen erabide zaharra erabili zuen eredu, baita berak deitu «*un lenguaje puro, lógico, numeroso y rico por demás en formas y poesía*» ere. Ikasgaiak Nafarroako garaipenera arte luzatu zituen, 1512. urtera arte alegia, eta helburuak aratz-maratz ezin argiago azaldu zituen goiburuan zekarren sarrera laburrean:

«A fin de que unos y otros aprendan a recitarla en los albores de su infancia, se aficionen a relatar nuestras glorias e imitar las virtudes y proezas que fueron siempre el distintivo de la raza euskara».

Uxuekoaren garaikidea genuen Pablo Sarasate arrabita-jole adituaren arrebak ez zuten euskaraz izkiriatu, San Nikolas karrikako sendi erroak erabat euskaldunak izan baziren ere. Migel Sarasate Juanena aitaren aldetiko aitaxi-amatxiak Larraiotz eta Sarasakoak ziren hurrenez hurren, eta Orbaitzetako Olan sortua zuen Frantziska Xabiera Nabaskotze Oharrietxena amaren aldetikoak berriz Urdaiz eta Amaiurkoak. Musikari ospetsuaren bizi ezpalak biltzen hastekotan, aisa ezagun liteke aitaren betebeharren kariaz Galiza aldera jo behar izan zutela Sarasate troupekoek. Hantxe, A Coruñan hain zuzen, Pablaren arreba txikerra jaio zen 1853.eko azaroaren 29an, eta iruindarren artean Saturnina bataiatu ez izana estonagarri jazo arren, Frantziska ezarri zioten. Aikoaren lanbideari muzin eginik, gure Pakita idazle sartu zitzaigun, eta zeregin hartan Madrilan eta 1876. ean kaleratu zuen estreinakoz, *Un libro para pollas* izenburupeko eleberria. 1878.ean eta izenik gabe ongi baino hobeto ezagutzen zuen anaiari buruzko idazkia argitara eman zuen, hau da, *Noticias biográficas del primer periodo de la vida artística de Pablo Sarasate*. Iruñean ageri zen hori beranduxeago ere, 1921. ean, *La avalancha* izeneko paperean berrargitaratu zen aldizka. Honenbestez,

eta lehendabiziko agerpen horien ostean, ospe hantuko anaiari eskainitako olerki liburua agertu zuen Iruñeko *Eco de Navarra* izeneko moldetegian 1881.ean, *Horizontes poéticos: libro rítmico*. Horretan Juan Cancio Menaren hitzaurrea dakar, geroantzean ere senarra zukeena. 26 olerki laburren artean, luzera dezentegoko Frédéric Souliéren *Bi itsuak* eleberriaren itzulpen dramatikoak ere eskaini zuen. 1882.ean eta Santa Teresaren hirugarren urteurrena ospatzeko aitzakiaz ospatu emakumezko idazleen sariketetan, urrezko luma eskuratu zuen *Amor divino* izeneko olerkiarekin. Nolanahi ere huraxe ez zen karrikaratu 1888. era arte, *Fulvia o los primeros cristianos* eleberri historikoa agertu zen urtera arte, izan ere, Zaragozako Mariano Salasen moldiztegietatik ilkiriko 117 orrialdeko aipatu ber idazkian jaso baitzen. Horretan Menaren Frantziska Sarasate bezala sinatu zuen, eta beraz, ordurako Iruñeko legegizon karlista harekin jagoitik ezkontuta zegoela pentsa daiteke lasai aski. Cancio Mena Aldundiko idazkaria izan zen 1865-1869 urte bitartean, eta besteen artean, Hego Euskal Herria batzeko 1866.eko proiektuan parte hartu zuen.

1894.ean *Romancero Aragonés* izenburukoa ageri zuen Zaragozan, Faustino Sánchez Gil diputatuaren hitzaurre batez hornituta, eta 1896an berriz *Cuentos bascongados* atera zuen Bartzelonako Antonio López Robertenean. Diamante sailaren 43 zenbakidunak 13 ipuin labur zekarzkigun, eta pentsa daitekeenari aitziz, euskarak nahiz euskal gaiak arras agerpen txikerra erakusten dute. 1899. ean *Poesías religiosas* ageri zuen Madrilen, San Francisco Saleskoaren moldiztegian, eta hartan Orriako birjinari nahiz San Frantzisko Xabierrekoari eginiko olerki bana bazituen:

*«En Roncesvalles los siglos
 Escribieron sus hazañas
 Vencido fue Carlo Magno
 Y con él vencida Francia
 Por los guerreros vascones
 Dignos de prez y fama
 En un elevado valle
 Que con la Amescua (sic) se enlaza
 Cuna rústica y humilde
 De las grandezas navarras».*

1910.ean 102 orrialdeko *Pensamientos místicos* argitaratu zuen, Bartzelonan ere, Luis Giliren etxean, eta, guk dakigunez, kaleratu azken lana. Charles-Ca-

mille Saint-Saëns (1835-1921) musikarari frantsesak bere *Aragoiko jota opus 64* eskaini zion: «*A mademoiselle Paquita Sarasate*». Iruñean bertan zendu zen 1922.eko maiatzaren lehenean, langilearen egun berean.

50. Euskararen mitologia erratu batzuk (1898, 1894-1909)

2000.11.3

Gauza ezaguna dira euskararen etorkiei buruz historian barrena esan, idatzi eta barreiatu diren astakeria, burukeria arin eta ideia faltsuak; Tubalengandik hasita euskara gaztelaniaren dialekto egiteraino, euskararen etorkia Paradisuan jartzetik Atlantida mitikoan paratzera ausartzeraino.

Kontu horiek zaharrak diruditen arren, berriki arte eta gaur egun ere aldiro-aldiro errepikatzen diren gauzak dira, eta egia esateko, geure buruaz zertxobait trufa egiteko balio duten neurrian neronek behintzat gustukoak ditut, gure hizkuntzaren umezurtasuna desdramatizatzen baitigute.

Bizente Agirre Gisasola (1898)

Eibarren 1829an jaioa eta Eibarren bertan jardun zuen medikua genuen. Azpimarratzekoak dira oso elgorriaren aurka garbitasun eta txerto kanpainen alde egin zituen ahaleginak. Alabaina zerbaitengatik ospetsua, edo bederik ere zertxobait ezaguna baldin bada, horixe euskararen inguruan egin zituen lanengatik da, izan ere, gure hizkuntzaren ikerketari eskaini zizkionak makalak ez zirelako izan. Bere lanen fruituak *Euskal Erria* aldizkarian agertu ziren gutxiz gehien, 1882tik 1890era bitartean agerturiko hamaika artikulutan, Jose Gisasola izenpean beti ere. Geroxeago ere, artikulua horien guztien bilduma atondu zuen, *Tentativas de reconstrucción de nuestro lenguaje natural y problema de la palabra*, bere kutuneko Eibarren ere hainbatendako sinbolikoa den 1898. urtean argitara atera zena. Astarloari segitu zion orpoz orpo, horretarako beranduegi bazen ere, eta horrek hainbat ikertzaileen kritika zorrotzak ekarri zizkion, esate baterako Julio Cejador edo Unamunorenak; baina gauza jakina da arrazoi gutxi gorabehera zientifikoagoen azpian, beste mota bateko eragile lurtarragoak bazeudela bi aldeen arteko eztabaidan, politikoagoak zirenak kasurako. Bere garaiko euskaltzaleen zirkuluetatik kanpo ez zen ibili; Bonaparte printzearen lagun hurkoa, beste hizkuntzalari aunitzekin ere posta harreman maratza izan zuen. Zoritxarrez, 36ko gerratean etxeko liburutegian gordetzen ziren liburu, gutun eta beste paper interesgarri asko desagertu ziren; beharrik Bizente Agirre Gisasolak ezin izan zuen huraxe ikusi, 1907az geroz zendua baitzen.

Fernandeztarrak (1894, 1909)

Euskararen abarora honen sekretuak kitzikaturik hurbildu zirenen artean Francisco Fernandez Gonzalez eta Juan Fernandez Amador de los Rios aita

-semeak izan ziren. Lehenbizikoa Albaceten jaio zen 1833an. Gaztelania eta arabiera hizkuntzetako katedratikoa izan zen Granadan eta estetikakoa Unibertsitate Zentralean; halaber Historia, Zientzia Politiko, Arteder eta Gaztelaniaren Akademietako kidea genuen. Hain zuzen ere, Gaztelaniaren Akademian sartzeko ogutzi predikuan, *La influencia de las lenguas y letras orientales en la cultura de los pueblos de la Península Ibérica* izenburuko hitzaldian, euskara Amerikako hainbat hizkuntzekin konparatu ondoren, Euskal Herrikoa hizkuntza ariarrak baino lehenagokoa dela zioen, eta areago,

«según mis propias averiguaciones ningún idioma ha ejercido una influencia tan marcada como los idiomas semíticos históricos con la inclusión del asirio y singularmente del fenicio y del caldeo, lenguaje popular de los israelitas después del destierro y cuya pronunciación parece haber sido la preferida por los vascos».

Semea Iruñeko Institutuaren historiako Katedratikoa izan zen, baita Historiaren Akademiakidea. Aitaren bide beretik segituz, euskara eta kaldeoaren arteko harremana zertan zen azaltzen ahalegindu zen, eta horretarako tresna zatekeen *Diccionario vasco-caldaico-castellano* hasi zen argitara ematen aldika Iruñeko Aranbururenean 1909an; hala eta guztiz ere, gaiaren astunak, korapilatsuak eta diskutigarriak txipitu zuten liburu interesgarri horren tamaina, eta sarrera luze baten ondoren, «a» letrarekin hasten diren sarrerak baizik ezin izan zituen agertu egileak.

51. Karta jokoen gaineko literatura: Larramendi, Ortiz-Zaratekoa, Andueza, Yanguas-Miranda

1998.5.15

Hegoaldean eginiko euskal literatura XVIII. mendean hasi zela esan liteke, Larramendi andoaindarraren aitagoigoaren gerizpean. Gutxi izan zen euskaraz jesuita hark utzi ziguna, baina ezin uka euskararekiko jarrera berri baikorragoak erraztu zituela. Bestalde ere, Gipuzkoako deskribapen berria eskaini zigun, aurretik Gaztela aldean eginikoekin guttiz bat ez zetorrena. Horrela bada, 1758. urte inguruan taxutu zuen *Corografía de Guipúzcoa* lan ederra, eta nahiz Larramendi bizi zela ez zen argitaratu ordena barruko zentsurak egoki ez zeritzolako, bertan irakurgai ditugun askok ez du gaurkotasunik galdu. Deskribapen zehatz horretan ez zitzaion ezertxo ere atzendu jesuitari, eta horrela, 37. kapitulua probintziako ohitura, denbora-pasa eta dantzei eskaini zien. Hauxe dugu mus karta-jokoari buruz eginiko lehenbiziko deskribapenetakoa:

«El juego tan antiguo en el país como los naipes es el juego de mus, y son el grande, el chiquito, parejas y juego (...) Es un juego muy divertido por lo que se engañan, por lo que se habla, y por las muecas y señas que se hacen...».

Larramendiren lana 1882.ean eman zuen argitara Fidel Fita josulagunak Bartzelonan. Ordurako, bat baino gehiago ziren mus jokoa erakusten zuten deskribapenak. Horietako bat, Juan Ortiz Zaratekoak egin zuen, *Reglas fijas que conciernen usar en el juego llamado mus*, Iruñean 1804.ean agertu zena. Lan horren eliz aztertzailea Pedro Bidaurre izan zen, Iruñeko eliza nagusiko sotxantrea zena, eta bere oniritzia 1804.eko abuztuaren 18an borobildu zuena. Harri-garria iduri arren, ez ziren euskal elizgizonak sobera tematu karta jokoei aitz, eta horrela, aski eredugarria zaiguke Florentino Andueza Senosiainen ekarpena. Iruindar horrek, *El juego de monte y sus 30 trampas o secretos* izenburuko idazkia agerrarazi zuen Iruñeko San Nikolas 17an Roman Belandiak zuen etxetik 1898. ean. Bere seme-alabei eskaini zien 75 orrialdeko idazki hau -*«A vosotros hijos míos: tener este libro siempre presente y apartaros de este fatal vicio»*-, arras helburu zehatza erdiesteko saioa dukegu: monte zeritzan jokoa useak ziren trikimailu guziak ezagututa, irakurleak ez zezala joka, eta halaxe egin ezean, atzipeturik gerta ez zedin bederen. Egileak, lanaren hitzaurrean, ez idazletzat ematen zuen bere burua, *«carezco de musa»*, baina, handiustekeria doi bat erakutsirik, arrakerorik hautenek erabilitako iruzurrik zailenen jabe ere bazela aitortzen zigun, betiere bizitza oneko pertsonen zerbitzurako. Jukutria horien antzemateko, Europako zein Ameriketako izen goreneko jokaleku eta besta-jiretan izana zen, askotan azpijokoa sartzen ari zitzaizkiola jakinda arrakeroei egiten uzten, baita

babesik bako beste pertsonak bere sosa guztiak galtzen ari zirela ikusten zue-
nean haien alde ezer egin gabe ere. Asko dira bere liburuan azaldu zizkigun
marroak, harrigarrienen artean pospolo kutxatilarren barruan jarritako mirail
txikiarena edota erloju-sistemaren bitartez karten markaketarena. Jokoan be-
rean ikasitakoen eraginkortasuna aldarrikatu zuen, bere bizitza osoan erama-
niko jokaeraren zurigarri apika, beti ere gaiari buruz taxutu gainontzeko beste
hamaika liburuen parean, non, zioenez, ezer probetxugarririk ez zegokeen.

Anduezak aipatu bibliografia horren barruan, Jose Yanguas Mirandak on-
dutako kaier apain bat sarrarazi beharko genuke, hau da, *Análisis apologéti-
co-crítico del juego llamado monte*, zinez kausigaitza den lana. Lan horrekin,
Yanguasen asmoa Anduezarekin batera zihoakeen; alabaina, bigarren horrek
jokoaren arriskuak gordintasun tipilgorri osoan erakutsi baldin bazituen, edo-
zeinek ulertzeko gauza zatekeena, Yanguasek, literatoaren zorrotzasun zolia-
rekin egin zuen berea, hagitz burutsuak ez ziren adimenak bigarren zentzua
ulertzeko gauza ez zirenez, tuterarrari arazoak ekarriko zizkion gauza. Egoera
horretan zegoen, ohi denez, Nafarroako gobernadorea, eta Yanguasen lana kar-
ta joko horren apologia zelakoan, argitara ateratako jaulkipen osoa jasotzeko
agindua xedatu zuen, baita 500 errealeko isuna pagarazi ere. Horixe dateke
Yanguasen lana ikuskatzeko zailaren arrazoa. Yanguasen lanak honako lauko
hau du hasialdi:

*«Yo me divierto jugando
gane que pierda es lo mismo
si gano, gano el dinero
sino lo que me divierto»,*

batek baino gehiagok erabili ohi duen aitzakia galtzen duen guztietan. Yan-
guasen satiran jokoa dirua ateratzeko biderik laburren zein goxoen agertzen
zaigu, lan atsegina, zikoitzaren aurkako txertoa litzateke, eta dirua mugiarazten
duen eragilerik emankorrenzat aurkeztu zuen Tuterako historiagileak. Bestal-
de, jokalaria adimen handiko pertsona zuen, beti ere datozkioken kartak au-
rreikusteko gauza baita, eta jakintza arlo guztietan gailentzen den pertsona da,
salbu literaturan, eta horrtan Yanguasek agerian utzi zuen ziria, gobernadore
jauna ez ikusterainoko itsu bazen ere.

XX. MENDEKO

52. Ebangelista Iberokoa (1902, 1906)

1996.12.6

Aukeran hartu izan dugun gizona ez da inolaz ere euskal izkiriataile na-roa, ez eta euskal idazlea ere tamalez. Tamalez. Alabainan euskaraz ez idaztega-tik ere gurean bere txokotoa badiogu eskaini interesekoa delakoan. Erramun Goikoetxea Orokieta Oltzako Zendearen Ibero hirian sortu zen 1873. urteko abuztuaren 31n. Arras gazte zela hamar urterekin kaputxinotarrenean sartu zen Santanderreko Montehanon. Edozein modutan ere Euskal Herritik ez zen gehiegi aldendu bizi lehenbiziko harat-honat haietan eta esan behar da Hon-darribian nahiz Bilbon usu aritu zela. Bizkaiko hiriburuan profesio txikia egin zuen eta handik Baztan aldeko Lekarozera abiatu zen luzarorako. Ikasketa na-gusiak nahiz profesioa hartan berean bete zituen nahiz apeztea Okzitaniako To-losan egin zuen 1897.eko irailaren 9an. 1900.ean Iruñera joan zen elokuentzia sakratua eta zuzenbide kanonikoa irakasteko mandatuarekin. Misiolari bezala ere jardun zuen Iruñerriko herrietan zein Izarbe ibarrean. Esan beharra dago mende hasmenta hartan erdara nagusitzen hasia bazen ere, oraino euskaldunak bazirela merindadeko behetiko lur haietan: Garestik hasita Olkotzeraino, edota Adiozetik Senosiaineraino. Ibero ere zer esanik ez, euskalduna zen, hagitz mo-teldua izan arren, eta gure Erramun ere halakoa zatekeen, ezertxo ere euskaraz taxaturik utzi ez zigun arren.

Halarik ere, erdal ekoizpenari ahalez euskaldundu nahian edo, beti ere Eus-kal Herriko eskubide politikoak mihi puntan zeramatzan, erlijio katolikoaren zetabetik xeheki galbaheturik balekibale. Horrek arazo larri gorriak ekarriko lizkioke. Iturriotzeagako San Pedroko lekaidetxean zegoela, eta Aralarko ain-gerua Iruñeratu zelako aitzakiapean, eliza nagusian beharreko mezetetan ohiz-ko predikua ogutzi zuen Iberokoak 1902. urtean. Hain zen prediku aberkoia ezen auziperatu behar izan zutela ezkerrekoen salakuntza suminaren ondorioz. Lizarrako Estanislao Arantzadi legegizon euskaltzalearen eraginari esker auzia gainditu ahal izan zuen. Edozein modutan ere, zioa ez zen Nafarreriako eliza nagusiaren lau horma gotikoen barruan gelditu, haizatu barik, eta ber urtean argitaratu zioten esandako sermoia Estafeta karrikako 31. zenbakian zegoen Erize eta Garziaren moldiztegitik: *Sermón predicado en la catedral de Pamplona el día 8 de abril de 1902 fiesta de la dedicación de aquella santa iglesia y ante la imagen de San Miguel de Excelsis*. Prediku hasiera nahikoa dukegu jakiteko nondik nora zihoan gure fraidea:

«Cuanto más lo pienso, más me alegro y me glorío de pertenecer al hidalgo pueblo vasco. Pueblo más honrado, más noble, más valiente, más cristiano no le ha habido, no le hay, y no le habrá jamás en toda la redondez del globo».

Ahitzekoak ere ez ziren makalagoak:

«Gloriosísimo Arcangel San Miguel, que desde la cumbre de Aralar velas, cual fiel custodio por la conservación y prosperidad del pueblo vasco! Mira como el demonio ha dividido y encizañado a tus hijos predilectos, mira como en vez de batallar contra los enemigos de nuestra religión y nuestra raza, estamos destrozándonos mutuamente; mira, en fin, como gracias a nuestras divisiones y discordias, la impiedad y el liberalismo comienzan a apoderarse de la noble Vasconia. Tu que tanto nos quieres, pon remedio a tan grave mal, queden ahí sepultados bajo esa cruz que sobre tu cabeza ostentas, nuestros odios y rencores, únenos a todos los vascos en el amor de Jesús, y así, unidos y compactos, guianos a luchar bajo tus órdenes por Dios y por la patria».

Iruñekoa agitu ostean, Lizarrara joanarazi zuten, bertako komentuko buru gainera, baina ordenarako ekar zekiokkeen arriskua behar bezala alderaturik ez zegoela oharturik, hiru urteren buruan Teruel aldeko Hajar aldera bidali zuten, bertan hil zela 1909.eko irailaren batean. Bizkitartean omen handiena bereganatu zion idazkia agerrarazi zuen Iber ezizenaren azpian, *Ami vasco* izenburuko liburua alegia, Bilboko Artetxerenean 1906. urtean inprimaturikoa hots. Gernikako arbolaz hornitu azala duen hau Arana Goiriri eskaini zion doike: «*mártir de jaungoikoa y de Euzkadi*». Itaun-ihardespen modura eginiko liburuxka horrek dozena bat kapitulu dakartzkigu, zein baino zein interesgarriago: nazioa, estatua, nazionalismoa, aberria, aberriarekiko betebeharrak:

«*A trabajar sin descanso por la conservación o restauración de la raza, lengua, leyes, instituciones políticas, costumbres, carácter, tradiciones, artes, territorio y demás elementos constitutivos de la patria o nacionalidad*»,

arrazaren aldetiko euskal nazionalismoa, historiaren aldetiko euskal nazionalismoa, Euzko Alderdi Jeltzalea, alderdi foruzaleak:

«*¿Qué caso hace el nacionalismo de las exclamaciones y gritos de los fueristas? El caso que hace la luna de los ladridos de los perros*»,

alderdi karlista, eta ondorioak. *Ami* hitza Ormetxeak sortu agakaren hasmenta eta bukaerako hizkiez osotu anagrama litzateke, eta hortik, katekismo edota eskuliburu baten ordaina genuke Iberokoaren lana. Lan horri ihardespen gogorra eman zion Sola izenekoak beste liburu baten bitartez: *Clericalismo y separatismo vasco: comentario del folleto titulado Ami vasco*, Bilbon ere ageri zena, Muller eta Zabaletarenean, 1906. urtean. Iberokoarenean agertzen diren puntu guziak,

banan-banan segitu zituen, ikuspegi espainiarkei argi eta garbi batetik, euskal nazionalismoa gorki deitoratuz. Edozein modutan, nazionalismoarekin batera, erlijioak duen garrantzia ere deuseztatzen ahalegindu zen:

«El único fin del nacionalismo vasco es el del restablecimiento del poder eclesiástico, el bizkaitarrismo es hijo del clericalismo. La nación vasca, la patria vasca, el idioma vasco que tanto se ponderan, escupiendo y pisoteando a la nación española, son puro objeto, supeditado a la voluntad del papa blanco o negro».

Guztiarekin, *Ami vasco* honek edizio ugari izanen zituen; bigarrena izenburua aldatuxeaz ageri zen, *Muera la mentira viva la verdad: se recomienda la lectura de este opúsculo a cuantos pertenezcan a la raza baska, porque ignorar la historia de su patria, es lo mismo que desconocer el origen de la madre*. Horixe Buenos Airesen ageri zen, Irrintziren eskutik, 1907.ean. Aldaketarik ia ez dago, ezpada bukaeran dagoen ohar txoak sortaraz ditzakeenak:

«Los hijos de Aitor hemos abandonado para siempre la aplicación de la absurda, ilógica y oscura ortografía castellana a la escritura de nuestro idioma».

Hirugarren edizioa Ekinen eskutik etorri zen 1957.ean Buenos Airesen ere, eta laugarren bat oraino, euskarara iraulia, argitaletxe berarengandik zetorren urtean.

Hil urte bertsuan, Berako Erroman Dornaku ordenakideak eginiko galdera bati erantzuna eman zion luze gutun batean, balizko euskal argitalpen baten harian. Burutazio ona izateaz gainera behar-beharrezkoa iduritu zitzaion, bereziki, euskarari aitziz zebiltzan askoren enbatari ekiditearren. Halandaxe salatua zuen horrezkero *Gipuzkoarra* argitalpenean 1907.eko ekainaren 8ko paperean, «*Incalificable*» izenburuko idazkian, non Gulinako eta Lekunberriko erretoeren euskararen aurkako jokaera larriki deitoratzen zuen. Lehenbizikoa Manuel Cuevas apez erdalduna genuen, Aralarko aingeruaren omenezko euskal kantak galarazi zituena. Bigarrenaren jarrera tamalgarriagoa zen, euskaldun batengandik zetorren heinean; Jose Ramon Arregi genuen, Lekunberriko apez 1893-1921 urte bitartean, euskara elizan debekatzen zuena, bere ondoan etorri Pedro Juan Bereterbide luzaidarrak egin zuen ber gisan.

53. Juan P. Esteban Txabarria (1905)

1998.4.3

Juan Pascual Esteban Txabarria Barde-mugako Fustiñanan sortu zen 1864. eko martxoaren 27an -kasu, Esteban abizena da; ama Zipriana Txabarria Vitas Fustiñanako baten ere, bere aita, gure gizonaren aitatxia hots, Cabanillaskoa zen; Vitas abizena ordea, Fustiñanan ongi erroturiko deitura dugu, XVIII. mendeko Cristobal Cortes antzerkigile tuterarraren bigarren abizena-. Lehenengo ikasketak Tuterako Castel-Ruizen eta Iruñean egin zituen, abokatu agiria ordea, Zaragozan atzeman zuen 1885.erako. Estebanek gogoen zeukan jardura idazgintza genuen baina, eta hamahiru urterekin jada, bere lehenbiziko lana zirriboratu zigun, *Fragmentos históricos o breve reseña histórica de la villa de Fustiñana*. Lehenengo idazkia *El ideal de Fustiñana* egunkarian atalka hasi zen agertzen «*Fustiñana en la historia*» goiburupean, baina paper hori desagertu zenean, bete gabeko lanaren ardura hiriko udalak hartu zuen bere gain, eta berandu arren, Zaragozako La Académica tipografian agerrarazi zuen 1930.ean *Memorias históricas de Fustiñana* izenburu aldatuxearekin.

Zaragozako ikasketak bukatu, luma dantzazteari largatu barik, Iruñeko *El Eco de Navarra* egunkari politikoan urtebetez jardun zuen zuzendaritza lanetan. Ordutik, bizitza osoan zehar jarraitu zuen kazetari lanetan murgildurik, Iruñeko, Tuterako, Madrilgo nahiz Zaragozako egunkarietara bere izkribuak igorri zituela. Aurretik ere, 1887.eko udan, *La Concordia* egunkaria ateratzeko asmoz ibili zen Fustiñanan bertan, horretarako beharrezko zituen molde eramangarriak erosiz, eta *El carlismo en Navarra* izenburuko ikerketa xaloa karrikartzeko ere profitatu zituenak.

Urte batzuk beranduxeago, 1893.ean hain zuzen, *Esbozos y moralejas o colección de fruslerías, nimiedades y bagatelas de grueso espesor* ipuin bilduma interesgarria agerrarazi zuen Iruñean. Urte haiexetan izan zen gamazadaren inguruko oihartzunak ez zitzaizkion oharkabean pasatu, eta legegizona zenez bezanbatean, zenbait lan ondu zuen Nafarroako eskubideak mintzagai. 1894. ean Donostian eginiko lore-jokoetara, *Vis unita fortior: forma de organizarse los basco-navarros para alcanzar la reintegración de sus derechos, constituyéndose agrupación común* izenburu luze baina argigarriaren azpian eginiko lana aurkeztu zuen, zilarrezko domina erdietsi zuela eta Bilboko Euskalerrria elkartekoek argitaratuz; hurrengo urtean, berriz, Iruñeko *El liberal navarro*-ren foiletoi gisa, *Paz y Fueros* hitz lauko lana eman zuen argitara, XIV. mendean kokaturiko hiru ekintzako entsegu historiko dramatikoak, zendu berria zen bere amari eskaini ziona. Horrekin autokritika gogorra egin zuen:

«El interés dramático y el efecto escénico son tan deficientes que el ensayo más que obra terminada parece un borrador o un mal programa que es preciso desarrollar y sacar en limpio. Los personajes dicen más de lo que deben, y deben más de lo que dicen».

El Eco de Navarra egunkarikoek, berriz, ez zeritzaten hori, eta 1895.eko azaroaren bateko zenbakian Estebanen lana goraipatu zuten:

«El autor la intitula modestamente ensayo histórico-dramático, pero el libro contiene muchas bellezas que hacen de él algo más de un ensayo».

Mende berriarekin, eta 1904.etik bederen, *La Avalancha* aldizkari kristau integristaren lantzean behingo kolaboratzailea izan zen. Esaterako, Sautu eta Ibarretxebea josulagunek 1908.ean Erriberan eginiko misioaldi apostolikoaren berri eman zuen, eta 1911.eko maiatzaren 8ko zenbakian, «*La mora encantada*» ipuina atera zuen, Antso Abarkako gazteluaren zein birjinaren inguruko gertakizunak oregarri. Horretan ere *Quijote*-ren kontua agertu zuen. Iruñeko udalak 1905.eko maiatzaren 8rako antolatu X. literatur lehiaketa osatzen zuen gaitegiaren barruan, gaietariko bat, eta Cervantesen lana argitara atera zeneko hirugarren mendeurrena betetzen zela eta, «*Don Quijote y Sancho Panza, en sus viajes ¿Pisaron tierra navarra?*» epigrafearen azpikoanikoa izan zen; horretara, berriz, lan bakoitza aurkeztu zen, *Don Quijote en la Ribera de Navarra* izenburukoa, bakarra izanagatik, omen zuen kalitatea zela-eta saritu zutena, gure Estebanena zena alegia. Ez zen argitara eman ordukoan, harik eta 1907.eko *La Avalancha* aldizkarian agertu zen arte -urriaren 24an, 234 or.; azaroaren 8an, 249 or.; azaroaren 23an, 263 or.; abenduaren 7an, 275 or.; eta abenduaren 24an, 285 or.-. *La Avalancha*-n agerturikoa ez zen sariketara igorri ber lana, Estebanek kopiarik egiteko arta izan ez baitzuen, eta aurretik eginiko zirriborroetan oinarrituriko testu berria izan zen orriotaratutakoa; ez dirudi, halaz ere, argitaratutakoa Iruñeko udalean aurkezturikoarekin gehiegi hastanduko zenik. Aurretik ere, gai horrek kitzikatzen omen zuen gure Fustiñanako idazlea, izan ere «*Cervantes, Navarra, Tudela*» izenburupean artikulua saila argitara eman baitzuen *El Eco de Navarra* egunkarian, 1904.eko apirilaren 24an eta maiatzaren 3an. Horretan, Iruñeko ikas-bulta digu gogora, ikasle txarra zeneko garaia, noiz Cervantesen lana irentsi baitzuen gormandiza handiz; penaturik Cervantesek bere idazkian Nafarroa aipatzen ez zuelako, on *Quijote* Nafarroatik bai pasatu zela erakusteko saioa egin zuen, erdal testuan sakonki trebatu ostean:

«Me parece que a los navarros nos asisten razones fundadísimas para sostener que los famosos heroes manchegos pasaron por nuestro suelo con propósito deliberado de visitarlo, y por lo tanto, *Quijote y Sancho Panza pisaron tierra navarra* (...)

Permítaseme la vanagloria de decir que la casualidad ha obrado de manera que yo resultase, al parecer, el primero en desenvolver este tema en sentido afirmativo».

Bere teoriaren funtsa honakoa dugu: on Quijotek Zaragozara eginiko bizidantian, Ebro parean ibili zen; ibaia, ordea, Pedrola baino lehen topatu zuen, beharko, eta hainbat kalkulu egin ostean, Ebro uhaldea Nafarroako Erriberan topatu zuela ondorioztatu zuen Estebanek, betiere Tuteran eta Kortesen arteko eskuinaldeko zatian alegia: Tuteran, Fontellas, Ribaforada, Buñuel edo Kortez hirietako batean. Pedrola eta Nafarroa bitartean Aragoiko beste herri batzuk badaudela onartzen bazuen ere -Luceni, Boquiñeni, Gallur eta Novillas-, bere lanaren eite azalekoak zilegitzen zion nonbait etxerako egitea:

«Aunque este no sea ningún estudio serio, sino un trabajo ligero de entretenimiento, al cual no debe darse importancia ninguna...».

Bestalde, eta *Quijote*-ren hirugarren mendeurrena zela eta, Iruñeko Udalak zein Nafarroako Aldundiak berak ere, hainbat ekitaldi antolatu zituen; hiri-buruan maiatzaren 7an, 8an eta 9an garatu zen egitarau estu bat: erraldoiak eta kilikiak atera ziren; Alfaroko Amalio Diaz Canteren, lehen Zapata zenaren zezenak lidiatu zituen Eusebio Bernet *Fabrilitor*en taldeak; festa akademikoa egin zen eta antzezlanak ikusgai izan ziren Gaiarre antzokian; Cervantesen omenezko hiletak egin ziren eliza nagusiko deana zen Tirso Larekik predikatu zuela; San Frantzisko plazako ikastetxea inauguratu zen; eta hainbat lan argitaratu eman ziren, esaterako Tafallakoa zen Bernardino Garcia Conde infanteriako komandantearen *Cervantes Militar* idazkia.

Fernando Perez Ollok dioenez, Campion buruzagi zuen idazle erregionalista aldran kokatu beharrekoa da Fustiñanakoa. Zuen ikuspegi erromantikoa, ordea, apur batean aldatu zuen 1936.az geroztik gerratearekin batera -*Entre la historia y la leyenda* edota *La sombra del coloso*, biak Nafarroako historiaren hainbat pasarteri buruz-. *La Avalanche*-n agertu erreseina biografikoan, aurretik izaniko gazi-gezek eragindurik azaltzen zuten Estebanen garapena:

«Los desengaños del mundo y las desgracias de familia han rectificado algo en él ciertas ideas, y aunque dinástico esentusiasta y convencido político, es soldado leal de Navarra, sensatamente regionalista y netamente católico. Su nombre ventajosamente conocido por los hijos de esta tierra, figura dignamente al lado de los Iturralde y Suit, Campión, Olóriz, y otros patriotas preclaros».

Azken urteetan, Aragoira gerturatu zitzaigun, noizbait urrutiratu bazen -Zaragozan zendu zen 1940.eko uztailaren 6an-. 1918.eko martxoaren 23an, Zaragozako ateneoan *Regionalismo general y aragonés orientados por el régimen foral de Navarra* hitzaldia ogutzi zuen. 1927.ean eta 1929.ean berriz, Nafa-

roako Aldundiak, Euskalerraren Alde elkartearen eskutik, *Utrique roditur* eta *Aragón por Navarra contra Francia* lanak saritu zizkion: lehendabizikoan Nafarroako konkistan Aragoik izan zituen erantzukizunak zehazten dira; bigarrean, aitzitik, 1638.eko Hondarribiko setioan aragoitarrek izan zuten parte hartzea aztertu zuen.

54. Tiebasko kazetari ezkertiar baten inguruan (1906-1939)

1999.12.3

Tiebasen 1884.ean jaio zen Biktor Gabirondo Sarabia 36ko gerrate aurretiko urteetan Madril aldean ibiltzen ziren kazetari nafarren artean garrantzitsuenetakoa genuen, Enderizekin batera, betiere ezkerreko egunerokoetan Errepublikaren aldeko idazle ziharduela. Aita karabineroen sarjentua izanki, kasernaz kaserna ibili zigun Gabirondok bere gaztaro osoa Euskal Herrian barrera, azkenez Bilbon kokatu zen arte. Literatur sen nabarmenekoa, 22 urterekin agerrarazi zuen Gasteizen bere lehenbiziko olerki liburua, *Vulgaridades*. Oraino ikasle zela hasi zen egunkarietan idazten, *El Nervión* erregezalean lehenbizi eta Etxeberriatarren *El Noticiero Bilbaíno*-n gero, non berebiziko ospea bereganatu zuen «*De Bilbao al Abra*» izeneko sailarekin. Bilbotik atera aurretiko urte haietan Gabirondo jeltzaleengandik nahikoa hurbilean zebilen, 1908.ean Arrillagaren etxean argitara eman zuen *De mi montaña* idazkian aisa azta daitekeenez. Lana sinatzeko Napar Txiki goitizen esanguratsua erabiltzeaz ez ezik, «*patriota decidido, amante de sus ideales y protector de la literatura de su suelo*» ere bazitzaion Ramon de la Sotari eskaini zion liburua. Iruñeko liburutegian dagoen alekia Campioni berari espresuki oparitutakoa dugu, eta azalean bere eskuz luzatu zion eskaintzan Iruñekoaren jarraitzaile zintzotzat aurkeztu zuen bere burua Gabirondok. Olerki eitea duten hitz lauко sei narrazio jasotzen dira lantxo horretan: Jose Larrauriri opaturiko «Euskal-Erria» -«*De mi cuna sagrado suelo, eres seco, árido, montañoso, mi país querido; rudos son tus hijos...*»-, Pedro Anituari eskaini «*Confesiones de un basco*», emakume abertzale batzako kideei -«*A vosotras, jalkides valerosas, valientes compatriotas, un joven vasco os dice sus anhelos en estas lienas*»- eskaini «*Hermana*», Kondaño euskal idazleari opa «*En sueño*», eta, azkenik, Manuel Zugasti abertzalari opa «*Del camino*». Bide bereetik joaki, *Bizkaiti* antzezlan abertzalea idatzi zuen Gabirondok, Bilbon bertan taularatu zena.

Nolanahi ere den, osasuna arazo bihurturik, Bilbotik atera zen 1910. urte inguruan, gazte zeneko asmo jeltzaleak oro bertan utzirik. Valladolideko *El Diario Regional*-en labor jardun ostean, Madrilera iritsi zen *La Correspondencia*-ko kazetari lehenbizi, eta *El Liberal*-ekoa geroago. Ezkerreko jarretetara hurbilduz, Kazetarien Sindikatuaren sorreran eta 1919.eko kazetarien greban zeresan handia izan zuen gure Gabirondok, eta geroxeago ere, *El Liberal*-etik ateratako hainbat kazetarik sortu berri zuten *La Libertad* egunkarian zezenketa kritika idazteaz arduratu zen.

Literatura utzi barik, Madrilera iritsi zenetik *Latidos y notas* eta *Mis amores* olerki lanak eman zituen argitara 1913.ean, Enderizekin batera *Madame Butterfly* antzezlanaren estreinatu zuen Valentzian 1922.ean, eta eleberri, antzerki eta bestelako lan ugari ere ondu zuen, besteak beste, *Intransigencia*, *Noche de lobos*, *El hombre de la barba negra*, *La maldición de una madre*, *Al rayo de luna*, *Los dos polos*, *Aquí está mi mujer...* alabaina, zail da bere idazlan guztien zerrendatze zehatza egitea, alde batetik, edizio urrietan agertu zirelako, eta bestaldetik ere, beste egile batzuekin batera atera zituelako hainbat eta hainbat liburu, horiek sinatzeko ere ezizen ugari erabili zituela, esaterako Alfonso de Tiebas, Agustín Davo -bere emaztea zen Juliana Davoren abizenaz baliatuz-, Conde de Tiro, eta abar. Zeraman norabide politikoarekin ados ez zegoelako edo, *La Libertad* egunkaria utzi eta asmo literarioagoko hainbat proiektutan sartu zen, besteren artean, *Los poetas* olerki aldizkaria, *La semana taurina* zezenketa astekaria, eta kafegileen eta azukregileen gremioak sustengaturiko *Excelsior* zinema aldizkaria.

Primo de Riveraren diktaduraren ostean kazetaritzara harzara itzuliz, *La Tierra*, *Nosotros* eta *El Diario del Pueblo* egunkari ezkertiarretan egin zuen lan, eta errepublikarekin batera, *La hoja del lunes* egunkari ofizialeko kazetari sartu zen, 1932.az geroz, Gobernamentuko Ministerioaren prentsa arduraduna izanik. 36ko gerratean eta gobernamentuari jarraikiz, Valentziara aldatu zen, non *Fragua Social* kazetan idatzi zuen, eta hiriko Apolo antzokian *España y Méjico* elkarrizketa poematikoa estreinatu zuen 1937.eko uztailaren 25ean. Valentziatik Bartzelonara joan zitzaigun, gobernuko prentsa eta propagandako bulegoko funtzionario, eta errepublikaren alde ofizialki atera zituen *Con el sol en la cara: del cuartel de la montaña a Toledo* eta *Un episodio de terror en el campo fascista* foiletuez gainera, *Solidaridad Obrera*, *Umbral* eta *Timón* egunkari anarkistetan idatzi zuen. Biktor Gabirondo 1939.eko otsailaren 3an hil zen, hegazkin faxistek Figueresen eginiko bonbardaketa batean, ondoko urte beltzek kazetari zein idazle handi honen izena ahanzturaz estali nahi izan zigutela.

55. Tubalen ehizaldia Bardeetan (1908)

1997.8.1

Antonio Martinez Puio genuen Tubal ezizenaren azpian ezkututzen zitzai-
gun tuterarra. Aitzineko gizaldi hondarretan batik bat bere lanak egin zituen
apaiz honek antigoaleko moldeetan zuen oinarria, baita zerabilen funts zienti-
fiko osoa ere ehiki. 1901.eko ekainaren 26an eta Murtxanteko erretorea zela,
Tuterako udalak eskaturik estakuru, festetako Santa Anaren omenezko sermoi
panegirikoa ogutzi zuen Erriberako eliza nagusian Santuemearen omenez, eta
prediku hartan, ziurtasun osoz, Done Jakuek, Zaragozarako bidean abian zela,
Ebro uhaldeko hirian predikatu zuela baieztatu zuen irmo. Horixe bai zela si-
niste sendoa -predikua argitara eman zuen ber urtean, Tuterako Sada anaiei
etxean-. Halarik ere, oraingo honetan ez gara sineskeria kristauen ildo behei-
tirakorretatik labainduko, eta Martinez Puiok ondu bestelako lan interesgarri
baten berri emateko jardun behar dugu, uda heze honek haizu zilegitzen digu-
lako ziurtasun sendoan bederen, izan ere, zein ero litzateke gai, uda arrunteko
bero sapekin Aragoiko muga zabala diren Barde idorretan alaiki tipilgorritan
sartzeko?

Goiago aipatu Tubal izengoiti aproposa esleitu zigun gure gizonak *Una
cacería en las Bardenas Reales o aventura de unos estudiantes* goiburu daraman
eleberririk sinatzeko. 1908.ean karrikaratu zuen Nafarroako Erriberako
Tipografikak, eta 400na orrialde betetzen dituzten bi zati dira, 24 eta 28 kapi-
tuluz horniturik, hurrenez hurren. Liburuan barrena ehunduriko bilbea ezin
ertzagoa otu zaigu, geroago eta ergelagoa, Fernando Perez Olloren aburuz ez
buru ez hankarik ez lukeen istorio undatsa litzatekeena; alabaina, Euskal Herri-
ko ertz eguzkitsu hartan logale hedatzen den basamortuaren gaineko hamaika
kontu zaharrez jabetzeko arras irakurketa interesgarria dukegu Tubalek izkiria-
turikoa, ez ordea nolana eta nonahi baztertzekoa gertagarri, areago idazkia
begitatzeko dauden zailtasunak gogoan hartzen baditugu, bada, Nafarroako
liburutegi nagusian ez baita. Beharrik Herrerias karrikako liburutegian bada-
goela irakurgai, eta liburu bakar batengatik Beterriko hiriburura huilantzeko
inor ere prest ez balego, gutxienez joan dadila biblioteka hau aterpetzen duen
jauregia bisitatzeraz, segurki merezi duelakoan baikaude.

Ikasturte berriari hasmenta eman baino lehenago, irailaren 8an hain zu-
zen ere, Tuterako aldeko ikasle zenbaitek Bardeetara ehiztari joatea erabakitzen
dute oporrei amaiera ahantzezina ematearren. Forzudo, Matalobos, Piernaslar-
gas, Estripacuentos, Malasombra, Chistoso, Bruteraz, Osado, Escolasticorum,

Sangrenegra, Montañés eta Caparrota ditugu estudiante tunante aldra zinez ederraren osagileak, eta izen hantuetako multzo hau erabatez borobiltzeko Tazonatik heldu zen trenari ematen zitzaion deitura aldrebesa falta ote da soilik, Escachamatas alegia, bestaldetik, Abartzuzako Bidadorren batek ere pairatzen duena. «*Ya ha llegado San Migel, pastores a la Bardena, a beber agua de balsa, y a dormir a la serena*». Zintzurrez zintzur airoski hegaldatu jota Itxaro Bordaren lumatik errendatu zitzaigun azkenekotik. Gu ere garoila aldean Bardeetarako gara, eta Amaia Ezpeldoiri agitu bezala, Zuriñe erregina Peñafloretik azaltzen ez bazaigu ere, Antso Abarka errege mitikoa zaigu etorri honetan bere gotorlekutik. Ez dira Barde guziak zehatz-mehatz ibiliak eduki behar hainbat toponimo ezagun gerta daitezten: El Plano, Txirimendia, Sardazuria, La Blanca, Eguaras, Landazuria, Naba, Piskerra, Santxikorrota, Andarriaga, Tximorra, Olivete, Nasa, Modorra... Bardea Beltzaren inguruan, hau da, hegoaldeen dagoen eremu arbolatuan, ler bihurriak badira ere, bada, Tauste aldera eta Euskal Herritik kanpo beraz, Antso Abarka izena daraman muinoa. Bertaratu ezkerro, zur eta lur harri gaitzakeen gain laua topatuko dugu, oro isila eta utzirik, oro zuri eta itxirik. Gehiegi hastandu gabe, Fraidearen peña edo *cabezo* dugu, Antso Abarka erregeak bere gaztelua egiteko benetan aukeratu toki hauta. Barga horretan, tradizioak dioenez, Andre denaren iduria azaldu zitzaion Urzainkiko artzain bati, Ibar izenekoa -ez ordea Mokoroa-. Tradizioak ere iduri hori 600. urtean Jaka eta Oloroe lotzen dituen bidean dagoen Aspe aldeko Sarranze herrian agerturikoa berbera dela dio, eta erreforma zela bide hugonoteengandik ihesean Bardeetako malkor galdu hartara aldatu zuen pausalekua. Naski agertokia Nafarroan da, Barde barruan, baina nonbait, Urzainkiko Ibar huraxe ikusitakoaren berri emateko Fustiñanara joan zenean, inork gutxik sinistu zion, eta aski drole harturik, ekiak sobera berotu artzain gazte baten zorakeriatzat jo zuten. Ez zen ber moduan Tausten gertatu, eta agertokira prozesioan iritsirik, bere aldera eraman zuten iduria. Ohiturak agindu legez, agertokian ermita bastitu beharra zegoen, baina badaezpada ere, Taustekoek mugaz bestaldetik, gure aldetik hots, ez zuten egin, eta jada Aragoi dagoen muru batean altxatu zuten gaur ezagutzen duguna.

Martinez Puiok ez zuen zalantza ttipienik ere, eta horrenbeste jauregi zein erret egoitzen behialako eremuaz iritzi arras nostalgikoa esanguratsua baina zuzendu zigun bere idazkian:

«Las Bardenas en aquella época no eran los aridos y casi agotados montes de ahora, sino una prolongación de las montañas de Navarra y Vascongadas, cubiertas de copudos árboles y de vegetación asombrosa».

Ez da hagitx azkarra izan behar, edozein baxalok ikusiko luke beraz, balizko Barde berdeen zantzua xerkatzeko gure Tubal ez dela Euskal Herritik ateratzen, demagun, Aragoiko bortuetara. Halaz guziz, gaitzikorregiak garela lioketenak baleudekeenez hobe dateke isilik geratzea. Oraingoz bederen.

56. Navasko jazarraldiaren inguruko eztabaida (1912)

2000.10.20

1912an Navasko borrokaldiaren 700. urteurrena zela-eta nafar historia mitikoaren osagai garrantzizkoenetakoa zena ospatzeko hamaika ekitaldi, ospakizun, argitalpen eta saio berezi egin ziren; alabaina, eta orain bezala, orduko historialari guztiek ez zuten ber gertaerentzako azalpen berbera, tira-birak erakarri zituen.

Tuterako Antxorena

Juan Antxorena Agirrek (1835-1900) sendi erroak Baztango Berroetan bazituen ere tuterar xaloa genuen. Bi dira Antxorenak idatzi zituen lanak, biak eleberrri historikoak. Lehenbizikoa, *Lágrimas de una virgen*, Tuteran eman zuen argitara 1856an, eta jaioterrian bertan giroturiko liburua dugu. Bizente Ziriza Mosori eskaini lana 400 orrialdeko liburutzarra dugu, harpideen artean bakarrik martxoaren 8tik astez aste banatu zena. Bigarren eleberrria, berriz, 1859an idatziriko *Zorayda la reina mora* dugu, non printzesa arabiar batek Nafarroako Antso VII.ari zizkion amodioez eta errege horrek Afrikan korritu ibilerak jasozten baitira. Antxorenak XIII. mendeko Rogerio Howden kronikalari ingelesaren teoriak egiten zituen bere Antso Azkarraren inguruan, aurretik, eta neurri apalago batean bazen ere, Moretek egin zuen antzera, Antso VII.a erregeak 1196an pairatu zuen eskumikazioa azaltzeko hain zuzen. Antxorenaren eleberrria ez zen bera bizi zeno karrikaratu. 1912an zegoen giro aparta aprobetxatuz, Antonio Diaz Castro eskolapioak eman zuen argitara Bartzelonako José Villalaren etxean, berauk taxutu sarrera pintxo batekin.

Larragako Munarritz

Antxorenak egin zuenaren kontrara, Pedro Lino Munarritz Velasco (1839-1919) historialari eta maisu larragarrak ez zituen gogoko Howdenen teoriak, eta hortaz, ospakizunen urte berean Nafarroako Monumentu Historiko eta Artistikoen Komisioren Buletinean agertu «*Viaje de Don Sancho al África*» artikuluan printzesaren kontua ipuin itsusi, zentzubako eta gezurrezkoa zela ahalegindu zen esaten. Horixe izan zen, gainera, Munarritzek argitara eman zuen azkenetako lana. Munarritz Velasko Argedasko maisua izan zen luzaroan, eta Monumentuen Komisioko kidea, historialaria, poeta eta pedagogiazko lan guritsuen egilea genuen.

Tafallako Mutuberria

Atanasio Mutuberria tafallarra (1865-1913) gizarte katolizismoaren aitzindaria izan zen Nafarroan. Bera izan zen, besteren artean, Tafallako Nekazaritza Aurrezki Kutxa 1902an sortu zuena, Nafarroako lehenbizikoa hain zuzen. Alderdi Integristan afiliaturik, partiduak Nafarroan zuen batzarraren kidea izan zen, baita Tafallako udalean zinegotzia ere 1906tik 1910era bitartean. Ezer gutxi da Mutuberria jaunak idatzi eta argitara eman zuena, halaz guztiz, eta bizi zelarik egokitu zitzaion 700. urteurrenaren data profitatu nahirik, *Mirando al centenario de las Navas de Tolosa* izenburuko topikoz beteriko lan tipikoa eman zuen argitara hil aitzinetik Iruñeko Aranburu baitan.

Burlatako Huitzi

Aipatu Navasko borrokaldiaren 700. urteurrena ospatu nahian, Nafarroako Diputazioak lehiaketa literario-zientifikoa antolatu zuen. Horren emaitzak hurrengo urteko Monumentuen Komisioaren Buletinean jakinarazi ziren. Hartan, lehiaketaren epaimahaiak Valentziatik jasoriko idazlan baten gaineko aipamen laburra eman zuen, Ambrosio Huitzi Miranda (1879-1973) arabista burlatarrak igorri zuena hain zuzen. Epaimahaikoek lan horren kalitatea onartzen bazuten ere, isiltasuna jaso zuen sari bakar, izan ere, eta anartean ezezagunak ziren iturri arabiarretan oinarriturik, Huitzik proposatzen zuen historiaren irakurketak guztiz baitzuen bestelakutzen ordura arte indarrean zegoena: gutxi ziren Navasera bertaratu nafarrak, are gutxiago Antso erregeak eginikakoa, eta dudarik gabe, Nafarroan gurtzen diren katebegi puskek ez dira uste dena. Huitziren lana, «*Estudio sobre la campaña de las Navas de Tolosa*», ez zen 1916ra arte argitaratu, eta orduan Valentzian agertu zen. Lehiaketaren epaimahaiaren erabakiak gogor minberatu zuen burlatarra, eta Nafarroarekin harreman akademikorik berriz ere ez edukitzea erabaki zuen. Hori ez zen naski geroago, eta frankismorik gorrienean, masoia izateaz leporaturik kartzelan eman zituen urteak bezala; alabaina, eta hori ezin da ukatu, etxean jasotzen den erdaina bezain saminik ez da inon sentitzen.

57. Maria Maeztu (1915)

1996.8.16

Salbador Madariagak ez zuen duda-muda izpirik ere hartaz:

«Maeztutarren aiko publikoa hirukoitza genuen, Ramiro, Gustavo eta Mari-
riaz osaturik zegoena hots, alabainan hiruetan burua argien zeukana arreba
izan zen».

Manuel Maeztu aita Kuban munduratu zen, nafar erroak zituen sendi aber-
rastu baten altzoan. Parisen ikasia, bertan ezagutuko zuen bere emaztea Juana
Whitney, Ingalaterrako kontsularen alaba zena hain zuzen ere. Gasteizen 1872.
ean egoitzaturik bertan sortu zitzaizkien haien bost seme-alabak, aipatu hiru
ezagunak, gehi Angela eta Migel bikote apal ahantzia -Maria 1882.ean hain
zuzen-. Mariaren bidazti akademikoa ez zen makala izan, eta magisteritza aki-
turik, filosofiari ekin zion Madrilen eta Salamancan, Ortega-Gasset eta Una-
muno hurrenez hurren irakasle izan zituela. Oraindik ere Europara aterako
zen, eta Marburgon Hermann Cohenen maisutzapean filosofia neokantiarra
ikasi zuen eta giza pedagogia berria Paul Natorpek zuzendurik, nondik bere bi
liburu ezagun hauen ontzeko beharreko juzgua atera baitzuen: *Pedagogía social*
eta *La exposición general de la filosofía de Natorp* alegia.

Europa osoa kurritzea otu zitzaion eskola onenen egoera ezberdinez jabe-
tzeko, eta bere ama alarguntsa txirotu izan zenean, Bilbon ireki zuen nesken
egoitza; ikasitakoak oro praktikan ezartzeko toki aparta izan zuen, huraxe baino
lekurik ezin aproposagoa nekez edirenen zuela. 1902.ean hiri bizkaitarreko es-
kola publiko baten zuzendaritza lanen ardura bere gain hartu zuen, irakasteko
erabide berriak erabilaraziz, hala nola izadiaren gozamina, jantoki eta koloniak,
antimemorismoa, eta abar. 1915.ean Neskaten Egoitza Internazionala sortu
zuen, Ikasleen Egoitzaren mendean, eta 1918.ean institutu-eskolaren proiektu-
tuan sartu zen, egungo bigarren hezkuntzaren aurreko zuzena izan zena. Peda-
gogia ez ezik emakumearen egoera ere aztoragarri bazuen nonbait, eta 1926.ean
Lyceum Club izeneko elkarte sortu zuen, estatu Espainiarrean mota horretako
zabaldu zen lehenengoa, eta erakusten zuen izaera feminista eta laikoarengatik
afera bat baino gehiago erakarri ziona.

Elestari apart honek hamaika hitzaldi luzatu zuen mundu osoan zehar: Ox-
ford, King's College, Paris, Bruselas, Columbia, Smith, Wellesley, Bryn-Bauer,
Buenos Aires, eta abar luzean. Hainbat munduarreko kongresutan ere hartu
zuen parte, barbarako 1920.ean Londresko Bedford Collegen eginikoan edo-
ta 1923.ean San Franciscon eginiko munduko hezkuntza batzaldian. Iruñean

1920.ean ere antolatu Euskal Ikasketen II. bilkuran lehen hezkuntzari buruzko mintzaldia eskaini zuen, Bizkaiko eskolen egoera hizpide izan gabe aipagai bederen azalerazten zuena:

«Tales han sido los defectos cometidos por el estado español: una legislación uniforme, ausente de toda originalidad, desatenta a los rasgos peculiares que las diversas regiones acusan. En medio del campo, de ese campo tan verde, tan jugoso, de tan estrecha intimidad que bordean las colinas vascas, los niños tienen que pasar todos los días seis horas en un recinto mal oliente, sin aire, sin luz, atentos a un libro cuya letra y cuyo espíritu les es extraño, oyendo del maestro unas palabras cuyo significado no entienden, sin un resquicio abierto por donde pueda entrar una chispa de emoción, ni un átomo de vida intelectual. En estas escuelas maestros y alumnos se ignoran, hace unos años que conviven, pero no se han puesto todavía en comunicación ¡Cuán estéril es el sacrificio de esos niños que recorren una distancia de dos kilómetros desde el caserío más próximo con un pedacito de pan y tocino por toda y única comida sin recibir a cambio en la escuela nada que represente el más mínimo valor!».

Curriculum luzeko emakumea, Madrilgo Unibertsitatearen irakaslea izan genuen, baita New Yorkeko Columbia Universityn irakasle berezia ere, Smith Collegen Doctor Honoris Causa, Mexikoko Unibertsitatean ohorezko irakaslea, edota Amerikako Hispanic Society delakoaren kidea. Maila akademikoa alde batera utzirik, kulturarako kontseilu nazionalaren kide, irakaskuntza publikoaren kontseilari, hezkuntza berrikuntzetarako batzordeburu edota hezkuntza eta irakaskuntza sailkide ere aritu zen. Alabaina 1936.eko gerratea zela bide Buenos Aires aldera jo behar izan zuen, bertako unibertsitatean irakasle zirauela, 1948.eko urtarrilaren zazpian Mar del Platan zendu zen artean. Argentinan ere lan idatziren bat karrikaratu zuen, besteak beste, 1939.eko *La enseñanza de la moral* edo 1941.eko *Historia de la cultura europea* lan gotorra. Zernahi ere gorpua ez zen itsasoz bestaldean geratuko, eta ahal bezain fite Euskal Herriratu zuten, Gustavo anaia margolariak bizitoki berria zuen Lizarran hilobiratua izateko.

58. Arakil-Hiriberriko lokia (1917-1986, 1917-1980)

2000.11.24

Lehengo garaietako giroa faltan botatzen dutenak badira ere, gutxi dira jendaurrean huraxe zintzoki onartzera ausartzen direnak. Badira euskarari aihur eta politika sozialari herra itsua diotenak, alabaina egun eramaten denaren arabera gutxi dira lehenaldiarekin bat egiten dutenak ere.

Francisco Francoren heriotzaren mende laurdena betetzen den aste honetan, eta non edo non agertu den eskelaren bat kenduta, kazetetako gehigarri berezietan gutxi izan dira altxamendu faxista eta osteko diktadura ontzat eman dutenak. Bejondeigula beraz, jada ez da frankistarik geratzen gurean. Jakin badakigu, ordea, izan bazirela, euskaldunak ere bai eta ez gutxi gainera. Horrelakoak izan ziren, hain zuzen ere, Arakil-Hiriberriko bi seme, Etxeberria eta Medrano adinkideak hain zuzen ere.

Bitxi baino bitxiago gertatzen da huraxe, duda-mudarik gabe, bereziki 36ko gerra aurretiko giro euskaldunari erreparatzen badiogu. Euskal Esnalea elkarteak 1909an sortu aitzin egin ziren bilkuretara Hiriberriko erretorea zen Arratibel bertaratu zen. Hain zuzen ere, ezaguna da 1907ko apirilaren lehenbiziko egunean Donostian egin zen bileran Arratibelek hitz egin zuela zera eskatzeko: «*que se den instrucciones al clero para que coopere a la obra de conservación y propagación del idioma*». Urte batzuk beranduxeago, 1914an hain zuzen, Zugarramurditik Hiriberriko apez etorri berria zen Blas Aierra Indak *Euscaldun guratsoen arguiya* euskarazko dotrina eman zuen argitara Iruñean. Apez bera izan zen Euskararen Adiskideek 1927an Hiriberrin ospatu zuten euskal jaiaren antolatzaile jardun zuena. Nolanahi ere den, 36ko horditze faxistak beste izen batzuk ere bazizkigun ekarri, orain aipatuko ditugunak kasurako.

Mario Etxeberria Lopez de Zubiria 1917ko urtarrilaren 19an jaio zen. *Arriba España* egunkariko kazetaria izan zen sortu zen une beretik 1955era arte. Ondoren ere, eta kazetaritza largatzeke, *Hoja del Lunes*, *Diario de Navarra* eta *Norte Expres* egunkarietan idatzi zuen, eta sona pixka bat hartu zuen hartu igandetan Conde Calixto gaitzizenarekin ateratzen zituen kronika umoretsuei esker. Jubilatuta ostean, Iruñean zendu zen 1986ko maiatzaren 31n. Egundako aunitzendako ezezaguna badateke ere, frankismo garaian Nafarroan egiten zen kazetaritza kanonikoa eta ofiziala kontrolatu eta aipatzen zutenekin batera zegoen. Trantsizio garaian, orduko beste hainbat politikaririk, kazetaririk, kultur gizonetik eta abarrek egin zutenaren antzera, ongixko jakin izan zuen jakin demokraziak eskatzen zuen egoera berrira egokitzen, eta esan bezala, 1986an hil

bazen ere, lau urte beranduago, hau da, 1990ean Nafarroako Aurrezki Kutxak atera zuen *Gran Enciclopedia de Navarra* entziklopedia markisatu eta zuzenduan berean zenbait sarrera izan zituen.

Aipatu bigarren hiriberritarrengana hurbil gaitezen segituan. Domingo Medrano Balda 1917ko abenduaren 16an jaio zen. Kasualki Medranoren gaineko informazioa *GEN*-n dago eskuragarri, Etxeberriak berak egina. Lehenbiziko ikasketak Hiriberriko maisua zen Agustin Garcia Bordelekin egin ostean, Portugalgo Curia hirian josulagunek duten ikastetxean burutu zuen batxilergoa. 36ko gerratea hasi zenean bera izan zen *La Voz de Navarra* egunkari jeltzalearen egoitzan *Arriba España* sortu zutenetako bat. Bertan erredaktore eta takigrafo moduan lan egin zuen 1942an zuzenbidean lizentziatu arteraino. Orduz geroz, garrantzi handiagoko karguak izan zituen harik eta Delegación Nacional de Prensa del Movimiento ordezkartzaren zuzendari izendatua izan arte; harrez geroz Madrilan segituko zuen, postu berean, 1980ko apirilaren 15ean zendu zela.

Ez Etxeberriak ez Medranok ez zuten euskaraz ezertxo ere idatzi. Pentsa liteke, agian, bi idazle horien belaunaldirako euskararenak egin zuela horrezkero, baina Medrano, esate baterako, bertsolari baten semea izan zen, Kalixto Medrano, beraz euskara etxean bertan izan zuen errealitatea zeukan, errefusatu zuen errealitatea bestalde. Mario Etxeberriak Kalixto bertsolariaren berri eman zuen bere lagunari buruz *GEN*-erako ondu zuen sarreran: «*labrador y poeta vasco, de quien el padre Zabala encontró poesías y textos literarios en vascuence en Tolosa y San Sebastián*». Ezin hotzago. Alabaina Etxeberriak sobera zekien *labrador y poeta vasco* horren berri, areago Iruñean biziz eta lan eginez, *Diario de Navarra* hartan. Izan ere, 1969ko irailean *Principe de Viana* aldizkariak atera zuen euskarazko gehigarrian Kalixto Medranoren bertso batzuk argitaratu baitziren.

59. Biktoriano Juaristi gogoratzen (1920-1949)

2000.3.24

Karrikak gremiotan banatzeko ohitura, era batera edo bestera eta neurri handi batean behinik behin, Iruñean eutsi izan den ohitura dugu, eta hortxe ditugu margolariak Iturraman, idazleak Ermitagañan, musikariak Arrosadian edota sendagileak Sanduzelain. Dena dela, eta Iruñeko udalak nahi duena gorabehera, sinplismoan erortzeko beste modu bat baizik ez dugu honakoa, eta zenbaitetan, omendu nahi denaren sotiltze ikaragarria. Kasualki, gainera, estilazio prozesuan norbait galtzaile ateratzen bada, horixe, duda-mударik gabe, euskararen mundua dugu, berriz ere, eta beste baterako uzten ditugun adibide ezin argigarriago Larreko edota Manezaundi dirateke. Gaurkoan, ordea, Biktoriano Juaristi Sagartzazuren inguruan jardungo dugu, Sanduzelaiko *Doctor Juaristi* karrikari izena eman zionaz alegia. Donostiako Puyuelo karrikan jaio zen 1880ko martxoaren 6an sendi txiro baten altzoan; aita azkoitiarra eta ama donostiarra izanki, euskara izan zuen hizkuntza bakarra eskolan hasi zen arte, baita geroago ere, bere bizitzaren zenbait esparruetan behintzat. Ikasketetan bereziki gailendurik, gurasoek Gipuzkoako Institutuan matrikulatzea erabaki zuten, horretarako berebiziko esfortzu ekonomikoa egin behar izan bazuten ere, eta behin ikasketa ertainak bukatu, Valladolid aldera jo zuen medikuntza egitera. Karrera bukatutakoan, Lasarten ezagutu zuen Adriana Manini Acebedo klase oneko neska madrildarrarekin ezkondu eta Santanderreko Madrazoren sendategira joan zen mediku lanari lehenbizikoz ekiteko. Santanderren bi urte emanda, Irunera egin zuen, eta Bidasoaldeko hirian hamabost bat urte egin ondoren, Iruñera etorri zitzaigun 1919an, non Arraiza eta Canalejo lankideekin San Migelgo erietxea sortu zuen. Iruñetik jada ez zen sekularenean lekutu, ezpada Hondarribian zuen etxera eginiko lanarteko ihesaldi laburrengatik, eta medikuntza arloan animaleko lana egin ostean, bere Iruñeko etxean zendu zitzaigun 1949ko apirilaren 4an.

Barojatarren lagun hurkoa, Caro Barojak honela deskribatu zigun:

«Juaristi era guipzcoano de San Sebastián, pero tenía el aire de un mediterráneo puro, con ojos grandes, barba negra entonces, y mucho empaque, unido a cierto gusto por la befa... Tenía una versatilidad parecida en algo a la de mi tío Ricardo, y lo mismo quería operar, que pintar, que esculpir, que componer música».

Eta ez zebilen hagitz oker Caro Baroja, bada, gure Juaristi esku bete lanekin beti egoten zen pertsona baikenuen, mediku lanaz gainera, atsegingarri zituen bestelako zereginetan ere. Gaixoen artatze lanetan langile porrokatua ez ezik

medikuntzazko lan ugari ere idatzi zituen Juaristik; baten bat nabarmentzekotan, ausaz, 1921-1922ko *Manual Español de Cirugía* ikerketa gotorra aipatu beharko litzateke, etorkizuneko Euskal Unibertsitateari eskaini ziona. Horrezaz gainera, beste hamaika liburu zein artikulu atera zituen han-hemenka: *Al lado del enfermo*, *El riesgo operatorio*, *Angiomas y varices*, *Ganglios linfáticos y médula ósea...* Arte ederrekin ere lotura estua izan zuen, eta San Fernandoko akademiakidea genuen, eta hortaz ere, Nafarroako Monumentu Historiko eta Artistikoen batzordekidea. Esmalteztaketan espezialista handia izan zen, eta *Esmaltes con especial mención de los españoles* izenburuko ikerketa plazaratu zuen 1933an, baita Aralarko San Migelgo erretaularen gaineko ikerketa ere 1947ko *Principe de Viana* aldizkarian. Bide beretik, 1944ko *Las fuentes de España* lan monografikoa egin zuen. Musikazale aparta izan zen halaber, eta txeloa jotzeaz gainera, idatzi zituenetatik bi zarzuela ezagutzen dira, *La batelera* eta *La caserita*, sekula taularatu ez direnak. Literaturaren arloan ere hainbat lan utzi zizkigun intereseko. Euskal Kulturaren Batzordeak eskatuta «*Contribución de los médicos a la cultura del país*» hitzaldia eman zuen Bilbon 1920an, non Euskal Herriko hainbat konturi aipamen zuzena egin zion, euskara dela edo gai antropologikoak direla. Bost urte beranduago «*La calle del Puyuelo*» hitzaldia eman zuen Donostian Gipuzkoako Ateneoak deituta, eta bertan bere haurtzaroko pasadizoak jaso zizkigun, tartean zazpi urte zituenean gertaturikoa, hau da, etxeo eskaileren zulotik laugarren pisutik erori zenekoa. Juaristiren lehenbiziko eleberria 1928an agertu zen Donostian, *Costa de plata* izenburupean eta Victor Ivan ezizenez. *El coloquio de las edades* 1935ekoa dugu, eta urte berean *Los caminos de Navarra* eleberrri laburra eman zuen argitara. Bestalde aipagarria gertatzen da *El Bidasoa* aldizkaria 1915ean berriz ere ager zedin egin zuen lan itzela, kolaboratzaile finkoen eta emankorrenetakoa izan zela. Tamalez, Juaristik idatzi zituen guztietan erdara da nagusi, eta beste behin ere euskaraz pentsatu baina erdaraz idatzi duen idazle baten aurrean gaudela esan behar da.

60. Joxe Lekarotzen mendeurrenean (1922-1964)

2000.10.29

Aurten, eta hilabete honetan berean ere, ehun urte bete dira kazetari ahaztu hau jaio zela, berriz ere, eta ez dakit zertan ari garen pentsatzen Nafarroako euskaltzaleok, oraino inolako ospakizunik ez eta aipamenik egiteke.

Eta ez da lehenbiziko aldia horrelako zerbeit gertatzen zaigula. Hala bagoaz majo, negar lanturu etsaiak eginiko kalteengatik, baina geure miseria guztiak agerian, etsai berarendako ezin trufagarriago. Joxe Lekarotz Goñik ez du sarre-rarik Caja de Ahorros de Navarrak duela hamar bat urte karrikatutako *Gran Enciclopedia de Navarra* hartan, espero daitekeen bezala bestalde; alta, *Euskaldunon Egunkaria*-k berak orain dela bost bat urte banatu Harluxeten *Euskal Hiztegi Entziklopedikoa* haren dagokion faszikuluak ere ez dakar Lekarotzen sarrerarik, neure aztoragarriako bederik ere! Bai badakartela Estornestarren Auñamendikoek beren *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco* ez hain berrian, ausaz, Lekarotz bera argitaletxe horren saltzaile ibili zelako bizitzaren azken urteetan beharrak eraginda. Alabaina, eta arrazoiak arrazoi, bazekarten, zaharragoa izanik ere. Norkbederak atera ditzala kontuak gero!

Joxe Lekarotz Goñi Lesakan jaio zen, 1900eko irailaren 4an. Gazte zeneko berririk ez dugu; jakin badakigu, ordea, gazterik gazte hasia zela kazetagitza jeltzalean enantzoko langile, idazlari ez eze zuzendaritza lanetan ere finki. Ardura gaitzeko lehenbiziko lana Iruñeko *La Voz de Navarra* eguneroko jeltzalean bete zuen 1925etik 1927ra. Nafarroako EAJren egunkari hori 1923ko martxoaren 11n atera zen estreinakoz eta 1936ko uztailaren 19ra arte iraun zuen. Hamahiru urte luzeko tarte labur hartan bederatzi izan ziren egunkariak izan zituen zuzendariak: Angel Sainz Calderon, Eladio Espartza Aginaga, gure Joxe Lekarotz, Jesus Etaio Zalduendo, Jesus Arantzadi Irujo, Alberto Lorenzo Lamas, Migel Espartza, Migel Reta Bidegain eta Jose Agerre Santesteban. Lekarotzen aitzinetik argitalpenaren lema gobernatu zuen Eladio Espartza ere lesakarra genuen, 1888ko otsailaren 18an jaioa. Apezgaitegian hamar bat urte xahutu ostean, sorterriko idazkaritza bere egin zuen. Horixe izan bide zen arrazoa *La Voz de Navarra* largatzeko eta, nahi gabe bada ere, zuzendari lana bere herrikidearen eskuetan uzteko.

Espartza ez zen, gainera, Lekarotz bezala karneteko jeltzale garbia. *La Voz*-en baino hagitzez lehenago *Diario de Navarra*-ko kolaboratzailea izan zen, eta Lesakako idazkaritzaren ardura jada eragozpen izan gabe, 1929az geroztik egunkari horren erredakzio buru egin zuten. Garcilasorekin batera, zorioneko

Diario-tik betiere, altxamendu faxistarako giroa sortzen ahalegindu zen, eta horregatik ere, ezin gaitzake harritu 1937an berean Francok Arabako Gobernadore Zibil izendatu izana. Guztiarekin, muineko euskalduna izan genuen Espartza, eta 1941ean, Intza aitaren partez euskaltzain oso izateko eskaera egin ziotenean ez zion muzin egin ohoreari. Bestalde, eta liburu aunitzen egilea izanagatik ere, euskaraz idazlan bakarra izkiriatu zigun, egun galdurik bide dagoena, *Panpina* izenburuko antzezlan hain zuzen ere.

Joxe Lekarotz oraino 22 urte zituela sartu zen kazetari *La Voz*-eko erredakzioan. Egunkaria agertu zen urte bereko abenduan, Primo de Riveraren diktadura hasi berria zenean hain zuzen, egunkaria ixteko saioa egon zen eta zuzendariak, erredakzio buruak zein bost erredaktoreek, Espartza, Etaio, Reta, Tellez, Basail, Zierbide eta Lekarotz zaspikoteak, espetxean eman zituzten eguberriak. Lekarotzen zuzendaritza aldia ongixko abiatu zen; alabaina, tailerretako langileekin izaniko tira-birengatik dimititu behar izan zuen 1927ko abuztuan, egunkariak 12 egunetan karrikara gabe egin ostean. Egun mikatza huraxe Lekarotzendako, duda-mudarik gabe; halarik ere, hura ez zen nahikoa izan gure kazetaria etsitzeko, eta Donostiara aldatuz, jeltzaleek hantxe zuten *El Día* egunkariko erredakzioan sartu zitzaigun berriz ere kazetari soila harik eta Jabier Landabururen ondotik 1931n egunkari horren zuzendari egin zuten arte.

Lanpostu hartan sendo iraun zuen, baita iraunen ere 36ko gerrarengatik izan ez balitz, bada, Iruñean *La Voz*-ekin gertatu antzera, Donostiako *El Día* gatazka hasi orduko itxi baitzen. Bilbora joakiz, *Euzkadi* egunkariko zuzendari tekniko jardun zuen orduan, eta gudaldi bete-betean ere, Euzko Jaurlaritzaren Kultur Kontseilari izendatu zuten 1938ko azaroaren 11n. Gerratea amaiturik, Gurseko eremuan izan zen; behin atxiloturik alemanen eskuetan jarri, baita horiek frankistei eman ere. Nola edo hala militarri epaitua, heriotza zigorra lehenbizi eta biziarteko katearekin kondenatu zuten, bete egin ez zuen zigorra, 1958an aske utzi baitzuten kale gorrian, kazetaritza lanik ez egiteko debeku larriarekin eskuan. Ordudanik, sortu berria zen Auñamendi argitaletxeko etxez etxeko saltzailea izan zen, Donostian 1964ko azaroaren 2an zendu zen arte. Egun Lesakan dugu ehortzirik, geure omenaldiaren zain.

61. Amaiurko gaztelu baltzarena Navascuesen bihotz-begietan (1923)

1998.4.10

Ez dira amatatzen Espainiako kultura ministroak giza gaien inguruan irakaskuntza-erreformarako proposatutakoak gurean iziotu dituen suteak, eta oso oker ez banago, ez dira itzaliko, gizalegez dagokigun eskubidea onartzen ez zaiguno, areago nafarrei, tamalez, eta lurrikara politikoren bat ez agitzekotan, oraingoz bederen, hagitz aisa aurreikusten ez dena. Baina ez dezala inork pentsa, huraxe dela gaur goizeko kontu hutsala, bazterrak arrotzera etorri diren lau erretxinen kezka, arazoa atze-atzetik baitator, nafarrok geure lurraren jabetasuna galdu genuenetik bederen. Konkistaren kronikei so egitea baizik ez da egin behar, betiko erdal testuliburuetan zorioneko «*anexión-incorporación*» horri erreparatzeko alegia. Hainbatetan, gaztelarren etxera mesedez eskatuta sartu ginelako ustea geratzen zait niri, hain da tematia Madrildik datorren leloa, hain da setatia espainiarren tilili-talala, nola gaupasa egin eta gero dantzaldiaren musika-litsak ozen irauarazten zaizkidan tai gabe barne-barneko burmuinetan.

Lelo aspergarri hura isilarazten ahalegindu zirenetakoa genuen Pedro Navascues Alarcon, tuterar xaloa. Amaiurren izan zen 1920.eko uztailaren 22an, gazteluaren muinoan altxatu behar zen oroitarriaren lehenbiziko harria jartzearen kariaz egin ziren ospakizunetan; hantxe entzun ahal izan zituen Nafarroako Aldundiko buruordea zen Lorenzo Orozen mintzaldia, hala nola Amaiurko erretoreak nahiz Intzako Damasok euskaraz taxuturiko bereak. Eta Amaiurren ere izan zen, 1922.eko ekainaren 30ean oroitarria inauguratu zeneko festan. Bitarte hartan, 1921.ean, «*Sobre la defensa de Amayur*» artikulua agerrarazi zuen *Boletín de la Comisión de Monumentos de Navarra* aldizkarian, geroxeago *¡Amayur! Los últimos navarros* izenburupean agertuko zuen liburuaren hazia izan zena. Azken hori, Arturo Campionen hitzaurre batekin, 1923.ean eman zuen argitara Iruñeko Beskansaren alargunaren etxean, Migel Orreagako ezizenarekin, oraino hemeretzi urte zituela, eta artxibategietako hauts zakarrak plazer handiz arnastu ostean. Geure benetako historian oinarriturik bi artikulua gehiago atera zituen aipatu aldizkarian, «*Documentos inéditos*» 1923.ean, eta «*La gesta de Roncesvalles*» 1924.ean. Navascuesek, ordea, ezin izan zuen ezagutu Amaiurko oroitarriaren kontra 1931.ean egin eraso, ordurako, tamalez, hila baitzen, tuberkulosiak jota. Bere jaioterrian zendu zen, Antso Azkarra bezala, 1925. urteko azken egunean. Jada Campionek haren osasun eskasaren berria jaso zuen, etsaiek erasotzeko erabili bide zuten argumentua:

«No atino con el linaje de proporción que guarde la miseria fisiológica con la índole de las cuestiones esta temporada debatidas (...) Ciertamente, Miguel de Orreaga no es el Hércules Farnesio, más la expresión de sus ojos, la viveza de sus movimientos, el vigor de su voluntad, su resistencia maravillosa para los trabajos intelectuales, el curso ordinariamente apacible de su salud, no son signos, tampoco, de decaimiento vital».

Eta Navascuesen etsaiak ez ziratekeen gutxi. Tuterako josulagunen ikastetxean ikasi zuen, eta bertan ikasturte batez Orixe bera izan zuen irakasle. Azken horrek ondu autobiografian Navascuesen berri jaso zuen labur baina miresmenez. Harri eta zur utzi zuen Orixe Navascuesen erudizioak; buruz bazekizkien Lope, Calderón, Alarcón, Moreto eta beste egile askoren lanak, eta munduko literatura ba omen zerabilen berebiziko trebezia, bere etxeko liburutegi ederrean taxuz eta artez zaintzen zuena. Praderak bozketan porrota uztatu zuenean, Navascuesek poz zantzuak erakusteko arintasuna izan zuen, eta ikaskideek bazkaltzen zuteno, belauniko egotera zigortu zuen erretoreak; gainera, handik zebilen apez karlista batek, hantxe bertan, zaplazteko pare bi eman zizkion. Esan gabe doa, Orixe aipatu karlista hura, Praderaren beraren ezaguna zela. Agindu zigorra txikia bailitzan, igandeko bisitaldiak debekatu zizkieten mutikoari.

Kurtso bukaeran, idazketa sari bat eman zion Orixe, baina errektoreak sari banaketan berean kendu zion ikastetxe guziaren aurrean. Literaturan ez ezik, fisika eta psikologian ere lehen sariak irabazi zituen, baina errektoreak, aurrekoan bezala, sari horiek guztiak kendu zizkion. Arrazoia, nonbait, psikologia irakasleak klaseko lan batean kopiatzen harrapatu zuela, azterketan inolaz ere baina. Horren ondorioz sariak kendu eta noten agirietan *y* eta *o* hizkiak agerrarazi zizkieten, josulagunen orduko irakaskuntza sisteman arras txarrak zirenak, nonbait. Horrez gain, jolastorduetan ikasgelan geratu beharra zeukan, ikastetxeko arautegiaren araurik luzeena hamabost aldiz osorik kopiatu bitartean. Ez zuen ongi bukatu gure Navascuesek, bistan dena. Errektoreak zion destaina hain zen neurrigabekoa, ezen eroa deitzen zuen izen. Tuterako ikastetxean batxilergoa bost urtetan egin ostean egotzi zuten, eta Bergarako domingotarrene-ra joan behar izan zuen. Hantxe bikain atera zuen asignatura guzietan, bakar batean izan ezik. Nafarzaletasunean bederen, ez zen izanen.

62. Euskal dantzaren egungo bi bidaialariren testigantza (1926, 1934)

1997.5.30

Waldo Frank estatubatuarrak 1924.ean Penintsulan egin bidaztiaren berri *Virgin Spain* izenburupeko liburuan eskaini zigun 1926.ean. Arestikoa da espainierara egin iraulketa, 1989.ekoa, eta jatorrizko testuak hobetsi ohi badi-tugu ere, egilearen lagun mina zen Alfonso Reyesek ondu sarrerak eskaintzen dizkigun datu elirengatik ordea intereseko edizioa agitzen zaigu. Euskaldunon berri kapitulu bakarrean eman zuen, eta, apika, tonu erromantikoez: «*Chapter XII: The comedy of basques*». Gure dantzen deskribapen hagitz pertsonala egin zuen, errealitatek gehiegi hastantzen ez litzatekeena:

«Gabean tabernaz inguraturiko plazan elkartzen dira, eta zaharrek edaten duten bitartean, gazteek dantzatzen dute. Dantza ariketa goxoa da, ibilkeratik eta mintzotik arras hurbil legokeena».

Zenbait aldaien deiturak jasotzerakoan ordea euskararen fonetikak zora-biatzen bide zuen: «agura, contapas, anarxuma, zaspi, trititzka, soka, aguru-ku, taladera»; alabaina, ez du batere zalantzarik koreografiek gordetzen duten esangura zaharra deszifratzerakoan, bere aburuz, euskal dantzegiaren ardatza baserriaren bizitzaren idurikapen estilizatua litzatekeelakoz besterik gabe.

Arras ezaguna dakiguke honezkero Biblia protestante banatzailea zen George Borrow bidaialari ingelesaren profila. Pio Barojak ere haren idazki zoroak irakurri zituen gazetetan, baita hain ezezaguna gerta daitekeen *Lavengro* izenburuko autobiografia ere, eta, besterik ez zitekeenez izan, zozotzat jo zuen XIX. mendeko misiolari berezia. Horrela pentsatzeagatik ere, bere idazkietarako erabili zuen pertsonaia izan zen, *Mayorazgo de Labraz* eleberrian aski argi igarri daitekeenez. Ez dakigu zozotzat ere jo zuenetz, baina Borrowekin hertsiki parekatzeko gaztel idazle donostiarrak ez bide zeukan zalantza handiegirik, pertsonalki elkar ezagutzen zuten arren. Walter Starkiez ari gara naski, Dublingo unibertsitatean espainiera irakaslea genuena. Hispanista ona eta espainierazko klasikoen itzultzaile aparta, erromantizismo kutsu nabarmena zerion alde guzietarik, ijitoenganako zeukan miresmenitsuak neurri batean erakusten zigunez. Menéndez Pidalen *Poesía juglaresca y juglares* izenburuko liburuaren irakurketak erabat txunditurik, Erdi Aroko musikari koblakari ibilkari, penintsulako bazterrak harrotu zituen eskale. Bizitakoak txirikordatuz, *Spanish raggie-taggle: adventures with a fiddle in north Spain* izenburua daroan liburua agerrarazi zuen Londresen 1934.ean. Edozelan ere, Starkiendako horixe ez zen

gauza erabat berria, izan ere, aurretik ekialdeko Europan antzeko bidaiarik egi-
na baitzuen, *Raggle-taggle: adventures with a fiddle in Hungary and Roumania*
1933.eko idazkia frogagarri. Arrabita-jole dublindarra Euskal Herrian ere aritu
zen, Ordizian hain zuzen ere, Lucas izeneko ijitoak lagundurik. Herriko plazan
lanean bakarrik ziharduela, Lucas azaldu zitzaion: «*Lachés chibesés brother*», ro-
mani-english dateke honakoa, «*you have arrived just in time for the chibe-baró*».
Laburbilduz, festak ziren:

«*The basque puts much more energy into his fiesta that we do into our merry-
making. He puts every ounce of energy into his holiday amusements. He runs races,
he climbs greased poles for a prize, he watches bull-fights, he plays pelota, and he
dances acrobatically*».

Eta dantzek, bereziki dantzek, aztitu zuten irlandarra, arreta osoa ebatsiz,
berdin soka dantzak:

«*The auresku is surely far more than a mere dance, it is the national symbol
of the basque race*»,

edota ezpata-dantzak:

«*I had expected to witness a performance similar to the brawny scottish sword
-dance*»,

edo baita zortzikoak ere:

«*The zortziko is the most restrained dance i have ever seen, for the performer
only moves his feets, and his arms remain limp by his side*».

Hainbat urteren buruan, gerratea bukatu-rik, Dublingo irakaslea Done Ja-
kueko bideari lotu zitzaion, *The road to Santiago* 1957.eko idazkian jaso zuen
legez. Hartan ere Euskal Herriari buruzko zenbait zertzelada zizelkatu zituen
«*Basque witches*» goiburupean. Ohiko bidean zegoela, Iruñeraturik, lagun gi-
putz aunitzen gonbita jaso zuen Nafarroatik aldentzeko:

«*And follow the basque jacobean road by Irun, Hernani, Billabona, Tolosa,
Villafranca, Zaldueño, Salvatierra, Vitoria, Miranda, Pancorbo, Briviesca and
so on to Burgos*».

Tentaldia ezin saihesturik, Iruñetik Hondarribira abiatu zen:

«*My short visit to Fuenterrabia coincided with a characteristic basque minstrel
gathering given by a farmer*».

Festa txiki hori akordeoilari eta saxofoi-jole bikote batek alaitu zuen, baita
bertsolari batek ere:

«After more music from the accordion and saxophone a young bertsulari or poet improvised verses in my honour and sang cradle-songs in basque».

Alabaina, gauza horiek ez dira oraingoan Starkie milikatzen dutenak, eta sorginkeriei nahiz aztikeriei buruz galdatzen hasi zitzaien gonbita luzatu ziotenei. Hernia sendatzeko ohitura zaharra argitu zioten:

«One of them must take the child in his arms, and as the clock strikes twelve he must say: Juanek uztan zaitu, as he passes the child to the other John, who must immediately reply: Juanek artzen zaitu, as he receives him in his arms»,

baita bileran zegoen Ataungo bati jazoriko istorio bitxia ere, ezertan gure gizona harritu ez zuena:

«I was not surprised to hear that Nemesio came from Ataun. When I had visited the neighbouring village of Ezkioga where people had seen visions, I met a visionary from Ataun who assured me solemnly that he had seen the Devil in person. He was a tall figure dressed in black with red hair and long teeth like a wolf».

63. Jose Maria Estefania Zabala (1932)

1999.7.30

Lasterrera hamar bat urterako doa Patxi Altuna euskaltzainak fraidekidea zuen Estefania aitaz izkiriatu eta apailatu zuen lana agertu zela; alta, bigarren lerroko eragile izanki, euskaraz ezer gutxi utzi zigula, nahikoa oharkabean igaro zaigu; bihoa honakoa huts horren artatzera. Estefania aita 1889.eko urriaren 28an sortu zen Bilbon. Aitak Adan de Yarza ber hiriko sendi ahaldunaren ondasunen kudeatzaile egiten zuen lan. Batxilergoa bukaturik, eta Enrike bere anaiaren urratsei jarraikiz, zuzenbide ikasketak hasi zituen Deustuko Unibertsitatean; alabaina, 1906/1907 ikasturtearen amaieran, ekainaren 14an hain zuzen ere, Loiolako fraidetxe handian azaldu zen josulaguna nahi zuelako. Josulagungi eginiko lehenbiziko bi urteetan Orixe bera izan zuen etxekideen artean, eta harekin zeuden bestelako euskaldunek ere kitzikaturik, nonbait, euskara ikasteari ekin zion orduz geroz. Fraidegaiko bidaztiak, haatik, Loiolatik eta Euskal Herritik hastandu zuen gehien batez: Burgos, Oña, Gijón, Urduña –hor lehenbiziko lehendakaria izanen zen Jose Antonio Agirre bera izan zuen literatura ikasle 1918/1919 ikasturtean-, eta azkenik, teologia ikasketak borobiltzeko, Holandako Valkenburgera igorri zuten ordena buruek 1921.ean.

Apez eta josulagun oso iritsi zen Europatik Estefania aita 1924.ean, eta bere gain utzi zuten lehenengo ardua Loiolan bete behar izan zuen, literatura eta latin katedratiko moduan. Urte haietan berekin ikasi zutenen artean Ibina-gabeitia, Zaitegi edota Lauaxeta zeuden, halaz guztiz, harrobi ederra zatekeenak labur iraun zuen, 1932.era arte, bada, urte hartan eta errepublikaren arau berriek eramanda, Belgikako Tournai hirian kokatu baitzuten bizitoki berria Loiolako josulagunek. Gerrarekin, ordea, eta penintsulatik urruti egonagatik ere, egoera geroz eta makurtzenago zen euskara zela eta, hortaz, eta beste askori agitu antzera, Estefania aitak ere Amerikaratzeko agindua jaso zuen 1937.eko udagorian, eta Nikaraguara joanik, San Salvadorreko ikastetxean arizan zen literatura irakasle, ohiko moduan, 1942.eko urtarrilaren 10ean bertan zendu zen arte.

Gazte hil zen Estefania aita, gazteegi; alabaina horrek ez zion galarazi euskal kulturari pisuzkoak izan diren eta diren hainbaten maisuarena egin izana. Fraidegai zegoela aipatua dugu Orixeren kide izan zela, baita Loiolaniko garaian euskal idazle handien irakasle ere jardun zuela. Nikaraguan zegoela, Zaitegi-rengandik hurbil izan zen, eta aurretik ere Lizardi ezagutzeko parada izan zuen, Orixeren eskutik.

Olerkaria zen Estefania; batxilergoa egiten ari zela, Ramon Basterra olerkari bilbotarra lagun gaztea zuen, eta biek asteen behin bisitatu ohi zuten Frantzisko Iturribarria apez olerkaria. Burgosko nobiziaduan zegoela jada, kalitatezko olerkiak idatzi zituen, gaztelaniaz, baita ariketa moduan latinezko batzuk ere. Jada esana geratu den legez, literatura irakasle jardun zuen Estefaniak irakasle bizitza zinez labor osoan; arras ongi ezagutzen zituen literatura nagusietako egilerik nabarmenenak, eta bereziki alemanezko idazgintza zuen gustuko eta ezagun; alabaina, eta beste modu batean izan ezin zitekeenez, bazterreko gaintzoko literaturak ere irakasgai izan zituen, tartean euskararena, eta, nola ez, Kataluniakoa zein Mistralengan Nobel labelduna zen Okzitaniakoa.

Ez zuen euskaraz idatzi Estefania aitak, taxutu zituen lerro gutxiko hiruzpalau ahapaldi ez badira; Tournayn 1932.ean zegoela, «Egunabarra» izenburua duen olerki eskastua egin zigun:

«Odei atzetik argiak dir-dir dago bigun
Ludi zabala ordea, ixil dago ta ilun
Biotz barruan olaxe, datza gogoa itun
Beti argiaz ameska eta argitik urrun».

Aurrerago ere, eta Valkenburgetik honela ziotsan bere aitari:

«Erbestetik zure egunean
Txoritxu bat lez egazka
Nere au zure seme-biotza
Aita! Or doa zuegana».

Lerrotako euskara ez zaigu arrotz, eta Lizardi lagunak zerabilen antzerakoa dugu, euskal olerkari handien ezpal berekoa. Numeroen aitzakiaz, euskal literaturan oraino sargarri gertatu ez bada ere, ez da zalantzarik gure Estefaniaren ekarpena nabarmengarri oso badela, olerkari handiengan izan zuen eraginaren gatik bakarrik ezpada ere.

64. Tiebasen errotu olerkari baten inguruan (1940-1962)

1999.12.10

Hiru urtera doa Roldan Jimeno Aranguren historialariak Maximo Ortabereren hainbat olerkiri sarrera azalgarria jarritz, eta Tiebasko olerkari hau jaio zeneko mendeurrena ospatzeko aitzakia, Tiebasko Gazteluaren liburua argitara eman zigula; Ortabereren bertsoen gisara, lan apala dugu, bere xumean baina, oparo eta egiazkoa.

Maximo Ortabe Armendariz 1897.eko azaroaren 20an Untzuen jaio bazen ere, Tiebasera aldatu zuten gutxira Eloko eta Induraingo zituen gurasoek. Lehen ikasketak Tiebasen bertan amaituta, Larreako karmeldarren nobiziduan sartu zen 1914.eko abuztuan, bertan zazpi bat urte higatu zituela 1921. ean bizitza erlijiosoa erabat largatu aitzin. Behin Iruñeraturik, eta hiriko hainbat lantegietatik pasatuz gero, Ardanaz drogeriara arribatu zen 1925.ean, bertako kontuen arduradun jardun zuela 1962.eko otsailaren 10ean zendu zen arte. Iruñean lurperatu zuten arren, egun Untzueko hilerrian datza hilobiraturik, bere bost liburuak idurikatzen dituzten hilarri baten azpian, Alfredo Sada eskultoreak egina.

Joan zaigun Iruñea hartan kokaturik, orduko saltsa guztietako perrexila izan genuen Ortabe: Herriaren Lagunen elkartekidea, hiriko aste santua more eta isil oraino goibeltzen duten mozorroen elkartearen idazkaria, Iruñeko Orfeoiko kantaria... eta bere garaiko giro literarioan sartua erabat. Gerra aurretik *La Tradición Navarra* egunkariko kolaboratzailea zein zuzendaria izan zen. Estafeta karrikako egunkari katoliko hori alderdi integristak sortu zuen 1893.ean, eta nahiz inork gutxik irakurtzen ez zuen, alderdi integristak berrogei urtetan mantendu zuen, mila ale baino gehiagoko jaulkipena ez zuen egunkaria integristei arras garestia ez zitzaielako; nolana ere errepublika garaian desagertu zen, joera bertasukoa zen *El Pensamiento Navarro*-k 1932.ean fagozaturik.

Gerra ostean, berriz, *Biblioteca Católico-Propagandística* erakundearen argitalpenean jarraitu zuen idazten, hau da, eskutruk banatzen zelako 25 000 aleko jaulkipen zabala zuen *La Avalancha* aldizkarian alegia. *Pregón* aldizkarian ere agertu ziren Ortabereren bertsoak, bai *Marzo* izeneko 1940-1941.eko lehenbiziko aleetan, bai geroagoko *Pregón*-etan ere. Ortabereren bertsoak aterpetu zituzten beste bi aldizkari oharkabeen igaro zitzaizkigun *Arga* eta *Vida Navarra* izan ziren. Bestalde, Iruñeko Prentsa Elkarteak 1940.az geroz argitara eman zuen *La Hoja del Lunes* informazio astekarian, hau da, 1936.az geroz *Hoja Oficial de Navarra* zen hartan, «*Fruslerías*» izeneko saila idazten zuen Jacinto

ezizenaren azpian. Horretan 1958.eko abuztuaren 18an Hiroshima eta Nagasaki hirien aurkako bonbardaketaren 13. urteurrena zela-eta atera zituen olerki kaskar batzuegatik Prentsa Elkartearen lehendakariak debekatu zion egunkari haren zuzendariari Ortabereren bertso gehiago argitara ematea, bada, nahiz asmo bakezaleekin, Ortabek amerikarren aurka esandako hitzak batera ez baitzetozen Francoren gobernamentuak Estatu Batuekiko erakutsi jarrerarekin, tartean Marshall plangintza bera ere zegoela.

Ortabek argitara eman zuen lehenbiziko olerki liburua 1946.ean agertu zen Apezpikuteagiko inprimategitik: *En el castillo de Tiebas*. Autoedizioa izanik, 5000 pezeta pagatu behar izan zuen Ortabek bere olerkiak karrikan ikusi ahal izateko, alabaina, badirudi nahikoa ongi saldu zela, bada, agertu zen urte berean edizioaren bi herenak saldurik baitzituen, baita lagun zituen hainbat idazleri opariturik ere. Olerki haietan Ortabek Tiebasko gazteluari zion maitasuna aski agerian utzi zuen, baita eraikin zaharrak erakusten zuen egoerak sortarazten zion samina ere, izan ere, urte bertsuetan Oliteko jauregia konponetzen ari ziren bitartean, Tiebasko gazteluak bere hondamendian aguro zerraien. Tiebasko gazteluaren erabateko galera konponbidean ezartzeko edo, Oliteko jauregiaren zaharberritzeaz arduratu zen Jose Yarnoz arkitektoari eta Aldundiko lehendakariorde zegoen Rodeznoko kondeari berari idatzi zien Ortabek bere kezka azaltzeko, alferrik baina. Ortabereren olerkiekin batera, Miguel Ancil historialari afizionatuak taxutu Tiebasko eta Artaxoako historiak zeuden -Ancilek Zangotzako historia bat agertu zuen 1931.ean-, baita A. Rodriguez Ginesen marrazkiak eta Nicolas Ardanazen argazkiak ere. Orduko kritikak arras onak izan ziren, ausaz bihozberegiak, eta nabarmen oso gertatzen da Ortabereren lana epaitu edo errezeztionatu zuten gehienak hurbileko pertsonak zirela: Juan Jaso -*Pensamiento Navarro*-n-, Luis Monreal -*Hoja del Lunes*-en-, Baldomero Baron olerkaria, Felipe Gomez -*Arga*-n-, edota Ancil bera.

Tiebasko gazteluari eskaini bertsoek ekarri zioten ospearen ondotik, Ortabek *Jalones del camino* eta *En la penumbra del santuario* bertsoetegiak agertu zituen Iruñeko Iberia argitaletxearekin 1948.ean, berak deituko zituen *Obras completas*-en II. eta III. aleak zirenak. Bide horretatik, IV. alea 1952.ean Iruñean ere agertu; *Navarra vuelve!* liburua izan genuen. V. alea izango zen *Cantares del buen querer*, alabaina, karrikaratu gabe geratu zitzaion, eta egun, idatzi zituen beste olerkiekin batera, esaterako *Visión de un mártir* edo *Santa Felicia*, bere jaraunleak diren Perez-Izquierdotarren eskuetan segitzen du.

65. Nafar bibliografiaren inguruan (1947, 1963)

1998.5.22

Tuteratik heldu zitzaigun Erriberako beste saiakera bibliografiko bat, Jose Ramon Castro Alava medikuak ondu ziguna alegia, artez zizelatua, eta hiri txiker batetik eratorria izanagatik ere, edozein harri lezakeena, hain da zabala, hain da sakona, hain da maratza Ebro bazterretik aihera bezala goraki kiribiltzen zaiguna. 1933.ean atera *Ensayo de una biblioteca tudelana* litzateke hazia, baina *Autores e impresores tudelanos* liburuak aurrekoa sobera gaintu zuen. Jose Maria Cuadrado patronatuaren laguntzapean, Bianako Printzearen Era-kundeak eman zuen argitara Iruñean 1963.ean, Jose Luis Arrese korellarrak atondu sarrerarekin agertu zela:

«Asombra ver como una ciudad callada y reducida como ésta de la Ribera ha podido dar a la ciencia un abanico tan amplio de escritores. Asombra ver cómo Tudela fue centro de convivencia de los hombres habidos en las tres religiones y suma de las letras y de las artes y de las ciencias».

Geure aldetik esan ere egin behar, egun harri eta zur gaituena ez da iragan garaietako eskaintza naroa, bai ordea izan ez duen ondorengoa, eta hori diogunean, salbuespenak salbuespen, eta dauden lits urriak gutxietsi nahi barik -irakur bedi *Merindad de Tudela* aldizkaria edota *Traslapuente* olerki papera-, Nafarroako Erribera zotuka lezakeen bultzada nabarmenago baten premia herabeki aldarrikatzera ausartuko ginateke.

Jose Ramon Castro Alava Tuteran sortu zitzaigun 1895.eko abuztuaren 31n. Esan bezala, sendagilea genuen, baina ikasle ziharduela, ez zion destainarik giza ikasketen amaraunean sartzeari, eta historia Zaragozako unibertsitatean ikasirik, ezagunagoa agitu zitzaigun alor horretan bete artarengatik trenputxartuak sendatzeagatik baino. Hari zor diogu nafar artxibategiko katalogoen argitaratzea, Idoatek bukatu zuen lana, eta Nafarroako artxibo burua zela eginikoa. Lan ugariren egilea, aipagarriak litezke biografiaren arloan taxutu zituenak: Yanguas Miranda, Juan Antonio Fernandez, Diaz Bravo, Nafarroako Karlos III.a... betiere, bibliografiaren harian topatutako berrietan oinarriturik. Bera ere, neurri handi batean, betetzen ari zen lanaren garrantziaz jabeturik geneukan:

«Aporto así mi grano de arena a la plausible labor que, para dar a conocer la bibliografía navarra, realizaron Altadill y Arigita, y que a la sazón se está completando con la magna obra del benemérito P. Pérez Goyena».

66. Jose Joakin Montoro Sagasti (1951-1955)

1997.7.18

Iruñean sortua eta zendua izan arren, Jose Joakin Montoro Sagasti legezina tuterartzat hartu beharrean gaude. 1898.eko martxoaren 29an jaio zen Nafarroako hiriburuan, eta Erriberan zituen askaziengana abiatu, bertan ikasi zuen lagundiaren ikastetxean Madrilera joan artino bederen, non zuzenbidea burutu zuen. Filosofia ere ikasi zuen, Salamancan baina. Abokatua izanik, Iruñean nahiz Tuteran irekiak zituen bulegoak, eta zuzenbidez taxutu zituen bere lehenbiziko idazkiak: *Recopilación de las ordenanzas de las Bardenas de Navarra desde las primeras hasta las de 1915* -Tuteran 1926.ean-, *Demanda solicitando la participación de las Bardenas Reales de Navarra* -Iruñean 1926.ean-, *Compilación de los amojonamientos, apeos, y deslindes de las Bardenas Reales de Navarra con los términos de los pueblos limítrofes a las mismas* -Tuteran eta Iruñean 1926.ean-, *La propiedad privada y la comunal en la ciudad de Olite y la propiedad comunal en la villa de Falces* -Iruñean, 1929.ean-. Principe de Viana erakundearen aldizkako argitalpenean ere ekarpenen bat izan zuen -»*Restos cerámicos de los siglos XIII y XIV en el castillo de Tudela*», 1946.ean-.

Alabaina, gehien interesatzen zaigun Montororen langintza literarioa ez da ogibideari hurbiletik jarraitzen diona, baizik eta horretatik larregi hastanduz, Tuterako historia urruna berreskuratzeko ahaleginetan largatu ziguna. Horrela bada, 1964.ean, Iruñeko Herriaren Lagunen Elkarteak aitzinaturik, *Pequeña historia islami de la Ribera de Navarra* izenburuko kaiera ondu zuen, non Erriberako historia arabiarra ematen baitzigun 714-1119. urte bitarteko bost epe-tan barrena. Aurretik ere, Santa Anako festak zirela eta, Erriberako hiriburuan argitaratzen zen udal fanzinean genuen Montoro kolaboratzaile finkoak zirenen artean, izen hantuko sinadurekin batera, Jose Maria Iribarren batena, besteak beste, aipatzearren. Gure Montoro Sagastik ere bere koloretako arkatzak dantzarazi zituen orrialde haietan, eta arabiar kutsuko hainbat idazki opari zigun, marrazki eta guzti, Ipar Afrikako artea nahiz Aragoiko tankera mudejarra oinarri harturik. Nonbait festetako urtekarian agerturikoen bilduma agerrarazteko asmotan ibili zen Montoro, *Algaraibis Tutilis* goiburupean, baina tamalez ez zen horrela gertatu, gutxi izan baitziren kaleratutakoak bide, edota apika, koloreen zein tipografia bereziaren kariaz, edizio garestiegia suertatuko litzaiokeelako. Edozein modutan ere, agertu zirenen zerrenda kamutsa jarraianiko honakoa genuke. 1951.eko zenbakian, izenburu luzanga zeraman «*Así habló Abu-Omayya, juntero de la Medina de Tudela, a Inn-Hayyan, célebre historiador del Islam, sobre*

el desagradable encuentro que hubieron los vecinos de Tudela con 500 hombres de los 6.000 de la escolta con la que el conde de Castilla D. Sancho García atravesaba el término jurisdiccional de la ciudad camino de Zaragoza». Hurrengo 1952. urteko alekian gai zinez guritsua ekarri zigun: «*Cuándo, para qué y por quién fue fundada Tudela*», eta Montororen eleak gaingiroki bertaratuz:

«Entre los años 180 a 190 de la hégira de Mahoma fue cuando el gran paladín del califato de Córdoba, el renegado Amrus-al-Lleridi fundó la Medinat Totila en la desembocadura del Keiles con el Ebro a los 42'15 grados de longitud y 2'05 de latitud del meridiano de Magerit. La Medinat Totila fue fundada tan solo para ser el escudo del Islam en su frontera superior: Tsanguer-al-aksa. Amrus-al-Lleridi, el siempre vencedor, el que degolló al rebelde Banlul, el conquistador del feudo de los Beni-Casi, el debelador de los muladis rebeldes en la frontera superior, el de la jornada del foso de Toledo, hábil político, gran estratega, aunque trapacero y cruel, es queramos o no, nos guste o no nos guste, el padre de nuestra ciudad de Tudela. Alabemos su memoria, y que Alah blanquee su rostro en el día del juicio».

1953.eko edizioan Abuchafar-Admed-Abenhoraira-el-Tutili deitu Tuterako itsuak sortu bertsoen berri eman zuen, baita Damaskon ber urtean aurkitu kantutegiarena ere, Ali-Sami-el-Nashar irakasle egiptoarrarekin posta truke narroaren emaitzat hartu beharko genukeena, Montorok berak zioenari segituz. 1954.eko zenbakian hemeretzi ahapaldiko erromantze berezia eskaini zigun, hau da, «*De qué modo y posible manera llegaron las primeras semillas de espárragos desde Bagdad a Tudela*»:

«Y así fue cristianos como cierto día de un mayo lejano del año 800 y pico sería, teniendo en honor el kalat-Tutila, Yusuf-Ben-Amrus, brotaron mil tallos de dulce sabor en la esparraguera que por primera vez sembrara en Tudela su Wali Amrus».

Ez dadila inor tronpatu, bada, Montororen asmo historikoak aisa garaitzen zituen bere sen literario finduak:

«En Tudela de Navarra a 31 de mayo de 1954, pagándose el kilo de los de 14 kilates a ocho durazos hasta que el Wali o el Kadi ponga a ello freno o fin».

1955.ean, eta ordura arteko arabiar giroari estuki atxikirik, Al-Munim-al-Himyari Erdi Aroko geografialariak jaso ipuina ekarri zigun, «*Aldraguería de la mujer barbuda*» izenburu bitxiarekin, 1010.eko Tuteran kokaturik. 1956.eko argitalpenean «*Hubo en Tudela un santón*» iruzkina ekarri zigun, eta 1959.ean berriz «*La ceca de Tudela o el Boabdil tudelano*», Mondir-Ben-Sulaiman Tutiliko taifa-buruak 1045-1050 bitarte laburrean txanpondu sosei buruzkoa.

Festetako argitalpenerako onduez gainera Montoro Sagasti Tuterako *Navarra* astekariaren noizbehinkako kolaboratzailea izan zen. Horixe, 1932-1935

bitarteko laurtekoan argitara emaniko aldizkari independentea dugu, nahiz bulta laburreko hainbat zenbakitan «*Semanario Católico de Acción*» segida izukorra goiburupekotzat agertu. Horretan, bere izenarekin sinatu gutunetz lekot, eta betiere Cierzoko mendiak ustiatzeko tuterarrek gainontzeko erriberatarren gainetik zituzten eskubideak aldarrikatzaile, «*Kaskotazos en la kresta*» izeneko sail satirikoa eman zuen 1933.eko urriaren 2az geroztik. Ezizen ugari erabili zituen: Perroganau, Guau, Chilindron, Kas-kin, Gora ta gora... Estatutuari buruzko bozka izan zenean, astekari hori alde agertu zen -31 zbk., 1932-6-18-, eta Montoro berak ere marrazkiren batean Biotza-Ona izengoitiaz sinatu zuen -61 zbk., 1933.7.8-; baina 119. zenbakian jada Juan Español izenekoak abertzaletasunari aitzi gogorki oldartu zion 1935.ean. Montororen hizkera eztenkari, zorrotz eta ausikitzailearen eredugarri bihoa datorren pasarteak:

«Esto se toca con zambomba en una corraliza que yo sé, por un radical socialista, un republicano independiente con gafas y bigotito, y un abertzale-napar-buru baztar esquerrizarri erriber muskarizarri. Gora euskadi con aquello que decía el manifiesto: aspiramos a que el producto integro de la tierra sea para el que la cultiva»,

edota beste hau:

«A nosotros nos parece muy mal también la pena de muerte, sr. García Fresca, estamos de acuerdo con vd. Ahora bien, deseáramos saber la opinión de Vd. sobre las muertes aplicadas sin pena, por ejemplo el asesinato de Lorca y Oricain».

Marrazkilari hagitz ona genuen, Iribarren berak zerabilzkieen eite bertsukoen irudigile, eta Flores Kaperotxipik berak aipatu zuen bere *Arte vasco* liburuan. Berauk eginak dira, esaterako, Tuterako plaza berriko hormetan azulejoetan marrazturik dauden Erriberako herrietako hainbat armari. Orduko hamaika argitalpenetan agerrarazi zituen bere marrazkiak, besteak beste, Kandido Testaut Makaia *Arakok*, Iruñerriko hizkeraz taxuturiko elkarrizketa entzutetsuen egile famatu hark, idatzi *Juanito y Perico* ipuinean -Iruñean, 1925ean, zuhaitzaren eguna zela eta-, edota Fiteroko Alberto Pelairearen ekoizpenetan: *San Miguel del Aralar* antzezpenean -Iruñean, 1925.ean- eta *Antología poética* bertso bilduman -Iruñeko Piper Lehorraren Kofradiaren eskutik, 1973.ean, marrazkia 1925.ekoa bazen ere-. Euskal argitalpenetan ere bere marrazkiak ageri zituen, esaterako Blas Alegria lakuntzarrak ondu *Aña Mari* 1928.eko misiozko antzezlanean. Izan ere, Montoro, Iruñeko Eusko Ikasgaien eta Herriaren Lagunen elkartekidea, Gipuzkoako Akademia Ibiltariaren eta Tuterako Lagunen Elkartekidea baitzen. Montoro Sagastik bere azken urteak nahikoa isilean igaro zituen, eta 1976.eko maiatzaren 25ean Iruñean hil zitzaigun gorago esan bezala.

67. Iruñeko beste euskal idazle bat: Pablo Artxanko (1956-1962)

2001.1.12

Heldu den astelehenean Pablo Artxanko jaio zeneko 109. urteurrena beteiko da; euskaltzale porrokatua, mugimendu abertzaleak pasa den mendean Nafarroan izan duen pertsonaiarik aipagarrienetakoa da; 36ko gerratean Argentinara hanka egin behar izan zuen, eta handik itzuli ez zirenetakoa dugu; euskaldun berria izanki, euskal idazlea ere baguenen, Tellagorrik eta Irujok Buenos Airesen argitaratu zuten *Tierra Vasca* hartan bereziki

Artxankoren izena euskal idazleen gaineko hiru bilduma garrantzitsuetan behinik behin badugu jaso: San Martinen *Escritores euskéricos*-en, Onaindiak ondu *Euskal Literatura*-ren laugarren alekian eta Auñamendikoek beren entziklopediaren gehigarri gisa prestatu *Literatura*-ren hirugarren liburukian. Gutxi da, haatik, sarrera horietan Iruñekoaz eskaintzen zaiguna. Are zailago da, gainera, Artxankok berak eginiko euskal idazkiak topatzea. Alde batetik, zinez gutxi izan baita Artxankok izkiriaturik utzi ziguna, eta euskaraz are gutxiago, eta bestaldetik ere, zaila baita Artxankoren lanak aterpetu zituen *Tierra Vasca* aldizkaria orrikatzea.

Pablo Artxanko Zubiri, bere ezagunek Paul deitzen zutena, Iruñean jaio zen 1892ko urtarrilaren 15ean. Nekazaritza ingeniari itza ikasi ondoren, Iruñeko San Jose Plaza eta Redin pasealekuaren ondoan oraino, beste zereginetarako baina, umilki altxatzen den Nafarroako Nekazaritza Eskolan jardun zuen irakasle, hiriak ahantziago duen bigarren sekuoiaren gerizpean. Gazte-gaztetandik zuen Artxankok izena EAJn emanda. Esaterako, mugimendu jeltzaleak 20.eko hamarkadan nozitu zuen CNVren eta PNVren arteko banaketarekin bukatzeko Bergaran 1930eko azaroaren 16an egin zen batzarrera joan ziren nafarren artean Pablo Artxanko zegoen. Halaz guztiz ere, mendearen hirugarren hamarkadarekin batera EAJn berriz ere gertatu zen banaketan Artxanko ANV berriarekin lerratu zen. Alderdi berria Iruñean 1933an eratu zen eta bere aldarrikapenen artean honako hauen zeuden: Euskal Herriko batasuna -EAJren federalismoaren aurka-, errepublikaren defentsa, liberalismoa eta akonfesionaltasuna, azken buruan, JEL anagramak bere azpian duenaren lagaketa hutsa, hau da, jaungoikoa ta lagi zarraren gaingitze erabatekoa. Ezagun denez, Nafarroan indar eskasagoa izan zuen ANVren aukera politikoak, eta horrek ilaundu zuen nola edo hala Artxankoren ekarpena.

ANVk Nafarroan ordezkariak handirik ez bazuen ere, Artxankok ezin izan zuen 36ko basakeriatik libratu. Gerratearen lehenbiziko egunetan atxilotu eta giltzapean mantendu zuten Artxanko Iruñean bertan. Halako batean ihes egiteko izan zuen aukeraren bat probestuz hanka egin zigun eta mugako arriskuak kostata saihestuz Iparraldera iritsi zen. Artxankoren bizitza berriak Baionan izan zuen hasiera, Euskal Institutuaren irakasle moduan, alabaina euskal delegazioa osatzen zuten Aldasoro, Conchillos eta Lopez-Mendizabalekin batera 1938an Buenos Airesera aldatu zen, eta hantxe geratu zen betiko Santiago de Chilen eman zuen denbora laburra salbu. Bere emaztea zen Arazeli Arbizu, ordea, ez zen hartan geratu eta luze gabe Iruñeratu zen.

Gerra aitzinetik ANVk bere argitalpena izan zuen, *Tierra Vasca-Eusko Lurra* izenekoa, estreinako 1933ko urtarrilaren 8an Donostiako *El Pueblo Vasco* egunkariaren inprimategian ilki zena, Jose Olivares Larrondo *Tellagorrik* zuzendurik. Zoritzarrez gutxi iraun zuen, 1934ko martxoaren 11ra arte soilik. Arrazoia, ordea, arras prosaikoa izan zen, ohi bezala, *El Pueblo Vasco*-ren jabea zen Pikabeak zituen zorrak kitatzeko ANVkoen papera berriz ez ateratzeari beharrezko iritzi baitzuen. *Tierra Vasca* honek zituen zortzi orrialdetako bakarra ateratzen zen euskaraz, «Euskal atala» izenburupean, Jose Elizondo lesakarrak nafar-gipuzkeraz eta Atxosteko mutillak bizkaieraz egiten zutena. «Euskal atala» hura iritiziko orrialdea zen ez informaziozkoa ordea, izan ere, *Euzkadi* egunkariaren euskarazko orria egiteko EAJkoek berriemaile sare zabala baitzuten Euskal Herri osoan, ANVkoek erdietsi ez zutena tamalez.

Gerra ostean Buenos Airesen zeuden ANVko erbesteratu zenbaitek *Tierra Vasca* berriz ere plazaratzea erabaki zuten. Urte haietan Peronen agintegoa erori eta Aranburu jeneralak ezarri zuen bere erregimena, eta ironikoa izan arren, horrek ahalbidetu zuen bereziki euskaltzaleen ekimena. Hilabetekari berria 1956ko uztailan atera zen lehenengo aldiz berriz ere Olivares Larrondo *Tellagorrik* zuzendurik. Tellagorri 1960an zendu zenean, aldizkariaren zuzendaritza Pello Mari Irujoren eskuetan geratu zen desagertu arte. Aurrekoan bezala, Buenos Airesen inprimatzen zen honetan ere euskarazko orria bazegoen. Lehenbiziko lau zenbakietan zutabe soil batzuk baizik ez ziren ageri, baina bosgarren zenbakitik aitzina «Euskara» izenburua zuen orria kaleratzen zen, komunzki seigarren orrialdea zena. Kolaboratzaile ugari zuen orrialde horren kudeaketa Artxankoren lana izan zen, eta bere kolaborazioen artean euskara ikasteko aldikako metodoa azpimarratu beharko litzateke, seguruenik ere, Buenos Airesko Laurak Bat elkartearen Lopez-Mendizabal eta Biterirekin batera ematen zituen euskara eskolatan praktikan jarriko zuena.

68. «Udaberriaren lore-yokuak» Iruñean (1969)

2000.3.31

Bedatse aro berrian sartuak gara honezkero, nahiz geroago eta aldatzenago ari den eguraldiak horrela denik eskuarki ez frogatu, hots, negu apalean hotz zimel samurra baizik ez baitigu ekarri eta udaberriko lehenengo egunetan txokolate galdatan hartzeko azaroko arratsalde luzeetan baino irriki goriago aisa sentitzen dugulako. Gaurko udaberria, ordea, lehenagoetako baino hagitzez ere desberdinago ez ote da, segurki ere, eta festa-urrina hurbil-hurbil sumatzen hasten den honetan, gorputz akituen berpiztea bide dakarkigu urtaro itxaropentsu honek, betiere lili-hautsari alergiarik izan ezean. Onartu behar da, gainera, garizumaren eremua geroz eta berdatuagoa dela, urtez urte oasiak hareategi puska berria irentsiko bailuen: ihauteriak ausarki gainditzten du hausterre-eguna bi eta hiru astetan ere, eta ostiralak inoiz baino desiragarriago gertatzen hasi dira, eta ez uretako arraina jaten delako hain zuzen ere. Honen harian, jada ez da pazko-zaharrari iguriki behar festan hasteko, eta martxoaren 17a egun hauta bilakatu zaigu azken boladan berebiziko hordikeria plazara jalgiarazteko -kasualki ere, kutsu zeltikoaz mozorrotuagatik, oinarri katolikoko festa ere badena-.

Udaberriaren iritsiera ospatzeko aitzakiaz ere, orain dela 31 urte Euskalerriaren Adiskideak Elkartasunak literatur ospakizun berezia antolatu zuen festa giroan. Probintzietako RSVAP-Euskalerriaren Lagunen Elkartearen antzera, Iruñean ere EAJkide biren eskutik eratu zen *Sociedad de Amigos del País* elkar-goia 1960an, frankismoaren lakio hertsian, euskal kulturari halako zilegitasun publikoa berriz ere emateko asmoz. Euskalerriaren Lagunen Elkarateak aitzina eramane zituen ekimenen artean euskararen defentsari, sustenguari, bultzatzeari eta normalizazioari zegozkienak zeuden gutxiz gehieneko tokian. Elkarate horretatik abiarazi ziren, neurri handi batean behinik behin, Nafarroako Bertsolari Txapelketa berriak, Iruñeko lehenbiziko ikastolak, bai eta helduen euskara irakaskuntza ere. Hori guztiarekin lotuta, euskal literaturaren arloan egin mezenasgo lana azpimarratu behar da, eta horren barruan ere ulertu beharko da 1969.eko martxoan eginiko lore-jokoak.

Ohi bezala, lore-joko horien funtsezko arrazoa literatur lehiaketa izan zen, erdaraz zein euskaraz. Ez zen diru-saririk banatu, eta egiazko loreak izan ziren irabazleek jaso zituzten sari bakarrak; alabaina, lan interesgarriak izan ziren aurkeztutakoak. Sari bakoitzari izen ezberdina ezarri zitzaion, hizkuntza bakoitzean nabarmendu idazle batena hain zuzen ere. Hortaz, bederatzi izan ziren banaturiko sari guztiak: lau euskal lanentzat, beste hiru gaztelaniaz idatzita-

koentzat, eta bana katalanez zein galizieraz izkiriaturakoentzat. Sari banaketa martxoaren 21ean berean izan zen, Nafarroako Museoa. Bertan Azkoitiko, Zangozako zein Tuterako Herriaren Lagunen Elkarteak ordezkariak zeuden, hala nola Kataluniako zein Galiziako Etxeenak. Galizieraz idatziriko lanaren egilea Xosé María Pérez Parallé izan zen, eta jaso zuen sariak «Alvaro Cunqueiro Lorea» zuen izena. Katalanezko lanaren egilea, berriz, Antón Sala Cornado izan zen, eta bere saria «Salvador Espriu Lorea» izan zen. Gaztelaniazko lanentzat zeuden sarietatik Kanarietako Cipriano Acosta Navarrok bida irabazi zituen, «Miguel de Dicastillo Lorea» eta «Hermilio de Oloriz Lorea», eta geratzen zen «Alberto Pelairea Lorea» saria Reusko Bernardino Grañak eskuratu zuen. Aipa dezagun jarraian euskarazko lau sarien berri. «Etxahun Lorea» Aramaioko Franzisko Uribarrenek irabazi zuen *Zorion bila* lanarengatik eta «Venegas eta Figeroa Lorea» Azpeitiko Manuel Elias Odriozolak eskuratu zuen *Egilearen egarri* lanarengatik. Beste bi loreak, aldiz, bi egile nafarrek erdietsi zituzten, bata arras ezaguna egun, bestea ez horrenbeste. «Etxepare Lorea» Goizuetako semea den Xabier Gartzia Tomasena lortu zuen *Egitan* olerkiarekin:

«Mendi gainean elurra
Gizon tartean gezurra
Ezur
Gezur
Lur
Uts
Nekea
Zigorra
Nigarra
Egiak
Baino barnean
Eguna».

«Jose Agerre Lorea», ordea, 22 urteko Patxi Zabaleta gazteak irabazi zuen *Askatasuna* poesiarekin:

«Leitza zuloetan
Lamiak izkutu
Sorgiñak aspaldian
Ez dira agertu

Beren begiratu ederra
Eta orrazea
Ta kalpar ori luzea
Nun dira?
Askatasunak iritsi omen ditu!».

69. Alberto Pelairea poeta eta antzerkigilea (1973)

1999.10.8

Ekoi izan zabaleko egilea izanagatik ere, gutxi izan dira Pelaireaz arduratu direnak, eta hori gutxi bailitzan, aspaldikoxe eta laburzki: Luis Gil Gomez tuterarrak *Tudelanos notables contemporáneos* (NTCP, 181 zbk., 25-28 or.) eta *Estampas ribereñas* (NTCP, 267 zbk., 7-12 or.) antigoaleko kaieretan, Angel García Sesmak Mexikotik ekarri *Poemario Fiterano* kausicaitzan (Iruñea, 1969, 225-233 or.), eta Fernando Perez Ollok aguro zaharkitzen ari den *Gran Enciclopedia Navarra*-n (IX. alea, 67-68 or.). Are tamalgarriago, ordea, Pelairearen idazgintza ezagutzeko ditugun lagin eskasak, bada, dagoen gauza bakarra, eta egun arras eskurazail diren garaian garaiko testuez lekot, Jose Javier Urangak zuzentzen zuen egunkariaren liburu bildumarako eskaturik, 1973.ean Gil Gomezek bildu *Antología poética* baita, bere hitzetan, orduan jada gutxisko gertatzen zena, orain eskasago oraino. Hirukoitza da Pelairearen ekarpena ongi ezagutzeko egiteke dirauen lana, hots, bere lan guztien ikerketa seriosa eta sakona, eta olerki-lan zein antzerki-lan guztien edizio osatu eta iruzkindua. Esanikoak etortzen diren bitartean, eta biziki kostako da, bihoaz hutsunea nola edo hala zarratzeko honako berri eli mentsa.

Alberto Pelairea Garbayo Bilbon jaio zen 1878 maiatzaren 16an, Erronkari-ko zen bere aita Kalixto bertako bigarren hezkuntzako ikastetxe batean marrazki irakasle zegoelako. Albertok bi urte baizik zituela, familia Tuterara aldatu zen, bere ama Rita hangoa zen eta. Hemeretzi urterekin aita zendu zitzaion -ordurako hilik ere bazuen Luisa arreba-, eta ama lagun, hainbat ikastaldiri ekin zion Zaragozan, Madrilen zein Bartzelonan, bakar bat ere osoro amaitu gabe: militarra, filosofia eta zuzenbidea. Etxeko ekonomia eskolako urteek arras makaldurik, Tuterara itzuli ziren, azukre lantegiko bulegoetan langile hasteko; geroago, Sitgesera joan zitzaigun lau urtez, oinetako lantegi batean ber lana egitera; azkenik, berebiziko lana zukeen Fiteroko Mainuetako administrari sartu zen 1908.ean. Ordurako, Tuterako Zezilia Albarekin ezkondua zegoen, eta seme-alabarik ez bazuten ere, Zeziliaren iloba zen Maria Alava Albak arraheinki bete zuen bere abizenak adierazten zuenaren papera -hau izan zen, bestalde, Pelairearen paper gehienak gorde zituen pertsona-. Ama 1925.ean eta emaztea 1931.ean hil ostean, Albertoren osasuna zeharo kaskartu zen, eta eztarriko min-biziak jota, 1939.eko apirilaren 17an zendu zen, amarekin eta emaztearekin batera hilobi berean Fiteron bertan ehortzirik dagoela. Egun liburuetan hain

naroki jaso ez den esker ona eta mira, aisa erakutsi zuten Fiteroko eta Tuterako bizilagunek bi hirietan karrika bana olerkariari eskaini ziotenean.

Esan bezala, bi izan ziren Pelaireak landu zituen literatur arloak, olerkia eta antzertia hain zuzen. Bertsogile joria, metrika eta eredu estrofikoak maisuki menperatzeaz gain, hari oparoko erdal bertsolaria genuen, inprobisatzaile fin eta ugaria; bere poetika orduko istmoetatik at eduki zuen gutxiz gehien, nahiz Rubén Daríoren eragina nabaria datekeen zenbaitetan, bere egile gogozkoenak aipatu modernista, Amado Nervo eta Jacint Verdaguer zirela; Pelaireak lurrari atxikimendu itsua zion, bertako txikikerietan jartzen zuen garrantzirik gehien, eta aukeratu idazgintzan murgiltzeagatik ordaindu beharreko bidesaria garestiegia atera zitzaion, ikusi lez. Bere olerki gehienak, lauzpabost salbu, orduko hainbat aldizkako argitalpenetan azaldu ziren -Iruñeko *Diario de Navarra*-n eta *La Voz de Navarra*-n; Zaragozako *Heraldo de Aragón*-en; Tuterako *El Anunciador Ibérico*-n, *La Ribera de Navarra*-n, *El Porvenir Agrícola*-n, *El Ribereño Navarro*-n, *El Eco del Distrito*-n, edota *La Voz de la Ribera*-n; eta, finean, Fiteroko *La Voz de Fitero*-n zein *Fitero Mercantil*-en-, argitaragabe geratu ez zitzaizkionean bederik ere, eta aunitzetan *Acotolo*, *Lodares* edota *El gallo de la Malena* ezizenen pean.

Ia gehienetan taularatu ziren hogeita koska antzerkilar borobildu zituen Pelaireak bere bizitza osoan zehar; guztiak zarzuela edo sainete laburrak, gehienetan Fiteron edo Tuteran kokatuak, eta askotan musikak lagundurik. Pelaireak musikaz ere zertxobait bazekien; Garcia Sesmak eskaini olerkian honela irakur daiteke: «*Aficionado a la música, tocaba con maestría, el acordeón y el piano, la guitarra y la ocarina, y ejecutaba a menudo fragmentos de la Bohème, por afinidad de espíritu con Marcel y con Mussette*». Sitgesen zegoela, Cuscó maisua izan zen bere antzezpenen musika egilea, eta behin Fiteron egonez gero, berriz, Tomas Jimenez, Luis Gil Lasheras, Antoni Catala, Felipe Bernad, baina bereziki Jose Maria Viscasillas Fiteroko organo-jole korellarra.

70. Riberoren azken lanaren harian (1977-1998)

1999.3.12

Ez da luzeegi Ebro gaitzat hartuta, uhalde berarekin bat egina dagoen Tartera honetako San Adriango markisaren jauretxean erakusketa erraldoia ikusgai izan genuenetik. Orduantxe gauza jakina agitu zitzaigun, esku programetan hala agertzen baitzen, erakusketaren sustatzaile ekonomikoa zein antolatzailea Zaragozako Ibercaja banketxea zela; era berean, ordea, zeharo ezezagun igaro zitzaigun erakusketa horretan Jorge María Riberok izan duen eragin handia, izan ere, erakusketa ikusgai harat-hunat jarri aurretik, 1991.ean hain zuzen ere, «*El río Ebro y los orígenes de Iberia*» izenburupeko hitzaldi saila finantzatu zuen esan banketxeak Ribero jaunak antolaturik, bertan Jose M. Paredes Grossok, Luis Racionerok eta Fernando Sánchez Dragok hizlari jardun zutela. Hitzaldi horien bitartez, Riberok aprobetxatu nahi izan zuen bere azken aurkikuntzaren berri emateko, hau da, Tartessos mitikoarentzat berak topatu benetako kokapena.

Nor dugu, ordea, Ribero hau? Jorge María Ribero Meneses Valladoliden jaio zen 1945.eko maiatzaren 17an, ber hiriko josulagunen ikastetxean ikasi zuela. Sendiak zuen oihal lantegiak 1960.ean porrot egin zuenean, Bartzelonara jo zuen gurasoekin, non filologia erromanikoko ikasketak bukatu baino lehen Bruselako Unibertsitatera joan zen espainiera irakasle; han zegoela, *La Vanguardia* egunkarian hasi zen kolaborazioak argitaratzen. Egunkari horrek ateratzen zuen igandekarian, «*Una España que hemos de salvar*» sail historiko-artistikoa egin zuen, 1977.ean liburu gisa agertu zuena; horren ondorioz ere, Arte en Peligro elkarte sortu zuen. Francoren heriotzaren ostean espainiar Estatu-ko Kultura Ministerioan izan zen goi kargudun Pío Cabanillasen laguntzaile. Eraman zuen ibilbidea, aldiz, ez zaigu gehiegi interesatzen harik eta, 1984.ean Penintsulan geratzen diren judutarren aztarnak aztertzen ari zela, gizakiaren sorrera Iberian kokatu beharra dagoela deskubritu zuen arte. Horren harian egin zituen aurkikuntza guztiak 1985.ean agertu *Cantabria cuna de la humanidad* eta *Los orígenes ibéricos de la humanidad* liburu bietan azaldu zituen -Valladolid, Cámara argitaletxean-. Espainian geratzen ziren judutarren aztarna ugariak aztoratuta, orduantxe klarki atzeman zuen gakoa, bada, Titoren agintegoa hasitako diasporan Palestinatik heldu judutarrak ez ziren Penintsulara etortzen, itzultzen baizik, hau da, lehenengo judutarren herrira bueltan zetozen; orduan, Kantabria inguruan Bibliako toki-izen zein pertsonaia eta gertaeren aztarnak toponimian jasoak daudela ziurtatu zigun.

Hipotesi hori, aldiz, ikerketa aurrera eramán ahala, oraino zehaztuagorik ekarri zigun Tartessos Ebro uhaldearekin berdindu zuenean; orduantxe gizakia-
ren sorrera Ebro garaiko inguruan kokatu zuen iaz argitara ateratako *Tartessos
versus Ebro: Europa nació en el alto Ebro* liburuan -Bartzelona, Cámara, 1998-.
Pentsa daitekeenez, bertan euskarari eman zion garrantzia ez da txikia, areago
bere tesi guztiak frogatzeko etimologian oinarritzen baitzen: «*La primitiva y
genuína Tartessos estuvo situada en el norte de España , y esto es tanto más cierto
cuanto que el vocabulario euskérico viene a ser como un auténtico archivo en el que
han quedado registrados todos los pormenores de la epopeya de Tartessos*». Riberoren
hipotesia arras berria gertatzen zaigu, Greziako eta Erromako historialariek
penintsulako historialariek eginiko lana isilarazi, lapurtu eta beren interesen
arabera moldatu zutelako izan zen, izan ere, egungo mendebaldeko kulturaren
egiazko iturriak Kantabria eta Euskal Herrian baitaude.

Ezin uka, horrekin guztiarekin erabat ados ez egoteko segurtasun osoa ez
badugu, bederen mesfidantza nabariaz begiratzen diogun bitartean, nahikoa
burutsua badela etimologian oinarriturik eraikitako mitologia osoa. Juaristik
-eta gure historia urruna zein -zergatik ez- geureak ere badiren gure mamu po-
litikoak sustengatzeko helduleku mugatuegiak agian izan diren gure mitologia
horiek deuseztatzen ahalegintzen diren bitartean, badira Euskal Herritik kanpo
geure euskara ere ber helburuekin erabiltzeko eragozpen handirik erakusten ez
dutenak, beti ere, espainiartasunaren goratzearen karietara. Zertan tematu dira
berariazko egiaren sasi-argitzaile horiek, demagun, J.R.R. Tolkien baten uni-
bertsoa desmitifikatzeko? Zertan dute, bada, hain okaztagarri Tubal, Aitor edo
ta abarrak balizko euskal literatura fantastiko berrian, edo harantzago joanik,
Riberok egin duen antzera, itxura zientifikoko balizko entseguko literaturan,
nahiz asmo zehatzekin, erabiliko balitz. Askotan pentsatzekoa da, ez ote garen
serioegi, eta ez ote ditugun beroegi egurtu geure betiko apologistak.

71. Argazkilari zahar baten inguruan (1982)

2000.3.17

Mende hasierako Nafarroan ateratako argazki asko eta asko nafarra ez den egile batek eginak dira, Santa Maria Villarreko markisak alegia. Halaz guztiz, eta nafarra ez izanagatik ere, nafarron ohitura, izaite eta arima maisuki harrrapatu zituen madrildar honek, eta bere argazkiak, bene-benetan ikusitako unek bailiran, gure barne gogoan iltzaturik ditugun historia eta lurraren pusketak bilakatu zaizkigu. Diego Quiroga Losada, Santa Maria Villarreko markisa zena, 1880ko abuztuaren 18an jaio zen Madrilen. Gora handiko aitonen semea izanki, Alfonso XIII.a erregearen gortean pinpirrin ibili zitzaigun akodin astunegirik bete behar izan gabe, arbi lorea baino lasaiago, errege beraren asteko zerbitzariarena egokitu zitzaioneko astintzearengatik ez bazen. Gortean berean hasi zen argazkiak ateratzen, eta garai hartako bilduma bitxia bada. Penintsulako geografia ongi baino hobeto ezagutzen zuelako, 1927an sortu berri zen Turismo Patronatuaren lehenbiziko lehendakari izendatu nahi izan zuten, alabaina, lan gehiegi zitekeelakoan edo, gorki aisa errefusatu zuen ohoramentuzko betekizuna, eta 1975ean zendu zen arte, argazkiak egitea beste zereginik ez zuen izan. Dena dela hasiera batean denbora-pasa zena ogibide bilakatu zitzaion neurri handi batean gerratearen ostean, bada, 36koarekin bere ondasun ugariak nasaiki hondatu baitzitzaizkion, eta ateratzen zituen argazkiak argitara ematen hasi behar izan zuen, argazki soilak batzuetan, iruzkin goxoekin beste zenbaitetan. Orduan izan zen Lurralde Suntsituen Departamendu Fotografiakoaren zuzendari sartu zenean, 1961era arte kudeatu zuen erakundea. Bere bizitzaren azken urte haietan Donostiako Mirakontxan bizi izan zen, eta hantxe zendu zitzaigun 1975eko maiatzaren 18an.

Santa Maria Villarreko markisak eginiko argazkigintza *argazki turistikoa* deitu izan da. Alde batetik nabarmentzekoa da XIX. mende bukaeran hasi zela argazkiak egiten, eta horrek berebiziko eragina izan zuen ondorengo lanetan, 1899an sorturiko Madrilgo Elkarte Fotografikoaren barruan indarrean zegoen teknika piktorialistari jarraikiz. Bestalde, eta mende hasierako argazkigintzan horren arrakastatsu gertatu zen esperimantazioaren bidetik abiatu gabe, Quiroga Losadari ez zitzaion hainbeste interesatu piktoralista sutseuk aldarrikatzen zuten errealitatetik hastantzea, eta argazkiak ateratzeko bilatu baldintza zehatz eta bereziak gorabehera, errealitatea bere-berean ematea zuen kezka nagusi. Markisaren argazkigintza ikergai izan duen Jorge Latorrek esaten zuen legez, markisaren lana *dokumentalismo naturalista* dugu.

Nafarra ez izanagatik ere, Nafarroarekin zituen loturak ez ziren hutsalak izan; bere amonak La Manchega izeneko etxea zuen Allon, karlistadan odol ospitalea izan zena, eta hara joan zen estreinakoz 10 urterekin, orduz geroz mahats biltzero bertaratzen zela. Nafarroa bereziki gustukoa zuen, eta oinez, txirrindulaz, motoz edo kotxez kurritu zuen goitik behera eta alde alde. Egin zuen bidaiarik aipagarriena, ordea, Urzainkitik Tortosaraino almadiaz 1903an eginiko jaitsiera da; bestalde, Santio bidea behin baino gehiagotan ibilitakoa genuen. Nafarroako zonalderik kuttunenak Pirinioetako haranak zituen, eta Nafarroan egin zituen argazki guztietan Eskako almadienak, Orbaiztako eultziarenak, eta Arbaiungo arroilarenak goraki nabarmentzen zituen beti. Aipatzeko modukoak ere Ventosako kondea bidaide zuela 1910ean eta 1920an eginiko itzuliak. Lehenbiziko urte hartan Iruñetik Kinto eta Erroibar aldera Esteribarren barna, eta Erronkari ibaxara bi txango egin zituen, eta haietan argazki aunitz atera zituen arren, gutxiz gehienak 36koan galdu ziren. Aipatu 1920ko itzulia Auriztik Otsagira Iratin zehar eginikoa dugu, eta orduan atera zituen argazkietan Aezkoako jendeak, Iratiko baso-mutilak eta Irabiako uharka ikus daitezke.

Santa Maria Villarreko markisaren lana nola edo hala goraiatu bada ere, bere ekarpena Nafarroan bereziki aintzat hartua izan da. Hil-hurren zegoela, Iruñeko Elkarte Fotografiko eta Zinematografikoak kaleratzen zuen bulletinaren zenbaki berezia markisaren lana aztertzeko apailatu zuen (1973ko irailekoa); Nafarroako Aldundiak pertsonalki eskertu zion *ABC* egunerokoan 1970ean argitara emaniko «*El Pirineo Navarro*» artikulua idatzi izana; eta hil ondoren bere argazkiak erakusten zituen erakusketa Nafarroan bakarrik antolatu zen. Bestalde, Nafarroan eginiko argazkien antologia bat eman zuen argitara Principe de Viana erakundeak 1982an, *Fotografías de Navarra*, Francisco Javier Beunzak eta Carlos Canovasek apailatuta, eta Julio Caro Barojak eta Jesus Elosegik iruzkindua.

72. XX. mendeko euskal literatura zaharberritua (1986-2000)

2001.3.9

Ez dira, milurte berrian egonik ere, Durangoko lurrinak oraino amatatu, euskal liburugintzaz denez bezainbatean bederik, eta asko dira liburu azokarako argitaratu ziren liburuen artean gure arreta merezi izan zutenak; horien guztien artean legoke Jon Kortazarren *Euskal Literatura XX. mendean*.

Euskarazko liburu gehiegi argitaratzen ez dela, ezpada irakurle gehiago behar direla irizten zion Xabier Mendigurenek berriki Ordiziako Baga-biga kultur dendaren ixtea dela eta eraturiko jardunaldietan. Ez zaioke arrazoirik falta, ausaz, alabaina, irakurle den honek, gustatu bezain porrokatu ez badabilako edo, hamaika liburu dauka hor nonbait metaturik irakur zain. Gaurkoan dakarguna, ostera, ez da arrapaladan irakurtzeko horietakoa, eskura hiztegi eta entziklopedien artean edukitzeko eskuliburua baizik.

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskal Literaturako katedraduna den Jon Kortazar Uriarte Mundakan jaio zen 1955ean. Filologia erromanikoan doktore, Lauaxetaren olerkigintza izan zen bere tesiaren gaia, Koldo Mitxelena bera epaimahaiaren buru izan zela. Doktoretza atzeman eta urtebetera eman zuen argitara Kortazarrek bere tesia, 1986an hain zuzen, Bilboko Desclee de Brouwer etxearen eskutik, *Teoria y práctica poética de Lauaxeta*. Aurretik ere, Uriarteren *Poesía bascongada dialecto vizcaino* eskuidatziaren edizioa apailatu zuen tesina, baita 1987an argitara eman ere. Alta, Kortazarren ikerketa esparru hauta ez da XIX. mendean sakonkiegi barneratzen, eta XX.eko modernitatea aisago bide du gogoko. Horrela ematen digu aditzera Uriarteren lanaren edizioa ondu ostean Zarateren prosa ikertu izanak, eta horrela frogatu du bere ondorengo bibliografiarik gehienak ere. Alde batera uzten baditugu Lauaxetaren lanen taxuturiko edizio kritikoak -Ereinen *Olerkiak*, Labayruren *Azalpenak* eta EEEn *Antzerkia* eta *Arrats Beran*-, XX. mendeko euskal literaturaren historia, kritika eta edizio antologikoak dira Kortazarren harrobiak ekoizturikoa. Azken liburua, euskaraz zein galizieraz agertu dena, euskaraz egiten ari den poesiarik berrienaren laginez osaturiko liburua dugu, ikasleak izaniko Kirmen Uriberen nahiz Castillo Suarez altsasuarraren bertsoak jasotzen direla. Kritika arloan, ordea, eta besteak beste, *Luma eta lurra: euskal poesia 80ko hamarkadan* liburutzarra atera zigun 1997an; alabaina, bere lanik klasikoan zein aipatuenetakoa *Laberintoaren oroimena* dukegu, Donostiako Barojarenean 1989an estreinakoz eta bigarren ez Ereinekoek 1994an atera zutena Saiopaperak sailean. Azkenik, eta literaturaren historiari bagagozkio, bi dira, funtsean, Kortazarrak ateratako

liburuak. Alde batetik *Euskal Literaturaren historia txikia* dugu, aipatu Ereinen Saiopaperak bilduma berean 1997an atera zena, Etxepareengandik erroman-tizismora doan ibilbidea, gutxiz gehien institutuetan erabiltzeko bide den testu liburu soila, ahozko literaturari buruz dakarren zati luzeak aski edertzen badu ere. Bestea, berriz, *Literatura vasca: Siglo XX* liburuki ezaguna da, Etor argitale-txetik 1990ean ilki zena, eta lau urte beranduxeago ere berrargitaratu dena.

Gaurkoan dakargun lana, hortaz, aipatu azkenaren euskarazko aldaera osatua litzake. Ez da egokitutako itzulpena Kortazarrek erabiltzen duen lehenbiziko aldia. Gorago atera zaigun *Luma eta lurra* horren erdarazko bertsioa iazkoan atera zen *La pluma y la tierra* izenburupean, tamaina ttikiagotuan baina. Izan ere, *La pluma y la tierra* huraxe atera zuen argitaletxea bera da oraingoan *Euskal Literatura XX. mendean* karrikaratu duena, Zaragozako Prames etxea hain zuzen ere, eta Aragoi aldean euskararekiko dezaketen asmo onen zalantzarik ez badugu ere, bistan da sosen txin-txina dela agintzen duena, onerako zein txar-rako. Kasu honetan onerako izan dela bagaude, liburu eder eta mamitsu eskaini baitigute Pramesekoek geure literaturaren erakusgarri. Edozein modutan ere, eta ohi legez, eroslea izanen da finean azken hitza edukiko duena.

73. Erriberako bi aldizkari berrien aipamena (1989-1999)

1999.7.16

Ikasturte amaiera honetan bi aldizkari guztiz diferenteren zenbaki berriak agertu dira Tutera aldean; alde batetik, *Merindad de Tudela* kultur elkarteak Remacharen mendeurrena dela-eta atera berri duen zenbaki berezia aipatu beharra dago; bestaldetik, Argia ikastolaren *Iturri Eder* paperaren hirugarren zenbakia karrikan dugu honezkero.

Iaztik, eta bereziki Tutera aldean, Fernando Remacharen mendeurrena ospatzeko izan diren ekitaldi purrustari amaiera emateko-edo Centro de Estudios Merindad de Tudela kultur elkartekoek aldizkari berezia atera berri dute musikari tuterarra gai bakartzat harturik. Isilaldi luzexka hautsi dute horrekin, eskertzekoa dena, eta badirudi indarberriturik datozkigula harzara, bada, udaren bueltan, zenbaki berria aurkeztu asmo baitute, bederatzigarrena izanen dena alegia. Elkartea 1987.ean sortu zen, eta aldizkariaren lehenbiziko zenbakia handik bi urtera atera zen, 1989.ean hots, Pamiela argitaletxeko eskutik. Lehenbiziko zenbaki hartan aski argi geratuko zen zein nolako ildo goldatuko zigun paper berriak, eta estreinakoz euskarari argi zirrikitua ireki zion argitalpen serio sak gure Erriberan, artikuluen bukaeran testigantza hutsezko euskarazko laburpen undatsez aparte, Gil Beraren kolaborazio batekin, non asmoen aurkezpena egin baitzigun: «Aldizkari hau, pertsonal joera batzuen islada eta bertze pertsonal joerari zuzendurik denaz bezainbatean izanen da kultur fenomeno bat. Bertzenaz, parroki orria bainoago ez da izanen. Lehenagoan garelako hona hau». Urtez urte atera izan da aldizkaria, 1989.az geroz eta esan bezala, alabaina 1995.ean kale egin zigun lehenengo aldiz, eta zazpigarren alea 1996.ean atera zen. Berdin gertatu zitzaigun iazkoan, eta Remacharen omenez ateratako zenbaki berezi hau pasa den urteko ospakizunen barruan koka badezakegu ere, ezin da ukatu aurkezpena aurreko ekainaren 30ean egin zela, nonbait eta bestalde, trangoa gaingitu delako seinalea ere.

Zenbaki berezi honetan lau kolaborazio baizik ez ditugu, eta urritasun hori barruko mami goxoaren erakusgarria ez den arren, bai gorago aipatu trangoaren sakonera zorabiagarriaren tamaina salatzen digula arazki. Edozein modutan ere, badugu lau ko trinkoa eta maratza, baikor izateko modukoa. Hasierako lana, omenduaren beraren alaba den Margarita Remacha Gonzalezek eginga da; horrek musikariaren biografia eskaintzen digu, zenbait argazkirekin eta guzti, aitari buruz jada aurretik utzi zuen *Fernando Remacha: una vida en armonía* liburuaren laburpena baizik ez dena. Bigarren artikulua luzea, Remacharen lana

ezin hobe ezagutzen duen Marcos Andres Vierge irakaslearena dugu, «*Selección de documentación en torno a Fernando Remacha*», hemerotekako txindurri-lan zehatza. Hirugarren idazkia, Fernando Perez Olloren lan ederra dugu, Tuterako musikaria Nafarroako bizitza kulturean kokatzeko saio ezin interesgarriagoa, ene begikoz, laueta helmen zorrotzenekoa. Azkenik, Remacharen beraren ikaslea izaniko Pedro de Felipe Alayeto murtxantearraren lana dugu, «*Sistema pedagógico para compositores a partir de la Cantata Jesucristo en la Cruz de Fernando Remacha*», izenburuak berak dioen gisara, lan zailxea, musikariendako egina bereziki.

Bestelakoak dira, ordea, Argia Ikastolaren asmoak *Iturri Eder* aldizkaria kaleratzerakoan; haatik, ezin uka zabalpen ozeneko papera dugula, helmen luzekoa. Urtebeteko denbora higitu da lehenbiziko alea atera zenetik, eta nabarmenak dira hiru zenbakien arteko aldeak: orri kopuruaren gehitzea, kolorearen sartzea, maketazioa, kolaboratzaileen ugaritzea, aukeratutako gaien interesa... Honakoa, ikastoletan hain ohikoak diratekeen beste barne-paper bat dela ukatu gabe, berebiziko kalitatea duen lan baten aurrean gaudela aisa soma daiteke, maitasunez bezainbeste, buruz egina dagoena.

Erriberako ikastolaren egoitza ez dago Tuteran, ezagun denez, Fontellasen baizik, eta hiri horren izenak berak aski garbi salatzen duen moduan, Barde lehorren ondoko lur hauetan ura da nagusi, horren lekuko Ebro uhaldea, Bokale ezaguna, Lodosako ubidea, edota iturriez mardo mintzo zaigun toponimia: Fontebella, Río Madre, Fuente del Olmo, Fuente Lizar... azken horretan pausatzen da ikastola, Mingotxako baratzeen ondoan, eta euskara freskoko iturria den honetan, zein egokiago *Iturri Eder* bera baino. Hirugarren zenbakiari ikastolaren barne funtzionamenduaren gaineko kontu batek ematen dio hasiera, beste ikastoletan arrotza ez dena, lehendakaritza hauteskunderenak hots; jarraian «Txoko pedagogikoa» izeneko sailean proiektu eleanitzaz luze dihardu David Lachman Argiako irakasleak, eta segituan ikasleek berek taxutu lanak zein ikastolari doazkion berri ugari zaizkigu irakurgai.

74. Itsuago ausartago: putze izan eta uzkerra uste (2001)

2001.2.23, 2001.3.2

Gutti dakienak ardura jakintsun dio erranairuak, ordea eta makurragoa dena, hauek badakite egia erdi ustelak aipatuz are gezur borobilagoak aupatzen, irakaskintza hauetatik beretik aterako diren leitu berri itsutuak ahoan bilorik gabe astakirtenkeriarik lotsagarrienak enpo haizatzeke gauza izanen direla.

Falta zitzaiguna gero, bazterrak are inarrotzenagotzeko, *suari iraungitzeke olio emaita* bezala, Axular handiak zioenez. Ez da gurea gar kementsuko sua, ez eta nahi izan ere, haatik isilik egotea mingarriegi zaiguke honezkero, eta horretan geure hitz apala ozenagotzea dukegu helburu ezertarako balioko ez duelako jakitun bagara ere.

Ez da zalantzarik UPN bezalako alderdi politiko batek nahi duen guztia egin dezakeela bere biltzarretan. Halaxe egin izan du beti eta halaxe egin zuen berriki egin zuen bere azken biltzarrean. Gu ez gara UPNkoak -ez dakit jada zoritxarreko gauza ote denetz baina-, eta kazetetan irakurririkoari esker bada-kigu, aldiz, azken biltzarrera hartaratu zirenei, eta beste opari xeble batzuekin batera, liburu bana eman zitzaie, harritzeaz gainera, bestalde, itxaropenerako argi izpi txikerrenik ere eman ez ziguna. Eta hala izan da, espero bezala.

Biltzarrean banatu zen liburua *Navarra y el nacionalismo vasco* izenburuko entsegua izan zen. Entsegua egileek berek bere liburua hala definitzen dutelako diogu, ez beste ezerengatik. Egileak Jose Manuel Azcona Pastor eta Joaquin Gortari Unanua dira. Lehenbizikoa Faltzesen jaio zen 1962an eta egunean Bizkaiko UNEDen zein Madrilgo Juan Carlos Erregea Unibertsitate Publikoan dihardu munduarteko historia garaikideko irakasle. Bigarrena, ezagunagoa ausaz, Gesalazko Muezen jaio zen 1931n eta Nafarroako Gobernuaren idazkaria dugu 1978az geroz. Liburua, *Ensayo histórico-político sobre las señas de identidad originaria del Viejo Reino* azpi-izenburua harroki daramana, berriz, Juan Pablo Fusik zuzentzen duen Biblioteca Nueva argitaletxe madrildarrak inprimatua da, Principe de Vianak diruz lagunduta naski. Egileek 2001eko urtarrilean sinatzen dute testua, beraz labur joan dira inprimaketa lanak, aisa ikus daitekeena edizio honen itxura markitsari erreparatuta; azalean 1572ko Nafarroako Erre-sumaren armeria liburuaren orrialde bat eskaintzen digute, eta barnean, berriz, batere erakargarriak agitzen ez diren zuri-beltzeko argazki klasikoak dituzten zortzi orri. Txundigarri samarra gertatu zaigu eta hortaz ezin isilik eraman, Iñaki Iriarteren *Tramas de identidad* literatura nafarraren gaineko liburu eder eta findua argitara eman ostean hau bezalako foiletai bat atera izana. Serioagotzat

genuen Fusi baina. Izan ere, euskal unibertsoari aitziko liburuek aparteko generoa osatzen dutela onar badaitekeen ere, horretan ere mailak daudela onartu beharko lukete, baita idatziak oro paperean pausatuagatik ere argitaragarriak ez direla. Oraikoa ez da horrela gertatu, bistan da, eta argitaratzaileak zeri aiduru so dauden aisa idurika dezakegu, tamalez ere.

Diogunaren frogarik sendoena liburua bera da, eta ezer esan gabe edozein irakurle normal gurekin bat etorriko delako segurantzana bagaude. Ordea, eta irakurri aurretik bihoaz hemen liburuki honek eskaintzen dizkigun eta ez dizkigunen berri laburra. Hasteko nahasmendua aipatu beharra dago, lanari hasmenta ematen dion aurkibidea ezin baita korapilatsuagoa izan. Botika dirudi, ordena jakin bati jarrai gabeko mondongoa. Hasiera latza bada.

Liburuaren tonua erabat triunfalista da, harroa. Ez bakarrik emaitza politikoen berri ematen duenean, baita Nafarroaren handitasunaz ari denean ere, nahikoa barregarri geratzen dela. Hona hemen liburuari amaiera ematen dioten hitzak:

«Las estadísticas oficiales de los distintos indicadores del nivel de vida y bienestar de la España del 2000 sitúan a Navarra una vez más a la cabeza del conjunto de las Comunidades Autónomas. Para que conste».

Agirre Baztan iruzkinduz, Nafarroaz nafarrek duten kontzientzia ere argi uzten dute:

«Navarra nace en la enculturación y socialización primaria emocional en el seno de la familia, y también en la escuela primaria en la que a través de la explicación y el conocimiento de la historia del Viejo Reino se ve el nexo conductor de nuestro pasado, el reino, el virreinato, la provincia y la comunidad foral. Y uno de los elementos más importantes de nuestro pasado es la identidad política expresada a través de la foralidad dentro de la españolidad».

Auñamendikoaren ezean Britaniarrarekin geratzen gara.

Navarra y el nacionalismo vasco entsegu historiko-politiko honek ez du bibliografiarik, edonor zur eta lur utz dezakeen gauza. Helburua irakurlea ez unatzea dateke, alabaina bukaera aldera erabilitako iturrien berri jasotzeak ez ohi du min handirik ematen lasai aski irakurgabe utz daitekeelako. Bibliografia ematea errefusatu, berriz, are nekagarriagoa den orri azpiko oharren sistema aukeratu dute. Esan gabe doa oharretan aipatu bibliografia ezin laburragoa dela, hala nola ezin zuzendu zein atxikiagoa ere.

Zinez harrigarri asko gertatzen da Nafarroa eta abertzaletasunaren arteko harremanak ikertzen dituen lan batean, areago noizkoa den begiratuta, Chuecakin eginiko tesia ez aipatu ez erabili izana. Euskal Herriko historia egiten du-

tenean, XIX. mendeko usteen gainean eraikitzen dute, horren akatsen errudun egungo ikerlariak eginez; alabaina, ez dute jasotzen Euskal Herriko Unibertsitatean komunzki irakasten dena, hau da, eta adibide bakar bat plazaratzearen, Agustin Azkaratek antzinate berantiarreko *Wasconia*-z dioena. Bagaude, zoritxarrez, isilaraztea baino ezjakintasuna dela nagusi. Sikiera Elorz aldeko Buza-gakoaren berri izan balute!

Arestian PPK Madrilen egin bezala egileek ez dute altxamendu faxista garbi-
ro deitoratzen, bai ordea 36ko uztail aitzineko hilabeteetan jeltzaleek sortu giro iskanbilatsua. Gerraren bitartez faxistek eginiko segada garbitzailea ez da inon agertzen, eta badirudi gerrarena, besterik gabe, gauzak bere tokian jartzeko inflexioa besterik ez zela izan. Diktadura frankistaz ia deus ere ez, nahiz Gortari jauna *La transición política en Navarra 1976-1979* izenburuko liburuaren egilea izan. Estatutuaren inguruan irakurketa ofizialistei guztiz atxikia agertzen zaizkigu, espero zitekeenez bestalde, eta ez dute Jimeno Jurioren ikerketarik aipatzen. Bigarren errepublikako alderdi nafarren zerrenda egiten dutenean aipatzen duten talde abertzale bakarria ANV da, eta horixe sei lerrotan soilik. Prentsa jeltzalea aipamenetan baizik ez da agertzen, eta bakarrik *Napartarra*. Jeltzale nafarren ezabaketa hain da lotsagarria ezen margolariez mintzo direnean, Ziga jeltzale agertzen badute ere, ez dute berdin egiten Manezaundirekin, haienezako Zubiri soila dena.

Honetara iritsirik, literatura nafarra arras kaltetuta ateratzen zaigu, euskarazkoa zein erdarazkoa. Euskaraz eginiko literaturaren berri ez da inon atzematen, eta gauza dira XIX. mende bukaerako eta XX. mende hasierako literatur lehiaketen berri ematerakoan, Euskara elkarteak, Euskal Esnaleak, Euskararen Adiskideek eta bultzaturiko lore-joko eta sariketak isilpean oinperatuta, Pedro Gorriren *Cancionero popular navarro*-z mintzatzeko, idazle bakar bailitzan. Ez da harritzekoa, tamalez, liburu osoan barrena euskarari eman dioten trataera ikusita. Batek baino gehiagok bere burua ikus lezake egileek diotenean:

«Buena parte de los campesinos vasco parlantes gustaban de que sus hijos aprendiesen español como forma directa de triunfar profesionalmente en las capitales de provincia llegando a obligar a los maestros a que prohibiesen a sus hijos el uso del euskera en la escuela y fuera de ella»,

eta orripeko oharrean:

«Suele achacarse a Franco el retroceso masivo del euskera, y es bien cierto que bajo la dictadura franquista esta lengua sufrió notable involución. Pero cuando el vascuence pierde terreno notablemente es en el siglo XIX, bajo los impulsos del liberalismo, centralista y uniforme (...) Claro está que narramos un retroceso en aque-

llos sitios en los que en el pasado siglo aún se practicaba el vascuence. Tampoco hay que hacerse eco aquí de esas tribulaciones y teorías de taberna que vienen a afirmar que el euskera se hablaba aún en el siglo XIX desde el Pirineo al Ebro amén de la Rioja y norte de Huesca. Esta aseveración produce risa, pues el uso de esta lengua en Navarra quedaba circunscrito al ámbito montaños».

Ezjakintasuna ausarta da ausarta denez. Kitto.

75. Sakan Mix

1997.1.31, 1997.2.7, 1997.2.14, 1997.2.21, 1997.2.28

Sakanakoa ez da atzo goizean Vascongadetatik arribatu arrotz samalda eli batek Aralar eta Urbasa-Andia mendartetako trokak izendatzeko asmaturiko deitura berria, eta hori badiogu, ez da erretolika merke eta ments egitearren, halakorik nahi baino gehiagotan aditzea egokitzen baitzaigu, tamalez ordea. Bada jakin baitakigu, egun egungo arrandioso enpoildu handiuste pailardarre astofaldun eta, hondarrean, politiko erdaldun bekaiztik aiseegi bezain usuegi gure mendebaldeko auzanaiengan ediren ohi duela euskalgai bakarra, Erdi Aroan berebizikoak iparraldekoengan kausitzen zuen gisa berean, eta oroit bestenez dokumentazio zaharrean Baxenafarroari aipu egiteko hazta daitekeen izen arrunta *tierra de bascos* dugula. Berriz ere *nihil novum sub sole*. Are tamalgariagoa generrake, izan ere mugerrietan sakanak badira, eta guk dakigun bezalako bederen, Ollaran aldeko Artetan zein Senosiainen, Belatesakana zein Aransakan dermioak, hurrenez hurren, badaude, eta ziurrenik halako gehiago datezke oraino. Naski Arakil ibaiak kurritu nasa arraildu sakonarena ongi aukeratu izena dugula, orografiari gagozkiola behinik behin. Eta gure Sakanan, behinola Aranazko herria zen hartan, Lakuntza hiria dugu, eta horretan ere, Dendaberri etxea, gure gaurko gizonaren sortetxea izan zena.

Txema Larreak eta Periko Diez-Ultzurrunek arestian apailatu *Nafarroako euskal idazleak* krestomatiaren lehendabiziko alean zioten landara, edozelan ere, arras gutxitua, 1983.eko azaroaren 9an Blas Alegria beraren jaioterrian Euskaltzaindikoek ospatu omenaldian irakurtu hitzaldietan jasotzen dena dugu lakuntzar honen ezagutarazgarri. Hartan hiriko erretorea zen Eugenio Ulaierrek emandako berri andana guria bezain maratza badaukagu batik bat. Gure idazlea 1883.eko otsailaren 4an sortu, eta ber herrian 1947.eko urriaren 12an zendu zitzaigun, hirutan hogeita lau urtetan. Aita, Jose Bizente Alegria Gillen, karlista amorratua zuen, eta ama, Anizeta Alegria Razkin, Etxarren-Arakilgo alaba. Gizon altua eta maikia, aurpegi latz eta eite seriosa izateagatik ere xelebria eta umore onekoa. Lehendabiziko ikasketak txoko honetara honezkero ekarri Biktoriano Huizi etxarriarrarekin egin zituen Unanun, haatik ez dakigu hark zein neurrian benetan erakarri zuen euskal idazgintzarako. Teologia ozta-ozta nonbait amaitu ostean Lakuntzan geratuko zen betiko. Apez laguntzaile gisa ia beti, erretore lau urteko epe laburrean jardun zuen, 1934.etik 1938.era doan laurteko laburrean, Juan Eskala joan eta Nemesio Asurmendi etorri arteko betan. Bien bitartean Arakilgo arziprestazgoaren kapilau izendatu zuten, eta

horren kariaz, tenore laburretan izanik ere, Latasa, Ilarregi edota Hiriberrin izandu zen. Iruñeko apezgaitegian 1925.ean sortu eta guda arte iraun Euskarearen Adiskideak batzako taldekidea ere izan genuen. Hartan laguna zuen Migel Intxaurrondo euskara irakaslearen arta betetzeko aukera luzatu bide zioten, baina langintza horrek altaraturik edota Dionisia bere arrebak zukuruzturik, ez zuen zeregin horretan jardun, zoritxarrez, nahiz hainbat tokitan horrela ziurtatzen den oraindik orain.

Alegriaren ezagutzen dugun lehendabiziko idazlana *Euskal Esnalean* agerrarazi zuen 1926.ean: «Irakurgai alaiak: Lakuntzako pertza». Tolosako Doroteo Ziaurri eskaini hau Larrea-Diez Ultzurrunen bilduman badakarkigu irakurgai. Horrenbesteko sona izan duen pertzaren pasadizoa Jose Maria Iribarrenek 1940.eko *Retablo de curiosidades* nahiz 1946.eko *De Pascuas a Ramos* liburuetan ezagutzera eman zuen irakurlego erdaldunaren artean, aldeztatik Alegriak berauk eskaini berria modu nahikoa satirikoan erabiliz: «Lakuntzako pertzak zer piñ egin zun? Ire aitak eta amak egin zuena». Edozein modutan ere, Donostiako izparringian agertu zuena ez da pentsa litekeenez Lakuntzako pertzarekin egiatan agitutakoa, baizik eta Damaren istorioa, bere bestelako idazlanetan ere errepikatu zuen izaite mitologikoa:

«Ordu asko juatenmenzazkion damatxoari erreka baztarrian txutxunpiko, ugeizko moto gorria aliñokan, oñ txiki txuriyek sartuik ur otzien, onen geñalde agiri zen bere aurpegi zoagarrien iduri eder garbiyei beeire txoatuik. Arren begiyen dizdiikoak norbeit jotzen bazuen, adio, arren biyotza domatuik, betiko garbi enamoatuik. Bera berriz iñortaz ere enamoatzen ez».

Halarik ere, egun Alegriaren ezagutzen ditugun gutiz gehiengo idazkiak Olabe sariketarekin dute zer ikusirik. 1887.eko azaroaren 15ean Euskara Bazkunak Serafin Olabe izendatu zuen ohorezko bazkide, eta hortik letorke sariketaren izena. Hasiera-hasieretatik aurkeztu zuen bere burua, gaurko sariketetako hainbat sasi-idazleok dagigukeen antzera. Horrelakoa dugu *Aña Mari: misiotako antzerkia*, Iruñeko Sarasate pasealekuko 15. zenbakian zegoen Ricardo Gartziaren alargunaren irarkolan argitaratutako liburuxka, 1928.ean Euskarearen Adiskideek antolatu antzerki batzaldian saritua hots. Azalaren marrazkia M. Sagastik egina duen honek Migel Intxaurrondo irakaslea zuen aitaponte baikor. Bere 64 orrialdeetan barrena Lakuntzako Baratzarrekalde baserrian bizi den familiaren berri ematen du antzertilan zalu lasterrak.

Ohi zenez, bi dira hariak txirikordatzen dituzten ideia nagusiak: Euskalerrria eta erlijioa. Beraz, nekez harri gaitzake horrelakoak letzea:

«Gure gazte denboran... aik ziran egunak, aik. Aurreneko egunetik mutillak agiñ adarrak ekarri, ta neska ezkongaiantzat moltxoka pollitak egin ondoren, polliki polliki jantzi, ta urren goizian goi, loretegi zuri gorrien antzera atal goienian jartzen zituzten. Ardi ta arkume gizenenak ill, ta mutillak aragiari, neskatxak tripakiari; aik, larreñetan gierrinakin; oik ibai bazterrian lilaiakin; gizonak sua pistu, emakumeak tresnak prestu, ta pertzak garbitu; almiantia aurretik, txuntxuna atzetik, umiak dantzan, danak autzelan! Pest egunian irri-arra bakoitza bere aldetik, aizpak eta anaiak, izebak eta osabak, lengusu ta illobak, aide ta ezagunak, etxe bete betian, guziak hasiz, denak alai eta pozik. Orduko ingurutxo ta alkate dantzak... ikusgarriak ziñez! Nai zuten guzientzat ardua ugari ontzi polit ziderrezkotan. Agintari ta buruzaiak leku egokian exerita, patxaraz dantzariak begira. Mutilla burutsian, neskatxa lotsati, lotsati; jazkera erraza, baña txukun eta garbi... aik ziran dantzak! Neska mutillak, alkar ez ikutzeko, surtzapi me politen mutur bana artu-ta... ez ola, boa! atzo, galde gorde gabeko aul aik bezala, lotu-ta.. izañen antzera itsasirik... ni banintz alkate!».

Alta horrelako deskribaketen ondoan lirismozko uneak ere badira, Erremun Indianok Aña Mariz kantatzen duen honakoa esaterako:

«Emen bizi da, barrendik dago
 Bere kaiolan txortxola
 Bakarrik dago aztarrika ta
 Urrumeda dariola
 Urrumedorrek ala pistu du
 Nere barruan su garra
 Goiko basuan piztutzen dunez
 Tximistak egur igarra».

Laude et similime pluris Basconicis fuuntur in osis, ez gehiago ez eta gutxiagorik ere, Alegria lakuntzarrak 1929. urteko Olabe sarirako aurkeztu zuen lanaren sinatzeko erabili ezizen undatsa genuen. *Dama* izenburuko idazkia, neurritz kanpokoa izateagatik, sariketaz kanpo utzi zioten, alabaina epaimahai-koek izkiriatuari zerion onegitea ez zuten eskertu gabe utzi nahi izan eta 300 pezetatako dirusaria eman zioten kontsolagarri. Ez zen gauza berbera agitu 1930-31.eko biurtekoan helduko zen lehiaketara «Esan eta egin» lemapean aurkeztu lanarekin. *Gure ama: euskararen garai ontako egonera ta berori zaindu ta geituerazteko biderik egokienak*, Iruñean 1932.ean karrikaratu zen, euskaraz eta erdaraz. Manuel Irujok alde zuzenetik proposatu gaiaren jorrazteko

Alegriaren lanak lehendabiziko saria jaso zuen, 1000 pezeta borobil osotara. Xabier Gorosterratzu zentsoreak ez zuen, agi danean, lan handirik izan bertan azaltzen zirenak eragozteko. Lehendabiziko 53 orrialdeak euskaraz datozkigu eta jarraian dirauten gainontzekoetan, 92.era arte, erdarazko itzulpen zuzena jasotzen da. «Azalpena»-ren ostean, «eusko idazkera»-ri buruzko hainbat dakarkizugu, finitzeko egileen zerrenda luzeak eskaintzen dizkigula. Zinez harritzen gaitu Lakuntzakoak darabilen bibliografia aberatsa eta aipatzen dituenen zehaztasun egokia. Hiru taldetan banatzen ditu sarrerak oro, hala nola, Euskaltzaindikoak, idazlari euskaldunak, eta erdaldunak. Lehendabizikoen artean Azkue, Agirre, Altube, Brousiain, Campion, Eleizalde, Intza, Lhande, Urkixo, Bahr, Orixe, Schuchardt, Uhlenbeck, Etxegarai anaiak edota Eguzkitza daude. Bigarren multzoan berriz, Agirre Asteasukoa, Anabitarte, Beobide, Jorge Agirre, Altzaga, Allende-Salazar, Apraiz, Ariztimuño, Arrandiaga, Ignazio Artetxe, Azkue, Baltzola, Basabe, Barbier, Barandiaran, Bera, Blazy, Daranatz, Decrept, Donostia, Alfredo Etxabe, Etxaniz, Elizondo aba, Elortza, Etxepare, Etxalar, Fernández, Gerra, Garralda –«Salazenkoan iratsi du!»-, Galdos, Goienetxe, Intxaurrondo, Iraizoz, Larreche, Jautarkol, Landeta, Larunbe, Lekuona, Leizaola, Lertxundi, Lezo, Markiegi, Manterola, Mokoroa, Oiarzabal, Pagoaga, Rekon-do, Sagartzazu, Saint-Pierre, Jose Maria Huarte Jauregi, Urkia, Urreta, Urrutia, Zamarripa eta Zinkunegi. Eta azkenik, hirugarren tropelean, honakoak: Amado Alonso, Juan Fernández, Amador de los Ríos, Antonio Velázquez, Bosch Gimpera, Navarro Tomás, Julio Cejador, Enrique Eguren, Ramón Menéndez Pidal, Enrique Beati-Moglia, Bonaparte, Cardaillac, Dogson, Faddegon, Farinelli, Geers, Giese, Gavel, Karl Hanneman, Herelle, Humboldt, Linschman, Luchaire, Mahn, Marr, Mentearth, Michel, Pais, Rousselot, Stempf, Trebitsch, Urtel, Van Eys, Vinson eta Winkler.

Hainbat argitalpenen aipamena ere badagi, *Euskalerrriaren Alde, Gure Herria, RIEV, Gure mixiolaria, Prantxiskotarra, Argia, Eskualduna...* Zerrenden luzea izanik ere apal eta umil honela zioskun:

«Sakon xamar begiratzen asi ezkerro uts askotxo aurkituko dira izandi hontan, baña, gure naia betetzeko aski da».

Bukatzeko, olerkiari nahiz olerkarietarako buruzko hainbat burutapen aireratzten zituen:

«Bertsolariak landa, ez da izan olerkari aintzakorik orain arte gure errian. Bilbeari axaletik begiratzea aski da, berealaxe ezagutzeko ezdala egundañotan alakorik Euskal Errian sortu».

Euskararen egoeraz Alegriak zerabilen iritzia ez zen, pentsa litekeenari aitz, bat ere baikorra, eta zorrotz oso bazitzaigun agertzen, bai euskara idatziari zihoakionean:

«Agirian dago, esan bezala, anitz idatsi eta lanketa ez gutxi egiten dela euskeraz, ala euskeraren alde. Ta, irakurri? Ez. Gezurra dirudi baña alaxe da. Irakurle geienak eusko ikasle edo euskelariak dirade. Euskaldun gainerakoak ezta asmorik ere! Aldistingiak, gai gutxi dutelako, ainbestian! Liburuak... neketan!»,

ala euskara mintzatuari ere heltzen zionean:

«Esan dugu euskera mintzatua aldapen bera eroriaz ondamenara dijoala. Zoritxarrez ala da egia. Ontan guztiok bat gaude ta, zeaztu bearrik ez. (...) Irri parrak lenbizian, *hable en cristiano* irringitzak, gero, ta azkeniko, ixo, ixo, ta atzerrian edo balitz bakarrik, utse, Euskalerra bere berean ordea, ori bai dala mingarri! (...) Gaur edo biar, oitako batek umerik izaten badu, euskara zertako? Tximu baten antzera txiki ta ondien parregarri ibiltzekonaiko naiz ni, esango du. Erdera apo! erdera irakatsi bear zitzaien. Euskera, p'a kaikus ser y errematar laydazer. Ori duk».

Hauek ziren bereziki euskararen etsai nagusienak Alegriaren begiko: irakas-kuntza, bizibeharraren joan-etorriak -ezin ahanzi Alegriaren hainbat senidek Ameriketara joan beharra izan zuela-, langintza zenbaitetarako eusko gizonen urritasuna, eta Euskal Herriko bihotzaren berri eta izatearen jakingabetasuna. Geroxeago ere lan honen VI. kapitulua argitara eman zen *Lilaya* izenburuarekin RIEVen.

Nolanahi ere gure zalantzak baditugu Alegriaren lan horren jatortasunari dagokionez. Azalduko dugu. Honezkero agertu zaigun Migel Intxaurrendok -Alegriaren *Aña Mari* antzertilanaren zentsore eta Apezgaitegiaren euskara irakasle hura- urte batzuk lehenago kaleratu liburu batean, zerrenda berberak jada argitara eman zituen, igualak, erdaraz baina. Idazkia 1926.eko *La iglesia y el euskera: obligación de hablar al pueblo en su lengua nativa y de cultivarla* izenburukoa dugu. Pezeta bakarra balio zuen hau Iruñeko gotzaina zen Mateo Mugikari eta Nafarroako Aldundiari eskaini zien. 1926/27 ikasturteari hasiera emateko apezgaitegi kontzilarrean egin ekitaldian irakurritako hitzaldia dugu hondarrean. 98 orrialdeko lan maratz eta zaindua dugu. Orriazpian datzan ohartegi zabalak erudizio handia salatzen digu. Lehendabiziko zatian herriari bere hizkuntzan hitz egiteko beharraz dihardu, eta bigarrenean berriz herri hizkuntza sakontzeko apezek duten artaz. Bi gehigarri dakartza. Bata garaiko euskaltzain, euskaltzale eta euskal idazle zerrenda luzea eta bestea apezgoarendako komenigarriak datezkeen hainbat idazki eta liburu. Bi gehigarri horiek

lirateke Alegriak pirateatutakoak hain nabarmenki. Dena den, Intxaurrondo lagunak onarturik zatekeela gaude.

Sakanako sako luzera itzuliz, eta Alegriaren lanekin ahitzeko, 1932.eko sariketan «*Costumbres, justas y regocijos de la zona euskérica de Navarra*» saile-rako «Egi eta fedeak» izenpean aurkeztu *Jolas urrina* aipatu behar dugu. Horretan ere 1000 pezetako saria eskuratu zuen. 1933-34.ean ospatu laugarren sariketarako, eta «*Folklore en euskera*» zeritzaien bosgarren sailerako *Atsegina* izenburukoa igorri zuen «Gogoz eta legez» lemapean. Alabainan urte horretako politika aldaketarekin, ez zuten lana irakurri ere egin. Egia esateko, hori izan zen Olabe sariaren euskarazko sailaren akabera, izan ere, 1935-36 biurtekoaren bosgarren sariketarako ez baitzen euskarazko lanen aurkezteko deialdirik egin. Eta gerrateak ez zuen hori bakarrik kalitu, baizik euskal idazleen lana ere hondatu zuen zeharo. Alegriaren lan gehienak gerratearekin batera desagertu ziren, batzuk erre zizkiotelako, eta beste batzuk berauk desagerrarazi zituelako beldurrez, batik bat, guda bitartean Getarian senitartekoekin emaniko denboraldian, itsasora bota zituenak. Guziarekin olerkari bezala egin zituen beste lan batzuk baditugu irurgai oraino: «Oliteko gaztelua» olerkia, «Biotz mina» San Sebastiangor ermitari eskaini olerkia bere erdal aldaera den «*Añoranza*» delakoarekin, eta Lakuntzako Agotza etxean oraino dituzten bere bertso batzuk, matatxerriaren inguruan eginak diren «Berso berriak: Belarri bakarreko zerri bromazalia» deitutakoak eta 1945.eko urtarrilaren 25.eko data daramatenak hots. Halaber Ulaiar jaunak 47 bat sermoi idoro zituen, datarik gabekoak, eta beste antzertilan bat izan zitekeen baten egiteko eskemak, San Migel Aralar-koaren inguruan.

Ez gara oraingoan Lakuntzatik gehiegi hastanduko, kilometro pare batera baizik ordea, Arbizura hain zuzen ere. Geure Sakana honen erdi-erdian dagoen herri horretatik ilkiriko euskal idazleak ez dira gutti izan, nahiz arras ezagunak ez dituzkegun. Naski egun baditugula izen hantua, Olasagarre olerkari gaztea barbarako, baina gaurkoan hona ekarriko ditugunak apur bat zaharragoak dira, eta urrin literarioa hain nabari ez badarrie ere, zer esanik badutelakoan gaude, eta horren frogatzeko ahaleginak bederen eginen ditugu. Arbizun 1932.eko otsailaren 9an sortu Felipe Araña Mendinueta fraide laterandarrak, arestian zer edo zer bazigun utzi euskaraz izkiriaturik. Nahiz 1959.ean apezte ostean, Argentinari buruz jo: «Ni apaiz eta profesore bezala Arjentinako iparrea bizi naiz», eta Montevideon ere bizi izan zen. Hainbat idazki laga ditu harat-hunatako izparringi ezberdinetan. Euskara batuari horrenbesteko higuina dion *Diario de Navarra* eguneroko eskuindarrak euskaldunekiko duen zorra zuritze-ko asmoz argitara eman bide duen «Napar izkuntza» orrialde zaharkitu bezain

eskasean oixtitan ageri zen Arañaren izkribu laburra, behiala *Principe de Viana* argitalpenaren euskarazko gehigarrian jada eman zuen beste baten antzera, bada, joan zen otsailaren zortzikoa «Fernando Urkia arbizuar hospetsuenari omenaldia Argentinan» izenburukoa agerrarazi baitzuen eta esan beste gehigarri hartan 1968.eko iraileko zenbakian «Arbizuar agurgarri bat» izenburukoa ere jaso zuen, zaharragoa izateagatik ere askozaz huts gutxiagorekin ilki zena, ene begikoz ordea gehiegi harritzekoa izan behar ez zuena -bigarren hori Txema Larreak apailatu *Nafarroako euskal idazleak II* bilduma ederrean berrargitaraturik badago-. Bietan Arbizuko semea ere genuen Fernando Urkia fraidekidea zuenaren berri eman zigun. Aitzitik bizitza ezpalak baino ez ziren, eta Urkiaren literatur langintzaz ia ezertxo ere ez zigun aipatu. Dagoeneko ezaguna dugun Alegria lakuntzarrak oparago zitzaigun *Gure ama* idazkian:

«Apaiza, Oñatin irakasle, idazti batzaldietan sari politikak irabazten oitua da Iruñan ala Donostian. Bere Ilargi betea antzerkiak irabazi zuen «Euskararen Adiskideak»-aren sari lenbizikoa. Euskalduna porrokatua baita, eta xelebria, Arbixuarra izan bear! Iruñako lagunarteak lankidenzat artu du».

Alabainan, hori guziaz urri dakigukeelakoan, bihoa berri andana maratzagoa. Arañaren lan gehiago *Principe de Viana* aldizkariaren euskarazko gehigarrian badira: «Mugerza gotzaia», 1969.eko azaro-abenduko zenbakian, Urrizakoa zatekeen Buenos Airesko gotzainaren nekrologikoa; «Agurra», 1970.eko otsailekoan, «Gure Osasunaren osasuna», 1971.eko uztail-abuztukoan; «Arbizu», 1972.eko otsailekoan, Arbizuko jendaki famatuen gainean; edo «»Apaiz baten ibillerak», 1972.eko maiatzekoan.

Fernando Urkia 1896.ean sortu zen Arbizuko Anttonekoan. Gazte zela anaiago laterandarren abaroan bildu zen, Altsasun lehenbizi, eta Oñatira geroxeago. Hantxe bukatu zituen ikasketak, apeztu, eta irakaskuntzan ere hasi. Euskaraz idazteari bertan ekin zion, gerratea iritsiri bitartean. Orduan ihes egiteko garaia heldu zitzaion, Frantzia aldeko Abaye de Beauchen eta Argentinako Salta izeneko herrian ere. Hartan etxeko nagusi aukeratu zuten, geroxeago probintzial eta azkeneko ordena osoko buru nagusi. Horren kariaz Erroman bizi izan zen denboraz, eta horregatik ere hartan zendu zitzaigun 1959.eko martxoaren 19an.

Izkiriatu zituenak ez ziren makalak izan. Saihets orotarik Euskalerrriarekiko maitasuna ageri zitzaion:

«Gizonak euskeldunengandik asko ikasi lezatekela egi aundia da. Gauza askotan, gai aintzagarri askotan beste guzaien aurretik gabilta euskeldunok. Gerez, geure berezko izakeraren bidez ala jaunaren lege berriak gure izate barren

barrean sartutako indarraren bidez ote dan, ez dakit; baña ezin ukatu dezake iñork ontasunbide guzietan besteak baño gorago gaudela».

Euskararekiko zuen kezka ere ez zitzaion atzendurik geratzen:

«Adiskide, euskera zer dan bai al dakizu? Ezetz nik uste, zure baitan euskal-tzaletasuna ta maitetasuna sortu ta geituerazteko su ta laguntza bila neregana zatozelako. Gure euskera zer dan bazeneki, etzenduke ori egingo noski. Euskera ludiko izketarik zakar, itxusi ta motelena balitz ere, gure begi-niniak baño mai-teago izan bear genduke, gurea dalako, gure izate puska bat dalako, bere zañe-tako odolaz lotsatzen danak lur gañean egotea ere ez baitu irabazten. Euskara zala dala diote batzuk. Ez noski, euskera beste izkuntza asko baño errazagoa da; inguratzen gaituzten eleak baño zalagoa ez beintzat. Bai, gizon nagien esamesak dira oiek, beren ama mingañaz bakarrik maite duten alperren aitzakiak».

Eta arbizuarra izanik, Arbizuko aipamena askotan darabil, agerian:

«Ez arritu bada Arbizun aberatsik ez dagola esaten badizut. An geienak egunean eguneko ogia janda bezala bizi dira, geroko diru apur bat ezin aurre-ratuz. Ez dakit nik errua nori bota, lurraren aultasunari ala bertako biztanleen gaitasun gutxiari»,

ala ezkutuan ere, bada Arbizukoa baita Sasarte izenekoaren azpian dagoen he-ria, edota hitz zerrendetan taigabe aipatzen den lekua.

Esan beharrik ez dago lan gehienak *Euskal Esnalea* aldizkarian agerrarazi zi-tuela. 1926.eko alekian «Nekazarien elkarganako laguntza» izenburukoa eman zuen, Arbizuko aztura baten azalgarri. Ber urteko zenbakian «Euskera aldez-ko esakun batzuk» nahiz «Mikel Trakets» izeneko ipuin ederra agertu zituen. 1928.eko agerpenean gai historikoak oratzeko saio bi argitaratu zituen: «Oñaz eta Ganboatarrak» eta «Beotibarko gudaketa». Horretan batez ere, Urkiaren zorroztasun jantzia igar daiteke:

«Barregarriak dira benetan norbaitzuen irudimen beroak gudaketa onetzaz asmatu dituzten eranskiñak».

Gai historikoak jorrazteko estreinako aldia ordea ez genuen honakoa, izan ere *Oñate* aldizkarian hiri horri buruko saioa egin baitzuen 1927.ean. Guzia-rekin sormen lanari ez zion muzin egin eta «Sasarteko agintariak» izenburuko ipuina ere agerrarazi zuen liburuki berean. 1929.eko emanaldian, hiztegi-gin-tzaren arloan interesgarri ziren hainbat plazaratu nahi izan zuen, «Gure neka-zarien tresna ta gañerako gauzen izenak» izenburuko saio luzangaren bitartez. Paremiologiakoak-edo litezkeenak ere agertu zituen, ber urteko «Armeniarren esakun batzuk» eta 1931.eko «Esakunak: jantzi-geikeria» izenburukoez. Edo-zelan ere, artikuluez lekot, bi izan ziren argitara eman zituen lan soilak, eta

biak ere antzertilanak genituen. 1928.ean *Illargi bete* izenburuko bi ekitaldidun misio-antzertiak Euskeraren Adiskideek eratutako antzerki batzaldian gotzain jaunaren saria bere egin zuen, eta Zornotzako jaungoikozaleen irarkolan inprimarazi zuen. Testu horren eresigilea Pantzisko Madina izan zen, alabainan, ezin da ahantzi, Urkia bera musikagilea eta organo-jolea ere bazela. Hortik idazki musikatua egitearen arrazoa agian. Halaz ere argitara emandako paperean ez da partituraren arrastorik ere atzematen. Egintza Iruñetik hurbil dagoen Ezkabarteko Orikainen gertatzen da, Onesto doneak Iruñea kristautu zuen garaian. Pertsonaien artean 15 urteko San Fermin agertzen zaigu, eta Orikaingo jendakien izenak ezin adierazgarriagoak dituzkegu: Erro, Osteritz, Olabe, Lazkoz, Ureta, Zabaltza, Akerreta, Zildo:

«Gizon guzti-guztiak
Etorri dantzara
Gau atsegingarria
Ementxe egitera.

Ez bedi gaur gizonik
Etxean gelditu
Datorren illa ongi
Igaro nai badu.

Emazteak etxeko
Lanak ein bitzate
Zakurrak artaldea
Zaindu bigar arte.

Gizon denok ordea
Batzarrera eldu
Ta gure illargiari
Otoitzak zuzendu».

Azkenik, *Aralar mendian* izenburuko antzezlanaren ondoren, 1934.eko epailaren *Antzerti* hilerokoan 27. zenbaki bezala Tolosako Lopez Mendizabalek karrikara atera zuena. Ekitaldi bakoitzeko lana dugu, gizona ezkoentzat bakarrik, eta Nafarroa eta Gipuzkoa arteko mugalerroan garatzen da, Errealengoko txabola batean:

«Zorion billa gizonak dabilta munduan
Iñun ezin billaturik emen lur gañean
Baldin pake izpirik bada ludi zabalean
Ementxe arkituko da artzaien tartean».

Juan Goikoetxea Zabalo ez zen Arbizukoa eta ez zigun gauza handirik utzi izkiriaturik, halaz ere, Arbizuko erretore jardun zuen berrogei urtetan gerizpe mardo eskaini zion hainbati, eta euskaltzaleen topaleku hauta bilakatu zen bere abaroa. Larraun aldeko Lezaetako semea, 1905.eko otsailaren 19an Uhalde etxean sortua dugu. Gasteizko apezgaitegian ikasi ostean, 1928.ean apeztu zen, eta bost urtez Ultzamako Illarregin aritu zen. 1933.ean Arbizura joko zuen, eta bertan izan zen Donostian 1973.eko ekainaren 30ean itzali zen arteraino. *Principe de Viana* aldizkariak zuen euskarazko gehigarrian noizean behin plazaratzen zituen Arbizuko berriak. Aldizkari horretatik ere omenaldi beroa eskaini zitzaion, eta bere omenez Arbizun 1973.eko urriaren 28an egin zen mezan Zarrakaztelukoa zen Garde jauna bera bildutakoei euskaraz zuzendu zitzaien.

Izenak salatzen duen bezala, frai Felix Arbizuko bazen herri honetakoa, Lutxi etxekoa hain zuzen ere. Mende izenez Jesus Flores Goñi genuen hau 1904.ean sortu zen. Kaputxino sartu (1921.8.14), eta apeztearekin batera (1929.3.29), Txina aldeko Pingliang lurraldera bidali zuten misiolari, Kansuko misiotegira hain zuzen. Hantxe zendu zen 1936.eko maiatzaren 24an tifus gaitzak jota. Fraide buruñurdunek zeramaten *Zeruko argia* argitalpenean idatzi zituen fitean bite hango kronikak. Aipatu Felipe Araña herrikideak 1972.ean argitaratu batean ez zuen zalantzarik:

«Urte asko dira urrutiko Txinara misiolari bezala joan eta han santu bat bezala il zela».

Horrenbeste hastandu ez zen beste kaputxinotarraren ekarpena doi interesgarriagoa dukegu gurean, Arbizukoa ez bazen ere. Aureli Etxarri Aranazko zenaren gainean ari gara naski, mendean Santiago Ezkerra Beltza edota literaturan Lizarrusti zenaz hots. Horrek, *Principe de Viana* aldizkarian agertu zituen artikuluxka ugarietz gain, hiru idazki utzi zizkigun, llaburrak eta eliz kontuez baina, beste modu batean ezin zitekeenez. Fraide horren lehenbiziko lana *Migel goiangeruari bedratzi-urrena* dugu, Iruñeko kaputxinotarren moldiztegietatik eta 1956.ean ilki zena. Ez da harritzekoa sakandar batek horrelako saltsatan sartzea:

«Ez du neiko euskaldunak iru edo lau aldiz Aralar mendira igotzea, ez. Geiago eskatzen dio bere biotzak. Bere etxean izan nai du, orregatik san Mikel Aralar menditik urtero jexten da bere semeak ikustatzera, oiekin bizitzera, badijoa erriz erri ta erri bakoitza barna, eta nola berotzen da euskaldunaren biotza san Mikel beren artean ikustean».

Alabaina dena ez da horren aisa eta:

«Nola bizi ala il, dio esaera zarrak. Askok emen bizitza lasai bat izan, ta gero betiko zoriona izan nai dute. Gaiztoak ba gera, lasai bizi bagera, san Mikelen suzko ezpata zorrotza guregan eroriko da erabat galtzeko».

Eta horrelakoekin batera badira hau bezalako beste batzuk ere:

«Maiz eskatzen da aingeruak maitatzea. Baño guk euskaldunok beste aingeruak baño geiago aingeru bat maite bear degu: san Mikel aingerua. Gure zaindaria delakoz. Esan dezakegu san Mikel ta Euskalerrria bat dirala».

Edozein modutan ere, aleki hori urri geratu zatekeelakoan edo, ber argitara eman zuen, beste lan zabalago baten barruan, *Bederatzi urren bearrezkoenak eta eliz otoitza batzuk* izenburukoaren barruan alegia, Zarauzko Itxaropenan 1958. ean ageri zena. Aurrekoan bi baztandar izan zituen zentsore, Franzisko Arizkungo ordenakidea eta Blas Fagoaga erratzuar ezaguna, ez edonolanahikoak beraz. Honetan ordea, Dorraoko Fidelek lagundu zion Arizkungoari zeregin berebean:

«Liburu onen zergatia?: Askotan entzun oi diet errietan apaizei: ez degu inun euskerazko bederatzi urrenak dakarzkien liburu bat ere arkitzen. Eta bateonbat sakabanaturik arkitzen bada, euskera itsusian egiña dago. Ainbeste aldiz entzun ditut itz auek, alako egun batean lanari lotu nintzala. Negargarria da, alegia, Euskalerrriko elizetan euskerazko bederatzi urrenik ez dalakoz erderaz egitera bearturik egotea».

Edozelan, horren temati eskatzen zutenen artean ez liteke Dorraoko erre-torea. *Principe de Viana* aldizkariak zuen euskal gehigarriaren 63. zenbakian, 1971.eko maiatzekoan hots, Anko Sendoa ezizenaren azpian zegoenak argitara eman zuen «Eliza eta euskara» artikuluan elizaren jarrera euskararekiko saminko deitoratzen zuen, eta adibide batzuk ematearren, Dorraokoa zekarren:

«Ergoieneko Dorraun, denek euskaldun arrontak, eta elizan erderaz; gainerat altaboz batzuk herrian barrena paratuz, jendea erdaldunduaz, eta erotuaz, obeki kristau dadin, nonbait».

Erantzuna ez zen berehala etorri, pentsatu behar bide zuen iharduki aurretik, eta, ber urteko hondar hilabeteetan izan genuen Dorraoko apeza zenak

igorria irakurgai «Anko-sendoari erantzun idekia Beriain petik» artikulua argitara eman zuenean:

«Ez zaitut ezagutzen, nere ustean: ez dakit nor zeran eta zein zeran, estaltzen dezu zure egiatzko izena izen-ordezkoarekin, baño zure mayatzako idatzian naikoa agertzeraz ematen dezu zerorrek, ezpore edo kotxu (erderaz *criticón*) sumindu bat zerala. Ez dut batere ongi artu idazkai orretan esaten dezuna. Díozu Ergoieneko Dorraun denak euskaldun arrontak eta elizan erderaz. Bai, egia da, baño badut nere arrazoya zuri inporta ez dakizuna jakitea. Ez du batere kalterik egin eta ez du egiten ere euskarari elizan erderaz egiteak, bestela ez ziran denak euskaldun arrontak izango».

Noski Anko-sendoa ez zela erantzuten kezkatu ere egin:

«Dorrauko jendeketz, nere benetakoko goresmenik beroenak, bertako elizaren joeragatik ere, euskaldun izaten irauten dutelakotz».

Etxarri Aranazko Aurelirengana itzuliz, esan behar da hirugarren idazki bat plazaratu zuela oraino, *Meza saildua* izenburukoa, Iruñeko Aranburu argitaletxean 1958.ean. Zentsorea ere ez zen edonor, Murietako Felipe hain zuzen. Horretaz iruzkin llaburra egin zion Artetxek ber urteko *Egan* aldizkarian:

«Gure elizetako utsune negargarri ori betetzeko, aita Aurelio Etxarri-Aranazkuak liburutxo polit eta oso merke bat atera du oraintxe. Bi pezeta baño merkeago saltzen da; pezta bat eta amasei sosetan (...) Baztango euskara xamurrean eskribitua dago».

Eliza kontuetan ez dakigu zenbaterainoko zuzen zihonetz gure on Jose Artetxe, baina euskalkiari dagokionez, guziz oker zebilela baderitzogu, izan ere, erran bat edo beste esateak ez baitu euskara baztanarazten.

76. Nafarroako eguraldiaren historiarako datuak: Tuteran (1643-1971)

1997.12.26, 1998.1.2

Ez da jaio nor Tuteran-Ebro bikotea banan daitekeela esatera ausartu, ausartzen, ez eta ausartuko denik. Pasa den abenduaren 16an, atzeneko urtetan eguberriei agurra emateko ohitura bihurtzen ari zaigun legez, elurra egin zigun, berriz ere, Erriberan. Ez zen motela gero, baina 17rako jada, teilatueta bakarrik geratzen zen arrasto zuri hori desagertua zen, urrutian, Olibetemen-diko barde mugetara begirada luzean, narrast eta lainoen artean, ikusten ziren antzigar ilara zuriak ez baziren behintzat. Baina Tuteran, elurrak, hormak eta neurri gabeko euri-jasak ez zaizkigu arrotz. Mendialdekoak ere berri ez ditugun legez, bada, Tafallatik goiti heze doakienean, Ebroren altueran aisa atzematen baitugu, egungoan ez hain larri, baina betiereko aztoramendu artegaz.

Patziku orrialde laguna aspaldian ibilia da horrelako berriren xerka. Ollararen jazotakoen eske etorri zitzaigunean, ezin izan nuen ezertxo ere pasatu, eta telefonoz bakarrik, halako batean, liburutegiko aleki zaharkitu batean Pitillasen-gaizki oroitzen ez banaiz-, botatuko txingorraren berri eman ahal izan nion herabeki. Berandu baina, honako Tuterako zerrendatxoa interesekoa lekiokelakoan nago. Deskargutzat balio bekit bederen.

Has dezagun, bada, ibilaldi zoro hau 1643.eko otsailaren 18an; egun hartan Ebro uhaldeak gainezka egin zuen unduski: zubiko bigarren, hirugarren eta laugarren arkuak erabat estaltzerainoko. 1645.eko abenduaren 28an, berriz, izotza dugu jaun eta jabe, olibondo guziak abarrikatu zituen. 1647.eko izozteek ordea, bizirik geratu ziren olibondo apurrak erabatez kalitu zituzten. 1660.eko uztailaren 21ean, arratsaldeko bostetan izan zen lurrikara genuke urte hartako aipagarriena.

1688.ean, Monkaio menditik Ebrora buruz, Tuteran barrena igarotzen den Keiles erreka gainezka egin zuen teiu: plazako arku bat botatzeaz gainera, hainbat kalte eragin zituen udaletxean eta Jose Ezkerrarenean. 1694.eko urtarrilaren 11n egin zuen hotzak Ebro hormatuta utzi zigun zenbait egunetan. 1695.eko urtarrilaren 23, 24 eta 25ean elurteak majo izan ziren, eta otsailaren 3 eta 9an, aldiz, hotza, ozen eta garratza, bafada ziztrinekoa: Kardeteko, Balpentina, eta Baratzenagusiko olibondoak inarrotea ez ezik, abondo kabale eta jendaki ere hil zuen. Abenduaren 28an Ebro izoztuta agertu zen harzara. Hurrengo aldia 1709.ean izan zen. Urte horretan ere Keiles bere bidetik atera zen, eta dezente hildako eragin zituen.

1755.ekoa zalapartatsua joan zitzaigun zinez. Urtarrilaren 6a hain izan zen hotza ezen Ebro hormatu baitzen, baina, tamalez, ez osoz. Zubiko begi bakarretik igarotzen zen ura, eta karroinez sortutako presa zela eta, ura alorretan sartzen hasi zen. Baratzetakoa izorratu baino lehen, zubi azpiko hormak mailuekin puskatzera joan behar izan zen ura pasa zedin. Azaroaren 1ean berriz, lurrikara ikaragarria gertatu zen goizeko 10:30ean. Eliza nagusian meza ospatzen ari zirenak, elizkizunak bertan behera utzirik, arrapaladan atera ziren elizatik gloskan, zauritu eta hildako gehiago gertatuz, lurrikarak berak eragin zitzakeenak baino. Fede kontua, bistan dena.

1829.ean egin zuen hotz handia zela eta, Ebroren ertz batetik bestera aisa pasa zitekeen oinez. «Izotzaren urtea» zeritzon luzaro. 1834.eko abenduaren 28tik, berriz, Ebrok 15 egun iraun zuen izozturik. 1887.ekoa ere ez zen samurra izan, -14°C egin zuen, eta olibondodi guzti-guztiak pikutara: 10 500 robada.

1871.ean gertatu zen uholdea ere ez zen makala izan, eta hiru lan idatzi sortzeko aitzakia izan genuen: Luis Zapataren *Río Queiles: rápida ojeada sobre la inundación acaecida el 29-V-1871, por el ingeniero industrial Luis Zapata* -Tuteran, Herrerías kaleko Domingo Castillarenean, 1871.ean-, Domingo Mirandaren *Reseña de la inundación de Tudela ocasionada por el río Queiles* -Zaragozan, Vicente Andrés baitan, 1871.ean-, eta egile ezagunik gabeko *Reseña de la horrible y desastrosa inundación habida en Tudela con motivo de la avenida del Queiles* -Tuteran, aipatu Domingo Castillaren etxean, 1871.ean ere-.

Pasa den XIX. mendearen bukaerako otsailaren 13an Ebrok gainezka egin zuen, eta Tuterako karrketan sartu zen beste behin ere. Zubi erromatarraren azpian igarotzerakoan, ohikoaz gaineko lau metro eta erdiko altuera zeramaten urek. Berdin gertatu zen 1901.eko otsailaren 4an. Horri nola edo hala ekiditeko, Ebro desbideratzeko lanak urriaren 24an hasi ziren. Haatik, 1902.ekoa urte beltza agitu zen. Otsailaren 7an Ebroko urak hiriko karrketan sartu ziren berriro. Maiatzaren 5ean lurrikara izan zen hirian, eta hilabete osoan zehar bota zuen jelak Erriberako aihen guztiak suntsitu zituen bi urtetan gutxienez mahatsa ezin bilduz. Irailaren 7 eta 8an izan ziren euri-jasak zirela eta, alde zaharreko zenbait tokitan urak metatu eta metro batera iritsi ziren, zenbait etxe erorarazirik. Abenduaren 13an ere euri galantak izan ziren, Ebro bere bidetik jalgiazi zutenak, eta Mejanako baratze guztiak hondatu ziren.

1903.ekoa, nekez ezin barregarriagoa: urtarrilaren 26an biraoaren aurkako batza sortu zen, eta abuztuaren 31n, hiriko agintariak tren geltokira joan ziren erret sendiari ongi etorria ematera. Zein izanen zen horien aurpegia, trena ziztu bizian, gelditu gabe, pasatzen ikusterakoan. Urte hartan Ebrok berriz ere gainezka egin zuen bi alditan, maiatzaren 6an eta abenduaren 9an. 1904.eko

urtarrilaren 5ean Ebrok eragin uholdea ikaragarrikoa izan zen; alabaina, martxoan eta apirilean egin zuen lehortea ere ez zen nolana hikoia izan. Martxoaren 4an, euria eskatzeko Santa Anari errogatibak egiten ari zitzaizkionean, Santa Anako kaperako sabaiko lanpara erori eta Elvira Diaz hil zuen. Beste euri mota bat zatekeen tuterarrek behar zutena, baina...

1904.ekoa bero joan zen, 200 gazte bildu zuen astolasterrak epeldurik, baina 1905.eko urtarrila ezin hotzago etorri, zero azpitiko zazpi gradurekin. Maiatzaren 7an Ebro atera zen. Ekainaren 12an desbideraketa lanak bukatuta zeuden, baina orduan harria izan zen jaso gonbidatua, izan ere, abuztuaren 19an bota zuen kazkabarrak Moskerako baratzea erabat txikitu baitzuen.

1906.eko otsailaren 7an Ebrok gainezka egin zuen berriz. Baita azaroaren 17an ere, Fontellasko Bokalen 5'75 metrotako altuera neurtu ahal izan zenean. Abenduaren 16an ere bai. Orduz geroz zer edo zer jabaldu zen, soilik 1908.eko abenduaren 30ean eta 1910.eko otsailaren 6an atera baitzen.

1911.eko abuztuaren 11n euri eta haize zirimolak dena txikitu zuen. 1914.eko aste santuan, apirilaren 12an, aingeruaren jaitsiera suspenditu behar izan zen, urtetan gertatzen ez zena, goian-behean zekarren euria hain zenez lodia. Ber urteko azaroaren 21ean, ordea, hamalau orduz aritu zuen elurra mara-mara tai gabe.

1915.eko apirilaren 12an Ebro hiriko karriketetan barrena sartu zen, baita 1916.eko otsailaren 19an ere. 1917.eko eguberriak berriz hotzak izan ziren, -12°C: olibondoak izorratu.

1920.eko urtarrilaren 2an Ebro atera zen berriz, eta urriaren 20an bota zuen ekaitzak Santa Anako kaperaren kupula hondatu zuen. 1924.eko otsailaren 20an elurte ikaragarria bota zuen.

1926.eko abenduaren 6ko uholdea xahugarria izan zen: 50 000 pezetakoa izan zen Mejanan eragindako kalteen balioa. 1927.eko urtarrilaren 10ean ere Ebro bereetatik atera zen. 1930.eko martxoaren 13an eta 14an berriz ere gora egin zuen. Orduan Tutera inkomunikaturik geratu zen, bai trenez, bai errepi-dez. Hil beraren 30ean bigarren ez atera zen, baita apirilaren 20an, maiatzaren 6an eta azaroaren 17an ere. Nafarroako Aldundiak 70 000 pezetako kreditua eman zuen dikeak konpontzeko, berandu baina. 1933.eko martxoaren 12an gainezka egin zuen harzara. 1935.eko urtarrilaren 30ean -9°C egin zuen, eta martxoaren 13an uholdea berriz. 1936.eko apirilaren 24ko uholdeak kalte handiak egin zituen baratze guzietan. 1937.eko urriaren 28koak Tutera berriz ere inkomunikaturik utzi zuen -Bokalen 6'10 metro-. 1838.eko urtarrilaren 8, 1939.eko urtarrilaren 1, 8 eta 15, eta 1940.eko otsailaren 25ean berriz ere atera zen. Azken horretan errepedea moztuta geratu zen.

1948.eko abuztuaren 16an harria bota zuen. Hain izan zen latza, ezen zezenketa bat antolatu baitzen Iruñean kaltetuentzako dirua ateratzeko. Luis Miguel Dominguín eta Julian Marin toreatzaileek jardun zuten dohainik, urriaren 12an. Urte batzuk beranduxeago, Tuterako Isidro Marin toreatzailea ere, oinez atera zen Valentziarantz, uholdeetan kaltetutakoen alde. Mendeko uholderik larriena 1952.eko 3an izan zen. Aldundiak 200 000 pezeta eman zuen. 1956.eko maiatzaren 26koa ikusgarria oso bazen ere -Castejonen 7 metrotako altuera zuen ibaiak- ez zen hain larria gertatu, Tuterarako ura alorretan geratua baitzen. Urte hori ere arras hotza izan zen, eta otsailaren 2an -9°C egin zuen. 1960.eko abenduaren 31 eta 1961.eko urtarrilaren 1 eta 2an Ebroko urak berriz ere hiriko karraketan sartu ziren paseoa. 1966.eko azaroaren 7an botatako erauntsiak Ebro aterarazi zuen, abenduaren 31n bezala. 1968.eko urtarrilaren 2an, 3an eta 4an Ebroko altuera larriki igo zen, baina dike berriei esker ez zen atera. 1970.eko abenduan -10°C egin zuen, eta 1971.eko urtarrilaren 2 eta 3an -11°C. Horixe izan zen Ebro, Tuteratik igarotzerakoan, hormatu zen azken aldia.

77. Itxaropenak oro errekarara joan ez zireneko

1998.5.29

Ez da luze igaro Andolin Eguzkitza bizkaitarrak, beste behin Nafarroaren zirrarak aztiturik, gurea aitzakia izkiriagai harturik, lan berria eskaini digunetik: *Herioaren itzalpeetan* lanari buruz ari naiz naski. Txalapartakoek oso gai nafartzat zutela, aurkezpena Iruñean egin zuten, eta hantxe izan zuen gure unibertsitate irakasle finduak Nafarroan hain zoragarri zotukatzeko lain ikusi duena azaltzeko aukera. Niketz bederen, eleberria den arren, historian oinarria duen neurrian, aipamen habororen egarriz geratua nintzen behin irakurrita, eta literatura aldetik ezer gutxi eskainiagatik, Claveria Arzak arestikoan ere moldetik ilkiarazi Nafarroako jeltzaleen atzen/lehenbiziko mendeurrenezko bi liburuki-duna hostokatu izan dut. Guztiarekin, badira hainbat izen, gertaera zein toki, nahikoa oharkabean pasatu ohi direnak, bi horietan ere. Izan ere, giza gauzak bitartasunean sailkatzeko ohitura undatsa izaten ohi baitugu, gurean ere, eta beltza/zuria, bai/ez, ona/txarra, gu/haiek eta gisa horretako pare nazkanteekin batera, jeltzale/espainiarzale proposatu ohi zaigu, usuenetan, hagitzez korapilatsuagoa izan deino.

Nahiz Julia Fernandez Zabaleta bilduma jeltzale gehienetan aipatu egiten den, ez ohi da bere alor literarioa kontutan edukitzen. Jimeno Juriok fagot-jole famatuaren alabatzat aurkeztu zigun. Politika mailan, bederen, izen sonatua zen berea. Emakume Abertzale Batza 1922.ean sortu zen Bilbon, eta handik gutxira, Primo de Riveraren agintaldian, debekatua izan bazen ere, 1931.ean berregin zitzaigun, Bizkaitik hasita. Nafarroako lehenbiziko taldea Iruñean eratu zen 1931.eko urriaren 29an, eta Lizarrakoa azaroaren 14an. Orduetik talde ugari agertuko ziren Nafarroa osoan zehar 1932. urtean: Agoitzen -urtarrilaren 29an-, Leitzan -urtarrilaren 31n-, Tafallan -otsailaren 24an-, Martzillan -apirilaren 7an-, Goizuetan -apirilaren 30ean-, Arbizun -maiatzaren 16an-, Obanosen -ekainaren 5ean-, Auritzen -uztailaren 27an-, Zangotzan -abuztuaren 18an-, Iturenen -urriaren 20an-, Atarrabian -urriaren 21ean- eta ezagutzen ez diren datetan Elizondon, Irurtzunen eta Sesman ere bai. Gerratea hasi zenean, bazeuden 30 talde gehiago sortze bideetan, eta 2000tik gorako bazkide. Iruñeko taldearen lehenbiziko lehendakaria Fernandez Zabaleta izan zen, 1934.ean egin bigarren bilkuretan idazkari jarraitu zuela.

Ezaguna egin zen hizlari bezala, eta aunitzetan arizan zen jeltzaleen aldeko botoa eskatzen herrietan eginiko mitinetan. Manuel Irujorekin batera Tafallan

izan zen 1932.eko abenduaren 8an, eta 1933.eko hauteskundeetarako mitinak Olaguen eta Ostizen -azaroaren 12an-, eta Urrotz eta Monrealen -azaroaren 13an- eman zituen, Jose Agerre euskaltzainarekin batera. Julia iruindarra ez zen euskalduna sortzez, baina zalu euskaldunduko zen. Blas Alegria lakuntzarrak bere *Gure ama*-n honela jaso zigun haren aipamena:

«Juli Fernandez anderetxua: bein baño geiagotan itzaldi sendoak egin ditu euskeraz. Aietako bat argitaratu du Euskalerrriaren Alde aldistingiak, eta beste bat, euskara ikasten asi zanetik urte betean esana, bigarren euskalegunetako itzaldiak, Bermeon».

Hitzaldi horren gaia emakumeen etorkizuna genuen, eta 1926.ean argitara eman zuten.

Maria Paz Zigandak, ordea, ez zuen euskara heldutakoan ikasi, aitatxi-amatxiekkin baizik, baita etxeko otseinekin ere, nahiz Mercaderes karrikan jaio eta bizi. Maria Pazen sendia, ordea, ez zen egoera politikoarekin deseroso zeudekeenetakoa, eta anaia, Alejandro, Iruñeko alkatea izan zen Primo de Riveraren agintaldian. Haatik, Maria Paz euskaratik hurbilean izan zen beti, eta Zuhaitzaren eta Izadiaren Lagunen kidea izateaz aparte, Anibal Urmenetak sortutako taldea, bestalde, Campionek eratu Euskeraren Adiskideen taldekidea ere bagenuen.

Migel Jabier Urmeneta Iruñeko bihotzean jaio zen, Sarasate pasealekuaren parean, 1915.eko azaroaren 26an. 12 anai-arrebetan nagusia, aita Ataulfo Urmeneta Zidriain zuen, Kubako gerratean Carlos V.a itsasontzian egona, matematika irakaslea eta udal aurrezki kutxako zuzendaria izan zena, baita *La voz de Navarra* egunkariaren kolaboratzailea ere -bera izan zen 1931.eko apirilaren 14an errepublikari ongi etorria eman ziona-. Ama, Maria Ajarnaute Arratibel zuen. Gure Migel Jabierrek arte eta lanbideen eskolan ikasi zuen -akaso Manezaundi irakasle zukeen-, eta 16 urterekin jada *Amaiur* aldizkarian kolaboratu zuen Gaur ezizenez Euzkadiko istorio grafiko batekin. Ingelesa Kanpaia karrikako Stella Hatwayekin ikasi zuen, eta euskara Higinio Jauregi Idiazabalgo apezarekin. Alabaina, gerratearekin, erreketek sartzea erabakirik, zer gerta ere, Somosierrara joan zen, eta hantxe hasiko zuen karrera militar naroa: 1941. ean Dibisio Urdinean Errusian aritu zen, baita geroxeago Kansasko Fort Leavenworthen ikasi ere. Haatik, 1954.ean aurrezki kutxako zuzendari sartu zen, aitaren ordeko. 1957.ean Kontxita Otsoa Goienetxerekin ezkondu, eta handik gutxira, Iruñeko alkatea izan zen Xabier Pueyoren ostean. Bere ibilaldi politikoa hasi baizik ez zen egin: 1964.ean foru diputatua izan zen Felix Uharte Goñi karlistarekin. Orduan, euskararena ahanztoratu ez zitzaiola garbi utzirik, *Principe*

de Viana aldizkariaren euskarazko gehigarria, «Orreaga», Amadeo Marko Ilin-txetarekin sortarazi zuen 1966.eko otsailean, handik gutxira Euskaltzaindiak laguntzaile izendatu zuela, ber urteko azaroaren 25ean hain zuzen. 1977.ean Xalbador saria sortuko zuen, hil aurretik oraino, euskara ikasle zirauela.

78. Olloko festetan, ezkila-jotze aztigarria dorrean

1998.9.4

Gaurkoan dute hasmenta Santo Tomasekoek Ollon. Ez beza pentsa irakurleak hiri gotorretan eguerdi aldean goraki botatzen den txupinazo jendetsuarekin, ezpada lanaldia oraino amaitzeke, herriko sarreran zelatari eguna eman duen jubilatuko aspertuxeren batek aupaturiko altxafero bakartiarekin. Haatik, horrakoa ere errekarra doan artea da, egun taularekin ez bada, inor ausartzen ez baita botatzera; zaharrek, ordea, atzamarretan suziria dantzaziz, aurpegi gartzaz, gainez ematen dute zerura buruz, behin baino gehiagotan firrinda batean gora joaniko zotz luzangari hatzen bat itsatsita eramanda ere.

Olloko jai-egitaraua ere ez da hiri historikoetan inprimatu ohi denaren pareko, DIN A4 tolestu batek soberaki betetzen baitu iragarri beharrekoa, baina gutxienez, propagandazko orri-itsaso okaztagarri batean itotzeko ez dago arriskurik, orduz orduko ekintzak kausitzea baino, buruz ikastea erosoago izanik, hain da laburra eta eskasa. Alta, ez dezala inork uste urte biz batean ospatzeko adina alrrau daudela Ollon, atsegin baitago ollarigoekin -ollarigo ollotarren gentilizio zaharra duzu! Olloko festak arraheinki prestatzen dira, maitasun handiz, eta askotzak ez badira aukeran, herritik bakanetan azaltzen ez direnak agurtzeko abagune badira behinik behin.

Beti ere ostiral honetan izan dute abiadagune, abenduaren 21etik irailaren lehenbiziko igandera trukatu zirenetik bederen, eta abuztuarekin batera festagarria ahitu dela irrati-telebistan temati errepikatzen badute ere, ez da txikia pairatu beharreko konpetentzia: Larrasoaña, Garralda edota gertuagoko Bidaurreta kasurako. Horregatik agian, gutxi dira bisitariak Ollon, urriak, kontraturiko musikariak eta ezertxo gehiago. Alabaina, jende eskasiak ez dizkie festak abarrikatzen ollarigoei, ausaz, artamendagarriago bilakatzen ditu. Horren adibide ostiraleko beila, gaurkoa alegia.

Aipatu suziri isolatuaren ostean, isilune lasaiak darrai nagusi herri osoan afalordua iritsi bitartean. Ordua behin gainditurik, baita afari-legea eginik ere, hauspolariaren inguruan Argiñarenekoan bildu dozena pareak afalondoari ekiten dio, ohi denez, eseririk lehenbizi, zutik gero, azkenean makur, harik eta goizeko ordu txikietan, begiak patxaran-laranjek lausoturik eta eztarriak mexikar kantek marrantaturik izanagatik ere, elizarantz abiatzeko une desiratua izan arte. Ez da erraza dorre barruan kiribiltzen den eskailera lorrindu batetik trunbilka igotzea, areago pattarrak eltzetu hordientzat, halaz guztiz, nik dakidala, sekularenean ez da deus gertatu erorikoetan, ezpada azalean harramazkak

eta buruan bonboiloren bat. Dorre-gainera igota zerbait magikoa agitzen da, eta mozkorraldiaren lurrina haizatuz, nor bedera bere tokian jarriz, sorginketari ematen zaio hasiera.

Beste bazterretan igarotze erritoak zezenen inguruan mantentzen direino, Ollon ezkilek dute protagonismoa. Dorrean goian zaudelarik eta ezkilen soinua hasten denean, zerbait berezia gertatzen da, azalgaitza; lau pertsonak txikiari eragiten dioten bitartean, beste batek geldirik geratzen den ezkila handiaren mihia dantzazten du. Ollaran osoan barrena kanpai-hotsak erein egiten dira, ordubete inguru irauten duen ezkila-jotze berantiar -edo goiztiar- honetan. Ezkila-mihi altaratuak isilaraziz gero, errealitatera bueltatu beharra dago, eta, txokolatea bizkotxekin hartuta, goatzera baizik ez da geratzen. Oraindik hiru egun falta dira festak bukatzeko, baina niketz, amaitutzat bailiran, hain da asegarri eta gaindiezin dorre gainean emaniko bulta aztigarria.

Olloko dorrea 1612-1620 bitartean eraiki zen, eta ordukoak dira hegoalderantz irekitako bi arkuen pean esekirik dauden bi ezkilak. Handiak 75 arroa eta 24 librako pisua du, eta berriz ere galdatu behar izan zen 1798.ean, ertzean honako izkribua daramala: «*Siendo Abad Don Manuel de Lozen-Santo Tomas Apostol rogado por nosotros-Año 1798-Ecce vocem domini vincit leo de tribu juda radix David-Bernardo de Mendoza me hizo*». 52 arroako ezkila txikerra, berriz, 1790.ean arra-galdatu zen: «*Santa Barbara ora pro nobis-Año 1790-Ave maria gratia plena-En esta del angel en alto serena*». Bi ezkila horiez gainera, ordea, erlojuak dituen beste bi kanpai txikiago aipatu behar dira, 1776.ekoak direnak, orozbat, bazter batean lagata ere, Elondrain eta Zuluberri arteaniko Donamariako ermitatik behiala ekarri zen ezkila ahantziarekin batera.

79. Mutxikoen eguna dela eta... (1888-1996)

1998.10.16

Goizeko zortziak ziren Ebroko zubian gaindi, nagiak azkarki astinduaz, Iruñeko bidean Lapurdiri buruz abiatu ginenean. Logale izanagatik ere beste behin abiatu ginen, ohi bezala, jauzizale amorratuen biltokia den Arrangoitzera. Pierre Betelu jaunak largaturiko ondarea bere hilobiaren pean zintzoki arralortzeko tenorea dugu larrazkenero, alabaina, festa giroan ere gazi-geza mikatz zaiguke Mendebaldetik usaian bezala usuegi iragaiten den ez-axola futitzailea, areago aurtengoan, hauteskunde kanpainan direla eta. Iazkoan, Aragoi aldeko Gailurtarrek haien makila-dantza sugartsuekin unduski uztatu arrakasta ezin izan dute Audio aldeko Aretakoek erdietsi, eta banago, azken uneko gorabeherak baziren ere, beste edozein talde arabarrek, Indarra bat barne esaterako, nekez lortu zukeen Bostirikoek apaltasun handiz bereganatu zuten arreta, areago, Kutxutxe eta Riklano ziganteak eraman ez zituztela; gora handiko usteontzi nasaiegi gurean, ausaz.

Hegoaldean jauziekin topo egin ahal izan genuen estreinakoz Sagasetaren lanei esker. Iturengo Migel Angel Sagaseta Aristegiren bi lan goiztiarrak honakoak izan ziren, bai 1975.eko *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* aldizkarian argitara emaniko «*Estudio de los bailes de Valcarlos*», bai eta geroxeago ere, 1977.ean hain zuzen, liburu gisa ber editoreek agertu zioten *Danzas de Valcarlos*, tamalez, egun zeharo agortua dagoena eta bigarren edizioa sekularenan ere izanen ez duguna, iduri denez. Sagasetaren eskutik hainbat egile zaharragoen izenak ezagutu genituen. Guztietan, baina, argitara eman zuen bakarra Pierre Laharrage izan zen, *Dantza jauzi osoak beren segidekin* izeneko bilduma Bordeleko F. Pechen moldetegian 1900.ean ilkiarazi zuena. Laharrage musikaria izateaz gainera apezta genuen; Atarrabiarekin batera Euskal Herriko udalerrri txikiena den Lekuinen -Donejakueko bidean dagoen Bon-Loc edo Bono-Loco hartan, espresuki- 1829.ean jaioa, behin apezta, Zuberoko Sohütan eta Ithorrotzen, Nafarroako Mehainen, eta Angelun izan zen, azken horretan 1914.ean hil zela. XIX. mende erdialdetik jasoriko 21 soinuko bilduma dugu Laharragerena, 12 jauzi -Hegi, Ostalerts, Matelotta, Lapurtar-Motxak, Xoxuarenak...- eta 9 segida edo jauzi-buztan -Hatcha Pette, Zalhu Yuanes...- eskaintzen dizkiguna.

Alta, argitara eman ez izanagatik ere, jauziak jaso zituzten hainbat idazki izkiriatu egin ziren, Heletako Bautista Salaberrirena kasu baterako. Horrek, 1888.ean Libournen soldaduskan zela, hainbat jauziren urratsak paperera

eman zituen, baita bere garaian modakoak ziren hainbat bertso eta kanta ere. Larresoron irakasle zegoen Pierre-Neree Dassance uztariztarrari, berriz, egile ezezagun batek bere *Recueil des sauts ou branles basques par P.L. Instituteur* eskuizkribua eskaini zion 1898.eko urtarrilaren 28an. Hartan 13 jauzi eta 11 segida jasotzen dira, baita Dantza-luzia, Dantza-korda eta zenbait Maskarada-martxa eta Maskarada-dantza. Lan horrek omentzen zuenaren bilobak, Luis Dassance ezagunak ere alegia, «*Les sauts basques et les vieilles danses labourdines*» artikulua agertu zuen *Bulletin du Musée Basque*-n 1927.ean. Urte haietan, orobat, Florentin Vogel zenak jauzien gaineko hainbat lan agertu zituen, esate baterako «*Notes sur la danse dans la région de Saint-Palais*», *Bulletin du Musée Basque*-n eta 1927.ean ere azaldu zena; guztiarekin, Vogelek bereziki hainbat jauzien edizioa aitzineratu zituen: Mutxikuak, Hegi, Xarmantina... halaber, jauzi horien pianorako egokitzapenak egin zituen, zenbait liburutan eskaini zizkigunak, besteak beste, *Select-Album: 20 airs populaires et danses basques*, Donapaleun 1926.ean.

Jauzien musikari ospetsuenak Jean Ohegi eta Faustin Bentaberri lehengusuak izan ziren. Lehenengoa Donazaharreko Landaburuan jaio zen eta Baigorriin zendu 1956.ean; jauzi bilduma eder bat bazuen, tapaki gorriak zituen kaier erabil batean, egun, damuz, galdurik dagoena, eta hortaz, Iholdiarrak, Musukurrak, Irisartarrak, edota Landibartarrak bezalakoak galdurik dira. Bigarren musikaria Izpuran jaio zen 1869.eko abuztuaren 15ean, eta bertan zendu 1936.ean, eztarriko minbiziak jota; bera izan zen Bartzelonan 1929.ean antolatu Expo-rako Eskualdunak eta Sorginak antretatak prestatu zituena. Bi musikari horiek, arrabita- eta klarinete-joleak izan genituen, eta biak hartu ohi dira jauzien biziraupenean giltzarri ezinbestekotzat.

Jauzien ulerpenerako berriekin eginiko lanak Gaizka Barandiaranen «Luzaideko dantzak» artikulua berezia -*Dantzariak* aldizkaria, 52. zenbakia, 1995.eko uztailan-, eta Urbeltzen *Bailar el caos* lan bikainaren hainbat pasarte ditugu -Iruñea, Pamiela, 1996-. Edozein modutan ere, orain arte karrikaturiko lanik sendoena Jean-Michel Guilcherren *La tradition de danse en Béarn et Pays Basque français* genuke, dudarik gabe, Parisen 1984.ean agertu zena, 1962-1976 urte bitartean lekuan jasoriko datuen interpretazioarekin.

80. Arabako egunean

2000.4.28

Gaurkoan San Prudentzio deunaren eguna ospatzen dute gure auzoko arabarrek; dudarik gabe, Nafarroaren ostean zabaleran handiena den euskal lurralde horrek seietan ezezagunena segitzen du izaten, kontrakoa gertatzeko aunitz arrazoi badira ere; modu berean, arabar ezagunen zerrenda luzeska izanagatik, gutxisko dira arabarrak ez garenok ezagutzen ditugunak; bihoaz honetan bost izen makur horren artezten hasteko.

Andagoia konkistatzailea

Paskual Ibañez de Arka Koartango Andagoian sortu zen XV. mende bukaeran. Espainiako koroaren zerbitzura, 1514an Ameriketaratu zen Pedrarias Dávilarekin batera. Panama hiriko fundazioan izan zen 1519an, geroago ere Río de San Juan probintziako gobernadorea eta Panamako alkatea izan zela. Bera izan zen Peruren berri eman zuen lehena, eta Pizarroren aurkako borrokan Liman bertan zendu zen 1548ko irailaren 25ean. Karlos V.ak 1534an eginiko eskaerari erantzunez, *Carta del Adelantado Pascual de Andagoya sobre su partida de Panama y su prosecución de su viaje y reconocimiento hasta Cali* izenburuko lana izkiriatu zuen 1540an, geroagoko bere *Relación* ezagunaren aurrekaria izan zena, non besteren artean, bertakoen berri zehatza jaso zigun, egun ezin datu baliagarriagoak izanik antropologiaren ikuspuntutik.

Donnay musikari anarkista

Alfredo Donnay Gomez gasteiztarra 1894ko urtarrilaren 21ean jaio zen. Argentinan erloju konpontzaile bati laguntzen denbora laburra eman ostean 1914an berriz ere Gasteizera arribatu zen, bernizatzaile moduan lan egin zuela. Donnay izan zen CNT sindikatua Gasteizen ezartzeko lehenengo saioak egin zituenetakoa, eta gerra aurretiko urteetan sindikatu horrek Gasteizen zuen arduradunik garrantzizkoena izan zen, Bilboko *Solidaridad Obrera* astekariaren kolaboratzaile emankorra izanki. Alabaina Donnayren aurpegi ezagunena kanta konposatzailearena izan zen; 20.eko hamarkadan ihauterietako konpartsen musiketarako hitzak prestatzen zituen: «*Los Soñadores*», «*Los Gitanos Andaluces*», «*Los Marineros*», «*Los Incas*», «*Los Chinos*»... *Senderos de ilusión* izenburuko bilduman jaso zituenak. Gerra aurretiko bilduma horri beste liburuxka batzuk jarraiki zitzaizkion, *Canciones*, *Nuevas y viejas canciones alavesas*, *Mis canciones*,

Voces vascas, Voces y txistus, Arabatik, Arabako abestiak... osotara 200 kantatik gora, 1975eko «Urrezko Zeledon» saria eskuratzeko balio izan zizkiotenak. Alfredo Donnay 1986ko martxoaren batean zendu zen bere hirian.

Fournier kartagilea

Heraclio Fournier Gonzalez kartagile famatua Burgosen jaio zen 1849ko martxoaren 2an. Gasteizera 20 urterekin iritsi zen. Kartak egiteko lehenbiziko tailerra Olagibelek diseinatu plaza ederrean ezarri zuen, eta denbora laburrean Fournierren barajek berebiziko arrakasta uzta zuten. Fournierrek ekoizturiko kartek lehenbiziko saria jaso zuten Parisko 1879ko Nazioarteko Erakusketan. Fournier kartagilea Vichyn zendu zen 1916ko uztailearen 28an, baina egun, etxeetan orotan ditugun kartez gainera, Fournier Museo ezin ederragoa ikus daiteke Gasteizko Cuchilleria karrikan.

Ibañez de Etxabarri hika-mikazale porrokatua

Bernardo Ibañez de Etxabarri Etxeberria (Gasteiz, 1715-Madril, 1762) bi lanen egilea izan genuen. Alde batetik josulagunek Paraguan zuten inperioaren aurkako lana atera zioten Madrilen hil osteko 1770ean, *Reino jesuitico del Paraguay por siglo y medio negado y oculto hoy demostrado y descubierto*. Alabaina, hagitzez ere ezagunagoa gertatu zen Prudentzio deunaz 1754an Gasteizen bertan karrikaratu zuen liburua, *Vida de San Prudencio obispo de Tarazona, patrono principal e hijo de la provincia de Alava, precedido de un comentario crítico en que se procura ilustrar el tiempo en que floreció distinguiéndose de los otros Prudencios*. Ibañezen liburua guztiz polemikoa agitu zen, berri historikoei baino bere irudimenari kasu handiagoa egiten bide baitzion, eta agertu orduko erantzun mikatz ugari jaso zituen, esaterako Cárcamo, Landazuri, Floranes, Risco edota Prestamerorenak.

Placer poliglota

Eloy Placer Martinez de Lezea Ozaetan sortu zen 1914ko apirilaren 19an. Gerratea hasi zenean Valladolideko unibertsitatean ikasle bazebilen ere, Bizkaira iritsi zen eta gudari moduan borrokatuta, kartzelan sartu zuten luzaro, bertan euskaldundu zela. Gerraoste gogorrean Valentzian jardun zuen irakasle, baina baldintzen gogorrak Estatu Batuetara joanarazi zuten 1949an, berriz ere ez itzultzeko. 1949-1953 bitartean Texasko San Antonion izan zen espainiera irakasle, eta geroago baita honako eskoletan ere: Alamo, Kelly, Lackland, Louisiana, Siracusa, Kentucky eta Lafayette. Bere azken geltokia, gogokoen bezain

aipagarriena datekeena, Renoko Unibertsitatean izan zuen 1969az geroztik, non Euskal Ikasketen koordinatzaile egin zuten. Placer, hamaika hizkuntzen jabe izateaz ez ezik, Euskal Herrikoak Espainiako kulturean izan duen eragina aztertzen ere ahalegindu zen bereziki; bestalde, Pio Barojaren ekarpena guztiz gehien ikertu zuen gaia dugu, horren emaitza *Lo vasco en Pío Baroja* liburua izan zela -Buenos Aires, Ekin, 1968-.

81. NUPeko liburutegiaren altxorrez

2000.5.26

Berriki, NUPen liburutegiak fondo zaharrea dituen altxorrek izan ditugu mintzagai han-hemenka, tartean euskaraz idatzirik daudenak ere bai. Aunitz dira euskarazko liburu zaharren zaletuon gozagarrirako Nafarroako Unibertsitate Publikoak eskura jarri dizkigunak; alabaina, eta denetan bezala, liburu horien artean badira berebiziko interesa sortarazten dutenak.

Ez da zalantzarik, edo bederik ere, inork gutxik ez du zalantzan ezarriko, Larramendiren hiztegia eta apologiak guztiz garrantzizkoak direla euskal literaturaren historian, Andoaingo josulaguna izan baitzen Hegoaldean XVIII. mendean gerotik abiatu zen euskaraz eginiko literaturaren eragile eta bultzatzaile nagusia. Dena delarik ere, 1745eko hiztegi hirukoitzaren aleak ez dira zailak topatzen, jatorrizkoak ere, edizio faksimile berri eta garestia merkatuan oraino badagoela. Apologiak, edota gramatika ere, neurri apalago batean izanagatik, ez dira oso zailak aurkitzeko, direla Telletxea Idigorasen edizio zainduak, direla Hordagokoek edo LGEVkoek eginikoak. Larramendiren ordenakide eta jarraitzaile zuzenak izan ziren Mendibururen eta Kardaberaren lanak ere ez dira bereziki eskuragaitzak. Liburu azoka askotan orobat liburu-denda ugariaren apalategirik zokoratuenetan badautza oraino salgai Patxi Altuna euskaltzainak atondu Mendibururen idazlan argitaragabeak. Kardaberaren lanei bagagozkie, berriz, LGEVkoek bere lan guztien edizio faksimilea atera zuten 1973an, eta *Euskararen berri onak* behin baino gehiagotan eman da argitara, tartean Dodgsonek 1898an edota Antonio Zabalak Auspoa bilduman ateratakoak. Pascual Iturriagaren alegiak ere aiseki eskuragarri dira, bai eta merke, geroz eta geldoago ateratzen ari den EEEn «Klasikoak» sail berdexkan. Piarres de la Vieuxville Baionako apezpikuaren doktrina ere arrot eskuragarria da Euskaltzaindiak duen egile klasikoen sailean, Villasantek apailatua 1985ean atera zena. Eta, azkenik, Mogelen lanak aipa daitezke. Bizkaiera klasikoaren sortzaileetakoa izan zen Eibarko Juan Antonio Mogel Urkiza Markinako apezaren libururik ezagunena *Peru Abarka* dugu duda-izpirik gabe; alabaina, beste lan batzuen egilea izan zen, tartean, gure egunotan argitaratu diren dotrina pare bat, Villanteren eskutik bata 1987an eta Adolfo Arejitaren eskutik bestea 1994an -baita Bonaparteren ondareko bilduman ere-; NUPen dagoen Mogelen lana, berriz, honek gipuzkeraz taxutu zuen aitortzari buruzko tratatu luzanga eta bikoitza da, *Confesio ta comunioco sacramentuen gañean eracasteac* izenburukoa, Iruñeko Ezkerroren alargunaren etxean 1800ean agertua, eta edizio berririk oraindaino izan ez duena.

Eskuratzeko zailagoak diren testuak, ordea, eta horregatik aldi berean ere ezezagunago jarraitzen dutenak, Xuriorena eta Voltoirerena dirateke. Mitxel Xurio Azkaineko Martzeenian jaio, Donibane Lohitzuneko erretorea izan, eta zeregin hartan 1718an zendu zen, Villasantek dioenaren arabera, santu ospe itzelean -alabaina egungo aita santuak kanonizatzen ez badu, nekez izanen dugu santu lapurtar berririk-. Xuriok Kenpisen *Jesu-christoren imitacionea* itzulikatu zuen, hil osteko 1710ean Bordelen atera ziotena. Ez da, aldiz, Kenpis sonatuaren lehenbiziko euskal aldaera, bada, bai Pouvreaux lehenbizi bai Aranbillagak geroago, biek itzuli baitzuten. Pouvreauxen itzulketa ez zen bere garaian argitaratu, eta Parisko liburutegi nazionalean gorderik egon da Hordago-Lur argitaletxeok estreinako argitalpen berantiarra agerrarazi zuten arte, Satrustegiren hitzaurre batekin eta guzti, faksimileen bilduma hartan ohikoa ez zena. Hortaz, euskarazko *Kenpisa* karrikaratu zuen lehenengo itzultzailea Ziburuko erretorea zen Aranbillaga aheztarra izan zen, Baionan 1684an. Halaz guztiz, literatura klasikoaren ikerle gehienak bat datoz Xurioren liburuaren dohainak goraiatzeko.

Voltoireren liburua aipatu altxorretan goretakoa genuke, alabaina komunzki uste dena baino askozaz ere ezagunagoa izan da, eta edizio berri ugari egin dira liburuxka hirukoitz horren kontura. Jatorrizko liburuaren izenburua *L'interprète ou traduction du François, espagnol et basque* dugu, eta Voltaire izenekoak eman zuen argitara Lyongo Royer baitan XVII. mendearen lehenbiziko laurdenean. Vinsonek bigarren ediziotzat aurkeztu zigunak euskaraz taxuturiko izenburua darama, *Tresora hirour lenguaietaqua, francesa, espagnola eta hasquara, obra ona eta neceffaria nore defiracen baytou eran den lengue horençat*, eta Baionan agertu zen Frantzes Bourdot liburugilearen etxean 1642an. Orduz geroz, XVII eta XVIII. mendeetan behin eta berriro eman zen argitara, beste liburu hobeagorik ezean bere erabilgarritasunaren seinale. Pasa den mendeko 1845ean ordea, eta Voltoireren lana zaharkiturik erabat geratzearekin ber, asmo ikertzaile zein bibliofiloeekin eginiko lehenbiziko edizioa plazaratu zen Parisen Bruneten eskutik, *Anciens proverbes basques et gascons, recueillis par Voltaire*. XX. mende honetan, ordea, hiru izan dira egin diren lan horren edizioak, Xabier Kintanak 1971ko *ASJU* aldizkarian, Joseba Andoni Lakarrak 1995-1996 urteetako ber aldizkarian, eta azkena, aurten berean Xarritonek-eta Baionan atera dutena.

82. Zakarias Lekunberri toreatzaile bizkaitarra (1886-1960)

2001.1.19

Ez dira gutxi historian zehar Euskal Herriak eman dituen toreatzaileak; dena dela, Zakarias Lekunberri bezalako toreatzaile xebreak gutxi izan dira gurean: marinel bipila, toreatzaile ausarta eta euskaldun zintzoa.

Zakarias Lekunberri Sagastume Busturia aldeko Muruetan jaio zen 1887ko azaroaren 5ean. Gazte zela kresala urrinak erakarririk itsasoratu zen marinel. «Mundaka» izeneko ontzian lehenbizi eta «Nemrod»-en geroago, hamaika harat-honat egina zen Lekunberri, bereziki Galdakaotik Sevillara dinamita garraiatzen. Sevillara joan zen batean zezenketa kurios baten ikustea egokitu zitzaion. Segur izeneko aberats mexikarrak eta Algecirasko Morenitok elkarrekin eginiko zezenketa hain zuzen ere. Ikuskizun aztigarri hark zeharo kitzikaturik, geroztik toreatzea baizik ez zuen izan buruan Lekunberriek, eta hortaz, ametsi ezin gehiago eutsiz, Andaluziara hurbildu zen beste batean itsasontzitik eskapi eginik bertan geratu zen bizkaitarra torerogai.

Lanbide berria Luis Ríosen zezendegian topatu zuen, zezentzain, toreatzearen sekretuak ikasten zituen bitartean, kapeaz kapea joaki. Beharreko ikasketak eginak zituela iritzirik Bizkaira itzuli zen, estreinako zekorketa Indautxun egin zuela, 1909ko urriaren 24an. Jendaurrean eginiko lehenbiziko agerraldi hura aintzagarria izan zen. Hil behar zuen lehenengo zekorrak hiru zaldi kalitu zituen eta Lekunberri bera ere airetatik bota zuen zilipurdika zekorra hiltzera zihoanean; belarri bat irabazi zuen baina. Dena den zekorketak iraun zuen bitartean gero eta indartsuago botatako erauntsiak bertan behera geldiarazi zuen ikuskizuna. Orduetik aitzina, Lekunberriek eginiko zekorketak asko izan ziren, eta esate baterako 1911n hogeita hamar bat alditan toreatu zuen. Alabaina, zetozen urteetan gero eta urriagotan kontratatu zuten, eta 1918an Irunen, Donostian eta Bilbon bakarrik toreatu ostean tximaia moztu zuen zezenen aurrean toreatzeko alternatiba hartzeke. Itsasora itzuli zen orduan. 36ko gerratean faxisten aldean lerratu zen. Ez zuen eragozpen handirik bada faxistei armak eta soldaduak batetik bestera bere itsasontzian eramateko. Behin gudaldia amaiturik Queipo de Llanok kondekoratu zuen. Zenbait urte beranduxeago, García Vilariño jeneralak berriz ere kondekoratu zuen, bere izena bera zeraman itsasontzia pilotatzen zuenean.

Urteetan sarturik, eta gazte zeneko txaloak berrentzun nahirik, sorterrian toreatu zuen hartzara 1949an bertako katekesiarentzako zein udal pilotalekuarentzako dirua ateratzearren. Egun hartan Bizkaiko apezpikua bera bertaratu zen,

eta ohi zuen legez, euskaraz eskaini zuen zekorra: «erriagaitik eta bertoko emakume galant guztiak gaitik». Zekorrak hartu eta saihets pare bat hautsi zizkion muruetarrari. Huraxe bere azken aldia zatekeen zekorren aurrean jartzen zela. Urte zenbait beranduago, 1960ko abuztuan, Kanarrietatik «Pedro de Valdivia» bere azken itsasontzian Bilbora bueltan zetorrela zendu zen bihotzekoak jota.

Zakariasen pasadizo xelebreenetakoa Nafarroan gertatu zen. Korellako neska batekin maitemindu zen, alabaina haren gurasoei ez zitzaien sobera laket alaba toreatzaile batekin elkartzea eta harremana zailtze aldera Cintruenigora eraman zuten. Hori Lekunberrirentzat nahikoa zailtasun gertatu ez zenez, neska Zaragozako lekaidetxe batera eraman zuten. Halarik ere, eta Bartzelonan zekorketa zuela profitatuz, toreatzaile bizkaitarrak bere maiteari egin zion bisita errromesez jantzirik. Ateko moja azkarrak, jakinaren gainean egonda, komentuan sartzea debekatu zion, eta ikusirik Lekunberri tematzen zela Guardia Zibilari abisua emanen ziolako mehatxuarekin izutu zuen. Zenbait urte beranduxeago, alabaina, Teresarekin ezkondu zen, bere itsasontzi bati izena emanen zionarekin hain zuzen ere. Kasualki ere, itsasontzi hura hondora joan zitzaion Lekunberri.

Lekunberri esan diren aunitzetatik ausaz Unamunok esana dateke Muruetakoa hobekien definitzen duena, edo behinik behin guri gehien gustatzen zaiguna: «*el gran busturiano Lecumberri, que según lo que me han explicado, pues yo no lo he visto torear, torea en vascuence, sin traducir*».

83. Ele txotxak!

2001.1.26, 2001.2.2

Honezkero sagardo garaian labaindurik txotxetik edateko urrupada labur ugariak dastatzeko garaia dukegula, zerk eragoz gaitzake idatz kontuetan ere edalontzia eskuan, zutik eta kupela txorrotan lagun eleak txurku-txurku kolpeka ber moduan edateko?

Jamar anaiak (1900, 1896)

Jamartarrak ez zaizkigu komunzki nafartzat eskaini, baina baziren, Artzi-barkoak hain zuzen ere. Joakin Jamar Domenetx Nagoren sortu zen 1832an. Eliz ikasketak bukatzeke Donostian kokatu zen eta ekonomia eta industria ikasketak burutu zituen. Gai horiez zenbait idazki ondu zituen, baita Suezeko pasabidearen aldeko bat ere. Pasabideari buruzko idazki bat baino zerbait gehixeago eginen zukeen baina, bada 1869an inauguratu zenean hara joan zitzaigun Egiptoko Jedifeak gonbidaturik. Arras ekonomialari ona izan zen, eta idatzi zituen liburuen artean beste hizkuntzetara itzuli eta zabaldu zenik bazen. Pasaiako Sociedad Generalaren idazkari eta Gipuzkoako diputatu zenak Gipuzkoako foruen aldeko liburua idatzi zuen, *El fuero de Guipúzcoa: la cuestión social*, Bilbon, Fermin Herranen liburutegi euskaldunean, 1900ean ageri zena. Liburua hiru zatik egin da, «*Lo que es el fuero y lo que se deriva del fuero: estudio político sobre el fuero de Guipúzcoa*» ikerketa nagusia; «*La cuestión social*» Donostiako Ateneoan 1879ko martxoaren 15ean ogutzi hitzaldia; eta bukaerako «*La lotería y el ahorro*» burutapen laburra. Joakin Jamar Donostian zendu zen 1887an.

Anaia txikerra, Joakin Benito Jamar Domenetx Nagoren sortu zen halaber, 1848an. Donostian ere ibili zen, hango *La Voz de Guipúzcoa* egunkariaren zuzendaria izanik 1898ko ekainaren 20an hil zen arte. Bilintx bera ezagutu eta lagun izan zuen Jamar honek euskal testuen antologia apailatu zuen 1896an, *Biblioteca selecta de autores vascongados*, hirurogeita hamahiru olerkiko bilduma, Vinsonek berak aipatu ziguna:

«*Ce sont pour la plupart des compositions, faites, depuis vingt ou trente ans, par des ecclésiastiques ou des amateurs du pays dont l'éducation était purement française ou espagnole. Parmi elles, j'ai remarqué la pièce Andregeya du regretté Edmond Guibert*».

Euskalari militarrak (1923-1931, 1963)

Eufrasio Munarritz Urtasun infanteriako teniente koronela zenak «*El vascuence en la vieja Navarra*» izenburuko artikulu mamitsua eman zuen argitara RIEV aldizkarian 1923 eta 1924 urteetan:

«*Repasando antecedentes relacionados con Navarra en el archivo Histórico Nacional recibí con grata sorpresa al ver testimonios de que se hablaba vascuence en pueblos en que nadie recuerda que se haya hablado, y para que el curioso pueda cerciorarse si gusta de la verdad de cuanto voy a decir pondré toda clase de detalles y datos que facilitarán su comprobación*».

Gauza ezaguna bada ere, soberan ez da lantzean behin gogora ekartzea jarraianikoak bezalako herriak euskaldunak izan direla izan: Lizarra, Lezaun, Iturgoien, Munarritz, Jaitz, Eneritz, Orkoien, Etxauri, Artazu, Biguria, Ororbia, Barasoain, Muniain... Ez zen RIEV-eko artikulu hori Munarritzen lan bakarra, eta orobat bi eleberriren egilea izan genuen: *Leoz el marino* (1930) eta *Miguel de Iturbide* (1931).

Joakin Morales de Radarena gutxitan aipatzen den beste izen horietakoa dugu. Aingeru Irigaraik *malogrado coronel* deitu zuen korellar honek Nafarroa euskaldunaren egoera linguistikoa zehatz-mehatz ikertu zuen 1961ean. Ikerketaren emaitzak «*De re vasconica*» artikuluan agertu zizkigun bi urte beranduago *Munibe* aldizkariaren lehenbiziko zenbakian.

Gaitariak (1902)

Lizarrako udalak 1902ko irailaren 13an gaitaren zerga ezarri zuen, hau da, hirian jairen bat musikaz alaitzen zuen edozeinek bost pezeta ordaindu behar zion udalari festegun izatekotan, eta laneguna zenean, ordea, zerga 50 pezetetarraino loditzen zen. Zerga horrek edozein motatako musikari men egiten bazion ere, gaitariak izan ziren kaltetuenak, izan ere, urte haietan gaitariena merkeena gertatzen baitzen, eta badirudi, hori zela eta, gaiteroak zituela buruan Lizarrako Udalak. Nonbait udalak ez zuen gogoko lehen zeuden festegunen kopuru handia, eta musikaren kontratazioa zailduko zuen akordio horrekin hori ekiditea pentsatzen zuen. Esan gabe doa alferrik gertatu zela, festazaleek berean jarraitu baitzuten sakelak hustearen truke bazen ere.

Simonena medikua euskalduna ote? (1890)

Antonio Simonena Zabalegi Iruñean jaio zen 1861ean. Medikuntza ikasketak Bartzelonan egin ostean mediku jardun zuen Erratzun 1891ra arte. Baz-

tandik Santiagora eta handik Valladolidera joan zitzaigun orduan, 1907an Unibertsitate Zentralaren katedra erdietsi zuela. Madrilen geratu zitzaigun bada 1941ean zendu arteraino. Argitara gabe dirauen giltzurrunaren eritasunen inguruko tratatu baten egilea, politikan ere sartu zuen musturra, eta Batasun Katolikoaren senatari jardun zuen. Simonenaren biografiari jarraiki ezin dugu esan garbikiro euskalduna izan zenik. Erratzun labur egon izana nahikoa frogaz ez baita.

Badugu, ordea, horren frogatzeko testigantza, euskarak XX. mende hasieran Iruñean zuen indarraren lekukotasuna azken buruan. Baztango idazkaria izan zen Manuel Irigoien Olondritz aniztarrak *Noticias históricas y datos estadísticos del noble valle y universidad del Baztán* izenburuko liburua eman zuen argitara 1890ean Iruñean. Nafarroako liburutegi nagusian gordetzen den alea Simonena osagilearen liburutegitik hartua bide da, ez dakigu zein bidetik horretara iritsia baina. Edozein modutan ere, lehenbiziko orrialdean Irigoienek berak izkiriaturiko eskaintza badugu, euskaraz, Simonena medikuari egina, tamalez, liburu osoan agertzen zaigun euskarazko pasarte bakarra, eta dudarik gabe, Simonena euskalduna zelako nahikoa frogaz gertatzen dena.

Mutuberria (1902-1912)

Atanasio Mutuberria katolizismo soziala Nafarroan abian jarri zuen pertsona dugu. Tafallan 1865ean jaioa, Zaragozako josulagunen ikastetxean ikasi zuen sorterrira itzuli aitzin. Aita zurgina bazuen ere, sendia aberastu zen eiki herentzian hartu zituen Tafallako zein Kaparrosoko lur zabalei esker. Leon XIII.a aita santuak jaulki *Rerum Novarum* eta *Graves de Communi* entzikliketan oinarriturik lan itzela egin zuen Tafallako Kristau Zentrotik; dena dela, bere lanik ezagunena Joakin Zalduendo apaizak sortu Nekazaritza Kutxaren inguruan egin zuen. Komunzki Mutuberria kutxa horren sortzailetzat jotzen bada ere, lehenbiziko zuzendaria izan zen 1902az geroz. Tafallako Kutxa, bestalde, Nafarroan martxan jarri zen lehenbiziko kutxa izan zen, Yoldiren eta Flamariqueren ahaleginen aitzinetik naski. Politikoki, ordea, Mutuberria integrista izan zen, eta Alderdi Integristaren izenean zinegotzi jardun zuen Tafallako Udalean 1906-1910 urte bitartean. Sorterrian 1913an zendu zen.

Idazle ere bagenuen izan Mutuberria tafallarra. Bere lanen artean Aurrezki Kutxaren araudia bera aipa daiteke, *Estatutos y reglamento de la Caja de Ahorros Agrícola de Tafalla precedidos de un informe sobre proyectos de los mismos*, Tafallako Valerio Albenizenean agertu zena, 1902an. Interesgarriagoa da 1904ko urriaren 20an estreinakoz atera zuen *El Labrador* astekaria, apaizek idatziriko ne-

kazaritza gaien argitalpena, 1905eko irailaren 7ra arte berrogeita zazpi zenbaki izan zituena. Halaber Mutuberria ezaguna da 1912an Iruñeko Aranbururenean *Mirando al centenario de las navas de Tolosa* mito historikoaren zazpiehugarren urteurrena zela-eta egin liburuarengatik, topikoz beteriko lan tipikoa hain zuzen. Ezezagunagoa da baina 1909an argitara eman zuen *Patronatos de la mujer* idazkia. Bertan emakumeen aldeko jarrera sustatu zuen, gizonen eskubideak defendatzeko hamaika erakunde sozial egiten zen une haietan emakumeen eskubideekin ber gauza egiteko bat ere sortzen ez zelako asaldaturik. Emakume langileen beharren inguruan aritu zen Mutuberria, baita horien eskubideak bermatuko zituzten erakundeak gizartean txertatzeko formulez ere.

84. Erdaraz izkiriatu zuten idazle nafar bi

2001.3.23, 2001.3.30

Jose Maria Luzaideko (1922, 1976)

Joxemari Iraburu Mathieu erro luzaidarreko iruinsemea erdal idazle aipagarria izan zen, euskal kutsu nabarmeneko ipuin liburu bi argitara eman zituena.

Iruinsemea izanagatik ere gurasoen etorkia bere eginik Joxemari Iraburu Mathieuk luzaidartzat jotzen zuen bere burua, eta hala agertu zuen bere *alter ego*-aren bidez, idazlanak izenpetzeko zarabilen gaitzizena Jose Maria de Luzaide baitzen, Luzaideko Joxemai beraz. Orain dela 102 urte jaioa, 1899ko martxoaren 31n hots, mendeurrena nahikoa oharkabean igaro zitzaigun, ezpada Carlos Mata Indurainek *Pregón* berrituan azaleratu zuen aipamenarengatik. Eskasegi edozein modutan ere. Lanbidez legegizona zen Iraburu idazgintzan egin zen ezagun bereziki, *El Pensamiento Navarro* kazetan eta *Pregón* aldizkarian gutxiz gehien agertzen zituengatik. Horietan atera zituen zenbaiten bilduma orraztuak izan ziren bere bi liburu bakarrak, aipatuak oso suertatu ziren *Boiras* eta *Se vende perro de caza*.

Bigarrenaz denez bezainbatean desagun 1976an eman zuela argitara Iruñeko Gomez argitaletxeak Francis Bartolozziren marrazkiekin. Sarreran egileak dioenez, liburua *Pregón*-en agerturiko 19 ipuinen moldaketa dugu, ahanzturatik salbatzearen. Hutsala izan zen neurri handi batean, ordea, Irabururen asmoa, eta hala ematen du aditzera egunean iruindarron artean Joxemari Luzaidekoak duen ospeak. Hobetzat jotzen bide du Matak Irabururen bigarren liburua, lehenbizikoa atera zenetiko berrogeita hamar urtek idazkintzan hoberako behar dutela irizten baitio Nafarroako Unibertsitateko doktoreak, gaiak zein narrazio teknikak berritzeko balio baitzuen nonbait denboraren higitzeak. Ez gara guttiz bat etortzen, aldiz, baieztapen horrekin. Nabari da bigarren liburua atera zenean Iraburu zahartuxea zebilela, hil-hurren ere bai, beranduxeagoko 1983ko uztailaren 5ean zendu baitzen bere Iruñean, Sanfermin urrinetan. *Se vende perro de caza y otros cuentos* bilduman batasun gutxi da, eta narrazio metaketa dugu haboroxeago, lehenbiziko *Boiras* horrekin hain nabari agitu ez zena bederik ere. Bestalde, gerratea eta segituko diktadura igar daitezke *Pregón*-eko ipuinotan. Beste aunitzek egin bezala, guttiz gustuz ez bazen ere, Iraburu ere irabazleekin lerraturik agertu zitzaigun, freskotasuna, egiazkotasuna eta gaien interesa txipitu zizkiona. Hori da arrazoia geroantzean gure erdal literaturan

nabarmendu ez diren besteekin batera kokatzeko. Bederen euskaraz idatzi izan balu... baina ez zen horretara ausartu.

Boiras titulupean ilki zuen lehenbiziko liburua, orde, interes handiagokoa dugu, euskaldunok bereziki. Liburua 1922an atera zen, Iruñeko Higinio Coronasen etxean. Azpituduluak adierazten duenez, *Narraciones, poesías y comentarios históricos en torno a Roncesvalles*, saski-naski aberatsa dugu sasiluzaidar gazteak eskainirikoa. Matari jarraikiz, Irabururen lana euskaroez irekiriko ildoan kokatu beharra dago, Villosladaren, Campionen, Iturralde Suiten, eta areago, Argamasilla de la Cerdaren zein Rodeznoko kondearen lanekin batera. Matak ez du berrikuntza tematikorik sumatzen horretan, eta ausaz arrazoa du, bigarren liburuarekin hein batean gertatzen den legez Salinasen, del Camporen, del Burgoren zein Garcia Serranoren lanekin erkatzen badugu. Haatik, garaikideek gogoko izan zuten Irabururen lana, Zalbak eginiko sarrerak salatzen duen bezala. Zazpi dira honetarako Iraburuk jaso narrazioak, eta benetako Luzaide baino harantzagokoa ez den balizko euskal hiriren batean kokaturikoak dira zazpiak, poetikotasun hits batez koloreztatuak eta euskararen galerak akuilaturiko egonezak sortutakoak, izan zen eta izanen ez denaren malenkoniak sortutakoak alegia.

Orreagaren omeneko olerkiak soneto dozena bat ditugu, eta atzean historiario hiru labur hauek: «*Roncesvalles, poema histórico del siglo XIII*», «*Nuestra historia y nuestra lengua*» eta «*Comentario de comentarios*». Bigarreanean, bada, Nafarroako historia eta hizkuntzaren gaineko saioa dugu. Bere aburuz, bai bata eta bai bestea egoera ezin okerragoan zeuden Nafarroan, ikertzaileek baizik beste inork ezagutzen ez baitzuen erresuma zaharraren historia, eta euskararen galera aguro zihonan gauza baitzen. Hortaz:

«La historia y la lengua, nuestros dos más ricos tesoros deberían ir ligados a instituciones durables e influyentes como lo son sin duda alguna la escuela y la parroquia».

Lepazar (1933, 1940)

Iruñeko kazeta zaharretan murgildu direnek sobera dakite euskara ez dela guztiz arrotza harako paperetan, eta gutxi bada ere, eskas eta lakar, ezin da esan ageri ez zenik, geure hizkuntzak pairatzen zuen egoera soziolinguistiko kezka-garria kontuan harturik, ohi baino baikorrago izateko arrazoa dena.

Pasa den gizaldiaren lehenbiziko hiru hamarkadetan Iruñeko zatetan euskaraz idatzi zutenen artean *El Pensamiento Navarro* egunkari karlistan 1918-19 denbora tartean ateratako «Euskal idazkuntzak» sailaren arduraduna izan zen

Lepazar aipatu ohi da. Anartean oharkabeen igaro zaigu Lepazar haren nortasuna, haatik, eta hemerrotekan ordu zenbait ematen badira «Euskal idazkuntzak» horiek leituz, aisa atzematen da nor izan zen bere grazia ezkutatzeko Lindus ondoko Lepazar Aurizko toponimoa aukeratu zuena.

Agustin Irigarai Apat Aurizko Porkaxonekoan jaio zen 1873ko ekainaren 15ean. Askazi urruna den Jose Angel Irigarai lagunak esan digunaren arabera *bon vivant* genuen Agustin, iraultzaren garaian Mexikon-eta ibilitakoa. Maria Luz Rangel Heidsieckekin ezkondua, Iruñean zendu zen 1942ko urriaren 17an. Porkaxoneko Irigaraitarrak XVII. mendean Auritzera ezkonduko garaziar baten ondorengoak ditugu. Porkaxonean euskara nahikoa bipilki mantendu zen XX. mende hasieratan ere. Agustinen aita zen Manuel Irigarai Etxebarren, Larrekoren aita zen Ramon herriko maisua bezalaxe, Euskara Elkarteko kideak ziren, eta izen bereko aldizkariaren harpidedunak, bada, gure Agustin gazte zela aukera ederra izan zuen orduko giro euskaltzaleaz jabetzeko. Ama ere plantako euskalduna zuen, Orbaitzetako aetza, Jazinta Apat Maisterra Arrotxapea auzoko Joanjin etxeko alaba. Agustinen arreba zen Felisa, 1869ko maiatzaren 20an jaioa zena, lehengusu tipia zuten Larreko idazle medikuarekin ezkondu zen 1898an, medikua Iruritara hurbildu baino zenbait egun lehentxeago. Bizitoki berria Iruritako Palotegian izanki, Baztango kronikalari jardun zuen Larrekok *La Tradición Navarra* egunkari integristarentzat, erdaraz gutxiz gehien, baina euskaraz zertxobait ere, 1910-11 urte bietan. Ordutik aitzina, eta Martinzur-gineneko auriztarrak zarabilen euskararen kalitatea zela-eta gogoia goibeldu eta bisaia tristatzen zizkieten aurreiritzi guztiak behin gaindituta, egun guztiok ezagutzen dugun euskal idazle handia bilakatu zitzaigun Larreko, besteak beste *Gerla urte*, *gezur urte* egunkari zoragarriaren egilea hain zuzen ere. Ez zen Agustin Irigarairekin era berean gertatu.

Gorago esan bezala, eta Lepazar ezizenaren azpian, Agustin Irigarai *El Pensamiento Navarro*-n 1918ko ekainaren 13tik 1919ko abendura bitartean atera zen «Euskal idazkuntzak» sailaren arduraduna izan zen, baita egilerik maratzena ere, bada, nahiz «Euskal idazkuntzak» kolaboratzaile aunitzen emaitza izan zela non edo non esan den, egia esatera, funtsean bi kolaboratzailearen lana izan baitzen, Irigaraitarrak biak, eta Agustinen ardura bereziki, Lepazarrekin batera Joannes Artzaia edota Adi ezizenak zarabiltzan arren. *El Pensamiento Navarro*-n ez zuen, berriz, euskarazko kolaborazio hura soilik egin, hango erredakzioan kazetari baitziharduen, eta horren kariaz, naski, bereziki erdaraz idatzi zuen Agustin Irigaraik, eguneroko prentsa idatzian zein karrikara eman zituen liburu parean. Berriz ere, euskal idazlea galtzearekin batera, Agustinek berak ere his-

torian hagitzez ere ezagunagoa izateko aukera paregabea galdu zuen. Euskarak eskertuko zion bada, eroso eta zalu baitzerabilen etxeko ama hizkuntzan.

Moldetatik ilkiarazi zuen lehenbiziko liburua *Estampas del Pirineo* izan zen, gauza kurioa gisa, azalean hiru edizio leku ematen dituena, Madril, Donostia eta Iruñea, geure kasuan, argitaletxearena Bescansa etxeari zegokiona. Ororbiko semea zen Manuel Artze Otxotorena orduan Zamorako apezpikua zenari eskainiriko liburu txikerra dugu honakoa. Sarrera labur baten ostean, hogeita bi kapitulutan Aurizko bizitza dakarkigu, baita Nafarroako armarriaz zein banaketa geografikoaz burutapen zenbait ere. Interesekoak dirateke testuan barrena han-hemenka agertzen diren Aurizko argazki zaharrak, egun euskara bezala desagerturik dauden hainbaten lekuko. Euskararen agerpena ere liburuan bada, eskasa oso baina, esaldi gutxi batzuk eta bertsoen bat. Irigarairen bigarren liburua goiburu bitxia darama, *De buzo a general: odisea de un navarro*, Iruñeko Bescansa etxeak egina ere bai, 1940an. Hilario Yabenek prologatu zion honetan lurrun itsasontzi batean langile izatetik iraultza mexikarraren ofizial izatera iritsi zen pertsonaia baten zinak eta minak kontatu zizkigun, ausaz, kontu autobiografikoak daitezkeenak.

85. Zezenarenak

2001.7.6

Kapoteatzen

Harrapatzen bazaitu, harrapatzen bazaitu... Zezenak dira, zezenak, eta bago inoiz baino usuago ari garela aitzakia bila. Kotxeritotzen ari ote gara? Apika. Jeltzaleek tradizionalki zezenketei aitz eman zizkiguten arrazoiak hutsalak ziratekeen, alabaina helburua ona bazen zertara uxatu, zertara undastu eta funtsgabetu? Geure Jose Agerrek argiki zioskun 1915ean: «Iruñan egun autan ez da zezenketak bertzerik entzuten, zezenketak goitik, zezenketak beitik, oro zezenketak ta ikuskari au atsegin ezaionak ez du jakiten nora jo». Baita errepi-katu 1916an ere: «jaiak zezen zalientzat bai, guretzat ordean ola ala, an zezenak baizik ez da ta». Eta ez zebilen egiatik sobera hastandurik, egia esatera, nahiz 36an frankistek nola edo hala domatu ostean entzierroaren aldeko sutsu agertu zitzaigun: «emen jatorriz degu zezenen atalka, yendiok jostatzekotz odolik ez da bear, naiz eta den olgeta iñarroskin azkar, zaloimen eta azkua una biok batio, kirol-abiak olderik baita kemen daukio, jokuaren zailduak darakusgu gogor». Urtez urte kalaka bera aditzera kondenatuak baikaude: Sanferminetako ardatza zezenak direla, Iruñean ospatzen dena zezenaren feria dela, zezenari hemen bezainbesteko miresmena beste inon aitortzen ez zaiola, eta abar eta abar eta abar, eta eskerrak. Filusea gero.

Pikatzen

Ezbaia falta da, ordea, nabarmentzekotan gerok nabarmenduko genukeen-na. Bada nor, publikoki eta zintzoki, zezenen inguruko eztabaida aitzineratu duenik? Erantzuna aisa da: ez. Izan gaitezen lehenbizikoak bada. Onargarria da zezenekin egiten duguna? Eutsiko diogu aurrerantzean? Ez zaizkit balio alboko desenkusak, barka. Galderari bere gordinean ihardetsi beharra diogu noiz edo noiz berandu baino lehen, orain bada hobe.

Neu ere zezentzale txepela izana naiz. Erraza bazen izan iruinshemea izanki. Nerabe Jarraikoa nintzela ezin onartuzkoak neritzen, Espainiako festa nazionala diren aldetik. Debuelatodoko gazte sasirakurria nintzela ezin utzizkoak neritzen, aitzineko euskaldunen ohitura diren aldetik. Gazte txartela iraugita hogeita hamarreko gixon pausatuegia naizela zalantzazkoak deritzet, esanahi eta istorioak alde batera utzirik esentziari begira.

On da heriotza zigorra gainditu dugun honetan orain dela urte eskas ere borroera lan faltarik ez zuen funtzionario zela oroitzea, zer gerta ere eta ez oso

urrutian legezko dirauela. Nire liburutegian zezenketei buruzko liburuak baditut, Cossioren edizio laburtua, Luis del Campo zein Iribarrenenak, Fernandez burdinazko torero bizkaitarren historia, edota Nafarroako azkena. Horrek ez du ezertxo ere justifikatzen, ordea. Historia liburuz gainezka baditut apalak, erregetza eta gerrak nekez justifikatzen dizkידatenak.

Banderillak jartzen

Azkeneko aldian pasa den otsailean ikusi nuen, Zaragozako etorbidean, gorputz zimela zezenketen aurkako txartelez jantzirik, besoak helizeak bailiran dantzan, bat-batean hegan hastera bailihoan. Xelebreen galerian azkenetakoa, eta ohitu garen neurrian ia ez dugu ikusten, kristal gardenez egina balitz bezala... Profeta zaharren antzera nekaezin, isilpean beti, bere afixa zaharren euskarri irmo, salatari... Nor ote, eta zergatik? Damuturiko toreroa ote? Pikatzailea akaso? Burtzitzaile itxura ere badu. Kagantxoren behialako laguna ote zen?

Kontzientziaren ahotsa karrika gora eta karrika behera zaigu isilgordeko salaketa zuzenean. Eroari ez dio inork erreparatzen, baina geure baitarik sakonenean arrazoi dezakeelako susmo puntua iziotu zaiguke. Txakurren arteko borrokek asaldatzen gaituzte, baita geureago diren oilar zein antzara jokoek ere. Zezenei emaniko zigorra ikusten dugu, berriz, gizalegea kanpoan utzirik. Plaza ez da jendakiez betetzen, moralgabeturiko gorpu soilez baizik. Gutxik onartuko luke arean agitzen dena, baina inork ez du zalantzan jarriko; intsentsibilizazio hori da, tamalez, min handien dagiena, torturarekin kitto sekularenean eginen ez baitugu.

Muletatzen

Itsu goazi Labrit aldeko koliseumera, askaria kezka bakar. Sosa ederrak kostatzen dituen abonua pasabideetan higitzen du askok. Azken hiru hobenduni jatako urrikirik erakusteke peñakideek nazkako hariak zirriborratzen dituzte makarroiekin eguzkiaren aldeko itzal gordean. Ardoak ere sakralizatzen du sakrifizioa, mezakotu. Bertan gauden guztion konplizitateak anaitzen gaitu hilketan; guztiok hil ditugu zezenak, guztiok gara torero, guztiok errudun. Baita bizkarra emanda axolagabeki beste festan daudela uste nahi dutenak ere, bertan baitaude, bertako baitira, bertara behar baitute ikonoklasta agertzeko, finean bertatik alde ez baitute eginen.

Gogoan dut beste mota bateko sakrifizioa, hilketa onartezina ere egin zelarik, peñakide guztiek zezenketa Takoneran ospatu izana, zezenik gabe, sazerdoterik gabe, odolik gabe, mezarik gabe... Pago berri, ginkgo, ezpel, ezki, hagin,

gaztainondo, arte eta abarren artean, orein, ahuntz, ahate eta paumak lagun. Askari bitartean inork ez zuen bizkarra eman eta askari legean inor ez zen pasabideetara atera. Ez ote zaigu honezkero ohiturak aldatzeko garaia?

Estokeatzen

Aurten ez naiz zezenketara joanen, ez eta entzierro, entzierrillo edo Gaseko tegietara ere. Eta norbaitek ez dakit zein arrazoi klaserekin nire erabakian atzera eginarazi nahi badit, zera esanen diot: betiko tradizioari men eginez Miluzeko zubian urkatuak dilindan ez dauden bitartean nerau bederik ere ez naiz zezenketetara itzuliko. Eta gauza jakina da *mihiluz* azalpenarena Altadillen asmazioa izan zela, Belaskok argitu legez mihilu landarearekin loturikago bailegoke zubiaren izena, tipulatze, marrubitze edota kalamutze bezalako en antzera. Merienda egiteko toki aproposa bada.